


Enseiukarrean

Rosa Miren Pagola
Itziar Turrez
Ion Bediaga
Karmen Isasi

Jose Mari Etxebarria
Gontzal Aldai
Iñaki Gaminde
Juanra Madariaga

Joan Otaegi
Josu Penades
Unai Elorriaga
A. Paloma Rodríguez

11. zenbakia



Deustuko
Unibertsitatea

.....

**Euskal Ikaskuntzen
Institutua**

enfeiu carrear

Enseiukarrean

Enseiukarrean

Deustuko Unibertsitateko Aldizkaria

11. zenbakia

Bilbo
Deustuko Unibertsitatea
1995

Zuzendaritza:

Joan Otaegi
Unai Elorriaga

Erredakzioa:

Unai Elorriaga
Patxo Fdez. de Larrinoa
Koldo Larrea

Joan Otaegi
Igor Varona

Kolaboratzaileak:

Gontzal Aldai
Ion Bediaga
Unai Elorriaga
Jose M. Etxebarria
Patxo Fdez. de Larrinoa
Karmen Isasi

Juanra Madariaga
Joan Otaegi
Rosa Miren Pagola
Josu Penades
Paloma Rodríguez
Itziar Turrez

Batzorde Kontseilaria:

Euskal Ikaskuntzen Institutuko Zuzendaria
Joseba Abaitua
Juan Manuel Etxebarria
Joan Otaegi
Jesús Uranga

Marrazkiak:

Alazne Odriozola

Argitalpena:

Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila
1 Posta Kutxa - 48080 Bilbo
Tfnoa.: (94) 447 03 58 Fax: (94) 447 26 30

Zabalkundea:

Ediciones Mensajero
Sancho Azpeitia 2, 48014 Bilbo
Tfnoa.: (94) 447 03 58 Fax: (94) 447 26 30

Paper ekologiazkoan irarri argitalpena

ISSN: 1130 - 8192

Legezko gordailua: Bl. 1.113-92

Fotokonposaketa: IPAR, S.C.L.

Particular de Zurbaran 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimatzailea: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L.

Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 Erandio (Bizkaia)

Aurkibidea

Editoriala	11
R.M. PAGOLA, <i>Beriainen dotrina</i>	15
Itziar TURREZ eta Ion BEDIAGA, <i>Euskal fonetikaren inguruan</i>	73
Karmen ISASI (Unai ELORRIAGA eta Patxo FDEZ. DE LARRINOAK euskaratua), <i>Euskal lexikoaren historiarako oharrak</i>	83
Jose Mari ETXEBARRIA, <i>Vienako grabazioak. Bizkaiera</i>	93
Gontzal ALDAI, «Becussu» adizkia Barrutiaren Acto para la Nochebuena obran	117
Iñaki GAMINDE, <i>Gatika eta Urdulizko bokalen azterketa akustikoa</i>	125
Juanra MADARIAGA, <i>Agian unibertsoa eta Orduan senditzen</i>	153
Joan OTAEGI, <i>Sinboloa Gandiagaren Elorri-n</i>	157
Josu PENADES, <i>Lauaxeta: Hizkuntzalari eta literaturari buruzko bere adieren zenbait zertzelada</i>	
Unai ELORRIAGA, <i>Bertsolaritza eta poesia</i>	179
A. Paloma RODRÍGUEZ, <i>Leizarragaren «Regueri» gutuna. Azterketa erretorikoa</i>	217



Editoriala

Herri ilun bateko dendarik ilunenean ideiak saltzen zituen gizona egoten zen. Ideia saltzaile bakarra zen nahiz eta ofizioak mendeak izan eta euskaraz idatzitako lehenengo libururako ideia berak saldu. Garaziko abade bat izan zen lehena eta maitasun bertsoena aipatu zionean harrিতa geratu bazen ere, ondo pentsatu eta gero, onartu eta herri iluneko dendariari ordaindu zion. Ez zuen honek, ordea, dirutan kobrazten; kutxa batean sartzen zituen erosle guztien «aportazio» deitzen ziren txanpon txikiak.

Bere dendara etorritako lehenengo taldea, Sarako herritik etorritako gizon multzoa izan zen. Elkarre ederra osotzen zuten eta norbaitek esplikatzen zion lana burutuko zuen Pedro ez zela beraiekin joan; baina herrira bueltatu ahala, batzar batean erositako ideia eskainiko ziotela.

Urteak eman zituen martxa berberean; baina mende honen hasieran, kalitate gutxiko eta mugimendu geldoko denda izandakoa, itxuraldatuta geratu zen. Europatik ekarritako jeneroz hornitu zuen saltzaileak hango espazioa eta interes handiko gazteak hurbildu ziren harengana. J.M. Agirre hura izan zen, agian, mailarik altuena lortu zuena; baina lehenagoko ondarrutar eta lekeitiar abade horiek bidea ireki zioten berbizkudeari. Azken hau agertu zenean, gainera, aportazio kutxaz aparte beste bat jarri behar izan zuen linguistikako aportazioentzako, ordu-artekoak literaturan mugitu zirelako.


Geroztik, lana gainezka izan zuen ideia saltzaileak. Orduan aldizkariak sortu ziren eta hauek ez ziren ideia bakarraren eske etortzen, mila desberdin behar izaten zituzten orri guztiak betetzeko. Georgia, Estatu Batuak eta Afrikara joan zen ideia bila eta kanpotik ere (Alemania, Frantziatik) etorri zitzaizkion artikulua idazteko asmoz.

Nahikoa zahartuta zegoen arren, lanean jarraitzen zuen eta, duela hilabete batzuk, aldizkari berri bateko partaideak ailegatu ziren, zarata

handirik gabe, bere dendara. kalitatea ez zegoen Unibertsitateko gazte haiengantik urrun eta berehala ekin zion lanari. Artxibo guztietan begiratu, txoko ilunenak arakatu, eta izerdi patsetan orduak eman eta gero, topatu zituen literatura eta linguistikari buruzko ideiarik aproposenak.

Lan hura gehiegizkoa izan omen zen agurearentzako eta izerdi horren hozteak edota urteotako nekeak ohera eraman zuten. Ez zen hurrengo egunetan jaiki eta, jakina, berak bakarrik gobernatzen zekien denda itxi behar izan zuten. Idazleek, ardura handiz, sendagile bat bidali zioten eta etxeakoandreak beste bati deitu zionez, biok egin zuten topo gaisoaren gelan. Azterketa sakon baten ostean, bien iritzia bat izan zen eta idazleen osagileak aportazioak gordetzen ziren kutxak ekartzeko eskatu zuen. Beste medikuak aportazio zaharrenak luzatu zizkion; baina honek, gaisotasuna aski grabetzat hartuta, berrienak ere emateko esan zion. Astiro bustiz, infusio antzeko bat prestatu zuen; baina osagai inportante bat falta zitzaien: Hitza. Ez nolanhiko hitza, ostera, ahozko berba naturala behar zuten. Idatzitakoa sobera zeukaten; baina, gehienetan bezala, hura bezain garrantzitsua zen ahozko jarduna ahaztuta geratu ohi zen. Honela bada, etxeakoandreak amari deitu eta herriko hizkeraz esandako esaldi soil batekin, egoki bihurtu zuten edabe magiko hura.

Hango ura edan eta gero, egun gehiago eman zituen ideien maisu zaharrak ohean, baina apurka-apurka osasuna eta lana berreskuratu zituen. Hilabete baten buruan, berriro ere bildu ziren mediku biak, kasu honetan, saltzaileak hala eskatuta, ideien dendan. Bere egoera ikertu ondoren, berriz ere, biak ados jarri ziren: Aportazioz eta hitzez egindako edari horrek hilezkor bihurtu zuen.



Beriainen dotrina

Rosa Miren Pagola

SARRERA

Garrantzitsua izan da nafar idazleen ekarria euskal literaturan, literaturaren kontzeptua testu idatzietan oinarritzen dugun neurrian behinik-behin. Nafartarra izan zen Etxepare, Seigarren Merindadekoa, eta nafartarra Axular, XVI. eta XVII. mendekoak, jarraiberean. Nafartarra izan zen, maila apalagoan noski, Juan de Beriain ere, kronologikoki beste bien artean kokatzen delarik¹. Edonola ere, Juan de Beriainen lana apaltzat jo dugun arren, ospetsua izan zela esan daiteke, ez bait du edozeinek Aita Larramendiren lanetan aipatua izateko ohorea Juan de Beriainek izan zuen bezala; ez, agian, lanagatik beragatik edo lanaren literatur balioagatik, baina bai euskalkiagatik edo haren hizkeraren zenbait bereiztasunengatik².

Nor izan zen, ordea, Juan de Beriain? Aski zehatzak eta ezagunak dira haren bizitzari buruz eman diren datuak eta ez dago berriro hona ekartzen ibili beharrik. Nafarroako Utergan, Iruñetik hegoalderuntz hurbil dagoen herrian, 1566 urte inguruan jaio zen eta Utergan bertan

¹ Sancho de Elsoren *Doctrina Christiana y pasto espiritual del alma para los que tienen cargo de almas y para todos estados, en castellano y vascuence*, Adrián de Anversen etxean, Lizarran, 1561. urtean argitaratua, izango litzateke lehenengo dotrina euskarara itzulia, eta hau ere nafartar batek egin noski; halere, alerik gelditzen ez denez, ezin daiteke goikoekin batera ezarri. Ikus, dena den, hainbestetan aipatzen den dotrina hori argitaratua izan zela ongi frogatzen duen artikulua: José Goñi Gaztambide: «Sancho de Elso y su Catecismo bilingüe: nuevos datos», *FLV* 68, (1995), 7-22.

² Hemen argitaratzen dugun «Dotrina»ri buruz *Diccionario trilingüe*ko «Sarreran» (1853, XXXI) eta *Corografía de Guipuzcoan* (1882,67) mintzatzen da.

hil zen 1633. urtean³. Ez dakigu, halere, non egin zituen ikasketak eta zein harreman izan zuen Euskal Herriko beste tokietako euskaldun eta idazleekin, zehaztasun hauek asko lagunduko balukete ere darabilen hizkera sendoago finkatzeko.

Bestalde, Iltzarbe bailara euskalduna zenaren dudarik ez dago, horren lekukotasunak ugariak bait dira⁴. Dena den, Beriainek, euskaraz idazten duenean, ez du bere herriko edo bailarakoentzat bakarrik idazten, helburu zabalagoa bait zuen, elizbarruti osoa, alegia. Hortik dator kio, gainera, testuak elebidunak idatzi beharra:

«Doctrina Christiana escrita en Romance y Bascuence, lenguajes de este Obispado de Pamplona»⁵.

³ Aita Anselmo de Legardak zenbait hipotesi eta datu aurkeztu zituen honako lan honetan: «El licenciado Dn. Juan de Beriain, abad de Uterga y escritor vasco», *BAP* XIV (1958), 17-37. Geroztik, F. J. Oroz Arizcurenek miaztu izan ditu Uterga eta Beriain herrietako elizako artxiiboak eta zenbait ondoriotara iritsi: «Dónde nació Juan de Beriain, Abad de Uterga?», *ASJU* XV (1981), 159-164. Azkenik, Jose Maria Jimeno Juríok beste artxiiboetara zabaldu du bere ikerketa lana eta hagitz ongi finkatua uzten du idazlearen jatorria, bizitza, senitartekoekin izan zituen harremanak, Beriainen presentzia herrian eta garaiko gizartean ere. Lan honi esker, Beriainen irudi fisikoa erabat liraina ez zela ere jakin badakigu. J. M. Jimeno Jurío: «Juan de Beriain, escritor vasco de Navarra (Uterga, C. 1566-1633)», *FLV* 52, (1988), 241-265.

⁴ Euskara erabiltzen zela inguru horietan ongi frogatzen da Erdi Arotik hasita jasotzen diren testigantza ugariekin. Gure idazlearen deituraren jatorrizko herrian, hona jasotzen dituzten zenbait lan, Erdi Arotik hasita: F. J. Oroz Arizcuren: «Rastreando en el archivo parroquial de Beriain. Beriain y su situación diglósica en 1276», *Memoria L. Mitxelena Magistri Sacro*, ASJUren Gehigarriak, XIV, 1991, 67-78. K. Mitxelena: «El vascuence en Beriain», *BAP* 14 (1958), 263-264. Utergako testigantzak jasotzen dituztenak hauek dira: J. M. Satrustegi: «Promesa matrimonial del año 1547 en euskera de Uterga», *FLV* 25 (1977), 109-114; 26 (1977), 259-270. Anselmo de Legarda Aitak, goiko oharrean aipatutako lanean ematen ditu datuak eta, horiez gain, beste honetan ere bai: «El vascuence en Uterga», *Geografía histórica de la Lengua Vasca* (siglos XVI al XIX), Colección Auñamendi, Zarautz, 1966, 138-140. Edonola ere Uterga Obanos ondoan dago eta, beraz, Garesetik hagitz hurbil, eta badakigu, Bonaparteri esker, Garesen XIX. mendean euskaraz egiten zela; ez gera harritu behar, bada, Beriainen garaian, XVII. mendean, Jimeno Jurioren artikuluan agertzen den bezala, elebakarrak izatea Utergako herrian, gazteleratik euskarara itzuli beharra izaten bait zuten herrikoek uler zezaten.

«La población de Valdizarbe Valdorba y Val de Aibar era euskaldún entonces, y lo seguiría siendo hasta el siglo XIX.» [...] «Los visitadores diocesanos prescribían a los abades y vicarios que explicaran el evangelio y enseñaran la doctrina cristiana y oraciones de la iglesia «en vascuence», «en lengua bascongada», «en lengua vulgar»; así consta en in finidad de libros de cuentas parroquiales durante los siglos XVI al XVIII». Jimeno Jurío (1988, 261).

⁵ Dotrinaren izenburua. Aurrerantzean, liburu honi buruzko aipamenak DC siglaz egingo dira.

Eta aurrerago:

«Escribo en Romance, y Bascuence, lenguages deste Obispado. Lo primero, para que cada uno en su lengua la pueda entender: porque de otra suerte no es posible saberla».⁶

Eta ez zen hori baieztapen erretorikoa. Bi hizkuntza ziren banaketa diatopikoz hedatuak, baina banaketa mota hori ez zen bakarra, egoera elebiduna eta diglosikoa ematen bait zen, Beriain beraren hitzetatik jarrai daitekeenez:

«Lo mismo passa agora, que si los que solo saben Romance se hallan en un sermon, que se predique en Bascuence, ò los que solo saben Bascuence en un sermon de Romance, claro està que no entienden lo q[ue] se les dize, [...] es cosa muy lastimosa, que aya tanta multitud de los que solo saben Bascuence, ò solo Romance ...»⁷.

Honekin agertzen zaigu, beraz, gizartea elebiduna zela, baina biztanleak ez zirela, orohar, elebidunak, elebakarrak baizik, ezin daitekeelarik zehatz neurtu egun ditugun datuekin zenbateraino zabaldua zegoen herri euskaldunetan gazteleraren erabilera⁸.

Nolanahi ere, Beriainek bere burua justifikatu beharrean ikusten duela dirudi euskaraz ere idazten duelako. Bi hizkuntzak darabiltza eta jokabide horren arrazoiak azaltzen ditu, baina ez bientzat berdinak.

Lehenengo dio hizkuntza bietan idazten duela bakoitzak berean ulertu ahal dezan dotrina:

«Escribo en Romance y Bascuence ... Lo primero, para que cada uno en su lengua la pueda entender».

Aurrerago, ordea, dio:

«Lo segundo escribo en Bascuence, porque no ha avido nacion en todo el mundo que no se ayapreciado de la lengua natural de su patria y de enseñarla en las escuelas a leer y escribir»⁹.

Alde batetik, esan bezala, dotrina euskaraz idaztea justifikatzen du, ematen dituen arrazoietan euskararen harrotasuna eta euskara gorde beharraren kezka soma badaiteke ere zeharbidez. Ondorioz, egoerak

⁶ DC «Al lector» atalean, pajinatu gabea.

⁷ DC, «Al Lector» atalean.

⁸ Ez dira, gai honi buruz hitz egiten dutenean, hagitz objetiboak izaten gazteleraren presentziaz mintzatzen direnak; aski esanguratsuak dira, esaterako, XVIII. mendean «Proceso entre los receptores eclesiásticos vascongados y romanizados» izeneko auzian ematen diren argudioak. A. Irigaray: «Geografía lingüística de Navarra», *Riev* 26, 1935, 604. or. eta hur.

⁹ Bi aipamen hauek DC «Al lector» ataletik hartuak dira.

ez direla berdinak ere ageri da, gaztelerak ez duelako justifikazio beharrik, bai, berriz, euskarak. Hau da, ikusten da euskaraz idaztearen defentsa egin behar duela, ez, aldiz, gaztelerarena, egoerak ez bait ziren berdinak, ez hizkuntzen garapenean, ez eta, ziurrenez, hizkuntzekiko jarreretan ere.

Dena den, esaten dituen hitzetatik euskaldunak elebakarrak zirela atera badaiteke ere, kontraesanean jausten da dioenean bere euskara zerbait ulertzen ez duenak zer egin dezakeen:

«... y quando a alguno le pareciere, que en algunas cosas no se entiende, delo que escrivo en Romance puede sacar el bascuence que se usa en su tierra»¹⁰.

Euskararen alde egiteko eta euskara maitatzera bultzatzeko Erromako idazle ospetsuen itzalez baliatzen da, bidenabar eta ezarian bezala euskararekiko euskaldunen axolagabekeria salatuz:

«No puedo dexar de maravillarme, dize Ciceron, de ver cosa tan desacostumbrada, por ser contra toda razon, como es no preciarse cada uno de su lengua natural.

Segun esto, razon es que nosotros estimemos nuestra lengua Bascongada: porque cosa cierta es, que quiso Dios se repartiessen las lenguas tantas, y tan diferentes como ay en tan diversas partes del mundo»¹¹.

Euskararen apologia ere egiten du garaiko ideiekin bat etorriz, Tubalimoaz batetik, eta garai batean euskara Penintsula osoko hizkuntza zela eutsiz bestetik:

«Tubal Hijo de Iaphet, que fue hijo tercero del justo, y perfe<c>to Noe, hablo, y enseñò en este Reyno la lengua de Bascuence, y despues acá hasta el dia de oy, se ha conservado en la muy noble Ciudad de Pamplona, y en toda la tierra Bascongada»¹².

Ezagun da egiten dituen aipamenetan pertsona kultoa zela eta bere ongi hornitutako liburutegian, Garibay, Poza edo Echaveren liburuak ere ziurrenez izango zituela.

Juan de Beriainen Lanak

Bi dira, ezagutzen direnak, Utergako Erretoreak idatzi zituen liburuak. Lehenengoa 1621. urtean argitaratua, honako izenburuarekin:

¹⁰ *Tratado de como se ha de oyr missa*, «Al lector» ataletik hartua, pajinatu gabea.

¹¹ DC, «Al lector» ataletik hartua.

¹² DC, «Al lector» ataletik hartua.

*Tratado / de como se ha de / oyr missa, escrito en / Romance, y Bascuence, lenguages / de este Obispado de / Pamplona*¹³. Bigarrenak, 1626. urtean argitaratua, izenburu hau du: *Doctrina christiana / escrita en Romance y / Bascuence, lenguajes / de este Obispado de / Pamplona*. Bietan ezartzen du: «Compuesto por el Licenciado Don Iuan de Beriayn, Abad de Uterga». Biak Iruñean argitaratuak eta biak lizentzia berdinarekin: «Con licencia del Real Consejo de Navarra: Por Carlos de Labayen».

Bi liburuak, bada, elebidunak, gazteleraz eta euskaraz idatziak, jarraiberean; dena den, bie ematen zaizkien baimenen testuak gazteleraz idatziak daude eta Beriainek egiten dituen sarrerak ere, bietan, gaztelera hutsez.

Doctrina Christianaren edizioa

Sancho de Elsoren Doctrina argitaratu zenetik, 1561. urtean, Juan de Beriainek berea argitaratu arte, 1626.ean, ez ote zen besterik itzuli eta argitaratu? Ezin daiteke ezetz esan ziurtasunez. Elsoarena, dirudieenez, suntsitua dago, ez bait da alerik agertzen, eta Beriainenetik ale bat baino ez da ezagutzen; beraz, zergatik ez pentsa agian aztarnarik utzi ez duen besteren bat ere egon zitekeela? Dotrinek helburu zehatza eta puntuala zuten, ikastea, hain zuzen, gero, apezek galdetzen zutenean zehatz erantzuteko; horregatik oso erabiliak ziren esku artean. Erabiliaren erabiliz eta materialaren suntsikortasunez, zarpildu, urratu, puskatu eta hautsi egiten ziren, edozein eskola liburu bezala eta areago ere. Bestalde, ez ziren apaletan edo liburutegietan gordetzeko liburuak. Horregatik, edizioak eta emisioak ugariak izan arren eta tiradak ere kopuru haundikoak¹⁴, ez da harrigarria egun muestrarako ere ez gelditzea eta izan ote ziren ere ez jakitea.

Doctrina honi egiten zaion lehenengo aipamena, goian esan den bezala, Manuel de Larramendirena da bere Hiztegiko «Sarreran», «De los libros en bascuence» atalean, deskribapen zehatza egiten duelarik: «3.º Un librito en dozavo con la doctrina cristiana, primero en castellano seguido en ochenta y tres hojas, y despues en bascuence tambien

¹³ Hordagok 1980. urtean, «Euskal Klasikoak» Sailean, edizio faksimila egin zuen; edizio horri falta zitzaizkion zenbait orriren osagarri, ikus: Camino, I.-Lakarra, J.: «Beriain osatuz», *ASJU* 27-3, 1993, 1029-1048.

¹⁴ Esanguratsua eta eredugarria gertatzen da, goian aipatu dugun Goñi Gaztambideren artikuluan esaten dena, hau da, Elso bere Doctrinatik 444 ale bidali zituela Zintuenigora.

seguido casi en otras tantas: una y otra bien sólidamente escritas. Imprimióse en Pamplona año de 1626 con licencia y aprobacion (sic) de su prelado, el Illmo. Sr. don Francisco de Mendoza. Su autor es el licenciado don Juan de Beriain, abad de la parroquial de Uterga.»¹⁵ Larramendik berak, *Corografía de Guipuzcoa* liburuan, zenbait euskalkien deskribapena egiten duenean, Nafarroako hizkerari buruz egiteko Beriainen Dotrina erkatzen du hurrengo mendeen argitaratu zen Elizalderen Dotrinarekin¹⁶. Halere, hurrengo mendeetan ez dago beste aipamenik. XIX. mendean, Julien Vinsonek ematen du dotrina honen berri¹⁷, «in 12.º» neurrikoa dela dio, Larramendik bezala, eta «13» zenbakiarekin aipatzen du. Julio Urquijok zuen Vinsonen katalogoan ohar pertsonalak jartzen ditu¹⁸. Antonio Palauk ere aipatzen du, «279115» zenbakian, Sorrarainengandik jaso duela informazioa adieraziz¹⁹. Pérez Goyenak egiten du deskribapenik osoena «393» zenbakian, «en 8.º alargado» dela dio eta dauzkan atal guztiak seinalatzen ditu²⁰.

Dotrina²¹ 177 orriz osatzen da eta honako atal hauek ditu: lehenengo, izenburua, egilea, urtea eta derrigorrezko lizentzia; ondoren, tasak urte bereko maiatzekoak²², erratuen zerrenda, Aita Jesuita Miguel Guaten —erratua da, Huarte behar zuen, Pérez Goyenak dioenez—, baimena, beste baimen bat, epai-mahai eklesiastikoarena, Alonso Mazok, eskribauak, otsailaren 10ean emana, eta Beriainen eskeintza «A Christo N. S.» eta «Al Letor (sic)»; azken honek zenbakitu gabeko 22 orri eta orrialde bat ditu; bertan Dotrinaren ikasi beharraz eta horren inguruko xehetasunez mintzatzen da, eta zergatik idatzi duen bi hizkuntzetan azaltzen du. Ondotik, gaztelerazko Dotrinaren testua dator,

¹⁵ *Op. cit.* (1853, XXXI).

¹⁶ J. I. Tellechea Idigorasen argitalpena, San Sebastián, (1969, 299).

¹⁷ *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, (1891), Ed. Faksimila, Bilbao, 1983, Vol. 1*, 64-65. or.

¹⁸ Ikus: J. de Urquijo: *Bibliographie de la Langue Basque*, Vol. I y II, Ed. Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo, San Sebastián, 1984, 63-64. or.

¹⁹ *Manual del librero Hispano-Americano*, Tomo 2.º, Barcelona, (1949, 180).

²⁰ Pérez Goyena, A.: *Ensayo de bibliografía navarra, desde la creación de la imprenta en Pamplona hasta el año 1910*, Príncipe de Viana, Pamplona, 1947-1964; aipamena bigarren alean, (1949, 217-218). Dotrina Urquijoren liburutegian ikusi zuela esaten du.

²¹ Eskertzen diogu Ondarruko Erretore Jaun On Jose M.^a Rementeriarri Dotrinaren fotokopia gure esku jartzeagatik; ez dugu orijinala ikusteko aukerarik izan; egiten dugun dotrinaren deskribapena, beraz, fotokopiarena da. Fotokopia honetan hainbat orri zuriz daude, argitalpenaren jarraian, oharretan, seinalatzen dugun bezala. Ez dakigu testu orijinala osoagoa dagoen eta, agian, orrialderen bat gehiago ere ote duen.

Eskertzen diogu Patxi Altuna Jaunari ere dotrinako zenbait pasarte ilun argitzen lagundu digulako.

²² Hiru marabedi pliegoko; *Tratado de Oyr missan*, aldiz, hiru marabedi t'ardi dira pliegoko ematen zaion tasa 1621eko martxoaren 17an.

1. orritik 83. orriraino. Euskarazkoa, 84. orritik 174. orriraino. Honen bukaeran, gazteleraz, «El acto de contrición» dator 175. orrian eta 176. orrian euskarazko bertsioa, 177. orrian bukaera dakarrelarik²³, «Finis» hitzak liburuaren amaiera adieraziz. Euskarazko bertsioa ez da itzulpen hutsa: maiz zenbait kontseilu eta azalpen ematen ditu ulertezazagoa gerta dedin euskal testua.

Gure edizioa

Beriainen Dotrinak edizio bakarra baino ez bait du izan, horixe da ematen dugun testua. Badaude liburuan, bestalde, orriak pajinatzerakoan, zenbait hutsegite edo oker, egiten dugun edizioan aipatzen direnak.

Traskribaketa irizpideak

- a) Liburuaren edizioan aurkitu diren inprenta hutsak testuan zuzendu egin dira eta oharretan forma orijinalak ezartzen dira. Zenbaitetan, erratu itxura osoa ez badu edo forma zuzena den edo ez garbi ikusten ez denean, orijinalakoa errespetatzen da, parentesi artean «sic» hitzaren alboan ipiniz.
- b) Behin edo birritan baino ez dira laburdurak agertzen, eta horietan osatu egin dira, letra osagarriak kortxeteen artean ¶ ipiniz. Beste kortxeteen artean <> jarri dira galdu egin diren edo ongi irakurtzen ez diren letrak eta hitz zatiak, maiz gertatzen dena, bestalde.
- c) Beriainen grafia, orohar, aski trinkoa dela esan behar da, txandaketak eta duda-mudak ugariak badira ere. Guk dagoen dagoenean utzi dugu, aipatuko diren zenbait salbuespen izan ezik.
 - «s» grafia bi moduz idazten du, luzea eta arrunta; guk beti laburra ematen dugu, baina, aldiz, errespetatu egin da bokal arteko «ss» bikoitza, balio fonologiko edo/eta fonetikorik ez duen arren.
 - Zenbaitetan «ff» bikoitza ere idazten du «differente», «iffernua»; hori ere errespetatu egin da.

²³ «Al Lector» atalean egileak berak dio: «Y a la postre pongo el acto de contrición en Bascuence y Romance.»

- Biezpainkari leherkari edo hurbilkari ahostuna hiru modutara idurikatzen du: «b», «v» eta «u» grafiaz, guk «b»z eta «v»z, azken biak, ematen ditugu.
- Zenbait grafiatan latinaren eragin nabaria, «christio», «catholicoa», errespetatu da.
- Aunitzetan, bokalek, hobietako sudurkariarekin trabatuak doazenean, ez dute «n» grafia jarraian eramaten, bere gainean marra bat baizik; kasu horietan bokalari marra kendu egin zaio eta haren ordeztu sudurkariaren grafia ezarri da.
- Hasierako posizioan, yod delako hotsa, maiuskulaz dagoenean beti «l-»z idazten da, minuskulaz doanean, aldiz, hasieran batez ere, «i-» eta «j-» grafiaz txandakatzen da, baina, gehiengotan, «j-»z ageri da: «launac», laungoycoa», «loanem», «jaio», «jarriric», «layac», «jaietan». Jatorri desberdina duten beste hitzetan, berriz, «y-» darabil: «yon» ('inon'); «yorere» ('inore'). Hasierako posizioarako ez dugu sabai-aurreko igurzkarri ahoskabearen aztarnarik aurkitu. Beste kasutan, «ch-» grafia darabil, «chispildu».
- Xistukariaren grafia nahastua darabil, batez ere afrikariak idazterakoan, askotan igurzkariekin bat egiten duelarik:
 - Afrikari bizkar-hobietako ahoskabea: «utci», «ytzic», «aytçetic», «gayzetic», «gaycetic», «gayz», «libragayçaçu».
 - Afrikari mihipunta-hobietako ahoskabea: «jautssicen», «evatssi».
- «h» grafia, batere baliorik gabe, maiz erabiltzen du, edozein lekutan ipinia, baina batzutan etimologikoa kontutan hartzen duela dirudi: «hau», baina «onec»; «ohatçetic», «heriac», «ayhen» eta «ayen».
- Batzutan, arrazoi garbirik gabe, zenbait hitz maiuskulaz idazten ditu; horiek zuzendu egin dira horrela dagokienean, oharretan aipatuz aldaketa. Alderantziz ere, hau da, maiuskulaz idatziak egon beharko luketeenak minuskulaz daude, eta horiekin ere besteekin bezala jokatu da.
- Lerroz aldatzean, zenbaitetan, hitza zatitua gelditzen denean, gioia jartzea aiantzi egiten zaio, baina lotu egiten dugu argitalpenean, hori badagokio hitzaren izaerari, kontutan hartuz, betiere, egilearen usantza, oharrean ematen delarik horren berri.
- Beriainek zuen hitzaren batasunaren sena zenbaitetan berezia da eta hitzari ez dagokiona: elkarturik ematen ditu banandurik joan beharko lirakeenak eta, alderantziz, banandurik el-

kartuak direnak, deklinabideko morfemak, esaterako. Larriena lotu egin dira edo, alderantziz, banandu. Hala eta guztiz ere, euskal literaturaren tradizioan aski normalak izan diren idazkerak, hala nola partizipioa eta aditz laguntzailea elkarturik idaztea, errespetatu egin dira; eta, orohar, hizkuntzaren historiaren ezagupenerako interesgarria gerta daitekeen beste edozein kasu. Edonola ere, egiten diren aldaketak testuaren ulergarritasunerako egin dira, beti bezala oharretan aipatuz.

- Puntuazioa Beriainek aski nahasia darabil. Ez dugu aldaketa sakonik egin; testua ulertzeko eta esanahia gordetzeko beharrezko gertatu diren aldaketak baizik ez dira egin, batez ere falta ziren komak ezarri eta ulerketa eragozten zutenak kenduz.

Hizkera

Juan de Beriainen hizkera, haren hitzei jarraitzen badiegu, Iruñea inguruan XVII. mendearen hasieran egiten zena da. Beraz, ez da, izan, daten arabera, hizkera arkaikoa, halere, aski arkaikoa gertatzen dela esan behar da hurrengo mendeetan idatzi ziren testuekin erkatzen badugu.

Euskalkiaren aldetik Hegoaldeko goi-nafarrera da Bonaparteren sailkapenari jarraituz, eta IltzARBeko azpi-euskalkikoa, hain zuzen. Testuak erkatzeko orduan, ezagunenak, luzeenak edo gehien aipatzen direnak beste azpi-euskalkitakoak dira: XVIII. mendeko Elizalderen Dotrina, Mendebaldeko azpi-euskalkikoa dena²⁴, eta XVIII-XIX. mendeko Joaquín Lizarragaren testuak²⁵, Ekialdeko azpi-euskalkikoak. Hortaz, horiekin erkatzean, ez da harritzekoa desberdinak izatea, denboraren iragana eta azpi-euskalkien desberdintasuna barnean bait daude. Bestalde, IltzARBeko azpi-euskalkirako Bonapartek jaso zituen datuak, Garesen hain zuzen, Utergatik hain hurbil gelditzen dena bestalde, zaharragoak dira edo, bestela esan, ez dira beste azpi-euskalkietakoak bezain eboluzionatuak²⁶.

²⁴ Ikus, bereizgarri linguistiko eta testuaren ediziorako, Rosa Miren Pagola: «Elizalderen Dotrina», *Enseiukarreen*, 10, (1994, 17-63).

²⁵ Lehenengo sermoiak 1771. urtean idatzi zituen eta azken testua, Dotrina bat, hain zuzen, 1821. urtean. Ikus: F. Ondarra: «Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)», *FLV* 11 (1972, 265-281).

²⁶ Ikus, Luis Luciano Bonaparte: *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales selon les huit dialectes de l'euskera*, Londres, 1864. Ikus, orain, Euskaltzaindiak eginiko edizio faksimila: *Opera omnia vasconice*, Bilbo, 1991.

Bada, ordea, xviii. mendeko beste dotrina bat, Utergako deitzen dena²⁷. Beriainen honekin erkatu dugu batzutan, baina ez askotan. Hizkera modernoagoa du honek, eboluzionatuagoa eta, gure ustez, zenbait kasutan, Mendebaldeko azpi-euskaltik hurbilagoa dirudiena. Edonola ere, Beriainen hizkera, izan, zaharragoa da eta zaharragoaren itxura ere badu.

Hona Beriainen hizkeraren ezaugarri nabarmen zenbait:

- Ez du armonia bokalikorik egiten.
- Sinkopak ditu, ez ugariak.
- Ez du, yod hotsa delakoan, sabai-aurreko igurzkari ahoskabea egiten.
- Ez ditu inondik ere, gertakizun fonetikoetan, orohar, hurrengo mendeetan eta beste azpi-euskalkietan ugaritasunez agertuko diren aldaketak eta murrizketak.
- Ergatibo pluralean «-ek» morferma darabil.
- Datibo plurala: «-ei»; inoiz ez «-egi».
- Komitatiboan: «-ki» eta «-kin» txandakatu.
- Instrumentala: «-s» eta «-z» txandakatu.
- Ablatiboa: «-rik» gutxitan; «-tik» gehienetan.
- Artikulu hurbila, ez maizegi.
- Erakusleak: «hau», «ori», «hura», «onec», «ohec», «arc», «ayec», «aren»; inoiz ez «abek», «ebek», e. ab.
- Bihurkariak beren balioz darabiltza, baina ez beti.
- Galdetzaila indefinidoak: «yor», «yorere».
- Aditzaren sistema oso aipagarria da. Iraganean, «-n / Ø» txandakatu da, ugariagoak «-n» dunak direlarik.
- Subjuntibo, potentzial eta agintaldian aditzoinez baliatzen da.
- «-en» eta «-ko» geroaldiko partizipioetan.
- Aditz laguntzaila iragankorretan sistema berezia eta txandakatu darabil, *Edun / *Eradun / *Ezan / *Erazan adizkiak agertzen direlarik.
- Aditz trinkoak usu samar ageri dira.

²⁷ Aita F. Ondarrak editatua: «Catecismo del siglo xviii en vascuence de Uterga (Valdizarbe)», *FLV* 35-36, (1980, 173-221). Dena den, horrelako testuetan beti sortzen da kezka bat, eskuizkribua leku batean aurkitzeak ez du esan nahi eskuizkribu horren hizkera leku horretakoa izan behar dela ezinbestez; batzutan nahasketa sortzen da, agertzen diren toki izenez aipatzen direlako testuak eta hortik hizkera ere toki berekoa behar dela izan pentsatuz. Dena den, ez dut esan nahi Utergako Dotrinaren kasua honelakoa denik, baina egileak bermetasunez ezagutzen ez diren bitartean zalantza hor egonen da.

- *Iro, «eman»en esanahiz «-l-» erro supletiboa, «-ke» gabeko formak, e. ab. agertzen dira.
 - Ez da inoiz, ordea, aoristorik agertzen.
 - Subjuntiboa, «-n» atzikia indikatiboari itsekiz sortzen du maiz.
 - Normala den bezala, datiboarekin komunztadura faltak tarteka agertzen dira.
 - Ez dira, ordea, euskalki honetan, beste testuetan ikusten diren indikatibo eta subjuntiboaren arteko nahasketak gertatzen.
 - Sintaxi mailan aski aberatsa gertatzen da testu hau, irtenbide eta eraikuntza desberdinak darabiltzalako esaldi konposatuak eratzeko eta erdal esaldiak itzultzeko, gaztelerazko joskeraren eragina ere maiz ageri delarik. Adibide gisa, hona banaka batzu:
- Genitibo objetiboaren erabilera: «erabaciduela diru asco...ciudade batean diraden zor gucien pagaceco».
 - Konpletiboak: «sinestatzen dut...dela Eliza Sandu Catholicoa»; «jaquin beardu çer bearduen sinestatu»; «Erran nay du eçe...iltces jossiric illyçanducela»; «nic encomendacendrauçudana da gauza ohec consideradiçaçun maiz, eta sosegurequi».
 - Erlatibozkoak: «çeyn concebitu baytcen Espiritu Sanduaren obras»; «lesu Christoren fedea, batayatu çenean confessatu çuena, duena»; «Bigarrena, bayta Semea»; «ece içanagatic lurpean laur lecu, deitzen baytirade iffernuac».
 - Kausalak: «çeren ezpaytute beguiratu aren mandamendu sanduac»; «Cer gloria yçanendu ceruan dagonean gorpuçac, alas eta denean gauza ciertoa eçe gorpuçac ecin ycusideçaquela laungoycoa...».
 - «Bait-» du aurrizki edo partikularik erabiliena, nahiz erlatibozko, nahiz kausal, nahiz beste perpaus askotarako.
 - Lexikoa euskalki honetan espero zitekeena agertzen da: «Bague», «emazte», «yrur», «laur», «borz», «bedrazi», «berçe», «deus», «becala», «becambates», «gendu», «guti», «goiti», «beiti», «ercal», e. ab.

Bibliografia

Bibliografia nagusiaren erreferentziak Sarreran edo Dotrinaren edizioan ematen dira. Dena den, Dotrinan bertan zenbait lan behin baino gehiagotan aipatu dira. Hona erreferentziak:

- ALTUNA, P.: 1980, (B. Etxepare), *Linguae Vasconum Primitiae*, (Ed. Kritikoa), Mensajero, Bilbo.
- IRIGARAY, A.: 1963, «¿Se trata de la Doctrina de Sancho de Elso?», *PV* 92-93, 249-253.
- , 1966, «Nuevos documentos para el estudio del vascuence alto navarro meridional», *Problemas de la Prehistoria y Etnología Vascas*, DFN, IPV, Pamplona, 1966.
- LEKUONA, M.: 1973, «Textos vascos del s. XVIII en tierra de Estella», *FLV* 15, 369-390.
- MITXELENA, K.: 1964, *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madrid.
- ONDARRA, F.: 1980, «Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga (Valdizarbe)», *FLV* 35-36, 173-222.
- PAGOLA, R. M.: 1994, «Elizalderen Dotrina», *Enseiukarrean* 10, 17-63.
- SARASOLA, I.: 1983, «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU* XVII, 69-211.
- SATRUSTEGI, J.M.: 1990, «Texto vasco del Padrenuestro en versión del s. XVI», *FLV* 55, 37-48.

DOTRINA CRHISTIORENA EUSCARAS

- 84 Ayta gurea, ceruetan çaudena, santificabedi çure yçena, etorribedi çure Erreñua gure gana, eguinbedi çure vorondatea, çeruan bezala lurrean ere.²⁸ Gure egun orosco oguia emandraçaguzu²⁹ egun, eta barcadrazquiguçu gure zorrac, guc barçaçen dizquiotegun³⁰ bezala gueuren zorduney, eta ezcaýçaçula utci tentacioan eror<c>era aytçetic³¹ libragayçaçu gayzetic, Ala dela³².
- 84v Erranendu aguian çeynbaytec³³ eztela erran bear oracio onetan libragayçaçu gayçetic bayçic gayz gucietatic, nola auniçec erraten baytu, bada da gauza ciertoa, eta claro dena eztela erran bear gayçetatic, bay gayçetic, eta arracioa da, çeren oracio hau bearda erran, edoçeyn³⁴

²⁸ Punturik gabe orijinallean.

²⁹ Beriainek aditz iragankor laguntzaile bezala, datibo dunetan, indikatiboan, «Edun»en faktitibo darabil, «Eradun», alegia; baina, honen parean, «Edun» formaz ere baliatzen da. Errealak ez diren denboretan aldiz, badirudi sistema berdinez jarraitzen duela «Ezan» faktitibo eginez «*Erazan» alegia, kasu honetan agertzen den bezala: «emandraçaguzu», eta, gutxiago badira ere, «Ezan»enak ere agertzen dira. Esan daiteke XVI. mendean dokumentatzen den sistema hau, «Aita Gurea»n esaterako, A. Irigaray (1963, 249-253); I. Sarasola (1983, 117), agiriko txandaketarik gabe agertzen dela XVII. mendean, eta XVIII. ean galdu egin dela «Ezan»en alde: Utergako Dotrina, Ondarra (1980), Elizalderen Dotrina, Pagola (1994), eta abar.

³⁰ «-te-» morfema pluralgilea «-o-» singularrekoaren gainean darabil datibo plurale-rako. Berdin XVIII. mendeko Utergako Dotrinan, Ondarra (1980, 217).

³¹ «aitzitik», alegia.

³² Banandurik orijinallean.

³³ Banandurik orijinallean.

³⁴ Banandurik orijinallean.

language motan Christo gure launac ordenatu çuen sentidoan berean ytçic batere añaditu, eta gendu bague, eta ala erratendraugu Eliza ama sanduac. Bada Latines erraten dugunean dio, *Sed libe<ra> nos a malo*, eta ez *a malis* eta Erdaras erraten dugunean dio: Mas libranos de mal, eta ez de males, ala bada, Euscaras erran beardugu gayçetic, eta ez gayçetatic, alaber berçe oracioetan ioanem³⁵ nayz erranes ytzic baterere³⁶ añaditu, eta guendu bague aldaguidan³⁷ guçias Elizac erraten dizquigun sentidoan berean.

laungoycoac salvaçayçala Maria, gracias betea, launa da çurequi, bedeycatuaçara emazten artean: eta bedeycatua da çure sabeleco frutua Iesus.³⁸ Santa Maria laungoycoaren ama, otoyç eguiçu gu³⁹ becatarien gatic oray, eta gure heriotçeco orduan, Ala dela.

Sinestatçendut laungoyco ayta gucis poderosoan⁴⁰ çeruaren, eta lurraren creadorearen⁴¹, eta Iesu Christoren, aren Seme bacoyçaren⁴², gure launaren baytan: çeyn con<c>ebitu baytçen Espiritu Sanduaren obras, eta jayoçen Virgina Mariaren baytatic: passatuçen Passio dolorescoa⁴³, Poncio Pilato juezaren azpian crucificatu yçanduçen⁴⁴, yllçen, eta orciçuten: jautssicen iffenuetara, yrurgarren egunean illetaric resuscitatuçen (sic): igan çen çeruetara, eta jarriric dago laungoyco Ayta gucis poderosoaren escuyan, eta andic etorricoda vicien, eta illen juzgaçera⁴⁵: sinestatçendut Espiritu Sandua baytan, dela Eliza sandu Catholicoa, Sanduen comunicacioa, becatuen barcacioa, araguiaren resurrecia (sic), eta viçie⁴⁶ seculacoa. Ala dela⁴⁷.

< . . >

³⁵ Orijinalean «l-» maiuskulaz; minuskulaz idazten duenean, grafia txandakatzen du «j-» eta «i-»z idatziz hasieran, aurrerago «j-» nagusitzen delarik.

³⁶ «batere» formarekin txandakatuz; «beñere / beñerere», «deusere / deuserere» ere badarabiltza. Beharbada, forma soilak fosilizatzeko bilakabidean aurki daitezke eta hortik letorke berriro indartu beharra.

³⁷ «Egin»en potentziala, «egin ahal dezakedan». Baditu kasu gehiago, ikus, esaterako, 98. or.

³⁸ Punturik gabe, orijinalean.

³⁹ «eguiçugu» orijinalean.

⁴⁰ Bukaera ez da ondo irakurtzen.

⁴¹ «creadorean» beharko luke «poderosoan» jartzen duen bezala; bestela, «creadorearen ... baytan» ulertu beharko litzateke, aurrekoarekin ongi lotzen ez bada ere.

⁴² «bakarraren» esanahiz, alegia.

⁴³ «doloroscoa» ere irakur daiteke, ez da kasu bakarra.

⁴⁴ «crucificatua» beharko lukeela dirudi, baina bere burua gurutzefikatu zuela ere adieraz dezake. Berez, gaztelerazko balio pasiboa adierazi nahi du, beste kasu honetan garbiago ikus daitekeen bezala: «Cer causas erraten da Iesu Christo erresucitatuçela, eta berte illengatic erratenda erresucitatu izandu diradela?». Gero «gurificatu» idatzia ageri da; aurrerago, berriz, forma aktiboa: «gurutzeficatuçuten».

⁴⁵ Genitibo objetiboa maiz ageri da, euskalki honetan espero zitekeen bezala, noski.

⁴⁶ Kasu berezia, ez bait du batere armonia bokalikorik egiten.

⁴⁷ Ondotik «laun-» hitzaz hasten den 86. orria eta hurrengoa, 87. orria, falta dira.

88⁴⁸ gucis poderossoaren⁴⁹ escuyan.

Zazpigarrena sinestatçea andic etorrigo dela vicien, eta illen juzgaçera, oney, aren fedea sinestatu, eta Mandamentuac beguiratu⁵⁰ dituzteney, emateco gloria, eta gayztoey, çeren ezpaytuzte beguiratu aren Mandamentu sanduac, emateco iffernuco seculaco penac.

laungoycoaren legue sanduaren Mandamentuac dirade amar: lembicico irurac laungoycoaren honrari conveniçazquionac, berçe çazpiac proximo lagunaren provechutan diradenac.

88v Lembicicoa laungoycoa honra, eta adoradeçagula.

Bigarrena iuramenturic vanoro eztaguigula⁵¹.

Irurgarrena ygandeac, eta iayac beguira diçagula⁵².

Laurgarrena, ayta, eta ama honrradizagula.

Borzgarrena, yorere ill eztezagula.

Seygarrena, Luxuriasco becaturic eztaguigula.

Çazpigarrena, deus evatssi eztezagula.

Zorcigarrena, yori falso testimonioric erayqui⁵³ eztrazogula, eta ez guezurric erran.

Bedrazigarrena, lagunaren emaztea desea eztezagula.

Amargarrena, berçeren gauçaric desea eztezagula.

89 Amar Mandamentu ohec ençerracendirade bidatan, laungoycoa gauza guçiçen gañean oneristean, eta gueuren proximo laguna gueuroc bezala⁵⁴.

Eliza ama sanduaren Mandamentuac dirade borz.

Lembicicoa igandetan, eta jayetan⁵⁵ Meza ossoric ençutea.

Bigarrena urtean beyn gutiñean confessaçea.

Yrurgarrena começaçea⁵⁶ Bazcoa garizumacoan.

Laurgarrena baruçea Eliza ama sanduac manaçen duenean.

Borzgarrena amarren, eta primiciac ongui eguitea.

⁴⁸ «89» orijinalean.

⁴⁹ Genitibo atzizkia banandurik orijinalean.

⁵⁰ «zaindu», «gorde», alegia.

⁵¹ «banoki egin ezdezagula», «egin»en aditz trinkoaz osatua; «-oro» moduzko atzizkia, Iparraldeko euskalkietan batez ere erabilia, euskalki honetan ere maiz dokumentatzen da.

⁵² Singularrean «dezagula» eta pluralean «diçagula» xistukarien igurzkarria / afrikaria berezi gabe.

⁵³ «jaso», alegia.

⁵⁴ Aurreko hitzarekin lotuta.

⁵⁵ «jay etam» orijinalean.

⁵⁶ «comecatu» ere, forma arruntagoa dena bertzalde, maiz erabiltzen du.

89v

Elizaco Sacramentuac dirade çazpi

Lembicicoa Batayaça.
 Bigarrena Confirmaça.
 Yrurgarrena Penitencia.
 Laugarrena Começaça.
 Borzgarrena Oliadura.
 Seygarrena Ordenaçean errecebicenden Sacramentua deycen bayta.
 Zazpigarrena matrimonia.

Obra Misericordiascoac dirade amalaur, çazpi Corporealeac, eta berce çazpi Espiritualeac, Corporealeac dirade ohec.90⁵⁷

Lembicicoa da herien visitatça.
 Bigarrena gossedenari jatera ematea.
 Yrurgarrena egarridenari edatera ematea.
 Laugarrena villosiric⁵⁸ dagona veztiça.
 Borzgarrena peregrinoey⁵⁹ ostatu ematea.
 Seygarrena cautivoen rescatacea.
 Zazpigarrena illen orçiça.

Espiritualeac dirade ohec.

90v

Lembicicoa eztaquienari eracustea.
 Bigarrena bearrean dagonari conseju ona ematea.
 Yrurgarrena utzeguinic doayenari⁶⁰ erratea nola doayen gayzqui,
 eta hura utçiric ongui eguin dezan erratea.
 Laugarrena iniuriac barçaça⁶¹.
 Borzgarrena tristeac consolaça.
 Seygarrena paciencias sufriça proximo lagunaren faltac.
 Çazpigarrena viçien gatic, eta illengatic laungoycoari otoyç egui-
 tea.

Becatu mortaleac dirade çazpi.

Lembicicoa Sobervia.
 Bigarrena Avaricia.

⁵⁷ «87» orijinalean.

⁵⁸ «bilutsik», alegia.

⁵⁹ «ey» deklinabide atzizkia banandurik orijinalean.

⁶⁰ «joan» aditz trinkoa birritan perpaus honetan; bestalde, esanahia «ibili»rena da: «oker dabilenari» edo.

⁶¹ «barçaça» orijinalean.

Yrurgarrena Luxuria.
 Laurgarrena Ira.
 Borzgarrena Gula.
 Seygarrena Imbidia.
 Çazpigarrena⁶² Perezza.

91 **Zazpi becatu mortale ohen contra diraden virtuteac,
 eta ondasunac dirade ohec.**

Soberbiaren contra Humildadea.
 Avariciaren contra Liberal yçatea⁶³.
 Luxuriaren contra Castidadea.
 Iraren contra Paciencia.
 Gularen contra iatean⁶⁴, eta edatean templatu⁶⁵ yçatea.
 Imbidiaaren contra Caridadea.
 Perezaren, eta arloteriaren contra Diligente laungoycoaren ser-
 viçuan yçatea.

91v **Arimaren etssayac dirade yrur.**

Lembicioa da Demonioa.
 Bigarrena Mundua.
 Yrurgarrena Araguaia.

Arimaren Potenciac dirade yrur.

Lembicioa Memoria.
 Bigarrena Entendamentua.
 Yrurgarrena Vorondatea.

Sentido Corporaleac dirade borz.

92 Ycuste, Ençutea, Urrin eguitea, Gustatçea, Uquiçea.
 Virtuteac, eta ondasunac bearditugunac yçan dirade çazpi, yrur
 Teologaleac, eta laurac Cardinaleac⁶⁶.

⁶² Minuskulaz orijinalean.

⁶³ Orijinalean, aurreko hitzarekin, lerroz aldatzean, gioiz lotuta.

⁶⁴ Maiuskulaz orijinalean.

⁶⁵ Mugatua espero zitekeen.

⁶⁶ «Cardinaleac» orijinalean. Bestalde, «laurac», mugatuz, «beste laurak» adieraz-
 ten du.

Teologaleac dirade ohec.

Lembicicoa Fedea.
 Bigarrena Esperança.
 Yrurgarrena Caridadea.

Cardinaleac dirade ohec.

Lembicicoa Prudencia.
 Bigarrena Iusticia.
 Yrurgarrena Fortaleza.
 Laurgarrena Templança.

92v

Espiritu Sanduaren doayac dirade çazpi.

Lembicicoa Sabiduriaren⁶⁷ doaya.
 Bigarrena Entendamentuaren doaya.
 Yrurgarrena Consejuaren doaya.
 Laurgarrena Fortalezaren doaya.
 Borzgarrena Iaquitearen doaya.
 Seygarrena Piedadearen doaya.
 Çazpigarrena⁶⁸ laungoycoaren beldurraren doaya.

93

Espiritu Sanduaren Frutuac, çeñetatic atraçenbaytirade arbole batetic frutua bezala, dirade amavi.

Caridadea.
 Gozo, eta contentu arimarena.
 Baquea.
 Paciencia.
 Liberalidadea.
 Ondasuna.
 Mansedumbrea.
 Fedea.
 Modestia.
 Continencia.
 Castidadea.

Bienaventuranzac dirade zorçi.

93v

Lembicicoa bienaventuratuac dirade pobre viotçes, eta vorondates diradenac, çeren ayena bayta çeruco erreñua.

⁶⁷ «Sabiduaren» orijinalean.

⁶⁸ Minuskulaz orijinalean.

Bigarrena bienaventuratuac dirade mansoac, çeren ohec gozatu-codute lurra.

Yrurgarrena bienaventuratuac dirade nigar eguitendutenac, çeren ohec yçanen dirade consolatuac.

Laurgarrena bienaventuratuac dirade justicia deseaçendutenac, çeren ohec yçanendirade aspertuac⁶⁹.

Borzgarrena bienaventuratuac dirade misericordiosoac, çeren ohec erdetsicodute misericordia.

Seygarrena bienaventuratuac dirade biotzac garvidituztenac, çeren ohec ycusicodute laungoycoa.

94 Zazpigarrena bienaventuratuac dirade baques diradenac, çeren ohec yçanendirade deytuac laungoycoaren Semeac.

Zorçigarrena bienaventuratuac dirade justiciarengatic perseguituac diradenac, çeren onlacoendaco da çeruco erreñua.

Becatu venialea barçaçenda bedrazi gauza ohen bates.

Lembicoric Meza devociorequi ençuteas.

Bigarrena dignoro começaçetas.

Yrurgarrena laungoycoaren ytça enzuteas.

Laurgarrena Ypispicuaren bedeycioas.

94v Borzgarrena Ayta gurea errateas.

Seygarrena Confessio generala errateas.

Çazpigarrena⁷⁰ hur bedeycatuas.

Zorçigarrena ogui bedeycatuas.

Bedraçigarrena bularretan vere becatues damu, eta urriquimentu duela golpe emateas.

Guizonaren azqueneco gauzac dirade laur.

Lembicicoa Heriotçeta.

Bigarrena luyzioa.

Yrurgarrena Iffernuua.

Laurgarrena Gloria.

95

CONFESSIO generala.

Ni becatariau confessaçen nayçayo⁷¹ laungoyco gucis poderosoari, Andre dona Maria beti Virginari, loandone Miquel Ayngueruari, loan

⁶⁹ «aseac», alegia.

⁷⁰ Minuskulaz orijinalean.

⁷¹ «natzaio», noski. Diptongoaren bigarren elementua, «nai-»rena, lehen pertsonako izen ordearen analogiaz sortua ziurrenez. XVIII. mendeko Utergako Dotrinan «confesacen naio» dator, Ondarra (1980, 206).

done⁷² Ioanis Bautistari, loandone Petri, eta Paulo Apostoloey, eta Sandu guciey, eta çuri Ayta confessoreorri neuru (sic)⁷³ becatu eguines, erranes, pensatues, enea da culpa, enea da culpa, enea da culpa gucis andia; argatic otoyç eguiten draucot Andre dona beti Virginari, loandone Miquel Ayngueneruari, loandone Ioanis Bautistari, loandone Petri, eta Paulo Apostoloey, eta Sandu guciei, eta çuri Ayta confessoreorri çaraten⁷⁴ laungoycoaren aurean ene otoyçguise⁷⁵.

95v **Lembicico capituloa ceñetan adiçera ematenbayta çeyn den Christioaren señaleara, eta credoan dirade⁷⁶ misterioac.**

Maystruac galdeguiçendu (sic), Christioa çarade?

Dicipuloac respoñdaçendu, Bay, Iesu Christo gure launaren gracias.

G. Cer erran naydu Christioa⁷⁷?

R. Iesu Christoren fedea, batayatu çenean confessatu çuena, duena.

G. Nor da Iesu Christo?

96 R. laungoyco, eta guiçon eguiascoa.

G. Ceyn da Christioaren señaleara?

R. Gurutçe sandua.

G. Cerengatic?

R. Cerengatic Gurutçe sanduan Christo gure launa gurucificatu yçandubayçen, gu becatutic, eta iffernutic libraçegatic.

G. Cembat motas ussatçendu Christioac señaleara onesas?

R. Bi motas.

G. Ceyn dirade orihec?

R. Yrur Gurutçe eguita escuyeco beas andias. Lembicicoa becoquian. Bigarrena agoan. Yrurgarrena bularretan⁷⁸ minçaçen dela laungoycoarequi.

⁷² «Jaundone»ren parekoa; «Jaun+done» hitzak zenbait bilakabide izan ditu, batez ere diptongoaren murrizketa eginez: «londone-» Axularrek eta, orohar, Ekialdeko hizkeren artean; «landone-», Betolazak, Kapanagak, hau da, Mendebaldekoen artean. Ikus, honi buruz, A. Irigoien: «Miscellanea toponymica et anthroponymica (II)», *De re philologica linguae vasconicae* IV, 1992, 203-205. or. Dena den, kasu honetan Beriainen forma bereziagoa gertatzen da «au»»oa» aldaketa ez bait da arrunta.

⁷³ Erratua izango da ziurrenez, «neure» espero zitekeen, «neure becatues» hain zuzen, «gueuren» behin baino gehiagotan agertzen bait da. xviii. mendeko Utergako Dotrinan «naure», Ondarra (1980, 296).

⁷⁴ Indikatiboa, «-n» atzizkiaren bidez subjuntiboaren balioz eta helburuzko perpausa sortuz. Ez da kasu bakarra, ugaria baizik, ikus: «gueuren partetic dugun damu» (108v).

⁷⁵ «otoizgile», «bitarteko».

⁷⁶ «diraden» beharko lukeela dirudi. Dena den, testu zaharretan ikusten dira horrelako kasuak, Etxepare lekuko, ikus, Altuna (1980, 97). Beriainengan ere agertuko da horrelako beste kasurik.

⁷⁷ «Hitzak» edo «izenak» suposatu behar da, bestela ergatiboa beharko luke. Maiz gertatzen zaio kasu bera.

⁷⁸ Garai bateko gaztelazko «pechos» (<PECTUS) hitzaren itzulpen zurrunezia pluralean.

- G. Eracutsiçazu nola?
- 96v R. Gurutce Sanduaren Señaleagatic, gure etsayetatic libragayçaçu laungoyco gurea.
 G. Cerengatic eguinduçu Gurutçearen señalea becoquian?
 R. Ceren libragayçan laungoycoac pensamentu gaystoetatic.
 G. Cerengatic eguitenduçu agoan?
 R. Ceren libragayçan laungoycoac ytz gaystoetatic.
 G. Cerengatic eguitenduçu bularretan?
 R. Ceren libragayçan laungoycoac obra, eta deseo gaystoetatic.
 G. Cerda çeñatçea?
 R. Eguitea escuyeco escuas Gurutçearen señalea, assi becoquitic, eta bularretaño⁷⁹, eta guero alaver passaçen dituela heriac ezquerreco sofetic⁸⁰ escuyetaco soñera Trintate gucis sandua confesaçendugula dela laungoyco bat, eta yrur persona.
- 97 G. Eracutsiçaçu nola?
 R. Aytaren, eta Semearen, eta Espiritu sanduaren yçenean.
 G. Ceren gatic eguitenda Gurutçearen señale hau?
 R. Lembicicoric eguitenda daquigun garadela⁸¹ Christioac, eta ala Christo gure launaren soldadoac: çeren Gurutçearen señalea da librea⁸², eta señale bat Christioarena ceñes eçagutçen baytirade Christioac, eta diferenciaçen Eliza sanduaren contra diraden etsayetatic, nola baitirade Turcoac, eta berçe gende mota onlaco guciac.
- 97v G. Eta cergatic gueyago?
 R. Ceren Gurutçe sanduaren señalea eguitendugunear⁸³ esçaçendio-gu⁸⁴ Trintate laun poderosoari digun⁸⁵ fabore eta lagundaquigun⁸⁶ gueuren obra gucietan lesu Christo gure Salvadorearen gatic, çeren aren medios libracen garade gaiz gucietatic, eta erdestenditugu⁸⁷ ondasun guciac, eta ala acostumbraçen dute Christio onec eguitera Gurutçearen señalea, ohatcetic jayquicendiradenean, echetic atraçen diradenean, mayan jarritçen diradenean, ohatcera doace-nean, eta edoceyn⁸⁸ gauza bat (sic) assi bear dutenean.

⁷⁹ «bularretaraino», alegia.

⁸⁰ «sorbalda», «bizkar».

⁸¹ «daquigungara dela» orijinalean; «daquigun» adizkiak «-n» atzizkia erantsiz subjuntiboko balioa hartzen duelarik.

⁸² Gaztelarazko «librea» hitza, hots, «jantzi bereizgarria».

⁸³ «eguitendu gunear» orijinalean.

⁸⁴ Azken «gu» banandurik orijinalean.

⁸⁵ Behin baino gehiagotan agertzen dira **-i-** errotik sortuak eta «eman»en osagarriak diren adizkiak. Hona hemen horietako bat; kasu honetan ere indikatiboa «-n» atzizkiaren bitartez subjuntiboa bilakatua eta finala.

⁸⁶ «gun» banandurik orijinalean.

⁸⁷ «gu» banandurik.

⁸⁸ «edo ceyn» orijinalean.

- 98 G. Cerengatic ambat aldís?
- R. Demonioaren tentacioetatic libraceagatic, ceñec denvora gucietan, eta lecu gucietan perseguiçen baicaytu, procuracenduela aldaguyen⁸⁹ calte gucia eguitera.
- G. Cergatic gueyago?
- R. Cerengatic señaie onequi lotçacenda⁹⁰ demonioa, eta ygues eguitendu nola ladronec eta gayzqui eguiten dutenec, ygues eguitenbaytute ycusideçatenean⁹¹ justiciaren vara.
- G. Eta cergatic gueyago?
- R. Cerengatic auniz aldís Gurutce sanduonen señaieagatic libracendira guizonac peligro anizetatic⁹²; ala arimaren nola gorpuçaren contra diradenetatic, eguitendelatic confiançarequi laungoycoaren misericordian, eta lesu Christo gure launaren meregimentuetan, çeñetan nay içandu bayçuen ill gure amorea gatic.
- 98v G. Christo gure launa adoraçenduçunean Gurutcean, nola erratenduçu?
- R. Adoraçençaytugu⁹³ Christo gure launa, eta bedeyçaçen çaytugu, ceren Gurutçe sanduan erredemitu yçandu baytuçu mundua.
- G. Eta Gurutçea solla adoraçenduçunean nola erratenduçu?
- R. Adoraçençaytut Gurutçe bedeycatua çeñetan ene errendentore launa guruçeficatuyçandubayçen.
- 99⁹⁵ G. Ya ycusidugu nola çaraden Christioa, errandraçadaçu⁹⁴ certaco criatuçuen laungoycoac guizona?
- R. Criatuçuen guizona eçaçuçeçan criatuçuen⁹⁶ launa, eta laungoycoa, eta eçaguturic serviçaçeçan, eta ala arças gozaceçan: ceren eçagutcen estuenac, eta ez serviçaçen eztu erdetsico gloria, ayctic condenatua yçanenda ifernuco penetara erremedioric bague.
- G. Orlatan principalquiro, eta cuydado gueyagorequi guizonac procuratu bearduena da salvatceco conveniçayzquion gauzac eguitera?
- R. Ala da eguia, ceren guizonari gueyen conveniçayona da laungoycoaren serviçacea, eta ala salvacea, ceren ez salvaceco obeago yçanencen jayo yçandu ezpaliz.

⁸⁹ «egin»en adizki trinkoa ahalezkoaren balioz «-ke» formadunen ordez, «dezaken» adizkiaren ordez, alegia edo, bestela, «egin ahal duen»; Etxeparek ere badu horrelakorik, ikus: Altuna (1980, 14). Beriainek ere baditu gehiago: 85, 132v, 173. or.

⁹⁰ «lzitu», «beldurtu».

⁹¹ «deçatenean» adizkiak denborazko perpausa sortzen du; bestalde, indikatiboaren balioa duelarik, partizipioarekin joatea ere horren alde dago. Egungo «ikusten dutenean» formak adierazten duenaren parekoa.

⁹² «onizetatic» orijinalean.

⁹³ «gu» banandurik orijinalean.

⁹⁴ «errandraçaduçu» orijinalean.

⁹⁵ «101» orijinalean.

⁹⁶ Bigarren hau erlatibozkoa, aurrekoa ez bezala.

- 99v G. Errandrazadazu, cembat gauza Christioa den obligatu⁹⁷ jaquitera arracios ussatcera etorris guero ceruco gloria erdesteco?
 R. Laur gauza.
 G. Ceyn dirade orihec?
 R. Lembicicoa jaquin beardu çer bearduen sinestatu. Bigarrena çer bearduen eguin. Yrurgarrena çer oracio erran bearduen, eta nori. Laurgarrena çer Sacramentu bearduen errecebitu.
 G. Nor⁹⁸ daqui çer bearduen sinestatu?
 R. Credo, edo Artículo Fedescoac daquizquienac.
 G. Norc daqui çer otoy eguinbearduen, eta çer oracio erran bearduen?
 100 R. Ayta gurea daquienac eta berce Elizaco oracioac.
 G. Norc daqui çer obrac eguin beardituen, eta ceñetatic bearduen apartatu?
 R. laungoycoaren legue sanduco Mandamentuac, eta Elizarenac daquizquienac.
 G. Norc daqui çer bearduen errecebitu?
 R. Sacramentu sanduac daquizquienac.
 G. Orlatan obligatuda Christioa gauza ohec jaquitera, eta adicera?
 R. Bay jauna, ceren ecin cunplideçaquegu gueuren obligacioarequi jaquin ezpadezagu⁹⁹.
 G. Alas eta¹⁰⁰ erranduçunean lembicico gauza Christioa obligatu dena jaquitera dela fedesco gauzac¹⁰¹, erradraçadaçu cer den fedea.
 100v R. Fedea da ycusten eztitugun gauzac diradela eguiac sinestacea, çeren laungoycoac baytio ala diradela.
 G. Ycustenduçu çuc laungoycoa, eta nola den yrur persona, eta laungoyco bat?
 R. Ez launa.
 G. Ycusicinduen çuc illcen Iesu Christo, eta nola erresucitatuçen illetaru¹⁰² yrurgarren egunean, eta guero nola ygançen çeruetara, eta dagola jarriric bere Aytaren escuyetaco aldean?
 R. Ez, baya sinestatcendut ycusiric baño obequiago.

⁹⁷ Berriz ere mugagabea agertzen da, ez bait dugu uste, kristioak bere burua «obligatu» ulertu behar denik. Hurrengoetan ere berdin agertzen da: «obligatuda Christioa», «obligatu dena». Gaztelarazko testuan perpau pasiboz eratzen du beti: «está obligado»; honen eragina egon daitekeela uste dugu.

⁹⁸ Ergatiboa behar du.

⁹⁹ «gu» banandurik orijinalean. Bestalde, adizkia subjuntiboa da formaz, «-n»rik gabe, indikatiboaren balioz. Azkenik, «jaquin» lehenengo graduko partizipioak, aspektuaren aldetik, ekintza burutua dela adierazten du.

¹⁰⁰ «Alas eta», lokailu konposatua, maiz erabiltzen du perpau kausalak eratzeko, baldintzazko kutsurik ere baduten arren. *Orotariko euskal hiztegi*an S. Pouvrearengan bakarrik dokumentatzen da.

¹⁰¹ «lembicico gauza ... dela fedesco gauzac» perpaua eratu duen arren, sujeto garbia «fedesco gauzac» balitz normalagoa litzateke: «lembicico gauza ... fedesco gauzac direla», alegia.

¹⁰² Ablatiboa «-rik» atzizkiak emana; halere, ugariagoa da «-tik» atzizkiaren erabilera; ez da, ordea, beti ongi irakurtzen edo bereizten.

- G. Ceren¹⁰³ ycusibague sinestatcenduçu ayn firmoquiro?
 R. Cerengatic laungoycoac baytio fedesco gauzac ala diradela, eta daquit ciertoquiro eçe ecin laungoycoa engañaditequela, eta ecin yorere engañadezaquela.
- 101¹⁰⁴ G. Nondic daquiçu çuc laungoycoac diola ala diradela?
 R. Daquit Eliza ama sanduac, ceñey Espiritu Sanduac maystruac bezala eracutsiric, erratenbaytio¹⁰⁵ ala diradela gauzaohec eguiac: eta badaquit eçe ecin Eliza sandua engañaditequela fedesco gauzetan, eta ala seguroquiro sinestatcendut arc sinestatcendituen gauza guciac.
- G. Eta ceyn¹⁰⁶ bear da sinestatcea fedesco gauzac salvaceco?
 R. Ambat eçe hau bague ecin yhorc ere erdetsideçaque gloria.
- 101v G. Nola jaquinendugu cer beardugun sinestatu?
 R. Aditcendugula¹⁰⁷ ongui Credoan, edo Artículo Fedescoetan dau-den misterioac.
- G. Credoan, eta Artículo Fedescoac dirade gauza bat?
 R. Bay jauna.
 G. Erraneçaçu Credoan?
 R. Sinestatcendut laungoyco Ayta gucis poderosoan erranden bezala.
 G. Norc eguinçuen Credoan?
 R. Apostoloec.
 G. Certaco?
 R. Guri eracusteco cer bear dugun sinestatu cerura ioateco¹⁰⁸.
 G. Eta guc certaco erratendugu?
 R. Fedea confessatcea gatic eta artan firmoago egotea gatic.
 G. Erraniçaçu Artículo Fedescoac.
- 102 R. Artículo Fedescoac dirade amalaur, erranden bezala.
 G. Cer dirade Artículo Fedescoac?
 R. Fedesco misterio principalenac.
 G. Errancinduen lembicico Artículo Fedescoa dela sinestatcea dela laungoyco eguiasco bat. Nor da laungoycoa¹⁰⁹ gure launa?
 R. Da laun bat ondasun guciac dituena, gauza guciac daquizquiena, nayduen gucia eguindezaquena, gauza gucién criaçallea, eta conservaçallea, ceñeac¹¹⁰ ezpaytu yoren necessidaderic, eta guciei bay arendaco¹¹¹ alaco maneras eçe ecin yorere manealite

¹⁰³ Galdegile bezala kasu honetan. Halere, erantzunetan darabil gehienbat, kausal edo helburuzko bezala: «Ceren ... eguiten baytu», «ceren ... libragaiçan».

¹⁰⁴ «103» orijinalean.

¹⁰⁵ «erratenbaytic» orijinalean; halere, «erratenbaytu» beharko luke.

¹⁰⁶ «cenbat» beharko luke bere sistemaren arabera; gaztelerazko testuan ere: «Que tan necesario ...» ematen du. Erantzunak ere, «Ambat...», hori eskatzen duela dirudi.

¹⁰⁷ Ez du osagarri zuzenarekin komunztadurarik egiten.

¹⁰⁸ «loareco» jartzen duela dirudi.

¹⁰⁹ Mugatu gabe beharko luke.

¹¹⁰ Desegokia da forma mugatua kasu honetan.

¹¹¹ Perpaus berezia, «guciec,» ergatiboan, beharko lukeela dirudi, aurreko aditz bera suposatzen bait da: «Ceñac ezpaytu yoren ...».

- 102v dagon lecutic, eta ecin yolaco maneras vicilite puntu bates laun
 hau lagun ezpalequio¹¹².
- G. laungoycoa da persona bat solamente?
 R. Ez jauna, baycic yrur.
 G. Ceyn dirade?
 R. Ayta, eta Semea, eta Espiritu Sandua.
 G. Ayta laungoycoa da?
 R. Bay jauna.
 G. Semea da laungoycoa?¹¹³
 R. Bay jauna.
 G. Espiritu Sandua da laungoycoa?
 R. Bay jauna.
 G. Dira yrur laungoyco?
 R. Ez baycic laungoyco bat, eta laungoyco hau da Ayta, eta Semea,
 eta Espiritu Sandua, eta ala dira yrur persona, eta laungoyco bat;
 ceren yrur personec baytute sustancia bat, eta essenciabat.
- G. Ayta da semea?
- 103¹¹⁴ R. Ez jauna.
 G. Espiritu Sandua da Ayta edo Semea?
 R. Ez jauna, ceren yrur persona ohec Ayta, eta Semea, eta Espiritu San-
 dua dirade yrur persona diferente, baya nola yrur persona ohec
 baytute essencia bat, eta sustancia bat, argatic dirade laungoyco
 bat.
 G. Orlatan yrur persona ohec dute vorondate bat, jaquite bat, eta po-
 dore bat?
 R. Ala da eguia, alaco maneras eçe Aytac nayduena naydu Semeac,
 eta Espiritu Sanduac, Aytac eguitenduena eguitendu Semeac, eta
 Espiritu Sanduac.
 G. Orlatan ezta personabata poderosoago bercea baño; eta ezta
- 103v bata leen¹¹⁵ bercea baño?
 R. Ala da eguia; ceren yrur personec baytute essencia, eta sustancia
 bat, eta ala dirade gauza gucietan ygoal.
 G. Nola da laungoycoa gucis poderoso?
 R. Ceren nayduen gucia eguitenbaytu, eta asco da nay yçatea egui-
 teco.
 G. Nola da laungoycoa gauza gucien crialçallea?
 R. Ceren gauza guciac eguin yçandu baytitu ezdeusetatic¹¹⁶.

¹¹² Ahalezko baldintza, garai eta euskalki honetan normala dena, aditzoinez erabilia; ikus, bestalde, «lagundu» iragangaitza, beti erabiliko duen bezala.

¹¹³ Ohartu hitzen ordena desegokia dela, aurreko galderari ezetz erantzun balitzaio bezala. Berdin ondorengokoetan.

¹¹⁴ «105» orijinallean.

¹¹⁵ «poderosoagoa» beharko luke eta, agian, baita «leena» edo «leenagokoa» ere.

¹¹⁶ «ez deus etatic» orijinallean; bestalde, pluralean ematen du, «ezdeus» abstraktoa konkretora balitz bezala.

- G. Nola da laungoycoa salvaçallea?
 R. Ceren laungoycoac ematendigu gracia, eta barcacen dizquigu becatuac.
- 104 G. Cerc movicendu laungoycoa ematera guri bere gracia?
 R. Bere misericordia, eta ondasun andiac, eta lesu Christo gure launaren meregimentuec.
- G. Cerda gracia?
 R. laungoycoaren adisquidetasumbat¹¹⁷ eguitenbaycaytu¹¹⁸ laungoycoaren Semeac, eta herederoac ceruco gloriarendaco¹¹⁹.
- G. Cer maneras erdestenda gracia, eta erdetsis guero artan aylcina-gaytezque?¹²⁰
 R. laungoycoari otoy ez eguines bere misericordia, eta ondasun andio-gatic (sic), eta lesu Christo gure launaren meregimentuen gatic emandrazagun; eta Sacramentu sanduac ongui errecebicen ditugula, eta obra onetan empleacen garadela.
- 104v G. Nola da laungoycoa glorificaçallea?
 R. Cerengatic ematen baytu¹²¹ gloria aren gracian illçendenari.
 G. Purgatoria doazenac nor dirade?
 R. laungoycoaren gracian illcen diradenac, baya beren becatuen gatic çorçuten pena gucia pagatu bague.
 G. Badu laungoycoac gorputcic guc¹²² bezala?
 R. Ez Divinidadeas becambates¹²³, ceren da espiritu solla gorputcic batere bague, baya bay guiçon becambates.
 G. Ceyn persona yruretaric¹²⁴ eguince¹²⁵ guiçon?
 R. Bigarrena, bayta Semea.
 G. Ayta eguincen guiçon?
 R. Ez jauna.
- 105¹²⁶ G. Espiritu Sandua eguince guiçon?
 R. Ez jauna, baycic solamente Semea.
 G. Nola laungoycoaren Semea, yçanica¹²⁷ laungoycoa, eguince guiçon?

¹¹⁷ «asumbat» banandurik orijinalean.

¹¹⁸ Erlatibozkoa, beste kasutan bezala: «Bigarrena, bayta Semea».

¹¹⁹ «daco» banandurik orijinalean.

¹²⁰ «Aintzina», noski.

¹²¹ Datiboaren atzikia xertatu gabe, komuntadura falta, beraz; badira horrelako gehiago.

¹²² «gue» orijinalean.

¹²³ «bezain batez», «bezainbatean» alegia; «Divinidadea» eskatzen du, bestalde.

¹²⁴ Bukaera ez da ondo irakurtzen.

¹²⁵ Beriainek adizki iraganak «-n» eta «Ø»ren arteko txandaketaz idazten ditu; hona, zati honetan, horren adibideak.

¹²⁶ «107» orijinalean.

¹²⁷ Partitiboa eta baita ablatiboa sortzeko ere «-(r)ika» atzikia zenbaitetan dokumentatzen da Nafarroan aurkitutako testuetan; esaterako, bien balioz, 1610. urtean Iruñean saritutako olerkian, ikus Mitxelena (1964, 119-122). Mende bat lehenago,

- R. Arturic gorputça, eta arima arracios ussatcenduen, milagro eguican Espiritu Sanduaren obras.
- G. Cer milagro yçanducen ori?
- R. Milagroa yçanduce gucis andia, cerengatic Espiritu Sanduac, bayta laungoyco bat Aytarequi, eta Semearequi, eta ala eguinbayteçaque nayduen gucia, Virginia Andre dona Mariaren sabelean aren odol garvias, eta sanduas formatuçuen aurraren gorpuzbat gucis galanta, eta ederra, eta puntu artan berean criatuçuen arimabat gucis preciosoa, eta ona, eta juntatuçuen aurraren gorpuçarequi, eta laungoycoaren Semeac gorpuça, eta arima juntatucituen puntu, eta instante artan berean berequi; eta ala leen laungoycoaren Semea ezpaycen baycic laungoycoa, juntatus guero gorpuçarequi, eta arimarequi da alaber guiçon eguiascoa, eta hau erran naydu laungoycoaren Semea Christo gure launa, guiçon becambates concebitucela Espiritu Sanduaren obras bere Ama Andre dona Mariaren sabelean.
- 105v
- G. Nola dariço¹²⁸ laungoycoaren Semeari guiçon eguincenari?
- R. Iesu Christo munduaren salvaçallea.
- G. Cerengatic eguincen guiçon laungoycoaren Semea?
- R. Guregatic illceagatic, eta exemplo emateagatic, cerengatic guiçon eguin ezpaliz ecin illçatea¹²⁹.
- G. Nola jayocea (sic) Ama Virginaren ganic?
- R. laungoycoac milagro eguinic, nola eguin yçandu bayçue concebituçuenean, çeren laungoycoac nayduen gucia eguindeçaque, eta ezta gauza dificultosoric arendaco¹³⁰, eta ala Virginia Andre dona Maria erdi yçanducen Virginica cegola erdibaño leen, eta erditcean, eta erdis guero beti Virginic.
- 106v
- G. Cer erran naydu Iesu Christoc padecitu, eta sufrituçuen passioa Pontio Pilato juezaren azpian, gurutçeficatuçuten, illcen, ortciçuten?¹³¹
- R. Erran naydu eçe Christo gure launa munduan conversaturic¹³² casic oguey eta amayrur urte, eta eracutsiric vere vicias, exemplos,

xvi. mendean, «Aita Gurea» batean agertzen da: «Libra gaiçaçu gaiçetarica», Satrustegi (1990, 40). Beriainek Dotrina honetan behin baino gehiagotan darabil esaldi adberbialak osatuz, baina ez da beti «-(r)ica» eransten dion atzizkia izaten, «-(r)ican» aldakiarekin ere txandakatzen bait da, ikus galdera honen erantzunean. Hurrengo mendean itsi da bilakabidea: «-(r)ikan» eta «-(r)iken», -armonia bokalikoaren eraginez, izanen da forma bakarra, Martinez de Morentinengan agertzen den bezala, M. Lekuona (1973, 369-390).

¹²⁸ «eritzi»ren aditz trinkoa; «deritzo» espero zitekean; dena den, testu zaharretan gertatzen dira horrelako txandaketak, Etxeparek *eradun-etik sortutako adizkietan, ageriko banaketarik gabe, esaterako, «daraut» eta «deraut» darabilzki.

¹²⁹ «zaten» adizkia bera, aditz laguntzaile iragangaitza, lehenaldiko ondorioa, «zatekeen» formaren parekoa. Ikus, gisa bereko adizkiak: 107 (birritan) eta 125. or.

¹³⁰ «daco» banandurik orijinalean.

¹³¹ «oritciçuten» orijinalean erratuz, «ortci» agertzen bait da beti.

¹³² Beriainen garaiko gazteleratik hartua, bere esanahi etimologikoa gordetzen zuelarik, «elkarrekin bizi», alegia.

- eta dotrinas guciy ceruco videa, auniz milagro eguinea, eta ondatsun, Poncio Pilatosen manus, baytzen orduan ludeaco gobernadore, justiciaren, eta arracio guciaren contra açotatuçuten, eta Gurutze batean escuetan, eta oñetan iltes jossiric illyçanducela.
- 107¹³³ G. Errandraçaduzu alas eta denean gauza ciertoa lesu Christo gure launac etçuela becuric batere, eta ecin yçanere yolaco maneras, eta nay yçandubalu¹³⁴ libratu bayçatea¹³⁵ Pilatosen escuetatic, eta berce gucienetatic¹³⁶, nola nay yçanduçue ill gurutze batean yltces escuac, eta oñac jossiric ambat dolore, eta trabajurequi?
- R. Eguia da eçe Christo gure launaren baytan etcela becuric batere, eta ecin çuquela yolaco maneras; eta alaber da gauza ciertoa eçe nay yçandu balu libratuçateala Pilatosen escuetatic, eta mundu guciotatic ere, baya nay yçanduçue ill gu becatuetatic, eta iffernucotrabaju¹³⁷ ayn andietatic libraceagatic.
- 107v G. Alas eta Christo gure launa illyçanducenean guri gueuren becatuac barceagatic, eta ayegatic çorguinduen çorra pagaceagatic, eta gu gucioc iffernucotrabaju libracea gatic, nondic dator condenatzen baytirade ambat gende?¹³⁸
- R. Eguia da eçe laun onec bere trabajues, eta heriotceas pagatu duela guciaren becatuen gatic, baya naydu bapedra¹³⁹ aprovechadecin¹⁴⁰ aren heriotce sanduas, bere partetic eguitenduena penitencia bere becatues, eta onetaco ordenaturic dauzquien Sacramentuac ongui errecebidiçan, argatic¹⁴¹ baldin baliotuco baçaygu aren passio sandua, beardugu gueuren partetic aprovechatu arças¹⁴², eguitendugula penitencia, eta obra onac, eta gaystoetatic apartatu.
- 108 G. Naynuque oray erranduçunori nola den cindidan¹⁴³ adicera ceymbat semejanças?

¹³³ «109» orijinalean.

¹³⁴ Orijinalean: «yçandubetu»; erratua da, erantzunean errepikatzen bait du zuzen: «nay yçandu balu libratuçateala».

¹³⁵ Lehen begiradara, «libratuba yçatea» irakurtzera jotzen bada ere, ez da interpretazio zuzena, «-uba» armonia bokalikoa inoiz ez bait da egiten; hemen, 106. orrialdean ikusi den adizki bera da, lehenaldiko ondorioa, «bay» afirmatiboaz indartua. Ikus, baita ere, galdera honen erantzunean.

¹³⁶ «etatic» banandurik orijinalean.

¹³⁷ Testu honetan hitz honen balioa «oinaze» da, latinetik zetorkion esanahi etimologikoaren arabera, garai hartako gaztelerazko testuetan erabiltzen zena.

¹³⁸ Gaztelerara lotua azken perpausa; «de dónde —tildea gurea da— nace que se condenan (sic) tantos», gaztelerazko Beriainen testuan; hor ageri den indikatiboko formari jarraituz egiten du itzulpena.

¹³⁹ «bat bedera» formatik bilakatua.

¹⁴⁰ «aprovechadecin» orijinalean.

¹⁴¹ «argatic ... beardugu...» perpaus kausala da; «horregatik...» formaren parekoa.

¹⁴² «arcas» orijinalean.

¹⁴³ «Eman» esan nahi duen «-i-» erroz osaturiko subjuntiboa dela esan daiteke ingurumenaren arabera.

- R. Placer baytut. Eguindeçagun contu guiçon batec bere ycerdias, eta trabajuas erabaciduela diru asco, dena ciudade batean diraden zor gucien pagaceco, eta diru hau gucichau eçarçenduela mercataribaten echean emandaquioren aren escutic dramateney¹⁴⁴ cedula, eta claredadea cer zorduten: guiçon onec dudaric batere
- 108v bague bere partetic den becambates emandu zorduten gucien cantidadearen pagatceco: guciarequin ere, zorduten ohetatic batec, edo bidac, edo gueyagoc ezpalute joan nay, batçuec¹⁴⁵ sobervias, bertceç arloterias, edo berce causas arengana cedularen esque, ez naves bere zorduena¹⁴⁶ descubritu; onlacoec bere faltas ezlituzquete bere zorrac pagatuco. Ala bada Christo gure launac bere passio passatu çuenas, eta heriotceas¹⁴⁷ pagatuçuen guc gueuren becatuen gatic zorguinduen gucia cumplituquiro, eta gueyago bay naydu¹⁴⁸ laun onec guc, gueuren partetic dugun¹⁴⁹ damu, becatu eguines, eta aurrera becatuetatic apartagaytecn, eta errecebiduçagun Sacramentu sanduac ongui, eta vi-
- 109 dero¹⁵⁰ conveniden bezala, eguitendugula gueuren becatues penitencia, eta ayetatic apartaturic, obra onetan empleagaytecn, eta nola gauza ohec ezpaytituzte aunizec eguiten, argatic auniz dirade condenacen diradenac bere faltas.
- G. Erranduçu Christo gure launa illes guero jaytcicela ifferrnuetara, çer adicenduçu ifferrnuetara errantenduçunean?
- R. Erran naydut eçe yçanagatic lurpean laur lecu, deycenbaytirade ifferrnuac, nora joaten baytirade illcendiraden arimac, cerura doazenes landara¹⁵¹; ohetatic beytiena, eta ceruetatic urrutierendagona non baytaude demonioac, eta becatu mortalean yllcendiraden desdichatuac dela ifferrnua, bigarren lecu da gutibat¹⁵² goytiago bayta purgatorioa, nora joaten baytirade justoen arimac arengracian illcen diradenac, baya beren pecatuengatic zorzuten zorra pagatu bague. Yrurgarrena baytago goytiago nora joaten baytirade aurren arimac batayatu bague illcendiradenac, ceñec ezpaytute beñere laungoycoa ycusico. Laurgarren lecu bayta gucietatic goytiendagona da non bayceude Patriarca, eta Profeta, eta berce sanduen

¹⁴⁴ «daramateney», bokalaren sinkopaz, «eradun» aditzean gertatzen den bezala.

¹⁴⁵ «batçuce» orijinalean erraturik.

¹⁴⁶ Sustantibatua, «zorra», alegia. Bestela, «berak» beharko luke.

¹⁴⁷ Badu Beriainek perpausak nominalizatzeko joera, kasu askotan agertzen bait dira horrelakoak; hemen ere, «passatu zuen bere passioas eta heriotceas» idaztea normalagoa litzateke.

¹⁴⁸ Ondotik datozen perpausak honen osagarri zuzenak dira.

¹⁴⁹ Indikatiboa «-n» atzizkiaren bidez subjuntiboaren balioz, ikus ere 95. or.; bestalde, jarraian koordinaturik datozen subjuntiboko adizkiak hori bera frogatzen dute.

¹⁵⁰ «bide aro»tik bilakatua, «garai egokian» edo adieraziz.

¹⁵¹ «zerura doazenetik kanpo», alegia.

¹⁵² «apur bat», alegia.

- arimac yll yçandu baytirade, Christo gure launa ill baño leen¹⁵³, eta lecuonetara erran naydut jaycicela, eta andic libratucituela arima sanduen ceudenac¹⁵⁴.
- 110 G. Nola jaytci yçanducen?
R. Christo gure launaren arima jaytcicen Divinidaderequi.
G. Orlatan Christo gure launaren gorpuça etcen jaytci iffernuetara?¹⁵⁵
R. Ez jauna, ceren gorpuça guelditucen Gurutçean Divinidadereberarequi, eta edequiric iltceac ceñes baitcego¹⁵⁶ jossiric Gurutcean escuetan eta oñetan, eraiciçuten¹⁵⁷. Gurutçetic, eta ortciçuten ovia (sic) batean.
- G. Nola erresucitatucen yrur garren egunean?
R. Ceren yrurgarren egunean lesu Christo gure launaren arima juntatucen bere gorpuçarequi, eta erresucitatucen gloria, eta Magestade andiarequi ez gueyagoric illceco.
- 110v G. Cer causas erratenda lesu Christo erresucitatuçela¹⁵⁸, eta bertce illengatic erratenda erresucitatu yçandu diradela?
R. Ceren lesu Christo da laungoycoaren Semea, eta ala bere podores, eta virtutes juntatuçuen bere arima bere gorpuçarequi, eta assicen berriro vicicen; baya berce illen arimac ecin bere podores, eta virtutes juntaditezque beren gorpuçequi, baycic laungoycoac bere podore, eta virtute andias, argatic erratendugu Christo gure launa erresucitatucen, eta berce illengatic erresucitatu yçanducirade, nola gu gucioc laungoycoac erresucitatuco baycaytu juycioco egunean.
- 111 G. Nola ygançen ceruetara?
R. Nola bayta Christo gure launa laungoyco eta guiçon, bere virtutes ygançen ceruetara.
G. Cer erran naydu lesu Christo dagola jarriric laungoyco Ayta gucis poderosoaren escuyan? Erran naydu aguian Semea dagola escuyetaco aldean, eta ayta dagola erdian, eta Espiritu Sandua ezquerretaco aldean?
- 111v R. Ez jauna, ezta orla aditu bear, ceren Ayta, eta Semea, eta Espiritua (sic) Sandua, nola baytirade laungoycobat, daude lecu gucietan junto, eta ecin apartaditezque; eta ala ecin erranditezque persona bat dago escuietaco aldean, eta bercea erdian, eta bercea ezquerretaco aldean.
G. Nola bada adicenduçu dagola jarriric bere Aytaren escuyan?

¹⁵³ Azken hiru hitz hauek elkaturik orijinallean.

¹⁵⁴ «zeuden Sanduen arimak» egokiagoa litzateke.

¹⁵⁵ Galda markarik gabe.

¹⁵⁶ Erlatibozko perpausa «-n» atzizkirik gabe.

¹⁵⁷ «eraici», «eraitsi» eta galderan «jaytci»; bi formak darabiltza, baina lehenengoak, agian, bestek jeisten dutela adierazten du.

¹⁵⁸ «eresucitatuçela» orijinallean.

- R. Erran naydu eçe Christo gure launac laungoycoden becambates duela Aytac duen gloria, eta Magestadea bera, eta guiçon becambates duela Ayngueruec, sandu, eta sanda guciec baño gueyago.
- G. Por ventura Christo gure launa ceruas landara badago yonere ber-cetan?
- 112 R. laungoyco den becambates dago lecu gucietan; baya guiçon beçambates¹⁵⁹ ceruan dago solamente, eta hau berhau dago alda-reco sacramentu sanduan.
- G. Orlatan começaçendiradeneç¹⁶⁰ laun hau berhau errecebicendute?
- R. Ala da eguia.
- G. Cer erran naydu, nondic etorrigo bayta illen, eta vicien juzgatcera?
- R. Erran naydu eçe nola erran baytut lesu Christo ygancela çerueta-ra, eta dagola Ayta eternoaren escuyetan, andic etorrigo dela gucien juzgatcera gloria, eta Magestade gucis andiarequi, Virgi-na Andre dona Mariac, Ayngueru, eta sandu guciec acompaña-ndutela eçe guciec dudaric bague eçagutuco baytute hura da¹⁶¹
- 112v lesu Christo, nola yguzquia atracendean dator ambat arguitasu-nequi, eçe guciec claroquiro eçagucen baytute hura dela yguzquia, eta ez berce gauzaric.
- G. Noyz yçanenda juzgatcera etorce ori?
- R. Ecin yhorc ere jaquindeçaque dagon urbil, edo urruti egun hura, laungoycoac daqui solamente: guc daquiguna da etorrigo dela mundua acabadedinean.
- G. Eta acabatuco da mundua?
- R. Bay jauna.
- G. Cer fin yçanendute, eta certara etorrigo dirade ambat obra jaure-guietan, eta echetan eguinic daudenac, eta berce gauza munduan diraden guciac?
- 113 R. Mundu onetaco gauza guciac erreco, eta chispilducoditu su batec atraco bayta munduco laur partetaric, yçanenda ayn andia, ayn poderosoa eçe ezpayçayo escapatuco gauzaric baterere.
- G. Cer adicenduçu erraten duçunean Credo, dela Eliza sandua Ca-tholicoa? Cer erran naydu Eliza?
- R. Eliza erratendudanean naydut erran diradela Christioac, ceñec bay-tirade junto, eta conforme sinestatcean fedesco gauzac, ceñen bu-rua bayta Ayta sandua, hau da Eliza.
- G. Cembat gauza bear dirade junta onetaco, erran naydut Christioa yçateco?
- 113v R. Yrur gauza. Lembicicoa, beardu yçan batayatua, ceyn bayta Eliza onetaco ataria. Bigarrena, beardu sinestatu fedesco gauzac, eta confessatu Christo gure launaren leguea, nola Eliza onetaco Artza-

¹⁵⁹ Ageri denez, inoiz «beçambates» ere idazten du.

¹⁶⁰ «denec», lerro aldatzean, banandurik eta giorik gabe idatzia.

¹⁶¹ Agian, estilo zuzenean idatzia dago eta ez menpeko perpausa bezala, horrela ba-litz, «-la» atzizkia beharko bait luke.

- yec, eta predicaçallec eracusten baytigute. Yrurgarrena, bearda yçan obediente Ayta sanduarendaco¹⁶², ceren bayta Iesu Christoren lecuan dagona, eçagucendugula dela gucien burua.
- G. Baldin Eliza bada Christioac oray erranden bezala, nola deycenditugu Elizac arris eguinic daudenac, non erraten bayta Meza, eta eguiten laungoycoaren oficioac?
- 114 R. Ceren Christio fielac Elizaco diradenac, juntatcen baytirade ayhetan Meza ençutera, eta predicuac, oracio eguitera, confessacera, eta começacera, baya guc erratendugunean Credoan sinestatcendut dela Eliza Catholicoa ezcara minçacen arris, eta çures eguinic daudenes, baycic Christio fieles batayatues¹⁶³ Ayta sanduaren obediente¹⁶⁴ diradenes, leen errandudan bezala.
- G. Cerengatic erratenda Eliza dela bat solamente, alas eta munduan denean ambat gende mota Christioac diradenac, eta ambat lecutan?
- 114v R. Ceren gucic baytute buru bat solamente bayta Iesu Christo eta aren lecuan Ayta sandua. Bay, eta ceren munduan diraden Christio gucic sinestatcen eta confessatcendute fedebat solamente, eta gucic dute leguebat; ala nola erresuma¹⁶⁵, edo erreñu batean ceñetan solamente bayta erreguebat, eta leguebat, erratenda dela solamente bat, artan yçanagatic auniz provincia, ciudade, eta villa.
- G. Cer erran naydu sanduen comunioa?
- R. Erran naydu eçe Christioac egonagatic ayn aparte batac bercenganic, eta ez eçagutua gatic ercal¹⁶⁶, alaco maneras daudela juntaturic fedearen, eta obra onac eguitendituzten virtutes¹⁶⁷, ece baytute parte, eta provechu batec berçen¹⁶⁸ ondasunetan, ayhec guretan, eta guc ayhenetan, nola bayta meza erraten diradenetan, oficio, eta oracioetan, eta berce ondasun eguiten duten gucietan.
- 115 G. Eta alaver meza Christio gucien erçean¹⁶⁹ erraten diradenac, eta ondasun eguitendiraden guciac aprovechatcençayzquôte purgatorioan dauden arimey?
- R. Alaver aprovechatcençayzquôte¹⁷⁰ purgatorioan dauden arimey.

¹⁶² «daco» banandurik.

¹⁶³ Ez da bukaera ongi irakurtzen.

¹⁶⁴ Ez da ondo irakurtzen bukaera.

¹⁶⁵ «eresuma» orijinalean.

¹⁶⁶ «elkar» / «erkal», likidoen metatesia gertatzen delarik; bigarren forma maiz erabilia euskalki honetan.

¹⁶⁷ «fedearen eta eguitendituzten obra onen virtutes».

¹⁶⁸ Bukaera ez da ongi irakurtzen.

¹⁶⁹ Ez da izaten ugaria dardarkariaren aureko bokalaren tinbre istea; hona hemen kasu horietako bat.

¹⁷⁰ «çayzquôte» beharko luke; horrela egiten du goiko lerroan, esaterako.

- G. Eta laungoycoas gozatzen dauden sanduen oracioac aprovecha-
tzençayzquigu guri, eta purgatorioan dauden arimey?
- R. Bay jauna, eta aunitz.
- 115v G. Cer erran naydu becatuen barcacioa?
R. Erran naydu eçe Elizan dela ondasun bat andia, eta consuelo andi-
tacoa becatariendaco, eçe munduanden andiena yçanagatic bere
partetic laungoycoaren¹⁷¹ favorearequi eguiten duela arc nayduena
barcatuco dizquiola bere becatu guciac alaco maneras eçe gueros
yçanenbayta, laungoycoaren adisquidea.
- G. Eta Elizatic landara barcacen dirade becatuac?
R. Ez jauna, yolaco maneras.
- G. Cer erran naydu araguiaren erresurreccioa?
R. Erran naydu ece persona gucioc ala onac nola gaystoac erressuci-
tatuco garadela.
- 116 G. Cer erran naydu erresucitatuco garadela?
R. Erran naydu eçe laungoyco gure launac bere podore andias egui-
nenduela bapedraren arima iles guero berriro juntadedin bere leen
vicicenean çuen gorpuçarequi; eta ala yçulico garadela berriro vici-
cera.
- G. Noyz yçanenda ori?
R. luyzioco egunean.
- G. Eta cergatic orduan?
R. Ceren nola viciguinanean arimarequi, eta gorpuçarequi junto
eguin bayquinduce obra onac, edo gaystoac, naydu laungoycoac
116v aguergaytecn aren aurrean juycioco egunean sentenciaren ençu-
tera, eta errecebicera gorpucean, eta ariman junto, eguinguiducen¹⁷²
obren conforme edo premioa, edo castigoa.
- G. Cer emanendiate oney?
R. Gloria.
- G. Eta cer emanendiate gaystoei?
R. Iffernuco beñere acabatuco eztiraden penac, eta trabajuac.
- G. Ceyn yçanendirade onac?
R. Onac yçanendirade lesu Christoren fede sandua, Christioec sines-
tatcen duguna, sinestatu dutenac, eta laungoycoaren Mandamen-
tuac eta Elizacoac begiratu dituztenac.
- G. Ceyn yçanendirade gaystoac?
117 R. Ayhec çeñec ezpaytute sinestatu Christioec sinestatcendugun fe-
dea, edo sinestatua gatic ezpaytute beguiratu laungoycoaren¹⁷³
Mandamentuac, eta ez Elizarenac.
- G. Orlatan errandraçadaçu, cembat gauza bear dirade gloria erdeste-
co?¹⁷⁴

¹⁷¹ «loaungoycoaren» orijinalean. Berdin hurrengoan ere.

¹⁷² «eguinguiducen» orijinalean.

¹⁷³ «loaungoycoaren» orijinalean.

¹⁷⁴ Galdera estilo zuzenean egina.

- R. Bi gauza. Lembicicoa sinestatu Eliza sanduac sinestacendituen fedesco gauzac (sic) guciac, eta onequi batean, bigarrena¹⁷⁵ bearden da beguiratu laungoycoaren Mandamentuac, eta Elizarenac, eçe onla erdesten da ceruco gloria.
- 117v G. Orlatan infielac, eta heregeac ezpaytute sinestatcen Eliza ama sanduac sinestacendituen fedesco gauzac condenacen dirade?
- R. Da gauza ciertoa fedea eracustendiguna eçe ohec gucioc ill, eta bereala doacela iffernura erremedioric batere bague.
- G. Eta Christioac ceñec beti sinestatu baytute Eliza sanduac sinestacendituen fedesco gauza guciac, baya viciyçandudirade gayzqui, eta ill yçandu baytirade penitencia bere becatues eguin bague becatu mortalean daudela, oen arimac nora doaz?
- R. Alaver gure fede sanduac eracustendigu ohec gucioc doacela iffernura, ceren fedea solla ezta asco¹⁷⁶ gloria erdesteco, baycic fedea-requi batean beardirade eguin obra onac erradenbezala.
- G. Alas eta erranduçunean¹⁷⁷

< . . >

- 119 <be>ñere enojaceric, eta fastiaçeric¹⁷⁸, baycic beti egonendirade contentu, eta plazer andiarequi nola lembicico egunean beñere enoyatu, eta fastiatubague.
- G. Cer gloria yçanendu çeruan dagonean gorpuçac, alas eta denean gauza ciertoa eçe gorpuçac ecin ycusideçaquela¹⁷⁹ laungoycoa, baycic arima sollac?
- R. Eguia da eçe arimac sollac ycusdeçaquela laungoycoa, baya onaren arimac ycustetic laungoycoa erreçebituco¹⁸⁰ gorpuçac ere bere gloria¹⁸¹, yçanenbayta ayn andia, eçe çeruan dagonaren gorpuça yçanenbayta aynargui eta ederr¹⁸², eçe arguituco baytu yguzquiac bezala, ezta beñere illen, eztu beñere yçanen goseric eta ez egarri-ric, ez minic, eta heritasunic baterere, baycic beti ossasuna, eta ala egonenda beti gozo eta contentu gucis andiarequi berçe gauzaric batere deseatu bague.
- 119v G. Eta cembat yraunendiote oney ceruco gloriac?

¹⁷⁵ Orijinalean punto eta maiuskulaz.

¹⁷⁶ «aski»ren esanahiz.

¹⁷⁷ Hurrengo orria, 118.a alegia, «laun-»ekin hasten dena, falta da.

¹⁷⁸ Latinezko «fastidiare»tik, gazteleraz «hastiar» eta horren kultismoa «fastidiar», «aspertu», «gogaitu» esanahiarekin. Dena den, euskaraz ere Iparraldeko zenbait idaz-
leengan, esanahi horrekin, erabili izan da: Haraneder, Harriet, bestea beste.

¹⁷⁹ Hemen partizipioarekin, baina erantzunean aditzoinarekin.

¹⁸⁰ «du» adizki laguntzailea beharko luke.

¹⁸¹ Ondotik «eta» beharko luke.

¹⁸² Perpaus kontsekutibo hau aditz nagusiaren menpekoea da, eta ondoren datorren beste kontsekutiboa, honen menpekoea.

- R. Beti yraunendiote beñere faltatu bague eta gutitubague, ala ego-
nendira beti nayduten contentu eta gozo guciarequi beñerere gay-
cic sentitubague, eta gueyago ondasunic deseatu bague, ceren
yçanen baytute desea aldeçaqueten ondasun gucia.
- G. Alas eta erranduçunean¹⁸³ çer gloria yçanenduten onec çeruan,
errandraçadaçu¹⁸⁴

< . . . >

- 123 rabaju emanendiotenic?
- R. Bai launa, arra concienciarena, çeyn beti alaco, eta euçeçquico¹⁸⁵
bayçayote beren buruey oroyçendiradela, becatu eguincitustenes,
eta ayetatic libraçeco vicierra¹⁸⁶ denean mundu onetan yçanduci-
tusten aparejues laungoycoaren partes, viotcean uquiçen cituela,
eta confessorc emancisquioten abisoos erratenciotela apartacite-
cela becatuetatic, eta ocasio gaystoetatic, eta eguinçeçatela peni-
tencia, eta nay yçanbalute ayn facilquiro libratuciratela¹⁸⁷ iffernuco
tormentu eta trabajuetatic, eta ya bere faltas ycusiric eztela erre-
medioric baterere, ohc atormentatucoditu gucis auniz eçe berac
yçanenbaytirade beretaco borrero cruelac.
- 123v G. Eta cembat yraonendute iffernuco tormentu, eta trabaju ohc?
R. Eztirade beñere acabatuco, baycic beti yraonendute, ez iffernua aca-
batucoda, ez an dagonaren¹⁸⁸ arima, ez gorputça, eztirade beñere,
nayluquetelariç¹⁸⁹ illen, ceren heriotceac ygues eguinendu ayenganic
ango suac beti erre, eta abrasadiçan beren becatuen castigotan.
- G. Alas eta erranduçunean i<ff>ernuco suac erreco, eta abrasatuco
dituela gaystoac, nola eztitu su arc acabatuco?
- 124 R. laungoycoac, ceñen contra atrebitubaycirade becatuac eguitera,
naydu ayen castigaceco iffernuco suac beñere acabatubague beti
erre, eta abrasadiçan ez solamente ariman baycic gorputcean
here¹⁹⁰, alaco maneras eçe entrañaturic junto egonen bayta¹⁹¹ ala-
co maneras eçe ez paitira beñere libratuco aren ganic, eta ez berce
tormentuetatic.

¹⁸³ Denborazko perpausa: «erran duzunez gero», alegia.

¹⁸⁴ «çeruan. Erran-», orijinalean. Hurrengo hiru orriak, 120, 121 eta 122 alegia, falta dira.

¹⁸⁵ «beti alaco», «betirako» esanahiz; bestalde, «eucequi», «eutseki» noski, «eutsi»-ren esanahia duela esan daiteke; dena den, Iparraldeko euskalkietan eta baita Iparraldeko goi-nafarreraz ere Beriainen formarekin lotzen den forma erabiltzen da, esanahi berdinarekin, «atsiki», alegia. Azkenik, zera esan behar da, perpaus honetan aditzaren falta somatzen dela: «ceyn da...».

¹⁸⁶ Agian, «viciera» beharko luke, «bizitza osoan», alegia.

¹⁸⁷ «ziratekeela», alegia.

¹⁸⁸ «an»ekin elkartua.

¹⁸⁹ Perpaus kontzesiboa «ere» gabe eratua.

¹⁹⁰ Aurreko hitzarekin loturik.

¹⁹¹ Aurreko hitzarekin loturik.

- G. Cembayt aldís¹⁹² etçayzquióte ifferrnuan daudeneý arinduco, eta gutituco an diraden penac, trabajuac, eta tormentuac?
- R. Ifferrnuco pena, eta trabajuac yraunendute beti beñere arindu, eta gutitu bague alaco maneras eçe milla urte passatu, eta egonen baytirade bere indarrean nola lenbico egunean, eta passatu berroguey eta amar milla urte alaver, eta millonac passatu, eta beti bere artan batere gutitubague.
- 124v G. Nola ezta ifferrnuan erremedioric batere?
- R. Ifferrnuras guero¹⁹³ ezta becatu-ric barcacen¹⁹⁴, ezta lecuric penitencia eguiteco; ceren passatu bayçayote malaventuratu ahey (sic) denvora penitencia eguiteco laungoycoa señaleturic daucana bayta vici garaden artean, eta nola ezpaytira denbora cenean aprovechatu¹⁹⁵ an egonen dirade ezperañcaric (sic), eta erremedioric bague, ceren laungoycoa ecin mutaditeque, eta ala aren sentencia gaystoey emanic dagonac yrahun beardu beti.
- 125¹⁹⁶ G. Errandraçadaçu, aparta¹⁹⁷ gaytecen onlaco gauzetatic, cergatic¹⁹⁸ joaten dira ifferrnura?
- R. Becatu mortalearengatic, ceren da gauza ciertoa eçe becatu mortale egitenduena nayz bat baycic ezpada here, ill badadi arças penitencia eguinbague joanen dela ifferrnura.
- G. Ayn gauza gaystoa da becatu mortalea?
- R. Da gauza gucietic gaistoena, eta arracioa da clarea, ceren becatu mortale egitenduenean batec, puntu artan berean galcendu laungoycioaren gracia, eta adisquidetasuna, eta ala galcendu laungoycoa bera bayta calte gucietic andiena, eta ceruco gloria erdesteco çuen drechoa artan dagon bitartean.
- 125v G. Baldin badaquiçu berce arracioric adicera emateco ceyn gauza gaystoa den becatu mortalea, errañçaçu.¹⁹⁹
- R. Erratendut berce arraciobat, ceñec alaver adicera ematenbaytu ceyn gauza gaystoa den becatu mortalea, eta da eçe yçanica laungoyco gure launa ain ona, ayn urricariosoa, misericordiosoa, eta justoa, ceñen baitan ecin baytate²⁰⁰ gauza gaystoric, eta arracioaren contra denic, eta ala eztitu castigacen gaystoac ayen becatuec meregiduten baño gueyago, bada eracustendigu gure fede sanduc eçe becatu mortalean illcendiradenac penitencia eguinbague bere becatuen gatic egostendituela ifferrnura; orlatan castigo hura

¹⁹² «Zeinbaitetan», «noizbehinka».

¹⁹³ «Ifferrnura joanez gero».

¹⁹⁴ «barçacen» orijinalean.

¹⁹⁵ Orijinalean «aprovechatuc», bukaera ondo irakutzen ez delarik.

¹⁹⁶ «115» orijinalean.

¹⁹⁷ Parentesia zabaltzen da.

¹⁹⁸ Aurrean zabaldu den parentesia hemen isten da, alderantziz idurikatua.

¹⁹⁹ Galda markaz orijinalean.

²⁰⁰ «date», laguntzaile iragangaitza, orainaldiko ondorioa. Ikus gisa bereko adizkiak 106 eta 107 or.

- 126 da²⁰¹ castigo justoa, eta meregidutena nondic atracen bayta becatu mortalea dela gauza gucietatic gaystoena.
- G. Orlatan gauza acertatua da aborrecideçagun becatua gueyago eçes²⁰² berce gauza gucia, eta eguindeçagun bereala penitencia?
- R. Gauza gucis acertatua da gueuren salvacioco negocioan, ceñetan baytoagu²⁰³, ambat seguroan joatea, eta ala eguitea bereala penitencia gueuren becatues, ayetatic apartacengaradela, ceren eztaquigu noyz, eta nola illen garaden, aguian desmayobates, edo cembait desgracias aurquenduco gaytusten illic.
- 126v M. Placer dut erranbaytuçu ongui, nic encomendacendrauçudana da gauza ohec consideradiçaçun mayz, eta sosegurequi, eçe eguinbadeçaçu conveniden bezala, auniz aprovechatucoçayçu becatuac aborreciceco, eta bereala penitencia ongui eguiteco ayetatic libraceco, eta ala escapatuco çarade iffernuco pena, eta trabajuetic, eta erdetsicoduçu ambat ondasun nola bayta glorian.
- G. Cer erran naydu dela vicede seculacoa?
- R. Erran naydu eçe bienaventuratuac ceruan yçanendutela vicicebat gorputcean eta ariman ayn ona, eta contentu anditacoa eçe yçanen baytute nayduten gucia deuserere faltatubague, eta vicede hau içanenda beti yraunenduena beñere acabatu bague.
- 127 G. Credoan, eta Artículo Fedescoetan dauden gauzes landara sinestatcenduçu berce gauzaric?
- R. Bay sinestatcendut Eliza ama sanduac sinestatcendituen gauza guciac.

BIGARREN CAPITULOA

Dotrinaren bigarren partea, ceñetan declaracen bayta Ayta gurea, eta berce Elizaco oracioac.

- M. Ycusidut ya nola daquičun çer bear duçun sinestatu, bayta lembicico
- 127v gauza. Gatocen oray bigarrenera, bayta cer²⁰⁴ escatu bearden.
- G. Erraneçaçu Ayta gurea.²⁰⁵
- R. Ayta gurea ceruetan çaudena, errandenbezala.
- G. Norc errançue Ayta gurea?
- R. Christo gure launac.
- G. Cerengatic?
- R. Guri eracusteagatic nola oracio eguin beardugun.
- G. Cerda oracio eguitea?

²⁰¹ Aurreko hitzarekin elkartua.

²⁰² «eze ez», «ezen ez», alegia; berriro ere agertuko da.

²⁰³ «Joan» aditzaren erabilera trinkoa: «bait doagu».

²⁰⁴ «ser» orijinallean.

²⁰⁵ Galda markaz orijinallean.

- R. Viotça alchatçea laungoycoarengana escacendiogula eguindrazagun merchede auniz.
- G. Ayta gurea erratenduçunean norequi minçaçençarade?
- R. laungoyco gure launarequi.
- G. Non dago laungoyco gure launa?
- 128 R. Lecu gucietan presente dago bere essencias, presencias, eta potencias.
- G. Ceynda oracio gucietatic oberena?
- R. Ayta gurea.
- G. Cerengatic?
- R. Ceren Christo gure launac, Apostoloec escaturic, erranyçandu-bayçuen.
- G. Eta cergatic gueyago?
- R. Ceren oracio onetan baytaude gauza laungoycoari escatu bearçayz-quion guciac²⁰⁶, ceren Christo gure launac ordenatubayçuen, ceñec baytaqui yorc here bañõ obequiago çer escatubeardugun eta alada provechosoena, eta poderosoena laungoycoaren ganic erdesteco conveniçaygun gucia.
- 128v G. Cerengatic naydu deydraçogun laungoycoari Ayta?
- R. Ceren aren semeac bezala ardeçagun confiança, eta animo otoy eguitemo digun²⁰⁷ beardugun gucia.
- G. Nola da laungoycoa gure Ayta?
- R. Cerengatic criatu baycaytu, eta ala aren ganic baytugu gueuren naturaleza, eta gauza guciac, eta gueuren partetic aren favorearequi eguitendugula arc nayduena, emanendraugu bere gracia.
- G. Eta cergatic erratendugu Ayta gurea, eta ez ene Ayta?
- R. Cerendaguigun²⁰⁸ gucioc garadela, Ayta baten semeac, eta ala anayac oneritsideçegun (sic) batac bercea ayta baten semeac garaden bezala.
- 129 G. Cergatic gueyago?
- R. Ceren guciac escadaçagun guciendaco, ceren guciac oracioa da obeago, batena bañõ; ceren guciac erratendutenean²⁰⁹ Ayta gurea otoy eguitendute guciengatic, eta ala edoceñen²¹⁰ gatic.
- G. Nola diozu ceruetan çaudena²¹¹, erranduçu baldimba²¹² laungoycoa dagola lecu gucietan?

²⁰⁶ «laungoycoari escatu beharçazquion gauza guciac», alegia. Orijinalean: «bearçayz-quio».

²⁰⁷ Besteetan ikusi dugun «eman»en esanahiz, «-i-» erroaz sortutako adizki indikatiboa, «-n» atzizkiarekin subjuntiboa bilakatua.

²⁰⁸ «egin»en adizki trinkoa, indikatiboa «-n» atzizkiarekin subjuntiboa bilakatua helburuzko perpausa sortuz; esanahiaren aldetik, «egin»ek hemen, «ezagutu»ren balioa hartzen duela esan daiteke.

²⁰⁹ «dutunean» orijinalean.

²¹⁰ Banandurik orijinalean.

²¹¹ «ceruetançau dena», orijinalean.

²¹² Ikus, «baldimba»ren kokagune berezia.

- R. Eguia da laungoycoa dagola lecu gucietan, baya guciarequin ere naydu lesu Christoc oracio onetan errandeçagun ceruetan çaudena, ceren ceruetan icusicendute Ayngueruec, eta bienaventuratu guciec.
- 129v G. Cergatic gueyago?
- R. Cerengatic erratendugunean ceruetan çaudena, consideradeçagun han çeruan dagola gure herencioa; eta emen vicigaradenean lurrean garadela peregrinoac videan gaviłçanac, eta haudela gauza fite acabatuco çayguna; eta ala cerucoa bayta beñere acabatuco ezte-na, hura²¹³ procuradeçagun lembicicoric, gauza ambat conveniçayguna bezala.
- G. Cer escacendioçu erratenduçunean santificavedi çure ycenari?²¹⁴
- R. laungoycoa nola bayta gure launa, escacendiot guciec mundu gucian eçagundeçaten nola den laungoyco eguiascoa, eta eztela berceric; eta ala guciec adoradeçaten, alabatu, eta serviçatu.
- 130 G. Cer escacenduçu erratenduçunean etorribedi çure erreñua?
- R. Escacendiot dagon²¹⁵ emen lurrean vicigaradenean gurequi bere gracias, eta guero digun²¹⁶ bere gloria.
- G. Cer escacendioçu erratenduçunean eguinbedi çure vorondatea ceruan bezala lurrean ere?
- R. Nola escatubaytiot laungoycoari digun emen bere gracia, eta guero gloria, escacendiot eguindedin aren vorondatea, ceren erdesteco emen aren gracia, eta guero gloria beardugu eguin aren vorondatea beguiracenditugula aren²¹⁷ mandamentuac.
- 131v G. Cer erran nayduçu erratenduçunean ceruan bezala lurrean ere?
- R. Erran nay dut eçe ala nola Ayngueruec, eta bienaventuratuec ceruan eguiten baytute, laungoycoaren vorondatea cunplituqui deusetan faltatu bague, eta principalquioren divina Magestadeari ongui yrudiceagatic, eta hau beti ala daguigun²¹⁸ guc ere emen lurrean.
- G. Cer escacendioçu erratenduçunean gure egunorosco oguiua eman draçaguçu egun?
- R. Principalquioren escacendiot arimaren oguiua²¹⁹ bayta aldareco Sacramentuia, ceñec mantenacen baytu arima, eta laungoycoaren ytçac²²⁰

< . . >

²¹³ «hiura» orijinalean, erratua dela uste dugu, beti «hura» idazten bait du.

²¹⁴ Harrigarria datiboa; nominatiboa beharko luke.

²¹⁵ Indikatiboa «-n» atzikiaren bitartez subjuntiboa bihurtua.

²¹⁶ «Eman»en erro supletiboz, askotan ikusia. Subjuntiboa bihurtua «-n» atzikiaren bitartez, «eta»rekin lotzen dela aurreko «dagon» duen perpausarekin, biak «Escacendiot» perpaus nagusiaren kompletiboak. Ikus, adizki bera hurrengo erantzunean ere.

²¹⁷ Ohartzekoa da «aren» eta «bere» izenordeen erabilera, beti egoki bereizten bait ditu.

²¹⁸ Hemen bere balioz, «egin»en aditz trinkoa, subjuntiboa.

²¹⁹ «eguiua» orijinalean.

²²⁰ Hurrengo orria, 131.a alegia, falta da.

- 132²²¹ <...>gun bearduguna.
 G. Cer escaçendioçu erratenduçunean barcadrazquiguçu gure zorrac?
 R. Escaçendiot laungoyco gure launac barcadrazquigun gueuren be-
 catuac, eta ayengatic zordugun pena.
 G. Cerengatic erratenduçu guc gueuren zorduguney barcaçendizquio-
 tegun bezala?²²²
 R. Cerengatic ezpaytitu barcaçen laungoycoac becatuac bere injuriatu
 eta agraviatu duenari²²³ barcacen eztizquionari.
 G. Cer escaçendioçu erraten duçunean ezcaçaçula utzi tentacioan
 erortera (sic)?
 R. Nola baytaqui laungoyco gure launac garadela flacoac, eta davilela
 demonioa persequicen gaytuela gauas eta egunas, etsaygossea,
 eta cruela bezala aldaguien²²⁴ gayz gucia procuracendigula eguite-
 ra, otoyz eguitendiogu laungoycoari ezteçala utci consentideçagun
 gure etsayac nayduenean, eta alaver otoyz eguitendiogu ezteçala
 utci tentagaçalan gure etsayac, baldin aren Magestadeac bada-
 quij²²⁵ ezcaradela al<a>co tentaciotic atraco vitoriarequi.
 G. Cer escacendioçu erratenduçunean aytcetic libra gayçaçu gaycetic.
 Cer gayç²²⁶ da ori?
 R. Escacendiot laungoycoari libragayçan becatu gucietatic, demonioa-
 ren ganic eta iffernutic, eta desgracietatic.
 G. Cer erran nahidu amen?
 R. Ala dela, bizala²²⁷, ala deseaçendut eta ala otoyz eguitendut eguin-
 dedin escatunayçen beçala.
 G. Badaquiçu berçe oracioric?
 R. Bay launa.
 G. Ceyn dirade?
 R. laungoycoac salvaçayçala Maria, eta laungoycoac salvaçayçala erre-
 guia²²⁸ eta ama misericordioscoa.
 G. Erraneçaçu laungoycoac salvaçayçala Maria?
 R. laungoycoac salvaçayçala Maria gracias betea, erranden bezala.
 G. Erraneçaçu laungoycoac salvaçayçala erreguia?
 R. laungoycoac salvaçayçala erreguia, eta ama misericordiosoa, erran-
 den bezala.
 133v G. Oracio ohec erratendituçunean, norequi minçaçençara?
 R. Andre dona Virgina Mariarequi.

²²¹ «122» orijinalean.

²²² Galda markarik gabe orijinalean. Bestalde, errata bat dagoela dirudi, «zorduney» behar izango bait luke.

²²³ «bere injuriatzaile eta agraviatzaileari» esango balu bezala.

²²⁴ «egin ahal dezaken»; adizki bera ikus 98. or.

²²⁵ «Baldin...ba...», bistako den bezala, baldintzakoa da.

²²⁶ «gay» irakurtzen da.

²²⁷ «biz ala», «ala biz», «biz» / «bitez» agintaldiko sistemaren arabera.

²²⁸ «erregula» irakurtzen da.

- G. Cerendaco erratendizquioçu oracio ohec?
 R. Escaçeagatic Andre dona Mariari otoyz eguindeçan vitartecoçale jarriçendela guregatic laungoycoaren aurrean²²⁹, eta ala erdetsideçağun aren divina Magestadearenganic conveniçayguna.
- G. Norda Andre dona Virginia Maria?
 R. Da laungoycoaren ama.
- G. Non dago²³⁰ Andre ayn sandu, eta andiori?
 R. Ceruan dago gorpuçarequi, eta arimarequi laungoycoas gozacenduela.
- 134 G. Eta Elizan dagona nor da?
 R. Aren figura, eta imagina.
 G. Cerendaco²³¹ dago han?
 R. Aren imagina hura ycusi eta oroyt gaytecn ceruan dagonas.
 G. Eta aren imaginaren aurrean erratenduçunean, laungoycoac salvaçayçala Maria, edo laungoycoac salvaçayçala Erreguia, eta Ama misericordiascoa²³², norequi minçaçen çara, ceruan dagonarequi ala aren imaginarequi?
- R. Ycustendudanean Andre dona Mariaren imagina, eta figura oroytcen nayz ceruan dagonas laungoycoas gozacen, eta arequi minçaçen nayz, erratendiodala laungoycoac salvaçayçala Maria gracias betea edo erreguia eta ama misericordioscoa, eta ez aren imaginari bayta arris, edo çures, edo verce gauzas eguina, eta ala eztu adicen, eta ezta minçaçen, eta ecin erdecidraçaquegu escacendioguna, baycic ceruan dagonac.
- G. Nola bada erratan da Christo gure launaren imaginac, edo aren amarenac edo alaco sanduarenac eguin duela milagroa?
 R. Ymaginec eztute eguiten milagroric, baycic laungoyco gure launac, baya auniçetan eguitenditu milagroac sanduen otoicen gatic eta gustien gañean Andre dona Mariaren oracioen gatic, eta ala erratendenean onlaco Virginaren imaginac, edo berce sanduenac eguindu milagroa, erran naydu eçe laungoycoac Andre dona Mariaren otoyces eguitenduela milagroa ala berce sanduen otoytces.
- 135 G. Cer erreverencia eguinbeardiotegu sanduen imaginey?
 R. Erreverencia hura vera sanduey, ceñen imaginac baytirade, eguitendioteguna.
- G. Eta sanduen erlequiey cer erreverencia eguin beardiotegu?
 R. Sanduey berey eguitendioteguna, ceren ayen arimac, laungoycoas goçatcen daudenac, mundu onetan vici yçandu baycirade aren serviçuan.
- 135v

²²⁹ Maiuskulaz orijinalean.

²³⁰ Aurreko hitzarekin elkarturik.

²³¹ Banandurik orijinalean.

²³² Otoitz hauek «Agur Maria» edo «Ave Maria» eta «Agur Erregina» edo «Salvea» dira, jarraiberean.

- G. Cerengatic Ayta gurea erran, eta bereala erratenda laungoycoac salvaçayçala Maria berce oracioac baño leen?
- R. Cerengatic ezpaytugu Christo gure launaren aurren²³³ vitartecoçale obeagoric, eta ambat diroquenic²³⁴ nola Virginia Maria aren ama; argatic erranes guero laun onec eracutsi digun oracioa bayta Ayta gurea, acudicendugu aren ama gucis sandua gana, bere otoyntces lagundaquigun erdestera escatudioguna. Nola emen munduan emanen guero erregueri memoriabat artan adicera ematendiogula çer escacendugun, procuratcen dugu encomendacera negocio hura arequi guero gueyen diroquenari, ceren negocia draçagun nayduguna²³⁵; argatic bada Ayta gurea erran, eta bereala erratendugu laungoycoac salvaçayçala Maria.
- 136 G. Cergatic gueyago?
- R. Cerengatic oracio Ayta gureas landara²³⁶ oberena da laungoycoac salvaçayçala Maria; cerengatic laungoycoaren manus, eta ordenes baytago ordenaturic Arcangel Gabrieleç, eta santa Ysabeleç, eta Elizac erranicaco ytçes: cerengatic ytç ayec laungoycoac salvaçayçala gracias betea, launa da çurequi, bedeycatua çara emas-
- 136v ten artean, errançituen san Gabrieleç laungoycoaren partes, aren mandatariac bezala. Berce ytçac, bedeycatua da çure sabeleco frutua errancituen santa Ysabeleç, cegolaric Espiritu sanduas beteric. Berce ytç guciac eçarçenditu Eliza ama sanduac, Espiritu Sanduac berac eracutsiric, eta ala erratenda, eçe oraçio hau Ayta gureas landara dela oberena.
- M. Ongui dioçu. Oray errandraçadaçu oracio hau gucia ytçic batere utci bague, ceren arracio da guciac adideçaten oracio ayn on hau.
- G. Cer erran naydu laungoycoac salvaçayçala Maria?
- 137 R. Da salutacea Andre dona Maria, eracustendugula onetan garadela aren adisquideac, eta ala gatocela arequi minçacera, onetaco erratendizquigula Ayngueru san Gabrieleç errancizquion ytçac, ceñes baytaquigu alegracendela auniz, eta plaçer arcenduela ençuteas berri ain onac, eta gu oroytçen garadenas laungoycoari graciac emateas ari eguincion ondasun ayn andias.
- G. Cer erran naydu gracias betea?
- R. Erran naydu Virginia Mariac duela gracia gueyago berce sandu guciac baño, ceren eguin baytitu obrac gueyago, eta obeguiago laungoycoari yrudicençayçay<s>quionac eçes berce gucienc, eta ala
- 137v du la gracia geyago.

²³³ Besteetan «aurrean» darabil.

²³⁴ «*Iro» erroa «ahal izatea» adierazteko aditz iragankorra, «-ke» atzizkirik gabea; halere, Beriainek forma pleonastikoa darabil, «diro» ('dezake') adizkiari «-ke» erantsi bait dio. Ikus, berriz lerro batzuk beherago ere.

²³⁵ Helburuzko perpausa «ceren»ekin osatua.

²³⁶ «Aita gurea oracioas landara», noski.

- G. Cer erran naydu launa da çurequi?
 R. Erran naydu eçe laungoycoa gure launa egondudela Virgina andre dona Mariarequi beti governaçenduela adisquidearequi bezala, concebitu yçanducen bezala, libracençuela becatu gucietic ala eçe²³⁷ ezpayta yçandu Virgina Mariaren baytan ez becatu originaleric, ez mortaleric, ez benialeric baterere, eta ala da sandu guciac baño obeago.
- 138 G. Cer erran naydu bedeycatua çara emazte gucién artean?
 R. Dela bedeycatua emazte gucién artean, ceren bayta Ama eta Virgina, eta lesu Christoren ama, çenenganic baytatorgu²³⁸ guciéy be-deicioa.
 G. Cer erran naydu, eta bedeycatua da çure sabeleco frutua lesus?
 R. Erran naydu lesus Andre dona Mariaren semea dela guiçona, eta bedeycatua guiçon gucién artean. Bay, eta dela laungoycoa, eta argatic dela bedeycatua creatura gucién artean ala lurrian nola çeruan, eta argatic erratendiogu bedeycatua da çure sabeleco frutua lesus.
- 138v G. Orlatan plaçer arçendu auniz Virgina Mariac oracio hau errateas?
 R. Ala da cerengatic frutu ona yçatea da arbolearen²³⁹ alabança, eta semearen gloria amarena; eta lesus yçatetic aren semea datozquoio ambat, eta ayn ondasun andiac. Dituela²⁴⁰ orduonarequi.
 G. Cer escacen dioçu Andre dona Maria beti Virginari erraten duçuean santa Maria laungoycoaren Ama otoyç eguiçu gure²⁴¹ becatarien gatic oray, eta gure heriotçeco orduan?
 R. Itz ohec eçarriditu oracio onetan Eliza sanduac, jaquinica dela gucietic gueyen diroquena laungoycoarequi guri erdesteco aren ganic conveniçayguna eta hala erraten diot otoyç eguindeçan vitartecoçale guertacendela gu becatarien gatic gure necessidade guciétan oray vici garadenean ditugunetan²⁴², eta heriotçeco orduan, noyz baytugu necessidade gueyago aren faborearendaco.
- 139 G. Alaver eguinbeardiotegu oracio Ayngueruey, eta sanduey?
 R. Bay launa, gure vitartecoçaley bezala.
 G. Cer gauza dirade Ayngueruac?
 R. Dirade espiritu sollac gorputcic, eta materiariac batere bague, baytaude laungoycoa alabacendutela.
 G. Cer eguiten dute gueyago?

²³⁷ «ala eçe» perpausa kontsekutiboa sortuz.

²³⁸ «cenen» eta «ceinen», biak darabiltza; «etorri»ren adizki trinkoa, «bait datorgu», alegia.

²³⁹ «orbolearen» orijinallean.

²⁴⁰ «ditu» indikatiboa, subjuntiboa «-(e)la» atzizkiaz bihurtua; «izan ditzala»ren parekoa.

²⁴¹ «gu» beharko luke; «gu» dio Dotrina hasieran, otoitz osoa dakarrenean.

²⁴² Joskera normalean honela beharko luke: «orai vici garadenean ditugun gure necessidade guciétan».

- 139v R. Guiçonac beguiracendituzte, eta ayen mandatuac²⁴³ eta oracioac eramocendituzte²⁴⁴ laungoycoaren gana.
 G. Cer oracio erratendioteçu Ayngueruey, eta sanduey?
 R. Ceymbayt aldís Ayta gurea, eta laungoycoac salvaçayçala Maria.
 G. Nola bada Ayta gurea erratenduçunean etçara minçacen laungoycoarequi, eta laungoycoac salvaçayçala erratenduçunean Andre dona Mariarequi?
 R. Bay jauna, eguia da, baya nola oracio hau Ayta gurea bayta guciatic oberena, ceren erran yçandubayçue Iesu Christo gure launac, ceñetan baytaude guc bear ditugun, eta conveniçayzquigun gauza guciac; eta nola ohen erdesteco auniz balio baytu Ayngueruen, eta sanduen otoyçac, eta gueyena Virgina Mariarenac, argatic erratendut Ayta gurea, eta laungoycoac salvaçayçala Maria, Ayngueruac, edo sanduac Virgina Mariarequi batean vitartecoçale guertadaquizquigun erdesteco deseaçen, eta bearditugun gauzac.
- 140

YRURGARREN CAPITULOA

Dotrinaren yrugarren partea, ceñetan tratacen bayta laungoycoaren²⁴⁵ legue sanduaren Mandamentuen, eta Elizacoen gañean.

- 140v G. Erranyaçu laungoycoaren legue sanduaren Mandamentuac.
 R. laungoycoaren legue sanduaren Mandamentuac dirade amar, erranden²⁴⁶ bezala.
 G. Certan obligacengaytu lembicico Mandamentuac?
 R. Obligacengaytu dauçagun laungoycoa gure launa, laungoyco eguiascoa dela, eta ez yorere berçeric.
 G. Norc dauca laungoycoa gure launa, dela laungoycoa eguiascoa?
 R. Norc adoracembaytu hura bera laungoyco eguiascoa den bezala Fedeas, Esperanças, eta Caritateas.
 G. Nola bearda laungoycoa adratu?
 R. Erreverenciarequi gorputças eta arimas.
 G. Norc eguitendu becatu mandamentu onen contra?
- 141 R. Gentilec, eta ayec guciac, ceñec baytauzquite bere laungoyçoat yguzquia, edo ilarguia, edo berce creaturac, eta ala adoracendituztenac.
 G. Norc honracendu laungoycoa fedeas?
 R. Daucanac laungoycoa dela eguia eracusten duena, eta ala sinestatcenduenac Elizari eracutsiric dauzquien fedesco gauza guciac diradela eguiac; ceren laungoycoa ecin engañaditeque, eta ecin yorere engañadeçaque.

²⁴³ «mezu», «errekadu» adierazi nahi du.

²⁴⁴ Hona hemen euskalki honetako «eramo» aditza.

²⁴⁵ «lauugoycoaren», orijinalean.

²⁴⁶ «errenden» orijinalean.

- G. Norc eguitendu becatu fedearen contra?
 R. Sinestatcen eztituztenec Eliza ama sanduac eracustendituen fedesco gauzac, eta laungoyco falsoetan²⁴⁷ sinestatcendutenec, edo diradela auniz laungoyco.
- 141v G. Norc honraçendu laungoycoa esperanças?
 R. Daucanac bere baytan confiança dela gucis fiela, eta ala cumplitu-co dituela prometaturic dauzquigun gauza guciac, ceren bayta poderoso nayduen guciaren eguiteco.
- G. Orlatan barcatuco dizquio becatariari bere becatuac, munduan den andiena yçanagatic çeren ala dauca laungoycoac prometaturic?
 R. Alada eguia baldin eguin badez²⁴⁸ penitencia beardena, duela dolore eta damu bere becatu eguines, eta daucala propositu fines becatuetatic apartaçeco, eta emendaçeco; ceren onlacoey diaduote²⁴⁹ laungoycoac prometaturic barcatuco dizquiotala.
- 142²⁵⁰ G. Norc eguitendu becatu esperançaren contra?
 R. Desconfiaçendutenec laungoycoaren misericordias, eta gayzqui confiaçenduenac.
- G. Nor da gayzqui confiaçenduena laungoycoaren misericordias?
 R. Husteduenac eçe becatuetatic apartatu bague, aytçetic daucala propositu eta intencio becatu mortale eguiteco, barcatuco dizquiotala, eta salvatuco dela.
- G. Norc honraçendu laungoycoa caritateas?
 R. laungoycoa oneristen duenac gauza gucién gañean.
 G. Nor da oneristenduena laungoycoa gauza gucién gañean?
- 142v R. laungoycoaren mandamentuac beguiracendituenac, eta yolaco maneras autsicen eztituenac²⁵¹.
- G. Orlatan laungoycoaren mandamentuac autsicen dituenac, becatu mortale eguiten duela, eztu laungoycoa oneristen?
 R. Ala da eguia erranagatic ytces oneristenduena, ceren laungoycoaren oneristea eztago ytcetan solamente; baycic obra onac eguitean, ceren ytçac aufer²⁵² dirade obrac²⁵³ contra dirade-nean.
- G. Norc eguitendu becatu caritatearen contra?
 R. Eguiten ezituenac laungoycoac bere mandamentuetan manacenduenac, eta esquergabe dena eguitendizquion ondasunes, eta merchedes.

²⁴⁷ «falsoeta» orijinalen.

²⁴⁸ «Ezan» aditzaren ahalezko baldintza.

²⁴⁹ «Eduki» aditza datiboa txertatua daukalarik, idazle klasikoek erabiltzen zuten bezala.

²⁵⁰ «129» orijinalen.

²⁵¹ «Nor» galderari «Nork»ekin erantzuten da.

²⁵² «auher», «auger» dira hitz honek dituen aldaki nagusiak, «alfer»en parekoak.

²⁵³ «obra» orijinalen.

143

Bigarren Mandamentuaren gañean

- G. Norc egitendu juramentu vanoro?
 R. Iuramentu eguitenduenac daquiela eztiola eguia, edo gauza gays-toaren gañean, eta bear bague.
- G. Eguiten duenac juramentu daquiela eztiola eguia, cer becatu egitendu?
 R. Egitendu becatu mortale, baldin daquiela gueçurradiola juramentu eguitenbadu.
- G. Iuramentu eguitenduenac eztaquiela dion egui edo gueçurra ala dudan dagola, egitendu becatu mortale?
 143v R. Bay jauna, ceren jarriçen bayta²⁵⁴ peligroan gueçurraren ganean (sic) juramentu eguitera.
- G. Iuramentu²⁵⁵ eguitenduenac eguinenduela gauza gaystobat, çer becatu egitendu?
 R. Eguitenduenac juramentu eguinenduela becatu mortale den gauzabat, nola çembay (sic) persona ilceco, edo berçe gauza gaisto andi den bat²⁵⁶, egitendu becatu mortale; baya eguinbadez juramentu eguinenduela cembayt gayzqui chiqui, nola bayta erranenduela gueçurbat yori calteric eztatorcola, edo ebasteco laurecobat, eta berçe onlaco gauza gutibat²⁵⁷, solamente egitendu becatu beniale.
- G. Noiz erratenda egitendela²⁵⁸

< . . >

159

<mer>chede eguitendigu?

- R. Ondasun eta merchede eguitendigunac²⁵⁹ dirade gucis andiac çeren dago sacramentu sandu onetan erranden bezala gu honraçea-gatic, eta gueuren necessidade gucietatic erremediaçea-gatic.
- G. Cembat gauza eguin bearditugu comecatu baño leen orrembat²⁶⁰ ondasun erdestea-gatic?
 R. Bi gauza.
 G. Ceyn da lembicicoa?
 R. Lembicoric eguin beardugunada confessatu oroycen bagarade edoceyn²⁶¹ becatu mortale eguinic leen²⁶² confessatu eztuguenes (sic), eta egon beardugu baruric janic, eta edanic bague²⁶³.

²⁵⁴ «jartzen baita», noski.²⁵⁵ Minuskulaz orijinalean.²⁵⁶ Aurreko hitzarekin elkartua orijinalean.²⁵⁷ «laureco bat», balio gutxiako dirua, alegia; «gauza guti bat», «txiki bat», agertu da gorago balio berdinarekin.²⁵⁸ Hurrengo 15 orriak, 144tik 158raino, falta dira.²⁵⁹ Pluralean beharko lukeela dirudi.²⁶⁰ «horrenbeste».²⁶¹ Banandurik orijinalean.²⁶² «leem» orijinalean.²⁶³ Partizipioak «jan eta edan gabe», partitiboaren atzizkiaz, lexema nominal bezala har daitezke. Normalagoa da Beriainengan aditz izenak «-a» mugatzailearen bitartez bihurtzea lexema nominal.

- G. Ceynda bigarrena?
- 159v R. Bigarren gauza eguinbearduna da comecatu baño leen pensatu, eta consideratu nola dagon hostia consagratuan Iesu Christo gure launa, ceyn Andre dona Mariac, Ayngueruec, sandu eta sanda guciec respetu gucis andiarequi adoracen, alabaçen, eta serviçaçen baytute, çeñec deseiaçen baytute guc erreçebideçagun ongui arracio den bezala, eta ala otoy eguinbeardiogu digun²⁶⁴ bere faborea eta gracia ongui errecebiçeco, eta Virginia Mariari Ayngueruequi, eta sandu, eta sanda guciequi vitartecoçale guerta daquigun.
- G. Eta çer eguin beardugu começatus guero?
- 160 R. Luçaro eta sossegurequi laungoycoari gracia eman eguin digun ondasunas, eta merchede ayn andias, procuraçendugula, alas eta ayn obligaturic utciçengaytuenean, aren serviçuan gogotic eta fines empleaçera, beñere aren graciaic, adisquidetasunetic, eta amoriotic apartatu bague.

Oliaduraren gañean

- G. Cer da oliadura?
- R. Oliadura da sacramentubat Christo gure launac ordenatubaytu heriendaco ylçeco peligroan daudenean errecebiçaten.
- G. Cembat ondasun erreçebicendu oliaçendenac?
- R. Yrur.
- G. Ceyn da lembicicoa?
- 160v R. Lembicicoa da oliacen denac ongui aparejacendela²⁶⁵ errecebicendu Espiritu sanduaren gracia, eta garvicendu aren arima, aguerdedin yll, eta laungoycoaren aurrean²⁶⁶ arracioden bezala garviric.
- G. Ceyn da bigarrena?
- R. Bigarrena da ematenbaytio oliacendenari indar, eta fabore denvora artan eritasunaren trabajuac pacienciarequi errecebiçeco, arcenduela confiança andia laungoycoaren baytan bere misericordia andias emanendiola artaco bearduen favorea eta alaver demonioaren tentacioac, ceñec orduan bortizquiago tentacenbaytu, garaiceco.
- G. Ceyn da yrurgarrena?
- 161 R. Yrurgarren ondasuna²⁶⁷ da eçe oliacendenac beardadu gorpuçaren osasuna arimaren salvaceco emanen bayçayo.
- G. Orlatan²⁶⁸ arracioa da Christioec daucaten contu andia sacramentu hau errecebiçeas?

²⁶⁴ «eman»en balioz, aunitzetan ageri den bera.

²⁶⁵ «Ongi prestatzen delarik».

²⁶⁶ Maiuskulaz orijinalean.

²⁶⁷ «oddasuna» orijinalean.

²⁶⁸ «Horrela beraz».

- R. Ala da eguia, eta ezta echeden bear ariqueta juyzioa galduarte-raño, baycic juizio, eta sentido onean dagon bitartean beardu procuratu errecebicera.

Ordenacean errecebicenden Sacramentuaren gañean eztut deus erraten cerengatic ordenacendiradenece berec daquite cer eguinbear duten.

161v

Matrimonioaren gañean

- G. Cer ondasun ematendiotte matrimonioac ezconzendiradeneý?
 R. Ematendu²⁶⁹ gracia ezconduey ongui viciçeco.
 G. Becatu mortalean dagola ezconçen denac çer becatu eguitendu?
 R. Eguitendu becatu mortale andia, çerengatic gayzqui erreçebiçen-baytu sacramentu sandu hura, eta argatic da ongui bi egunes, edo yrures leen confessaça eta começaça, eta gracion dagola sacramentu hau erreçebicea.

162

Borzgarren Capituloa.

Obra misericordiascoen gañean

- G. Alas eta erranduçunean obra onac eguiten empleatu bearduguna, erraniçaçu obra misericordiascoac?
 R. Obra misericordiascoac dirade amalaur erranden bezala.
 G. Cerengatic²⁷⁰ deiçen dirade obra misericordiascoac?
 R. Ceren ezpaitirade zor justicias.
 G. Noyz eguin bearditugu obligacios?
 R. Necesidade andiac diradenean persona discretoen, eta adiçençayotenen yrudira²⁷¹.

162v

Seygarren²⁷² Capituloa.

Espiritu Sanduaren doayen, eta ayen provechuen gañean.

- G. Erraniçaçu Espiritu Sanduaren doayac?
 R. Espiritu sanduaren doayac çazpi²⁷³ erranden bezala.
 G. Cer gauzetaco laguncençayzquigu Espiritu sanduaren doayac?

²⁶⁹ Datiboaren komuntzadurarik gabe.

²⁷⁰ «Cerengatic» orijinalean.

²⁷¹ «Aditu»ren esanahiaren ondorioz, «errespetagarrien iritzira».

²⁷² «Seyngarren» orijinalean.

²⁷³ «dira» aditza eliditua.

- R. Elçeco Christioaren vicede oberenera, çeren dirade escalera bat bezala ygateco, becatutic libratu, eta obra onac eguines laungoycoaren serviçuanden vicede oberenera, eta goytienera.
- 163 G. Certaco aprovechacençaigu jaquintasunaren doaya?
 R. Iaquintasunaren doaya aprovechacençaigu escogiceco consideratu dugun gauzan gueyen conveñaçayguna; eta nola gueyen conveñaçayguna bayta laungoycoaren serviçaçea, gueuren arimen salvaçeco, ala jaquintasuna duenac onetaco eguitenditu obra onac.
 G. Eta obra onac eguiten eztituenac bere arima salvaçeco çer daqui?
 R. Alacoari yruadiagatic²⁷⁴ daquiela munduan diraden guciac baño gueyago; eztaqui deus conveñaçayonic.
 G. Cerendaco aprovechaçençaigu entendamentuaren doaya?
 163v R. Entendamentuaren doaya aprovechatçençaigu²⁷⁵ adicera emateco eguiac, baytirade laungoycoari agradacençaizquion gauzac, eta aren Magestadeac adicera ematendizquigun misterioac.
 G. Cerendaco aprovechatçençaigu consejuaren doaya?
 R. Consejuaren doaya aprovechatçençaigu consideraceco, eta pensaceco laungoycoac naidituen gauzac eguin diçagun.
 G. Cerendaco aprovechatcen çaygu fortalezaren doaya?
 R. Auniz aprovechatçençaigu, çeren gauza gucietan laungoycoa nayduenac serviçatu aurquençendu dificultade, eta estorbu asco eçarcen dizquiola munduac, demonioac, eta araguiac guciac tentacen, eta acometacen gaytuztela ezteçagun obratan eçarri gueuren proposito, eta intencio onac; baya orduan laungoycoac ematendio aprovechatu nayduenari esporçu, eta indar garaytceco dificultade, eta estorbu guciac.
 164 G. Cerendaco aprovechatcen çaygu piedadearen doaya, baita urricarritcea?
 R. Aprovechatçençaigu laungoicoarequi gueuren gauzes conponceco: çeren consideradezanac becatu mortalebat gastigaceagatic daucala laungoycoac iffernuco pena, ceñes meachacen baytu, urricaricenda becataria bere buruas, eta procuracendu eguitera penitencia aurrera emendacendela, eta eguitenduela gauza gucietan aren vorondeata ambat gaytçetatic escapaceagatic.
 164v G. Cerendaco aprovechatçençaigu laungoycoaren beldurraren doaya?
 R. Auniz aprovechacençaigu: çeren consideradeçanec²⁷⁶ bearden bezala becatu mortalean dagon vitartean dagola laungoyco gucis poderosoaren etsaytasunean, beldurcenda eta procuracendu becatu mortaletic atracera hartan dagola gastiga ezteçan.
 G. Erraniçaçu oray Espiritu sanduaren frutuac.

²⁷⁴ «iruditzen zaion arren», noski.

²⁷⁵ «-çayga» orijinalean.

²⁷⁶ «-ac» morfema beharko luke.

- R. Espiritu sanduaren frutuac dirade amabi erranden bezala.
 G. Cergatic erraten dirade Espiritu sanduaren frutuac?
 165 R. Erratendirade Espiritu sanduaren frutuac: cerengatic nola arboleba-
 tean den gustosoena bayta fruta, ala Espiritu sanduaren frutuac di-
 rade virtuten, eta ondasunen oberenen, gustosoenac.

Çazpigarren capituloa.

Bienaventurançen gañean.

- G. Erraniçaçu Bienaventurançac?
 R. Bienaventurançac dirade zorçi erranden bezala.
 G. Cer gauza dirade bienaventurança ohec?
 R. Dirade virtuten, eta ondasunen, eta Espiritu sanduaren doayen
 obra andienac.
 165v G. Nor dirade vorondates pobre diradenac?
 R. Dirade vorondates hazienda menospreciacen dituztenac²⁷⁷.
 G. Nor dirade mansoac?
 R. Dirade iraric eztutenac, eta aren señaleric here²⁷⁸.
 G. Nola gozacendute lurra?
 R. Beren buruen laun diradela.
 G. Nor dirade nigar eguitendutenac?
 R. Dirade munduonetaco plaçerac (sic), eta gustoac billacen ezituzte-
 nac; baycic procuracenbaytute eguitera penitencia, eta beren beca-
 tues nigarr.
 G. Nor dirade justiciaren gosse, eta egarri diradenac?
 166 R. Eguiten dutenac justicias, eta caridades obligatu diradena²⁷⁹.
 G. Nor dirade misericordiosoac?
 R. Urricaricen diradenac necessidadean daudenes, ez eçagunac yça-
 nagatic.
 G. Nor dirade viotz garviac ditustenac?
 R. Gauza gucietan eguiten dutenac laungoycoac nayduena, eta one-
 taco beren apetitu gaystoen contra eguitendutenac.
 G. Nor dirade baquea dutenac?
 R. Berequi, eta bercerequi baquea dutenac.
 G. Nor dirade bere baytan baquea dutenac?
 166v R. laungoycoarequi ongui daudenac, eçe ohec dute baquea berequin,
 eta procuracendute berçec ere duten²⁸⁰.
 G. Nor dirade justiciaren gatic perseguituac diradenac?

²⁷⁷ Singularrean beharko luke.

²⁷⁸ «señalerichere» orijinalean.

²⁷⁹ «obligatuac (eguitera) diradena».

²⁸⁰ Aurreko hitzarekin elkarturik; bestalde, hemen, berriz ere, hainbestetan ikusi du-
 gun indikatiboko forma «-n»ren bitartez subjuntiboa bilakatua.

- R. Perseguitu diradenac, eta alabaya²⁸¹ gustorequi, eta gogotic su-
friçendituztenac laungoycoaren amoreagatic eguitendizquieten in-
juriac, eta agravioac, eta artan firme daudenac, nola eguin yçandu
bayçute launaren Apostoloec.
- G. Cerengatic obra ohec deycendirade bienaventurançac?
- R. Cerengatic ohec eguitean baytago munduonetaco bienaventurança,
eta dirade escalerabat bezala, ceñetatic elcen bayta erdecicera
ceruco bienaventurança beñere acabatuco eztena.

Zorcigarren capituloa.

Becatu mortalen, eta ayen contra diraden virtuten, eta ondasunen gañean.

- G. Erraniçaçu becatu mortaleac?
- R. Becatu mortaleac dirade çazpi erranden bezala.
- G. Ceren deycendituçu becatu mortaleac, edo buruac?
- R. Ceren baytirade buruac, eta çañac²⁸² ceñetatic atraçenbaytirade
auniz becatu.
- G. Dirade becatu mortale sobervia, eta avaricia guciac?
- 167v R. Ez guciac baicic solamente laungoycoaren caridadearen, eta proxi-
mo lagunaren amorioaren contra diradenac.
- G. Eta noyz dirade caridadearen contra?
- R. Noyz²⁸³ becatu ohes autsiçenbayta cembayt laungoycoaren man-
damenturic, edo Elizarenic.
- G. Cembat maneras dirade becatuac?
- R. Yrur maneratan. Bata da becatu originalea. Berçea mortalea.
Berçea venialea.
- G. Cer gauza da becatu originalea?
- 168²⁸⁴ R. Becatu originalea da becatu hura çeyn heredaçen baytugu ayta
Adan, eta Eva ganic arima laungoicoac criatu, eta juntaçen den be-
zala amaren sabelean²⁸⁵ gorpuçarequi.
- G. Cer gauza da becatu mortalea?
- R. Deseaça, erratea, edo eguitea, edo faltaça çembayt gauza andi-
denean laungoycoaren leguearen contra.
- G. Cergatic erratenda becatu mortalea?
- R. Erratenda mortalea, çeren illçen baytu arima.
- G. Nola illçendu arima?
- R. Cerengatic becatu mortaleagatic galçenbaytu eguitenduenac laun-
goycoaren gracia, eta aren amorioa, bayta arimaren vicia.

²⁸¹ Banandurik orijinalean; «alabaina», noski.

²⁸² «erroak», «sustraiak».

²⁸³ Galdegilea erantzunean erabilia, badu beste horrelako kasurik ere.

²⁸⁴ «150» orijinalean.

²⁸⁵ «sebelean» orijinalean.

- 168v G. Cer gauza da becatu venialea?
 R. Ezpaytu illçen arima, baycic heriçendu.
 G. Nola heritçendu?
 R. Ceren flacacenbaytu ongui eguiteco²⁸⁶ eta aparejaçenbaytu becatu mortale eguiteco.
 G. Ceren deyçenda becatu venialea?
 R. Ceren facilquiro eguiten bayta, eta barçaçen here bay.
 G. Cembat gauzas barcacenda?
 R. Leen erranden bedratçi gauzes.
 G. Cer gauza da sobervia?
 R. Apetitu, eta deseo gaystobat, yçateco berçeac baño gueyago?
 G. Ceynda soberviaren²⁸⁷ contra den virtutea?
 R. Humildadea.
 G. Cerda Humildadea?
 R. Sentiçeça humilquiro bere baytan.
- 169 G. Cer gauza da avaricia?
 R. Apetitu, et deseo gaystobat hazienda yçateco.
 G. Ceyn da avariciaren contra den virtutea?
 R. Liberalyçatea.
 G. Cer da liberalidadea?
 R. Ynclinaciobat emateco duen haziendatic convenidenean, eta bearden bezala.
 G. Cer gauza da luxuria?
 R. Apetitu eta deseo gaystobat araguiarena luxuriaco gauzetan.
 G. Ceyn da luxuriaren contra den virtutea?
 R. Castidadea.
 G. Cer da castidadea?
 R. Luxuriaco gauzetan garvi yçatea.
 G. Cer gauza da ira?
 R. Apetitu eta deseo gaystobat mendecaçeco²⁸⁸.
- 169v G. Ceyn da yraren contraden virtutea?
 R. Manso yçatea, eta pacienciatan proximo lagunaren agravioac, eta injuriac erreçebiçeça.
 G. Cer gauza da gula?
 R. Apetitu eta deseobat jateco, eta edateco sopra.
 G. Ceyn da gularen contraden virtutea?
 R. Templança.
 G. Cer gauza da templança?
 R. Ez jatea, eta ez edatea conveniden baño gueyago.
 G. Cer da invidia?
 R. Tristurabat, eta damutasunbat bercearen ondasunas.
 G. Ceyn da invidiaren contra den virtutea?

²⁸⁶ «eguiteca» orijinalean.

²⁸⁷ «soberviaren» orijinalean.

²⁸⁸ «mendecaçeco» orijinalean.

- R. Caritatea.
 G. Cer da caritatea?
 170 R. Plazer arcea bercearen ondasunas, eta damu aren gayças gueure-
 nas bezala.
 G. Cer gauza da pereza?
 R. Tristurarequi ybilcea, eta arlote yçatea laungoycoaren cerviçuco
 gauzetan.
 G. Ceyn da perezaren contra den virtutea?
 R. Diligencia.
 G. Cer da diligenza?
 R. Fite gogotic, eta gozorequi laungoycoaren cerviçuco, eta ari agra-
 dacençaiquion gauzac eguitea.

Bedracigarren Capituloa.

Virtute Teologalen, eta Cardinalen gañean.

- G. Erraniçaçu virtute Teologalac.
 170v R. Virtute Teologalac dirade yrur, erranden bezala.
 G. Cer gauza da Fedea?
 R. Da arguitasun bat laungoycoac ematendiguna, ceñeças ycusi ba-
 gue sinestatcen baytugu laungoycoac, eta Elizac erratendizquigu-
 nac diradela fedesco gauzac.
 G. Cer gauza da Esperança?
 R. Esperança yduquicea laungoycoaren baytan emanendigula gloria,
 eta aren erdesteco bearditugun gauzac.
 G. <Eta> certan dago gure bien<aventu>rança?
 R. laungoycoa bera ycust<ean, on>eristean, eta arças gozacean beti
 beñere acabatubague.
 G. Cer medios erdestanda?
 171 R. laungoycoaren gracias, eta Christo gure launaren meregimentues,
 eta gure obra ones.
 G. Cer da Caritatea?
 R. Oneristea laungoycoa gauza gucien gañean, eta proximo laguna
 gueuroc bezala.
 G. Erraneçaçu cembat diraden virtute Cardinaleac.
 R. Virtute cardinaleac dirade laur erranden bezala.
 G. Cer oficio du Prudenciac?
 R. Medio on bat yçatea gauzetan.
 G. Cer oficio du justiciac?
 R. Nori berea ematea.
 G. Cer oficio du fortalezac?
 171v R. Edoçeyn²⁸⁹ peligrotan jarriçea illbearbadu here convenidenean
 laungoycoaren serviçaçeagatic, eta beardenean, edoçein trabaju
 sufricea.

²⁸⁹ Banandurik orijinalean, berdin hurrengoan ere.

- G. Cer oficio du templançac?
 R. Guençea sobra jatea, eta edatea, eta araguiaren luxuriasco deseo gaystoac.
 G. Ceyn da virtute gucietatic andiena?
 R. Caritatea, ceñec guciey ematen baytiote vicia.
 G. Ceyn persona da laungoycoaren aurrant²⁹⁰ oberena, eta sandue-na?
 R. Biz nornay²⁹¹ caritate eta amorio laungoycoarequin gueyen duena.
 G. Eta norc du caritate eta amorio gueyago laungoycoarequi?
 172 R. laungoycoaren mandamentuac obequien beguiraçendituenac.
 G. Evangelioco consejuac çembat dirade?
 R. Yrur, vorondates pobre içatea, eta castidadesco estadoa²⁹², eta obedienciaren azpian viciea.
 G. Certaco cerviçacendira²⁹³ conseju ohec?
 R. laungoycoaren mandamentuac obequiago beguiraceco.

Amargarren Capituloa.

Arimaren potencien, eta sentido corporalen gañean.

- G. Erraniçaçu arimaren Potenciac.
 R. Dirade yrur erranden bezala.
 172v G. Certaco emandigu laungoycoac entendamentua?
 R. Eçagudeçagun norden, eta aren gauzetan pensadeçagun.
 G. Certaco emandigu memoria?
 R. Oroytgaitecen aren legueas cumpliceco aren vorondatearequi, eta eguitendizquigun ondasunes graciac emateco.
 G. Certaco emandigu vorondatea?
 R. Oneritsideçagun, eta mergiçen dugula²⁹⁴ eguindeçagun aren²⁹⁵ vorondatea.
 G. Errançaçu sentido corporealeac, erran naydut gorp<u>çarenac.
 R. Dirade borz erranden bezala.
 G. Certaco emandizquigu sentido ohec
 173 R. Gucies²⁹⁶ serviçadeçagun laungoycoa gauza gucietan.

²⁹⁰ Besteetan «aurreen» darabil, behin izan ezik, «aurren» 135v. or.; maiuskulaz orijinalean.

²⁹¹ «Biz» agintaldia, gaztelarako subjuntiboa aldatzeko darabil: «sea quien fuese». «nor nay» orijinalean.

²⁹² «estadea» orijinalean.

²⁹³ Ikus, «zerbitzatu» iragangaitz bezala erabilia.

²⁹⁴ «merementuz», alegia.

²⁹⁵ Aurreko hitzarekin lotuta.

²⁹⁶ Minuskulaz orijinalean.

Amecagarren Capituloa.
Arimaren etsayen gañean.

- G. Erraniçaçu arimaren etsayac.
R. Dirade yrur erranden bezala.
- G. Cerengatic deycenditugu ohec arimaren etsayac? Porventura naztugularic²⁹⁷ becaturic eraguineracidraçaquegute?²⁹⁸
R. Ez launa, baya eguitendute aldaguiten²⁹⁹ gucia acosaçengaytuz-tela eguindeçagun becatu, eta ala galgayteçen, argatic dirade etsayac.
- 173v G. Nola bada laungoycoac permitiçenditu tentacioac?
R. Gu probaceagatic³⁰⁰, eta contrarioac ditugula atra gayteçen aren favorearequi, çeyn ezpaititu³⁰¹ beñere faltaçen, meregimentu auniçequi, vitoriarequi, eta ala guerogo coroa eta premio erdetsi deçagun.
- G. Orlatan laungoycoaren faborearequi libragaytezque etsay oheta-tic?
R. Bay launa, eta galaynqui (sic).
G. Nola tentaçen gaytu demonioac?
R. Ecartçendizquigula pensamentu gaystoac, eta landatic e<s>tro-peçuac ecarris erorgayteçen.
- G.³⁰² Cer erremedio pensamentu gaystoen contra?
174 R. Gurutçe sandua, eta hur bedeycatua, eta laungoycoari otoyzt eguite<a> ayeta<tic>³⁰³ libragayçan, eta gueure ganic leen baño leen egoste<a>.
- G. Ocasio gaystoen con<tra>, çer erremedio da?
R. Erremedioric andie<na> eta oberena da ayet<atic> igues eguitea, eta ala <esca>paçea, eta laungoyco<ari> otoyzt eguitea ayetatic bragayçan.
- G. Munduac³⁰⁴ nola tentac<en> gaytu?
R. Vanidades, eta munduac nayduen bezala vicidiradeneç erraten, eta eguitendituzten gauzac memorian ecarriz.
G. Cer erremedio ayen contra?

²⁹⁷ «nahi eztugularik», alegia.

²⁹⁸ «eranguin-» orijinalean.

²⁹⁹ «aldaguitec» orijinalean. «Egin»en potentziala, «egin ahal dezaketen», ikus ere: 85, 98 eta 132v. or.

³⁰⁰ «probaceaceagatic» orijinalean.

³⁰¹ Adizkiaren formak eta zenbakiaren komuntadurak ez dirudite zuzenak, «faborearequi» singularrean bait dago; nolana ere, ez da garbi ulertzen perpausa.

³⁰² «R.» orijinalean.

³⁰³ Hurrengo sei lerroetan kortxete artean datorrena falta da orijinaleko orria apurtua delako.


³⁰⁴ «Munduac» orijinalean.

- 174v R. Consideraçaẽa laungoycoaren leguean, eta sanduec <cer>eguin-
çuten³⁰⁵, ala guc ere <e>guiteco.
<G.> Araguiac nola tentaçen <gai>tu?
<R.> Araguiaren inclinacio, <eta> apetitu gaystoos.
<G.> Cer erremedio da ayen <con>tra?
<R.> I>aungoicoaren graçia, <eta ar>equi batean obra onac <egu>
itea, eta ayetan ocupa<tua> egotea, çeyn digula³⁰⁶ <laungo>ico
gure launac be<re> misericordia andias. Ala dela³⁰⁷.

³⁰⁵ Ezkerraldean orriaren zati bat falta da, goian komentatu dugun bezala.

³⁰⁶ «Eman»en esanahiz, «-i-» erro supletiboz osatua.

³⁰⁷ Behean eta letra haundiz: «Laus Deo». Ondotik, 175. or., «El acto de contrición», gazteleraz idatzia dator. Hurrengo orrian, euskaraz datorrela pentsatu behar da, baina orria falta da. Azkena, 177. orrian, —bertan «176» idatzia dago—, bost lerrotako euskarazko testua dator; azken hitzak baino ez dira irakurtzen: «... ill arteraño viciceco dela». Beherago eta letra haundiz: «Finis».



Двигатель

Составляющие: 1. Вал, 2. Лопатки, 3. Корпус, 4. Подшипники, 5. Сальник.

Euskal fonetikaren inguruan

Itziar Turrez
Ion Bediaga

0. SARRERA

Gaur egun, fonetikako lanek, garapen teknologikoari esker, zehaztasun handia lortu dute, fenomenoek deskribapen eta metodologiaren ekoizpenean objektibitate zientifikoa emanaz.

Fonetika akustikoari dagokionez, Deustuko Unibertsitateko Fonetika Ikertegian «Euskararen Análisi Akustikoa» azterketa burutu izan da euskararen fonema bokaliko eta kontsonantikoek perfila eskuratu ahal izateko. Urte asko eman du lan talde honek informanteen grabaketan, ikertegiko analisi eta bibliografia lanetan eta lan ondorioen idazketan. Eginkizun hauen emaitzak Deustuko Unibertsitateko *Linguística* sailean etengabe agertzen hasi dira¹. Hiru liburu hauek lehenengo atala osatzen dute, *txistukariena* hain zuzen ere eta honen ostean *bokalismoa* izan da aztergai. Beraz, lan talde honen helburua euskarazko zenbait fenomenoek ezaugarri fonetikoek emaitza eta ondorioak azaltzea da.

Edozein ikerketa fonetikoren aurrean aukera nagusi bi ditugu:

- a) *Fonetika Artikulatorioa*: artikulazio era, organo eta puntuaren arabera soinuak deskribatzen dituenak. Genetikoa den fonetika hau «denbora luzean erabili den bakarra, eta gaur egun oraindik, pedagogikoki batez ere, hizkuntza deskribapenean erabiltzen dena da»².

¹ URRUTIA, H., ETXEBARRIA, M., TURREZ, I., DUQUE, J.C., *Fonética Vasca I (Las sibilantes en el vizcaino)*, Univ. de Deusto, Bilbao, 1988; *Fonética Vasca II (Las sibilantes en el guipuzcoano)*, Univ. de Deusto, Bilbao 1989; *Fonética Vasca III (Las sibilantes en los dialectos orientales)*, Univ. de Deusto, Bilbao, 1991.

² QUILIS, A.: *Fonética acústica de la lengua española*, Gredos, Madrid, 1981, p. 19.

- b) *Fonetika Akustikoa*: soinu artikulatuen hots-uhinaren osagaiak aztertzen dituena. Fonetika mota honekin rasgo akustikoen oposaketa binarioen bitartez deskribitzen da hizkuntza.

Ikasbide bereko bi ikuspegi hauek betegarriak diren arren, fonetika akustikoa, hizkuntzaren soinu deskribaketa ikustatzerakoan, egokiagoa dela esan daiteke, batez ere, honen datuak, deskripzio fonikoa eta giza harremanetarako, objetibo, apropos eta iraunkorragoak direlako. Gauza hauek guztiak ikusi ondoren fonetika lan talde honen hautaketa zein izan den jakitea ez da zaila: Antonio Quilis-ek jorratutako bidea jarraitu izan dute, hau da, fonetika akustikoa.

Euskararen munduan badira zenbait fenomeno, bereizgarri izaki, hizkuntzalaritza arloan gatazka sortu dutenak, eta honetariko eztabaidatuena txistukarien sistema da; hori dela eta argitaraturiko lehenengo lan hauek txistukarien datu objetibo eta zientifikoen urbilketa egingo dute. Sistema honetatik abiatuz, datuak eskuetan ditugula, lurralde ezberdinek erabiltzen dituzten aldakiak ikusiko ditugu; azkenik, euskalkiz euskalki txistukarien erabilpena frogatzeko.

Jakina da gertakizun honen aurrean erabilera desberdinak aurkitzen ditugula eta sistemaren murrizketa zenbait lekutan ematen dela. Lan honekin guzti honen ehunekoak zehaztuko dira, doitasun zientifikomatematikoa lortuz. Lana hirutan banatzen da, hauetariko bakoitzak libururatu bat osatuz:

- txistukariak Bizkaieran
- txistukariak Gipuzkeran
- txistukariak Ekialdeko euskalkietan.

Bizkaiko eta Gipuzkoako euskalkiek, ageri denez, trataera berezia izan dute, haietan, txistukari sistemaren murrizketa nabariagoa izan delako.

Aurtengo kurtso akademikoan lanaren beste zati bat —bokalismoa— agertuko da. Honetan euskal bokalismoa, euskalkika oraingoan ere, inguruko hizkuntzekin, gaztelera eta frantsesa, erkatuko da.

Dudarik gabe, lan hauek guztiek euskararen aztertzaileentzat ezeze, fonetika akustikoaren arloan aplikazio metodologiko eta zehatza bilatu nahi dutenentzat ere gain-gaineko balioa dute.

1. METODOLOGIA

Lana, euskalkiak direla eta, hiru liburutan banatuta dago, baina hiru liburutan metodologia bera daukagu. Hauek dira erizpideak:

- Galdeketa lekuak.
- Informanteen hautaketa.
- Galdeketak eta galdekizuna.
- Bereizgarri artikulatorio eta akustikoak.
- Grabaketak eta analisia.

1.1. Galdeketa lekuak

Ezberdintasun geografikoa eta honen banaketa dialektala kontutan harturik, honako atal hauek bereiztu izan dira:

- Euskalkiak.
- Azpieuskalkiak.
- Barietateak.

Atal hauek, banaketa dialektal klasikoari dagozkionak³, zehazki izan dira aztertuak, eta gutxienez, aldaki bakoitzeko informante bati egin zaio galdeketa. Leku batzuetan, dentsitate handiagatik, galdeketa bat baino gehiago burutu da.

1.2. Informanteen hautaketa

Hona hemen lan talde honek informanteen aukeraketarako harturiko kriterioak:

- Sexua: galdeketa egin dutenak gizonezkoak dira, hauen ahotsa, timbrearen ikuspuntutik, gardenagoa delako.
- Adina: hogeita hamar urtetik hirurogeita bost urterarteko pertsonak izan dira inkestatuak.
- Konpetentzia linguistikoa: informanteen ama-hizkuntza euskara bada ere, hauek elebidunak dira. Ama-hizkuntzaren ezagutza ez da irakaskuntzarekin garatu, hau da, informanteek ez dute alfabetatze gradua lortu.
- Sendiaren jatorria: Kriterio honekin interferentziak ekiditzen saiatu dira, eta honetarako informantearen gurasoak eta hura jatorri berdinekoak izan behar dira.

³ DE YRIZAR, P.: *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*, Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa, Zarauz, 1981, 2 vols., pp. 39-45.

1.3. Galdeketak eta galdekizuna

1.3.1. GALDEKETAK

Informanteak hautatu ondoren, hurrengo urratsa, hauei gadeketa egitea izan da, honen garapena galdekizunaren itaunek zehaztu dutelarik. Informantearen aldaki lingustikoan ez eragiteko, galderak gazte-leraz egin izan dira, eta beti ere, inkestazaile zein informantearen neutralitatea bilatu izan da.

1.3.2. GALDEKIZUNA

Bokale eta kontsonante guztien ezaugarri fonetikoak aztertzeko, honako kriterioak dituen 277 itauneko galdekizuna prestatu zen:

- hiztegi amankomunaren «corpus» baten hautapena.
- sustantiboaren erabilera, nahiz eta batzutan beste unitate lexikoen laguntza beharrezkoa izan.

1.4. Bereizgarri artikulatorio eta akustikoak

Lan talde honek, batutako materialaren azterketa fonetikoak zehaztu baino lehenago, irakaskuntzan eta bibliografian⁴ erabiltzen den normatibaren arabera, euskararen fonemen eta alofonoen eskema azaltzen du. Euskararen barianteen ikerketan, bestalde, beste errealizazio eta neutralizazio zein desfonologizazio gertakariak ikusiko dira.

1.5. Grabaketak eta analisisa

Grabaketak egiteko Uher Report Monitor bobina irekiko magnetofoia, eta materiale akustikoen analisi eta prozesatzerako, Sonografo Digitala 7800 erabili izan dira.

2. ONDORIOAK

2.1. Deskribapena

Jakina da, euskalkien arabera, txistukarien erabilera desberdina dela. Erabilera hau, galdeketen bidez zehaztu ahal izan da, eta atal ho-

⁴ MICHELENA, L.: *Fonética Histórica Vasca*, Diputación de Guipuzcoa, San Sebastián, 1977, 2ª ed.; Txillardegí, *Euskal Fonología*, Ediciones Vascas, San Sebastián, 1980.

netan, euskalki bakoitzak txistukari sistemarekiko duen jarrera aztertuko da banan banan.

Fenomenoen deskribaketa hasi baino lehenago, sistema normati-boa ipiniko dugu ematen diren aldaketak hobeto ulertu ahal izateko:

	Frikariak	Afrikatuak
Bizkar-hobietakoak	s	ts
Goi-hobietakoak	ś	tś
Sabaikoak	š	tš

A. Bizkaiera

Bizkaieran sistemak sinplifikazio edo elementuen fusiorako joera agertzen du. Horrela, frikarien artean, goi-hobietako errealizazioa izan da nagusi, bizkar-hobietako eta goi-hobietakoen arteko oposaketa galtzen delarik; gainera, bizkaieraren frikarietan [+sabaikoa] / [-sabaikoa] oposaketa ia ez dagoela esan daiteke. Afrikatueta, aldiz, oposaketa sabaiko [+sabaiko] eta bizkar-hobietakoen [-sabaikoa] artean ematen da, goi-hobietako errealizazioa desagertzen delarik.

Ikus dezagun lanean agerturiko agerpen eta ehunekoen eskema:

Frikariak	%	Agerpenak	Afrikatuak	%	Agerpenak
s	0,4	(4)	ts	47,1	(163)
ś	89,3	(802)	tś	—	—
š	3,1	(28)	tš/tš ⁵	52,3	(181)
Beste batzuk	7,2	(64)	Beste batzuk	0,6	(2)

Beraz, eskema hauetan ikus daitekeenaren arabera, sistema normatibotik honako sistemara ailegutzen da bizkaieraz:

	Frikariak	Afrikatuak
Bizkar-hobietakoak	—	ts
Goi-hobietakoak	ś	—
Sabaikoak	(š)	tš

⁵ Batera daude ts (sabaikoa) eta ts (sabaiaurrekoa) afrikatueta oposaketa [+sabaikoa] / [-sabaikoa] delako. Hemendik aurrera, joera berdina jarraituko da.

B. Gipuzkera

Bizkaieraren kasuan bezalaxe⁶, gipuzkerak ere, sinplifikazio edo elementuen fusiorako joera agertuko du.

Frikarietan goi-hobietako errealizazioa nagusi bada ere, euskalki honetan ezin esan daiteke bizkar-hobietako eta goi-hobietakoen arteko oposaketa guztiz galdu denik, bizkar-hobietako errealizazio gutxi batzuk daudelako. [+ sabaikoa] / [- sabaikoa] bikotean ere, oposaketaren ahulaldia nabarmena da bere izaera asimetrikoagatik batez ere.

Afrikatueta, berriz, oposaketa argia da: alde batetik, sabaiko eta sabaiaurreko errealizazioak [+ sabaikoa], eta bestetik, bizkar-hobietakoak [- sabaikoak] egongo dira.

Ikus dezagun, gipuzkerari buruz, lanean agerturiko agerpen eta ehunekoen eskema:

Frikariak	%	Agerpenak	Afrikatuak	%	Agerpenak
s	13,3	(88)	ts	60,4	(191)
ś	69,1	(457)	tś	—	—
š	4,9	(33)	tš / tš	39,5	(125)
Beste batzuk	12,5	(83)	Beste batzuk	—	—

Azkenik, gipuzkeraren sistema:

	Frikariak	Afrikatuak
Bizkar-hobietakoak	(s)	ts
Goi-hobietakoak	ś	—
Sabaikoak	(š)	tš

D. Ekialdeko Euskalkiak

Ateratako datuek, ekialdeko euskalkien joera eta mendebaldekoena berdintsuak direla adierazten dute.

Dena den, ekialdeko euskalkien datuen aurkezpena egingo dugu jarraian:

⁶ Txistukarien tratamenduan, bi euskalki hauek bereziak direla argi geratzen da *Fonetica Vasca* lanean, hiru liburuetatik liburu bana betetzen dutelako.

Iparraldeko Goi-Nafarrera

Frikarrietan errealizazio nagusia goi-hobietakoa da, baina bizkar-hobietako eta goi-hobietakoen arteko oposaketa, ahula bada ere, ez da guztiz galdu. [+sabaikoa] / [-sabaikoa] oposaketa ere nahiko ahula da.

Afrikatuetan, oposaketa sabaiko eta bizkar-hobietakoen artean ematen da.

Frikariak	%	Agerpenak	Afrikatuak	%	Agerpenak
s	5,8	(19)	ts	59	(72)
ś	83,5	(272)	tś	—	—
š	6,4	(21)	tš/tś	41	(50)
Beste batzuk	4,2	(13)	Beste batzuk	—	—

Lapurtera

Euskalki honetan, goi-hobietako eta sabaikoen arteko oposaketa bakarrik mantendu daiteke frikarrietan, bizkar-hobietako errealizazioak ez baitira ia agertzen.

Afrikatuetan berriro, [+ sabaikoa] / [- sabaikoa] oposaketa ematen da.

Frikariak	%	Agerpenak	Afrikatuak	%	Agerpenak
s	0,6	(1)	ts	63,2	(48)
ś	83,9	(146)	tś	—	—
š	12,0	(21)	tš/tś	36,8	(28)
Beste batzuk	3,5	(16)	Beste batzuk	—	—

Zuberera

Aurrekoan bezala, frikarrietan mantendu daitekeen oposaketa bakarra goi-hobietako eta sabaikoen artekoa da.

Afrikatuetan, sabaiko eta bizkar-hobietakoen artekoa mantentzen da, baina oraingoan ehunekoa alderantzten da, sabaikoena handiagoa izanik.

Frikariak	%	Agerpenak	Afrikatuak	%	Agerpenak
s	1,1	(1)	ts	45,4	(15)
ś	63,7	(58)	tś	—	—
š	33,0	(30)	tš/tś	54,4	(18)
Beste batzuk	2,2	(2)	Beste batzuk	—	—

Ekialdeko Behe-Nafarrera

Frikarrietan goi-hobietako errealizazioen nagusitasuna berriro nabaria bada ere, bizkar-hobietakoen presentzia handiagoa da aurreko euskalkietan baino; era berean, sabaikoen agerpena kontutan hartzekoa da. Beraz, euskalki honetan, bereizpen hirukoitza ematen da.

Afrikatueta, aurrekoetan mantentzen den oposaketa bera ere ematen da.

Frikariak	%	Agerpenak	Afrikatuak	%	Agerpenak
s	8,0	(18)	ts	66	(64)
ś	81,6	(182)	tś	—	—
š	6,7	(15)	tš/t̃š	34	(33)
Beste batzuk	3,5	(8)	Beste batzuk	—	—

Mendebaldeko Behe-Nafarrera

Euskalki honetako frikarrietan, bizkar-hobietakoen agerpen handia azpimarratu behar da, nahiz eta goi-hobietako errealizazioak gehiago izan.

Sabaikoen errealizazioak beste euskalkietakoak baino gutxiago dira, beraz, oposaketa hobietakoen artekoa izango da.

Afrikatueta, berriro ere, bizkar-hobietako eta sabaikoen arteko oposaketa egongo da.


Frikariak	%	Agerpenak	Afrikatuak	%	Agerpenak
s	26,8	(50)	ts	49	(29)
ś	68,3	(127)	tś	—	—
š	2,7	(5)	tš/t̃š	51	(30)
Beste batzuk	2,0	(4)	Beste batzuk	—	—

2.2. Sintesia

Euskalki guztietako datuak aztertuta, txistukari sistemak, laburketa-rako joera duela esan daiteke.

Aurrean ikusitako guztia, eskema honekin laburtu ahal da:

	Frikariak	Afrikatuak
Bizkar-hobietakoak	(s)	ts
Goi-hobietakoak	ś	—
Sabaikoak	(š)	tš



Euskal lexikoaren historiako oharrak

Carmen Isasi
(Unai Elorriaga
eta Patxo Fernández de Larrinoa-k euskaratua)
Euskal Filologiako nire ikasleei

Bizkaia aldean, erromantzearen eta euskararen arteko Erdiaroko elkar hartuemanaren agerpen dokumentalak batez ere onomastikan aztertuak izan dira, eremu honetan denok ezagutzen ditugun Alfontso Irigoienek ekarpenak ditugularik. Asko dira, halaz ere, aztertzaileen arretaren zain dauden beste azterketa maila batzuei dagozkien alderdiak¹. Hauen artean, *Fondos documentales vizcaínos*² delakoaren irakurketak lehen hurbilketa batetan gure begien aurrean jartzen duen arazo bat da: euskal hitzen agerpena kontestu erromantzean.

Aurreko lanetan, jadanik aipatu ditut euskararen agerpenak, adierazitako dokumentazioa, zenbait kasutan, lehen aipamen historikoa izan daitekeelarik. Lehengo komentarioak orri hauetan batu eta zabaltzeko eta, aldi berean, euskaraz argitaratzeko, *Enseiukarreanek* eskaintzen didan aukeraz baliatzen naiz, nahiz eta Unai Elorriaga eta Patxo Fernández de Larrinoa nire itzultzaileen ahotsaren bitartez mintzatzen naizen.

Interferentzia lexikoa zenbait arlotan biltzen da, zeinetan, dokumentu tipologiaren baldintzapean datorren arren, ahozko aztarnak ageri diren³. Horregatik, eremu hauetako ekintza ekonomiko espezipikoek adibide multzo ederra ematen digute, hala itsas-bizitzan, nekazal langintzan edo burdinolen kasuan, eta jarduera horietan aurki daitezke azaldu nahi ditudan lekukotasun gehienak, nahiz eta beste arlo batzuei dagozkien aipamenak egon, hala nola botanika, lanabes eta eraikuntzari buruzkoak.

¹ Maria Teresa Etxenikek, gogoratuko den bezala, sarritan aipatu izan du bere lan ugarietan euskara eta erromantzearen arteko harremanen azterketak daukan interesa.

² Eusko Ikaskuntzak argitaratzen duen bilketa.

³ Testu notarialak, testu hauek egiten dituen komunitatearen ahozko hizkuntzaren islada bezala baliagarriak izatea, dakigun bezala, aspektu eztabaidatua da.

Dokumentu hauen azterketa sistematikoeak datu berriak ez dakarziguten bitartean, aurkezten dudan sortak muestra baten balioa du⁴. Hemen eskaintzen ditudanen aurkezpenari dagokionez, termino bakoitza euskal grafiaz eta Erdiaroko testuei dagokiena aipatuko dut. Gure korpusaren adibideak interesgarriak baitira beren lokalizazio eta kronologiagatik, kasuan kasuko terminoaren bi errejistro zaharrenak aipatuko dira eta, beharrezko denean, gaztelerarentzako ezagutzen diren datazio erreferentziak⁵.

Itsas-bizitza

KOLONDRIN-COLONDRINO: «Trigla»

C.L. 9, 1496, 88 aur, 37.

MAKAREL-MACAREL: «Lo mismo que begi aundi (Scomber Macrophthalmus), afín al verdel»⁶.

C.L. 9, 1496, 88 aur, 37.

TRAMAN: «Raya».

C.L. 9, 1496, 88 aur, 37.

TRETZA-TREÇA: «Aparejo para pescar, palangre»⁷.

C.L. 11, 1500, 163 aur.-164 itz, 40-42.

Nekazal eremua eta bere mugakera

ABEURREA: «Señal que se ponía en un terreno público para adquirir derecho a edificar en él».

Fuero de Vizcaya, 1600, 71 aur, 147, 148.

EGURBIDEA: «Monte amojonado con destino al servicio del pueblo».

M.L. 44, 1398, 100.

M.L. 46, 1404 (K. 1405), 117.

EGURTZA-EGURÇA: «Monte leñero».

⁴ Une honetan Deustuko Unibertsitatean zerrendan sartuak dauden tesia zenbaitek Bizkaiko dokumentu kolezioen azterketa du helburu.

⁵ Lexikografiari buruzko erreferentziak ondorengoak dira: L. MICHELENA: *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbao, 1987-1992, eta *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca*, lehenengoan agertzen ez diren sarreentzako. Gaztelerarentzako erreferentzia osagarria kasu honetan J. COROMINAS - J. A. PASCUAL: *Diccionario crítico-etimológico castellano e hispánico*, VI vols., Madrid, Gredos, 1980-1991.

⁶ T. ARANZADI: «Nombres de peces en euskera», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 24, 375-86.

⁷ Gazteleraz ez da esanahi hau topatzen, nahiz eta jatorri erromanikoa izan dezakeen.

M.E. 4, 1456, 3 aur, 12.

M.D. 26, 1462⁸, 1 itz, 115-116.

HAUSTARRI-AUSTARRI: «Piedra cenizal: mojón en el centro del sel». *Cenarruza 65, 1556, 1 aur, 271.*

IBARRA-YBARRA: «Ribera», «trozo de terreno».

A.J.B. 1495, 100 aur, 122-123

LARRIN-LARRYN: «Era»

A.D.B.II, 1509, 71 aur, 124.

Edad: 51 años. Oficio: Encargado del agua

Lugar de nacimiento: Vergara, Guipúzcoa, España.

Lugar de residencia: Vergara, Guipúzcoa, España.

Estuvo antes en...: ¿Viaja mucho? ¿A donde?:

Lugar de residencia de sus padres: Vergara

Lugar de origen del padre: Tolosa, Guipúzcoa. De la madre: Elgoibar, Guipúzcoa.

Fecha, lugar, provincia y nación: 23-VIII-1913, Vergara, Guipúzcoa, España

Clase de tema:

Propio, extraño, cosa, ya escrita, lengua, dialecto o habla popular: Vasco, guipúzcoano (sic) de Vergara.

Instrumento: Clase de disco:

Nombre del encuestador: Dr. R. Trebitsch. Profesión: Etnógrafo

Autor de la transcripción: Gregorio de Mújica

2.223

Juan dan domeka baten artu kafia bi koparekin eta zigarro purua erre eta joan nintzan etxera lo eitera. Eta bela zan serenua ate joten, «sua ta sua», diar ein zostan. Agudo ibilli ari, sua dok eta. Nun dok ba? Fabrika aundixan eta su aundixa dok eta agudo ibilli ari. Bela gertau nittuan manga, bonba eta gauzak eta jua giñan, baña gu jua orduko an dana erreta zeguan; an jardun giñuan, batek bonbia emen ipiñi biar dala, bestiak an ipiñi biar dala eta gu lanian eta sua be bai⁶.

Eta au polittena. Lengo egun baten jua naiz uran dirua kobratzera etxe batera. Eta zeukan lau txakur andin esesua. Eta preguntau zostan lau txakur aundixak zer zian. Eta nik esaten notsan orrek ziala kuartillu bat nik erateko. Bera asi jatan: bai, ezaun da bai, zu ondo bizi za, eta milla koplá. Baña nik kobratzen nabillenan ezton eukitzen kopláik, eta esaten dotset: «a pagar tocan señores y compañía».

⁶ Honela dago idatzian. Baina grabaketan aldaketak dagoz eta traskribaketan agertzen dira.

2.224

Juan dan gau baten atian freskuran nagola etorri jatan iru mutil, bat ni saludatzera, eta ni bat orrekin ezin nitzan akordau zein zan. Eta berak: Qué hay José Joaquín? Enazu ezautzen? —Ba enaiz akordatzen-Ta noiz ingo'gu muxuangule?

Urrengo karnabaletan ni etorriko naiz eta ein biogu muxuangule.

—Bien, eta orduan akordau nitzan zein zan. Eta zein zala uste do-zue? Señorito José M.^a Lardizabal.

* * *

Aituik Joxe Trapala: gaur San Marzial eguna dok eta meriendau ederki eta gero Blasenian kafia hartu eta kantau ein biajuau «Uso txuria» eta olakotxe kanta batzuk, eta kostia kosta, gaur umorian pasau eta bigar ur freskua eran eta lana eiñ. Jakin nai bozue ni zein naizen, naiz Jose Joaquin Raimond, Bergarako uren enkargaua.

2.223

[xwaŋ daŋ domeka γαυ βaten / aṛtu kaφia βi kopakin / eta siγaṛo purua eṛe / eta xoan' iŋcan lo eiṭera // eta γaβian / gaβian śua išan śan eta / eta śerenuak ate xoka // eta γero paśau śan atia xo ta xaiṭki nicen seiṭuan // faŋ giŋem bombia aṛtute / śua emeŋdacera / eta γu xuen oṛduko δana eṛia śeyuan / da batek βombia oṛ ipini / beśtiak or ipini / an ipini / demporia xun ta śuak bere lanak eiŋ / eta oṛ śan oṛdu βata teṛdiṣak oṛduβiṣak aḷdian akaβeu xiṭuaśan aŋgo lanak]

[eta au poliṭa // leŋgo eyum baten xwa' naiś uraŋ dirua koβracera eče batera // eta lau čakur aŋdi śeykan eśeśua // eta śeṛ da ori ↑ / śeṛ da ori ↑ // eta nik eśate'nocan / oṛek śiala kuaṛtiḷu bat nik erateko // aśi xatan / bai / eśauŋ da bai / śu oŋdo βiśi śa' / ta miḷa kopla // baŋa nik koβrace' naβilenian / eśtot eykiceŋ koplaiṭk / eta eśateŋ docet // a payaṛ tokan śeŋoreś i kompañia]

2.224

[xwan daŋ gau batian / atiem freśkure aṛce' nayola / etoṛi xatan iru mutil // Bat ni śaludacera / eta ni bat oṛekin eśi' nican akoṛdaυ seiŋ śan // eta berak // ke ai xośe xoakin ↑ / enaśu eśaucen ↑ / ba enaiś akoṛdacen // ta noi' eiŋgo du muśuaŋgule ↑ / uṛeŋgo kaṛnaβaletan ni etoṛiko nai' / eta eiṃbioγu muśuaŋgule // eta oṛduan akoṛdaυ nican seiŋ śan / eta seiŋ śala ušte dośue ↑ / ŋeŋorito xośe mari laṛdiśaβal ///

aitik xośe trapala // gauṛ śa' maṛśial eyuna dok / eta merieŋdaυ edeṛki / eta γero blaśeniam kaφia aṛtu / eta kaŋtaυ eiṃ biaxuaυ uśo

čuria / eta olako kaṅta βacuek / eta koštia košta / gauṛ umoriam paśau
/ eta βiyaṛ uṛ φreškua eran / eta lana eiṅ //

xakin nai βośue ni šeṅ naiśen / śoi xośe xoakin remon / beṛyarako
uren eṅkaṛyaṅa]

2.223

Uno de los pasados domingos tomé café con dos copas, fumé un cigarro puro y me fuí a casa a dormir; enseguida vino el sereno a tocar la puerta y decir «fuego, fuego». Me gritó «Anda listo que hay fuego». —¿Dónde es? —En la fábrica grande; hay gran fuego y anda listo. Preparé enseguida la manga, la bomba, y las cosas y nos fuimos pero para cuando fuimos allá, todo estaba quemado; allá estuvimos hablando, el uno que había que poner aquí la bomba, el otro que había que ponerla allá, y nosotros trabajando y el fuego también.

* * *

Y este el más bonito. Fui uno de los días pasados a cobrar el dinero del agua a una casa, y tenía exceso de cuatro perras gordas y me preguntó qué eran las cuatro perras gordas. Y yo le decía que eran para beber yo un cuartillo. Enseguida me empezó: sí, ya se conoce sí, tú vi-ves bien. Y mil coplas. Pero yo cuando ando cobrando no suelo tener coplas y les digo: «a pagar tocan, señores y compañía».


2.224

Una de las noches pasadas, mientras estaba en la puerta tomando la fresca, me vinieron tres chicos, uno de ellos a saludarme. Y yo no podía acordarme de quién era ese uno; y él me dijo: Qué hay José Joaquín? ¿No me conoces? —Pues no me acuerdo— ¿Y cuándo haremos «muxuangule»? —En los próximos carnavales vendré yo y hemos de hacer muxuangule—. Bien; y entonces me acordé quién era. Y ¿quién creéis qué era? El señorito José M.^a Lardizabal.

* * *

Oye, Jose Trapala, hoy es día de San Marcial y hemos de merender bien y luego tomar café en casa de Blas y hemos de cantar «Uso txuria», y algunos cantos de ésos. Y cueste lo que cueste, hoy tenemos que pasar en buen humor, y mañana beber agua fresca y trabajar.

Si queréis saber quién soy yo, soy José Joaquín Raimond, el encargado de las aguas de Vergara.



...
Ezequiel

Becussu adizkia barrutiaren Acto para la Nochebuena obran

Gontzal Aldai Garai

1. Pedro Barrutia (1682-1759) Mondragoeko eskribauaren *Acto para la Nochebuena* obrak pairatu dituen ezbeharrak, bere edizioen egokitasunari dagokionez, sari bat eskuratzeko adinakoak lirateke, ez balitz nahikoa normala, zoritxarrez, euskal literaturaren historian zehar halakoa gertatzea (cf. TARTASen edizioak, adibide moduan).

Azken mendean izan ditugun filologo ospetsuenetariko batzuk ipini dizkiote begiak gure *Actoari*, baina halere ez dugu oraindik lortu edizio fidagarririk. Guerrak eta Azkuek hasi eta Arestik mantendu zuten okerezko katea¹ ezin izan dute apurtu azken denboretan ez Mitxelenak ez Lakarrak, nahiz hauek ahalegin guztia jarri enpresan². Ezinezkoa zitzaien, egia esan, egin zutena baino gehiago egitea, orijinala izan beharrean akatsez betetako kopia (Guerrarena) eduki zuten eta. Hala eta guztiz, Lakarrak edizio bi egin zituen, bigarrena 1983 urtean argitara zelarik. Barrutiari eta bere obrari osoki dedikaturiko lehenbiziko liburua izan zen hau, editorearen itzulpenaz, testuari buruzko ohar askoz eta beste zenbait ikertzaileen analisiekin: Knörr et al.(1983).

Ezaguna den moduan, azkenez agertu zen «benetako» testua; hau da, ustez Barrutiaren eskuizkribu orijinala. Eta ia ia Lakarraren edizioarekin batera eman zen argitara: Latxaga (1983), baina hura honen be-

¹ Testuaren edizioen gorabeherak ulertzeko, ikus bitez:

—J.A. LAKARRA: «Edizio honetaz» in KNÖRR et al.(1983), 75-76 orr.

—J. KORTAZAR: KNÖRR et al.(1983), 132-133 eta 172-173 orr.

—LATXAGA (1983): 63-64 eta 138-140 orr.

² Mitxelenari dagokionez, cf. beren «XOKUDI y otros en Barrutia», MITXELENA (1987), 395-404, [1978]; eta «De nuevo sobre el texto de Barrutia», MITXELENA (1987), 435-437, [1979]; beste artikuluren artean.

rririk ere eduki gabe. (Sei edizio ditugu guztira, beraz: Azkuerena, Ares-tiren biak, Lakarraren biak eta Latxagarena). Azkenengo hau honela aurkezten zuen Mitxelenak:

«La ed. de Barrutia que se acaba de reseñar [Lakarrarena, 1983] apareció, por caprichos de la fortuna unida a la prepotente desidia humana, poco antes de que se supiera que se había descubierto el texto, digamos auténtico, que poseyó Guerra y sirvió para la publicación de *Euskalzale* y las demás que de ahí se han seguido. Pasaron los días y pasaron los años y ésta es la fecha [1987] en que todavía no sabemos muy bien si está en el comercio. Con todo, los buenos oficios de algún compañero han hecho posible que unos interesados nos hayamos hecho con la obra: Latxaga, *Acto para la noche buena. Pedro Ignacio de Barrutia*, Tolosa, López-Mendizabal, 1983. Aparte de estudios varios, contiene un texto, súbdito fiel de los anteriores. Contiene además, por fortuna, *fotocopia del ms.*» (Mitxelena 1987, 488 orr.)

Hala da. Latxagaren testuak oraindik ere aurreko akats asko mantentzen ditu, zorionez bere «Fe de erratas» delakoan (58 bis orrialdean) horietariko batzu zuzentzen dituelarik. Baina edizio horren gauzarik interesgarriena, dudarik gabe, eskuizkribuaren fotokopia da. Beronen bidez argi bait daitezke behin betiko hainbeste huts eta fikzio³. Horrela ere, Lakarraren edizioak eta Mitxelenaren oharrek, besteak beste, aurkitu zuten beren jujea, aldeko epaiarekin gehienetan. Mitxelenak esan zuenez:

«Los ejercicios de *diuinatio* a que me entregué sobre el *Acto* de Barrutia han tenido por una vez, como se acaba de indicar, un árbitro contra el cual es difícil apelar.» (Mitxelena 1987, 489 orr.)

Hala ere, haien lana ez da alferrikoa izan. Ez eta gutxiago ere. Ohar guztiak bilduz eta erkatuz, eta, jakina, behar ez dena betiko baztertuz, gaur egun, orijinala daukagunez, edizio «definitiboa» egiteko egoera ezin hobean aurkitzen gara. Lana ia eginda dago. Gogoia baino ez da falta.

2. Nire aportazio txikia egin nahian delako edizio horri, Mitxelenak berak komentatzen duen pasarte bati azalpen posible bat (Mitxelenak proposatzen duenaz beste) ematera noa jarraian, Latxagaren edizioak ez bait du ezer argitu kasu honetan, (oharrik ez dauka eta).

³ Cf., beste askoren artean, 164. eta 484. lerroetako ***erazazuz* adizkia, buruhauste galantak eman dituen. (Cf. KNÖRR et al. 1983, 115-116 orr.). Azkenez, beste leku askotan (463. eta 475. lerroetan, adibidez) agertzen den *ezazuz* bera da, baina gaizki irakurrita. Latxagak, hasieran hauetariko batzu oraindik txarto irakurri bazituen ere, gero zuzendu egin zituen aipatutako bere «Fe de erratas» atalean.

Hona hemen aztertuko dudan pasartea: 427-434 eta 451-458 le-roak, Guerra eta Azkueren grafia eta lerro banaketa jarraituz: (Lakarra ed., Knörr et al. 1983, 104 eta 106 orr.).

«Ofrecen dones los pastores

GABRIEL	<i>Guchiagaiti parkatu,</i>	427
	<i>Borondatea bakussu,</i>	428
	<i>Zure seme Xaun orrendako</i>	429
	<i>Esne gichi bat dakargu.</i>	430
VIRGEN	<i>Atsegin artu egizu,</i>	431
	<i>Borondatea bakussu,</i>	432
	<i>Beronek borondate on ori</i>	433
	<i>Pagatuko deussu.</i>	434
	[...]	
GRAC.	<i>Usik banator barkatu,</i>	451
	<i>Borondatea bakussu,</i>	452
	<i>Sekula beti izango naiz ni</i>	453
	<i>Onen da zure kriadu.</i>	454
VIRG.	<i>Asegin artu egizu,</i>	455
	<i>Borondatea bakusku,</i>	456
	<i>Beronek borondate on ori</i>	457
	<i>Pagatuko deussu.»</i>	458

Mitxelena berehala ohartu zen 432 lerroko akatsaz, eta ondokoa proposatu zuen:

«En el diálogo entre la Virgen y los Pastores, a los versos 427 s. de Gabriel la respuesta tiene que ser *Borondatea bakusku*, repetición exacta de los vv. 455 s. y no (*Borondatea*) *bakussu* como reza por repetición mecánica nuestro texto. Pero es una enmienda del carácter más banal, tan banal como el tipo de la corrupción.» (Mixelena 1987, 401 orr., [1978])

Hola zirudien. Baina beharbada ez da horren arrunta. Mitxelenak ustegabea jaso zuen (denok bezala) Latxagaren liburuko fotokopietan espero zuen <c>-aren ordez beste <s> bat ikusi zuenean. Gauzak horrela, hau idatzi zuen:

«La Virgen contesta *borondatea bacussu*, repitiendo el verso del pastor Gabriel, y no *bacuscu* como se proponía. Puede muy bien, sin embargo, tratarse de un error material.» (Mixelena 1987, 489 orr.)

Bai. Horrela izan daiteke. Eta horren alde ahapaldi bi horiek berdinak izan daitezkeenaren susmoa legoke. Baina ez da Mitxelenak ikusi zuen hori Ama Birjinak erantzuten duena. Edo behintzat ez dut nik hori irakurtzen, daukadan liburuak eman diezadakeen segurtasunaren araberak. Ikus dezagun berriro, irakurlea nekatzeko arriskuak bada ere, eskuizkribu orijinalak nola dakarren goiko gure pasartea (hitz banaketa moderna erabiliz): (Latzaga1983, 48 eta 50 orr.)

«*Ofrezan dones los pastores*

Gabriel	<i>Guchiagati parcatu</i>	427
	<i>borondatea bacussu</i>	428
	<i>zure seme xaun orrendaco</i>	429
	<i>esne guichi bat dacargu</i>	430
Virg.	<i>Aseguin artu eguizu</i>	431
	<i>borondatea becussu</i>	432
	<i>beronec borondate on ori</i>	433
	<i>pagaduco deussu</i>	434
[...]		
Gracioso	<i>Usic banator parcatu</i>	451
	<i>borondatea bacussu</i>	452
	<i>secula beti yzango naiz ni</i>	453
	<i>onen da zure criadu</i>	454
Virg	<i>Aseguin artu eguizu</i>	455
	<i>borondatea bacusqu</i>	456
	<i>beroneq borondate on ori</i>	457
	<i>pagaduco deussu»</i>	458

Ez da, hortaz, *bacusqu* agertzen 432 bertso-lerroan, espero zen bezala, ez eta *bacussu* Mitxelenak irakurri zuenez, *becussu* baizik. Bi lirak teke, ondorioz, zuzendu beharreko hutsak. Ala, agian, zuzena ote?

Azken iritzi hau frogatzeko asmoz -jakiteko: *becussu* adizkia zuzen egon daitekeela agertzen den kontestuan- erakutsi behar dena zera da: ez duela *zuk* sujetotzat, beste bat baizik. *Guk* ezin izan eta, zergatik ez *beronek*? Posible al da?

Mitxelenak berak irakatsi zigunez, badirudi baietz. Bere artikulu bikain batean, «Nota sobre algunos pasajes de los RS de 1596» (Mitxelena 1988, 792-798, [1954]) deritzon hartan, ondokoa dio:

«Podemos afirmar como conclusión que en vizc. ant. la alternancia a/e servía no sólo para distinguir las formas derivadas del tema de presente de las formadas sobre el tema de pretérito, [...] sino también [...] las formas bipersonales de las tripersonales dentro del primero.» (795 orr.)

Adibide moduan ondoko bi errefrauak aurkezten zituen, bestek beste: RS 431: *Yre auçoac eztequian gacha*, «Daño que no te sabe tu vezino»; RS 82: *Tacoc deroat dodana*, «Para me lleua lo que tengo». Eta gaineratzen du:

«Su valor tripersonal [del infijo -e-] nos permite afirmar que el vizc. ant. oponía *darroat* «lo llevo» a *deroat* « me lo lleva», como *daquian* [*dakik*] «que lo sabes» a *dequian* [*dekik*] «que te lo sabe». (795 orr.)

Barrutiaren pasartera berriro itzuliz, eta aurrekoa kontutan harturik, zera esan genezake IKUSI aditzari buruz: *bacussu* formak *ba+dakutsu* suposatzen badu, *becussu* adizkiak, aldiz, *ba+dekutsu* batetik letorke, (cf. Mikoleta 183 *bira*: *ba+dira*). Orduan, Bizkaiera Zaharraren Oraineko adizki trinkoetako *a/e* oposaketa Barrutiaren garaian oraindik bizirik omen zegoenez (Cf. Irigoien 1958, 111-112 eta 125 orr.), *dekutsu* adizkia ez litzateke bipertsonala, hirupertsonala baizik. Hau da:

dakutsu: ZUK-[HURA]: «lo ves».

dekutsu: HARK-ZURI-[HURA]: «te lo ve».

Eta goiko pasarteek ondoko itzulpena izango lukete, (Lakarraren edizioako itzulpenari jarraituz, gutxi gora behera; Knörr et al. 1983, 105 eta 107 orr.):

Gabriel: «Perdona por ser poco, / ya ves la voluntad. / Para tu Señor Hijo / traemos un poco de leche.»

Virgen: «Alégrate! / **(El) ya te ve la voluntad.** / Esa buena voluntad / El te la pagará.»

Gracioso: «Perdona si vengo sin nada, / ya ves la voluntad. / Yo seré por siempre jamás / criado de El y tuyo.»

Virgen: «Alégrate! / **Ya vemos la voluntad.** / Esa buena voluntad / El te la pagará.»

3. Amaitzeko, gustatuko litzaidake dagokionari animo ematea edizio berri bat aurrera eramateko. Esan dudanez, lana ez da gehiegizkoa; bai, ordea, haren premia.

Hizkuntzaren ikertzaileentzat, Azkuek ikusi bezala, txit interesgarria da Barrutiaren hizkera. Hizkera bizia, herrikoa eta arkaismoz betea. Hau gutxi balitz, eta agian garrantzitsuago dena, *Actoa* euskal literatura zaharrean dagoen obrarik interesgarrienetakoa da berez, gordetzen dituen balio literario aunitzengatik. Gainera, irakurle modernoarentzat, seguraski erakargarriena suertatuko litzatekeena, Etxepareren liburuarekin batera beharbada.

Arrazoi guzti hauengatik, nire ustez, ezinbestekoa zaigu edizio fidagarria eta ohar egokiez hornitua esku izatea, hots, orijinalean oinarritutako edizio kritikoa. Bestela esan, Barrutiaren obrak merezi duen edizioa. Guztientzako benetan pozgarria litzatekeelakoan nago.

4. Aipamen bibliografikoak.


IRIGOIEN (1958): «Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaino literario», *Euskera III*, 105-132 orr. [Orain baita *De Re Philologica Linguae Vasconicae I*, Bilbo 1985, 43-57]

KNÖRR et al. (1983): *Pedro I. de Barrutia, Aramaio 1682-Arrasate 1759. Gabonetako ikuskizuna (Acto para la Nochebuena)*, Dip. Foral de Alava.

LATXAGA (1983): *Acto para la Nochebuena. Pedro Ygnazio de Barrutia*, López-Mendizabal, Tolosa.

MITXELENA (1987): *Palabras y Textos*, Universidad del País Vasco.

MITXELENA (1988): *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, Anejos de ASJU n.º 10, Donostia.



Gatika eta Urdulizko bokalen azterketa akustikoa

Iñaki Gaminde

0. SARRERA

Artikulu honen helburua Gatika eta Urdulizko bokalen azterketa akustikoa egitea da. Herriotan bost fonema bokaliko daukagu; fonemen identifikaziorako oposaketan metodoa erabili dugu РОТАЕТХЕ-ren (1978) berbak nire eginik:

«Por esta razón, nuestro primer paso hacia el inventario de fonemas será la tradicional prueba de conmutación, mediante la cual definimos principalmente las unidades de forma negativa puesto que es X aquello que no es Y, Z, etc. Esta prueba, ampliamente utilizada, sigue presentando, a nuestro parecer, las ventajas de la simplicidad y de la rapidez para detectar oposiciones fonológicas. 46-47.or.»

0.1. Oposaketak

/i/

- i/e : erri/erre, asti/aste, etzi/etze, xixi/exe
- i/u : iri¹/uri, siri/suri, erri/erru, sagi/sagu
- i/o : iri/ori, soldu/sildu, arri/arro, asti/asto

/e/

- e/i : ikus /i/
- e/a : egur/agur, beso/baso, ederra/adarra, aste/este
- e/o : este/esto, egi/ogi, aste/asto, estu/ostu
- e/u : eder/edur, erre/urre, kate/katu, aste/astu

¹ «iri» = ireki batuan.

/u/

- u/i : ikus /i/
- u/o : ori/uri, ole/u/e, sulo/solo, asto/astu

/o/

- o/u : ikus /u/
- o/e : ikus /e/
- o/a : olan/alan, bero/bera, atze/atzo, garri/gorri

/a/

- a/e : ikus /e/
- a/o : ikus /o/
- a/ i : adi/idi, arra/arri, papar/pipar

0.2. Metodología

Fonema bokalikoak zeintzuk diren jakinez gero berauen errealizazio desberdinen azterketa akustikoa egin ahal izateko galdekizuna prestatu dut. Azterketa hau lan osoago baten azken pausua izan denez, galdekizuna prestatu orduko jakiten izan dut zer erabiltzen den, hori dela eta inkesta ziurragoa izan da. Galdekizuna egiteko erabili ditudan erizpideak era bitakoak izan dira; alde batetik, bokal bakoitzaren kopurua orekatua izatea, eta, bestetik, ahal denik eta kontestu gehienetan jasotzea.

Gure artean, azken urteotan, egiten izan diren azterketa akustikoen metodologiak ez bide dago inongo batasunik. Aztertzeke era bat lekukoei berba zerrenda bat irakur eraztea izan da (SALABURU, 1984); beste era bat, euskaratik euskarara, perifrasi edo ebokazioaren bidez, berbak esan eraztea izan da (ETXEBARRI, J. M., 1991); inkestagileak erdaraz emandako berba lekukoei itzul eraztea (ETXEBARRIA, M., 1991) beste era bat dugu. Kasu guzti hauetan berbak isolatuki jaso izan ziren. Beste metodo bat ETXEBERRIA-rena (1990) dugu; ikertzaile honek aurretiaz prestatutako korpusaren berbak esaldi inguratzaile baten barruan jaso zituen. Berak, aipatuko liburuan, metodo honen aldeko argudioak ematen dizkigu:

«Orohar ondoko alderdi hauek neutralizatzen ditu esaldi inguratzaileak:

1. Intonazioak sortaraz ditzakeen oinarritzko maiztasunaren aldaketak.
2. Enuntziatuaren barnean aztertutako soinuaren posizioaren arabeko intentsitatearen aldaketak.
3. Enuntziatuaren barnean soinuaren posizioaren arabeko iraupen-aldaketak.
4. Enuntziatu osoak duen luzetasunaren arabeko iraupen aldaketak. (50. or.)»

LLISTERRI-k ere (1991) metodo berberonen aldeko argudioak ematen dizkigu:

«En conjunto, podemos decir que la frase marco o portadora tiene una doble función: por un lado favorecer la naturalidad en la realización de los sonidos que deseamos estudiar, y, por otro, neutralizar algunas de las variaciones en sus características articulatorias y acústicas que se darían si se realizaran sin este elemento de control».

Hau ikusita, eta luzero zalantzan egon ostean, erabaki egin behar izan dudanez, ETXEBERRIA-K eta LLISTERRI-k emandako arrazoi berberoriek, alde batetik, hau da: lekugunearen arabera sor daitezkeen aldaketak aztertu ahal izateak eta bestetik, esaldi inguratzailearen bidez ezin neur daitezkeen hasiera eta amaiera absolutuak aztertu ahal izateak berbak isolatuki jasotzera bultzatu naute. Kontestuen alor honetan ETXEBARRIA, M.-ri (1991) jarraitu diot:

«d) Los contextos han sido los siguientes:

- 1.1. Vocal inicial (sílabas libres)
- 1.2. Vocal inicial - consonante (sílabas trabadas)
- 1.3. Consonante - Vocal medial (sílabas libres)
- 1.4. Vocal medial - consonante (sílabas trabadas)
- 1.5. Consonante - Vocal final
- 1.6. Vocal final (645. or.)»

Bestalde, lekukoaren hizkuntzan eragin zuzenik ez izateko eta LISTERRI-k, aipatutako liburuan, (73. or.) serie efektu izendatzen duena zelanbait ekiditeko berbak lekukoei itzul erazi egin dizkiet erdaraz emanda.

Beraz, hasiera (H), erdi (E) eta amaierako (A) lekuguneen arabera emango ditut jasotako bokalen datuak.

0.3. Toniko eta atono oposaketa

Azentuari dagokionez, aztertuko dugun euskalki honetan ezin toniko eta atono oposaketaz berba egin daiteke, izan ere, azentuaren parametro nagusia oinarrizko maiztasuna da. Hori dela eta, aipatuko oposaketa baztertuta, aztertuko ditudan bokalak dagozen silaben intentsitatea neurtu dut eta bokal intentsu eta ez intentsuez mintzatuko naiz. Bestalde, eta datuetan ikusiko denez, sarri askotan berba baten barruan bokal bi edo gehiago gorengo intentsitate mailan egon daitezke, honelakoetan, aukera egin behar izan dudanez gero, biak intentsutzat jo izan ditut. Era berean, intentsuen aurrekoak eta intentsuen

ostekoak ere bereiztuko ditugu gure azterketan. Beraz, intentsitatearen arabera honako hauek bereiztuko ditugu:

- intentsuak (+I)
- intentsuen aurrekoak (IA)
- intentsuen ostekoak (IO)
- ez intentsuak (-I)

0.4. **Lekukoak**

Alor honetarako lekukoak aukeratzeko baldintza batzuk aurretiaz jarri izan dira: (a) Gizonezkoak izatea, gauza jakina da gizonezkoen ezaugarriengatik errezagoa dena bokalen formakinak berauekin lantzea. (b) Herrikoak izatea eta bertan bizi izatea. (c) Lekukoen gurasoak herrikoak bertakoak izatea. (d) Euskaraz analfabetoak izatea, euskara ikasi ez izana alegia. (e) Ondo ebakitzea; honetarako aurre inkesta batzu egin ziren; eta laborategian aztertuz gero lekuko bi baztertu egin nituen. (f) Lekukoen adina. Faktore hau dela eta esan beharra dago zenbat eta lekukoa zaharragoa izan zailago bihurtzen dela azterketa, izan ere, sarri askotan ez dira formakinak agertzen. Hori dela eta, lar zaharrak ez aukeratzea erabaki nuen; bestalde, herri bakoitzeko lekuko gazte bat aukeratzea ere erabaki nuen, desberdintasun handirik dagoenez ikusteko. Hona hemen atal honetako lekukoak eta berauen adina:

Urduliz

- U-1. Jose Azpiazu, 72 urte.
- U-2. Jose M. Azpiazu, 36 urte.
- U-3. Juan Olea, 51 urte.
- U-4. Mario Otazua, 66 urte

Gatika

- G-1. Jose Ramon Elordui, 61 urte.
- G-2. Jose M. Markaida, 32 urte.
- G-3. Jose Ramon Bilbao, 46 urte.
- G-4. Jose Mari Mardaras, 62 urte

0.5. **Grabaketak eta fonetika laborategia**

Grabaketa guztiak lekukoen ingurune eta giroan egiten izan dira, horretarako SANYO TRC 1196 grabagailua eta SONY ECM-144 kanpo

mikrofonoa erabiltzen izan ditut. Behin grabaketak eginez gero, Deustuko Unibertsitateko Fonetika Laborategiko KAY DSP 5500 aztergailua erabiliz aztertu ahal izan ditut.

Triangelu bokalikoak ordenagailuaren bidez atera ahal izateko MARTÍNEZ CELDRAN-ek (1990) egindako programa erabili dut.

0.6. Galdekizuna

Jarraian bokalen azterketa akustikoa burutzeko aztertu diren bokalak jasotzeko erabili den galdekizuna ematen dut:

1. amaka	[amaka]	2. amakak	[amakak]
3. atzamarra	[acamaɾa]	4. abade	[abaðe]
5. asto	[ašto]	6. astok	[aštok]
7. andi	[aŋdi]	8. ardi	[aɾði]
9. alkondare	[alkoŋdare]	10. abarke	[abaɾke]
11. argaldu	[aɾgaldu]	12. akorda	[akoɾða]
13. bake	[bake]	14. bakek	[bakek]
15. bekoki	[bekoki]	16. bekokik	[bekokik]
17. bildurti	[biɫduɾti]	18. busterra	[bušteɾi]
19. buru	[buru]	20. domeke	[domeke]
21. domekak	[domekak]	22. errementari	[eɾemeŋtari]
23. egurre	[eguɾe]	24. edurre	[eðuɾe]
25. eskuturre	[eškuɾe]	26. ermitte	[eɾmiɾe]
27. elgorri	[elgoɾi]	28. entzun	[encun]
29. garandu	[garaŋdu]	30. kuntzurruna	[kuncuɾuna]
31. gusurti	[guʂuɾti]	32. gusurtik	[guʂuɾtik]
33. gorringo	[goɾiŋgo]	34. suringo	[suɾiŋgo]
35. iko	[iko]	36. ikok	[ikok]
37. imiñi	[imiɲi]	38. isterra	[išteɾa]
39. indabe	[iŋdabe]	40. inderra	[iŋdeɾa]
41. ingerun	[iŋgerun]	42. ibilli	[iβili]
43. ixilik	[iʂilik]	44. iñusentekeri	[iɲuʂeŋtekeri]
45. kate	[kate]	46. katek	[katek]
47. katu	[katu]	48. katuk	[katuk]
49. kuku	[kuku]	50. kukuk	[kukuk]
51. okotza	[okotza]	52. ollotoki	[oɫotoki]
53. ostikeda	[oštikeða]	54. orkatille	[oɾkatille]
55. olga	[olga]	56. ondiño	[oŋdiɲo]
57. ollosko	[oɫosko]	58. txindorra	[tʃiŋdoɾa]
59. ugertu	[ugeɾtu]	60. ukondo	[ukoŋdo]
61. urune	[urune]	62. ule	[ule]
63. usteldu	[ušteɫdu]	64. urte	[uɾte]
65. untze	[uncɛ]	66. solo	[solo]
67. jente	[xeŋte]	68. anaje	[anaxe]

69. antoju	[aŋtoxu]	70. afari	[afari]
71. firu	[firu]	72. damutu	[damutu]
73. denpore	[dempore]	74. diru	[diru]
75. gero	[gero]	76. gixona	[gʲiʃona]
77. kirikolatza	[kirikolaca]	78. kollare	[koʎare]
79. paraje	[paraxe]	80. pelotari	[pelotari]
81. piperra	[pipe̞ra]	82. politte	[poliʎe]
83. puxike	[puʃike]	84. talletun	[taʎetun]
85. titere	[titere]	86. topa	[topa]
87. txapela	[čapela]	88. txori	[čori]
89. yabon	[ýabon]	90. yaye	[ýaye]
91. yosi	[ýosi]	92. yon	[ýon]
93. yakiñ	[ýakiŋ]	94. malluki	[maʎuki]
95. mutille	[mutiʎe]	96. nasta	[naʃta]
97. negu	[negu]	98. laburre	[labu̞re]
99. lebatza	[lebaca]	100. libiru	[libiru]
101. lodittu	[lođitu]	102. sorrostu	[so̞roʃtu]
103. surittu	[suriʎu]	104. kontus	[koŋtuʃ]
105. otzo	[oco]	106. goso	[goʃo]
107. soro	[soro]	108. aittu	[aiʎu]
109. aitte	[aiʎe]	110. loittu	[loiʎu]
111. jangoiko	[xaŋgoi̞ko]	112. geittu	[geiʎu]
113. ogei	[oge̞i]	114. aurren	[au̞ren]
115. auntze	[aun̞ce]	116. euri	[euri]
117. euli	[euli]	118. egune	[egune]
119. ollo	[oʎo]	120. eron	[eron]
121. eraiñ	[erai̞ŋ]		

Denetara, azterketarako baliagarritzat eman ditudan bokalak² 2000 dira; nahikoa kopuru errepresentagarria delakoa daukat lan honen helburua betetzeko.

0.7. Datuen aurkezpena

Datuak herririk herri emango ditut. Lehenengo eta behin berba guztien neurketak aurkezten dira, hots, lehen formakina (F1) eta bigarren formakina (F2) hertziotan, bokalen iraupenaren denbora milisegunduetan eta intentsitatea edo uhinaren anplitudea dezibeliotan.

Mediak emakeran, aztertzen diren aldagaien arauera, honako laburdurok erabiliko ditut:

² Galdekizunetan gehiago izan diren arren, batzutan formakinen bat agertzen ez zelako, beste batzutan zerbait agertuta ere neurketa lar fidagarria ez zelako bokal batzuk eta berba batzuk ere baztertu egin behar izan ditut.


- Denen mediak (D)
- Zenbat elementu diren (Z)
- Hasiera absolutua (H)
- Erdigunea (E)
- Amaiera absolutua (A)
- Intentsuak (+)
- Intentsuen aurrekoak (IA)
- Intentsuen ostekoak (IO)
- Ez intentsuak (-)

1. URDULIZKO EMAITZAK


1.1. Kopuru osoak

Herri honetan 1116 bokal aztertu dut; [a] %24,44, [e] %22,29, [i] %18,01, [o] % 17,83 eta [u] %17,40 izanik. Lekugune eta intentsitatearen arauerako kopuruak ondoko taula honetan zehazten dira:

Bok	D	H	E	A	+	-	IA	IO
[a]	285	53	171	61	132	153	82	71
[e]	260	25	111	124	121	139	46	93
[i]	210	31	104	75	61	149	61	88
[o]	208	31	134	60	102	106	63	43
[u]	203	28	115	60	89	114	50	64



1. Urduliz eta Gatikaren kokaera bizkaieraren barruan.



2. Urduliz, Gatika eta inguruko herriak.

1.2. Bokal bakoitzeko balioen mediak

[i]

	Z	F1	F2	D
D	210	317	1965	66
H	31	299	2000	65
E	104	320	1946	60
A	75	319	1977	74

	Z	F1	F2	D
D	210	317	1965	66
+i	61	319	1955	72
-i	149	315,9	1969,3	63
IA	61	310	1964	59
IO	88	320	1973	66

[e]

	Z	F1	F2	D
D	260	430	1624	66
H	25	429	1554	60
E	111	434	1562	59
A	124	428	1691	73

	Z	F1	F2	D
D	260	430	1624	66
+I	121	437	1628	70
-I	139	425,3	1618,5	62
IA	46	426	1547	55
IO	93	425	1654	66

[a]

	Z	F1	F2	D
D	285	595	1302	64
H	53	600	1257	63
E	171	593	1340	61
A	61	595	1235	72

	Z	F1	F2	D
D	285	595	1302	64
+I	132	614	1327	64
-I	153	578,7	1282	63
IA	82	576	1303	60
IO	71	582	1254	67

[o]

	Z	F1	F2	D
D	208	428	1016	63
H	31	421	1000	62
E	134	430	1027	60
A	43	426	994	74

	Z	F1	F2	D
D	208	428	1016	63
+I	102	435	1031	66
-I	106	421,5	1002,1	60
IA	63	422	994	59
IO	43	421	1014	63

[u]

	Z	F1	F2	D
D	203	360	1004	69
H	28	343	937	69
E	115	370	1036	65
A	60	349	975	75


	Z	F1	F2	D
D	203	360	1004	69
+I	89	373	1029	73
-I	114	353	984,9	65
IA	50	352	981	65
IO	64	349	988	66

1.3. **Bokal guztien mediak** (lk. U-1a)


[i]	210	317	1965	66
[e]	260	430	1624	66
[a]	285	595	1302	64
[o]	208	428	1016	63
[u]	203	360	1004	69

1.4. **Bokal guztien mediakl hasieran** (lk. U-2a)

[i]	31	299	2000	65
[e]	25	429	1554	60
[a]	53	600	1257	63
[o]	31	421	1000	62
[u]	28	343	937	69



U-1a.




U-2a.

1.5. **Bokal guztien mediak erdian** (lk. U-3a)


[i]	104	320	1946	60
[e]	111	434	1562	59
[a]	171	593	1340	61
[o]	134	430	1027	60
[u]	115	370	1036	65

1.6. **Bokal guztien mediak erdian amaieran** (lk. U-4a)

[i]	75	319	1977	74
[e]	124	428	1691	73
[a]	61	595	1235	72
[o]	43	426	994	74
[u]	60	349	975	75



U-3a.




U-4a.

1.7. **Bokal intentsu guztien mediak** (lk. U-5a)


[i]	61	319	1955	72
[e]	121	437	1628	70
[a]	132	614	1327	64
[o]	102	435	1031	66
[u]	89	373	1029	73

1.8. **Intentsitate aurreko bokal guztien mediak** (lk.U-6a)

[i]	61	310	1964	59
[e]	46	426	1547	55
[a]	82	576	1303	60
[o]	63	422	994	59
[u]	50	352	981	65



U-5a.



U-6a.

1.9. Intentsitate osteko bokal guztien mediak (lk. U-7a)

[i]	88	320	1973	66
[e]	93	425	1654	66
[a]	71	582	1254	67
[o]	43	421	1014	63
[u]	64	349	988	66


1.10. Bokal ez intentsu guztien mediak (lk. U-8a)

[i]	149	315,9	1969,3	63
[e]	139	425,3	1618,5	62
[a]	153	578,7	1282	63
[o]	106	421,5	1002,1	60
[u]	114	35,3	984,9	65


1.11. Oharrak

1.11.1. Lekugunearen arauerako oharrak

Lehen formakina [e], [i], [o] eta [u]ren kasuetan erdian altuagoa da; [a]ren kasuan hasieran. Baxuenak [a]ren kasuan erdian gertatzen dira; [e] eta [o]ren kasuetan amaieran eta [i] eta [u]ren kasuetan hasieran. Bigarren formakinari dagokionez, [a], [o] eta [u]ren kasuetan erdian altuagoa da; [e]ren kasuan amaieran eta [i]ren kasuan hasieran. Baxue-



U-7a.



U-8a.

nak [a] eta [o]ren kasuetan amaieran gertatzen dira; [e] eta [u]ren kasuetan hasieran eta [i]ren kasuan erdian.

1.11.2. *Intentsitatearen arauerako oharrak*

Lehen formakina kasu guztietan altuagoa da intentsuetan ez intentsuetan baino. Baxuenak, [i]ren kasuan izan ezean, intentsitate osteoetan gertatzen dira. Bigarren formakina, [i]ren kasuan izan ezean, altuagoa da intentsuetan. Baxuenak, ostera, [a]ren kasuan izan ezean, intentsitate aurrekoetan gertatzen dira.

1.11.3. *Denborari buruzko oharrak*

Lekugunearen arauera, luzeenak amaieran gertatzen dira kasu guztietan; halaber, laburrenak erdian. Intentsitateari bagagozkio, intentsuenak luzeenak dira kasu guztietan. Laburrenak ostera intentsitate aurrekoak dira.

2. GATIKAKO EMAITZAK

2.1. **Kopuru osoak**

Herri honetan 894 bokal aztertu dut; [a] %24,6, [e] %24, [i] %17,89, [o] %19,91 eta [u] %17,33 izanik. Lekugune eta intentsitatearen arauerako kopuru osoak ondoko taula honetan ikus daitezke:

Bok.	D	H	E	A	+I	-I	IA	IO
[a]	220	44	130	46	119	101	53	48
[e]	181	20	70	91	85	96	34	62
[i]	160	22	86	52	43	117	54	63
[o]	178	25	109	44	95	83	41	42
[u]	155	17	93	45	56	99	48	51

2.2. Bokal bakoitzeko balioen mediak

[i]

	Z	F1	F2	D
D	160	332	2090	58
H	22	335	2073	62
E	86	337	2089	53
A	52	322	2101	65

	Z	F1	F2	D
D	160	332	2090	58
+I	43	350	2077	62
-I	117	325,1	2095	56
IA	54	323	2095	54
IO	63	327	2095	59

[e]

	Z	F1	F2	D
D	181	456	1738	60
H	20	462	1644	55
E	70	465	1676	55
A	91	447	1805	65

	Z	F1	F2	D
D	181	456	1738	60
+I	85	468	1730	64
-I	96	445,2	1744,8	57
IA	34	453	1646	50
IO	62	441	1799	61

[a]

	Z	F1	F2	D
D	220	624	1362	58
H	44	643	1353	59
E	130	610	1396	57
A	46	646	1276	60

	Z	F1	F2	D
D	220	624	1362	58
+I	119	627	1394	59
-I	101	621,1	1324,9	56
IA	53	614	1334	55
IO	48	629	1315	59

[o]

	Z	F1	F2	D
D	178	465	997	57
H	25	446	973	56
E	109	468	1018	56
A	44	468	959	61

	Z	F1	F2	D
D	178	465	997	57
+I	95	472	1022	60
-I	83	457,6	968,3	54
IA	41	445	943	53
IO	42	470	993	56

[u]

	Z	F1	F2	D
D	155	378	952	58
H	17	362	911	56
E	93	390	973	56
A	45	359	924	62


	Z	F1	F2	D
D	155	378	952	58
+I	56	391	959	63
-I	99	376	948,2	54
IA	48	382	958	51
IO	51	360	939	58

2.3. Bokal guztien mediak (Ik.G-1a)


[i]	160	332	2090	58
[e]	181	456	1738	60
[a]	220	624	1362	58
[o]	178	465	997	57
[u]	155	378	952	58

2.4. **Bokal guztien mediak hasieran** (lk. G-2a)

[i]	22	335	2073	62
[e]	20	462	1644	55
[a]	44	643	1353	59
[o]	25	446	973	56
[u]	17	362	911	56



G-1a.




G-2a.

2.5. **Bokal guztien mediak erdian** (lk. G-3a)


[i]	86	337	2089	53
[e]	70	465	1676	55
[a]	130	610	1396	57
[o]	109	468	1018	56
[u]	93	390	973	56

2.6. **Bokal guztien mediak amaieran** (lk. G-4a)

[i]	52	322	2101	65
[e]	91	447	1805	65
[a]	46	646	1276	60
[o]	44	468	959	61
[u]	45	359	924	62



G-3a.



G-4a.

2.7. Bokal intentsu guztien mediak (lk. G-5a)

[i]	43	350	2077	62
[e]	85	468	1730	64
[a]	119	627	1394	59
[o]	95	472	1022	60
[u]	56	391	959	63

2.8. Intentsitate aurreko bokal buztien mediak (lk. G-6a)


[i]	54	323	2095	54
[e]	34	453	1646	50
[a]	53	614	1334	55
[o]	41	445	943	53
[u]	48	382	958	51

2.9. Intentsitate osteko bokal guztien mediak (lk. G-7a)


[i]	63	327	2095	59
[e]	62	441	1799	61
[a]	48	629	1315	59
[o]	42	470	993	56
[u]	51	360	939	58

2.10. **Bokal ez intentsu guztien mediak** (lk. G-8a)


[i]	117	325,1	2095	56
[e]	96	445,2	1744,8	57
[a]	101	621,1	1324,9	56
[o]	83	457,6	968,3	54
[u]	99	376	948,2	54




G-5a.



G-6a.



G-7a.



G-8a.

2.11. **Oharrak**2.11.1. *Lekugunearen arauerako oharrak*

Lehen formakina, [a]ren kasuan izan ezik, erdian altuagoa da. Baxuenak [e], [i] eta [u]ren kasuetan amaieran gertatzen dira; [a]ren ka-

suan erdian eta [o]ren kasuan hasieran. Bigarren formakinari dagokionez, [a], [o] eta [u]ren kasuetan altuagoa da erdian; [e] eta [i]ren kasuetan, ostera, amaieran. Baxuenak [e], [i] eta [u]ren kasuetan hasieran gertatzen dira eta [a] eta [o]ren kasuetan amaieran.

2.11.2. *Intentsitatearen arauerako oharrak*

Lehen formakina kasu guztietan altuagoa da intentsuetan ez intentsuetan baino. Baxuenak [a], [i] eta [o]ren kasuetan intentsitate aurrekoetan gertatzen dira eta [e] eta [u]ren kasuetan intentsitate ostekoetan. Bigarren formakina [a], [o] eta [u]ren kasuetan altuagoa da intentsuetan; alabaina, [e] eta [i]ren kasuetan ez intentsuetan ditugu altuagoak. Baxuenak, [a] eta [u]ren kasuetan izan ezean, intentsitate ostekoetan gertatzen dira.

2.11.3. *Denborari buruzko oharrak*

Lekugunearen arauera, luzeenak amaieran gertatzen dira kasu guztietan; halaber, laburrenak erdian. Intentsitateari bagagozkio, intentsuenak luzeenak dira kasu guztietan. Laburrenak ostera intentsitate aurrekoak dira.

3. GATIKA ETA URDULIZKO EMAITZEN ERKAKETA

3.1. **Bokal bakoitzeko balioen mediak**

[i]

	Z.		F1		F2		D.	
	U	G	U	G	U	G	U	G
D	210	160	317	332	1965	2090	66	58
H	31	22	299	335	2000	2073	65	62
E	104	86	320	337	1946	2089	60	53
A	75	52	319	322	1977	2101	74	65
+I	61	43	319	350	1955	2077	72	62
-I	149	117	315,9	325,1	1969,3	2095	63	56
IA	61	54	310	323	1964	2095	59	54
IO	88	63	320	327	1973	2095	66	59

Taulan ikusten denez, Gatikako [i], kasu guztietan, Urdulizkoa baino irekiagoa eta aurreratuagoa da. Luzeerari dagokionez, ostera, Gatika-koak Urdulizkoak baino laburragoak dira.

[e]

	Z.		F1		F2		D.	
	U	G	U	G	U	G	U	G
D	260	181	430	456	1624	1738	66	60
H	25	20	429	462	1554	1644	60	55
E	111	70	434	465	1562	1676	59	55
A	124	91	428	447	1691	1805	73	65
+I	121	85	437	468	1628	1730	70	64
-I	139	96	425,3	445,2	1618,5	1744,8	62	57
IA	46	34	426	453	1547	1646	55	50
IO	93	62	425	441	1654	1799	66	61

Taulan ikusten denez, Gatikako [e], kasu guztietan, Urdulizkoa baino irekiagoa eta aurreratuagoa da. Luzeerari dagokionez, ostera, Gatikakoak Urdulizkoak baino laburragoak dira.

[a]

	Z.		F1		F2		D.	
	U	G	U	G	U	G	U	G
D	285	220	595	624	1302	1362	64	58
H	53	44	600	643	1257	1353	63	59
E	171	130	593	610	1340	1396	61	57
A	61	46	595	646	1235	1276	72	60
+I	132	119	614	627	1327	1394	64	59
-I	153	101	578,7	621,1	1282	1324,9	63	56
IA	82	53	576	614	1303	1334	60	55
IO	71	48	582	629	1254	1315	67	59

Taulan ikusten denez, Gatikako [a], kasu guztietan, Urdulizkoa baino irekiagoa eta aurreratuagoa da. Luzeerari dagokionez, ostera, Gatikakoak Urdulizkoak baino laburragoak dira.

[o]


	Z.		F1		F2		D.	
	U	G	U	G	U	G	U	G
D	208	178	428	465	1016	997	63	57
H	31	25	421	446	1000	973	62	56
E	134	109	430	468	1027	1018	60	56
A	43	44	426	468	994	959	74	61
+I	102	95	435	472	1031	1022	66	60
-I	106	83	421,5	457,6	1002,1	968,3	60	54
IA	63	41	422	445	994	943	59	53
IO	43	42	421	470	1014	993	63	56

Tulan ikustenenez, Gatikako [o], kasu guztietan, Urdulizkoa baino irekiagoa eta atzeratuagoa da. Luzeerari dagokionez, ostera, Gatikakoak Urdulizkoak baino laburragoak dira.

[u]

	Z.		F1		F2		D.	
	U	G	U	G	U	G	U	G
D	203	155	360	378	1004	952	69	58
H	28	17	343	362	937	911	69	56
E	115	93	370	390	1036	973	65	56
A	60	45	349	359	975	924	75	62
+l	89	56	373	391	1029	959	73	63
-l	114	99	353	376	984,9	948,2	65	54
lA	50	48	352	382	981	958	65	51
lO	64	51	349	360	988	939	66	58

Tulan ikustenenez, Gatikako [o], kasu guztietan, Urdulizkoa baino irekiagoa eta atzeratuagoa da. Luzeerari dagokionez, ostera, Gatikakoak Urdulizkoak baino laburragoak dira.



1. Grafikoa.

Gatika eta Urdulizko bokal guztien konparaketa egin ondoren, zera atera dezakegu ondorioz, hots, Gatikako bokal guztiak irekiagoak dira Urdulizkoak baino, dela lekugunearen arauera, dela intentsitatearen arauera. Bestalde, bokal palatala eta [a] Gatican Urdulizen baino aurre-ratuago dagoz; belareak, ostera, atzeratuago. Amaieran Gatika eta Urdulizko triangelu biak batera ematen ditut.

Denborari dagokionez, lekugune zein intentsitatearen arauera, Gatikako bokal guztiak Urdulizkoak baino arean laburragoak dira 1. grafikoan ikusten den legez.

4. URDULIZ, GATIKA ETA BESTE BARIETATE BATZUTAKO EMAITZEN ERKAKETA

Neuk jasotako datuak beste barietate batzuetako datuekin erkatu ahal izateko, nirearen antzera egin diren beste lan batzutara jo dut. Fonetika akustikoaren bidez gaur arte aztertu diren euskalkietako bokalak honako hauek dira: SALABURU-k (1984) Baztango bokalismoa aztertu du, J. M. ETXEBARRIAK (1991) Zeberiko bokalismoa eta P. ETXEBERRIAK (1990) Zaldibikoa. Metodologiaren gorabeherak baztertuta, hemen barietate horietan egindako bokal ertainen formakinen mediak gureekin erkatuko ditugu.

F1

	[i]	[e]	[a]	[o]	[u]
Baztan	389	599	791	584	449
Zaldibia	335	429	661	442	339
Zeberio	338,22	459,40	623,62	480,35	367,96
Gatika	332	456	624	465	378
Urduliz	317	430	595	428	360

Lehen formakinari dagokionez, kasu guztietan Baztango bokalak gainerako herrietan baino irekiagoak dira. [i]ri dagokionez, Gatikakoa Zaldibia eta Zeberikoaren artean kokatzen da, Urdulizkoa ostera, denetan itxiena da. [e]ri dagokionez, Gatikakoa Zeberikoaren hurbil dagoen artean, Urdulizkoa Zaldibikoaren parean agertzen zaigu. [a]ren kasuan denetan itxiena Urdulizkoa dugu; Gatikakoa Zeberikoaren pa-

rean agertzen da. [o]ri dagokionez, Gatikakoa Zeberio eta Zaldibikoaren artean agertzen zaigu; Urdulizkoa denetan itxiena izanik. [u]ri dagokionez, Gatikakoa Zeberio baina irekiagoa da eta Urdulizkoa Zeberio eta Zaldibikoaren artean agertzen zaigu.

F2


[[i]	[e]	[a]	[o]	[u]
Baztan	2440	2051	1568	1150	1064
Zaldibia	2238	1871	1319	975	717
Zeberio	1993,58	1828,67	1336,69	1053,98	953,96
Gatika	2090	1738	1362	997	952
Urduliz	1965	1624	1302	1016	1004

Bigarren formakinari dagokionez, Baztango bokal guztiak aurreratua agertzen zaizkigu gainerako herrietakoak baino. [i]ri dagokionez, aurreratua Zaldibikoa da eta gero Gatikakoa; Zeberio eta Urdulizkoa nahikoa hurbil agertzen dira, azken hau atzeratuago agertzen bada ere. [e]ren kasuan, Gatikakoa eta Urdulizkoa atzeratuago agertzen dira beste bietakoak baino. [a]ren kasuan aurreratua Gatikakoa da, Urdulizkoa atzeratua bada ere, Zaldibikotik hurbil agertzen da. [o]ren kasuan Gatika eta Urduliz Zeberio eta Zaldibiren bitartean agertzen dira. [u]ren kasuan aurreratua Urdulizkoa dugu eta Gatikakoa Zeberioaren parean agertzen zaigu.


Goiko datuak ikusita Zaldibia, Zeberio, Gatika eta Urdulizko bokalen medien datuak ikusita desberdintasunak nahikoa txikiak direla esan dezakegu. Ondoko taula hauetan lau herrion artean dagoen tarteark ematen dira:

	F1	D.	F2	D.
[i]	338-317	21 Hz	2238-1965	273 Hz.
[e]	459-429	31 Hz	1871-1624	247 Hz
[a]	661-595	66 Hz	1362-1302	60 Hz
[o]	480-428	52 Hz	1054- 975	79 Hz
[u]	378-339	39 Hz	1004- 717	287 Hz


Erkaketak egin ahal izateko amaieran nireekin batera Baztan, Zaldibia eta Zeberioko triangeluak ematen ditut.




Gatika eta Urdulizko triangelu biak.



Baztan, Gatika eta Urdulizko triangeluak batera.



Zaldibia, Gatika eta Urdulizko triangeluak batera.




Zeberio, Gatika eta Urdulizko triangeluak batera.

Bibliografia

ETXEBARRIA, Juan Manuel (1991): *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Zornotza. Ibaizabal.

ETXEBARRIA, Maitena (1991): «En torno al vocalismo vasco.» in *Memoriae L. Mitxelena Mitxelena Magistri Sacrum.*; Lakarra, J. A. edit. eta Ruiz, I. lagun. 635-655 or.

- ETXEBARRIA, P. (1990-a): *Zaldibiako bokalen azterketa akustikoa*. Donostia. Mundaiz.
- ETXEBARRIA, P (1990-b): «Zaldibiako bokalen lehen bi formakinen araberako azentuaren azterketa akustikoa» in Patxi Altunari Omenaldia. Mundaiz. Donostia.
- LLISTERRI, J. (1991): *Introducción a la fonética: El método experimental*. Anthropos. Bartzelona.
- MARTÍNEZ CELDRAN, E. (1990): «Una utilidad en fonética: La carta de formantes por ordenador» in Estudios de Fonética Experimental-IV, 179-193. or. Bartzelona.
- QUILIS, A. (1981): *Fonética acústica de la lengua española*. Gredos. Madril.
- ROTAETXE, K. (1978): *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*. Durango. Leopoldo Zugaza.
- SALABURU, P. (1984): *Hizkuntzaren soinu egitura*. EHU. Bilbo.
- SALABURU, P. (1984): *Arau fonologikoak*. EHU. Bilbo.



Agian Unibertsoa

Juanra Madariaga

Agian Unibertsoa

Hemen da guzia
isladatu behar den tokia,
non espazioek norberaren
buruari buruzko galderak
planteiatzen dituzten,
non ezerezaren kabitade
neurribakoa urrutiratzen
susmatzen dugun,
non azalpen batek, beharbada,
defini dezakeen bornuan
senditzen den
ahuldade hau.

Egia esan, hemen da
eskapatzen garen lekua
eta bersortzen garen pundua.
Agian unibertsoa.


Orduan senditzen

Arratsalde garbietan
ilunabarren aitzinean soilik, ahal dut idatzi.
Beren koloreak duen nagusitasunak jaten nau
osoki.

Nagoen alde hau trasladatzen da gero,
izatearen espazioa erabat atenporala
bilatuz.

Orduan senditzen dut iragana eta antzematen
dut izangoa.

Gero, zorabioa, durduza, ahuldura...
hitzak.



Sinboloa Gandiagaren *Elorri*-n

Joan Otaegi

1. Abiapuntua

Bitoriano Gandiagak sinboloa ugari erabiltzen baitu, eta bere liburuetatik bat baino gehiagotan, mugak ipini nahi dizkiogu hemen landu eta aurkeztu nahi dugun lanari. Gandiagaren *Elorri* olerki liburua hartuko dugu eremutzat. Bere lehen olerki liburu honetan erabili du, bestalde, ugariarik sinboloa. Artikulu honen hedadura gehiegizkoa izan ez dadin, muga honezaz gainera, besterik ere ipini behar diogu, sinbolorik asko baitarabil Gandiagak bere lehen liburu honetan. Hain zuzen, poema liburu horretako giltzarrietatik bat den *elorria* hartuko dugu abiapuntutzat. Elorriaren sinboloa.

Baina Gandiagaren obraren barruan zein eremutan ibiliko garen esanarren, oraindik ere beste gehiago zedarritu beharrean aurkitzen gara: zein sinbolo konzeptu hartu tresna baliagarritzat eta zein sinbolo tipo hautatu egokitzat. Hemen arlo askotako lurtean aurkitzen baikara, eta lan mugatu honetarako tresna antzua suertatuko bailitzateke edozein sinbolo tipo. Guk sinbolo literarioa aztertu nahi dugu, ez sinbolo tradiziozkoa, estereotipatua, gizaldien zehar gorpuztua. Autoreak bere literatura senari esker, bere esperientzia eragile duela, gauzatu duen sinbolo literarioa baizik. Beraz, autorearen subjektibitatez jantzia datorkigun sinboloa. Haren sorkuntza literarioaren ezaugarrietatik bat genukeena. Ez, noski, autoreetatik jasoa den eta batek eta bestek igurtzirik fosilizatu gisa eskaini zaigun sinboloa. Ez eta derrior sekula inork erabili ez duena, baizik eta autoreak bere bizipen eta literatura senari esker bere sorkuntza lanetan ukitu pertsonalez gauzatu duen sinboloa.

Halaz ere, sinbolo konzeptua bera dugu zehaztu beharrekoa geure urratsek nondik norakoa argi izan dezaten eta lanak benetako koherentzia izan dezan. Eta abiapuntu gisa hartu dugun sinbolo konzeptua

hauxe da: hitzaren adierazi arrunta beste adierazi baten adierazletzat hartzen dena, huraxe dugu sinboloa. Esaterako, *ez da elorri* hitza sinbolo; elorriaren esnahia, adierazia baizik. Hau da, elorriaren esnahia, adierazia bera da sinbolizatuaren adierazle. Ez da, bada, *elorri* hitza giza bizitzaren sinbolo, elorriaren arantz eta lore izatea, elorriaren zarpaila, bihurria, soila izatea da giza bizitzaren zarpail eta latzaren sinboloa; eta elorriaren loratze, berpizte eta ernetzea da giza bizitzaren berri-tze eta berjaiotzearen sinbolo.

Metaforan hitzaren esanahiari ez zaio eusten, bere esnahiez hustu egiten da; baina sinboloan hitzaren esanahiari eutsi egiten zaio, eta, hain zuzen, esanahi horrez baliatzen da autorea sinboloa eraikitzeko. Elorriaren esanahiaz baliatzen da sinbolizatua adierazteko. Beraz, sinboloan adierazte logikoari eutsi egiten zaio, eta horri esker eraiki ahal du olerkariak sinboloa. Elorriaren esanahiari eutsiko ez balitz zaio sinboloa ezinezkoa suertatuko litzateke. Sinboloa adimenez somatzen den analogian oinarritua dago, metafora, berriz, irudimenez eta sentibera-tasunez somatzen den analogian oinarritua¹. Elorriaren adimen errepre-sentazioa beharrezkoa egiten da sinboloa eraiki ahal izateko. Eta horrela, testuak berak eskaini behar digu errepresentazio hori sinbolizatzailea agerian gera dadin eta honen bidez sinbolizatua soma ahal izateko. Elorriaren eduki semantikoaren informazio logikoa eskaintzen zaigula-rik sinbolizatzailea present egiten zaigu eta, aldi berean, sinbolizatua adierazia, agerian jarria izango da.

Metafora eta sinboloen ezberdintasunaz ari direla, Wellek eta Wa-rrren-ek sinboloa batez ere bergauzatzean eta iraunkortasunean datzala uste dute. Irudi batera jo daiteke behin, metafora gisa gauzatu delarik orduan; baina behin eta berriz errepikatzen bada, hain zuzen, aurkezte eta errerepresentatze gisa, sinbolo bihurtzen da.

Beste modu batera esanez, nahi bada, guk kontuan hartu dugun sinboloa, nolabait ere, konposaketa guztia, poema guztia bere eskume- nean duen sinboloa da; oinarritzko irudi gisa konposaketa guztia gor-puzten duena. Oraindik ere, Marcello Pagnini-k² dioenaren urratsak ja-rraituz, egitura soziokultural baten metonimia da sinboloa, edota giza sakondurako egituraren metonimia.

¹ LE GUERN, Michel: *La metáfora y la metonimia*, Madrid, Cátedra, 1980, 44-54. orr. WELLEK, René y WARREN A.: *Teoría literaria*, Madrid, Gredos, 1974. PAGNINI, Marcello: *Estructura literaria y método crítico*, Madrid, Cátedra, 1982.

² PAGNINI, Marcello: *Estructura literaria y método crítico*, Madrid, Cátedra, 1982, 61-75. orr.

2. *Elorria* - poeta

Elorri da Bitoriano Gandiagak idatzia duen lehen liburua, «niretzako oso funtsezkoa»³ berak aitortuko duen bezala. Liburu honetan Gandiagak ugari darabil sinboloa. Alabaina sinboloaz sarritan baliatuz gain, sinbolo ezberdin ugari ere badarabiltza Gandiagak bere lehen liburu honetan.

Haatik ere *elorria* bera da gehien darabilena eta lehen poema liburu hau sinbolo horren argitan ez bada, nekez uler daiteke. Izan ere, poetak bere burua, nahiz gizakia, nahiz Arantzazu, nahiz kosmosa elorriaren irudian ispilatuak ikusten ditu. Eredutzat «USAIN», *Elorri* poema liburuko hamargarrena hartuko dugu.

10	«USAIN erle... elorri zaarra loretan dago arkaitzetako berpizte.	USAIN erle... elorri zaarra loretan dago arkaitzetako berpizte
	Oker eta apal, maitekor, samiñen apar galesti, arkaitz artean, gaur, dirdirazko zuritasunez, elorri. Argi ta lore dana, ameseta garbiz ageri da, goizeko intzez eta eguzkiz, dar-dar leiar.	Barri dirudit malkorrek ikuspenaren argira. Ta, arima zaarrak, arnas jaiotze edo itxaropen pilpira Arima be pilpira, elorri zaarra lez. T'emen, barriro, poza, aaztu neban gardenez, dar-dar leiar.
	Usain, erle... elorri zaarra loretan dago, arkaitzetako berpizte.	Usain, erle... elorri zaarra loretan dago, arkaitzetako berpizte.
	Zugaitz eta adar legorrek, miñak ausita, lurrean. Lore txikarrak ageri dira nire arima zaarrea. Arima, lore txikiz, elorri-zotz bat lez, bideko lagun eder	Gatzez et'eztiz ondua —katillu-esne on bat lez—, egur zaar eta lore berrizko giroa dabil, arkaitzez. Oker, apal, maitekor, elorria, edur, aideko olatu bat lez

³ GANDIAGA, Bitoriano: «Nere obraz», in *Hegats*, 4 (1991) 207-217. orr.

egur zaarraren amarez,
dar-dar,
leiar.

—samiñen apar labor—,
dar-dar
leiar.

Usain
erle...
elorri zarra loretan dago,
arkaitzetako
berpizte.»

Juan Mari Lekuonak⁴ *Elorri* poemaren liburuaren bigarren argitalpenekoan sarreran esaten duen bezala, Bitoriano Gandiaga tradizioak eskuratu dizkion neurtitz eta bertso moldez baliatzen da; baina horiek oinarri dituela, sorkuntza eta bariazio berriak gauzatzen ditu. Hala hamargarren poema honetan ere: errepika berberak biltzen duelarik poema osoa, hark 10/8 neurria du oinarri, nahiz beste modu batera gauzatu duen; estrofeak, berriz, bi gorputz dituzte, lehenak koplak soilak du abiapuntu neurritz, ez errimaz, bigarrenak lauko txikia, nahiz eta neurritz aldakuntzarik sortu dion, batez ere amaierako biko labor hori.

Dena den, poemaren kanpo egitura albora utzirik, semantika nola eraikia duen ikus dezagun. Berehala ageri zaigu poema bi planotan eraikia dela: sinbolizatzailea = elorria, sinbolizatua = poeta.

Hala, lehen ahapaldia loretan eskaintzen zaigun elorriaren deskribazioa da. Errepikak usnamenaren eta ikusmenaren bapateko errebelazio gisa emana, lehen ahapaldian deskribazio zabalagora dator. Beti ere, funtsean hitz neurtu eta urriz, alferrikako ugaritasunik gabe. Alabaina, adjetiboen pilatze bidez «elorri zaarra»ren nolakoa ageri zaigu: «Oker eta apal, maitekor» [10,6]. Bizigiro eta leku zailaren ondorioz «oker», bihurtua. Azpimarra dezagun afektibitatearen ukitu nabaria adjetibo horien semantikan bai eta horien sendogarri datorren metaforazko sintagma aparta: «samiñen apar galesti» [10,7]. Pertsonifikazio honen bidez ikuskera berri baten ataka zabaltzera abiatu da poeta. Hurrengo ahapaldian emango du poetaren mundurako jauzia; baina dagoeneko olerkariak iradokia bezala du gizakiaren loratzea neke-saminetan gauzatzen delakoa. Hala behintzat elorriarena. Giro zail eta neguaren lorra jasan behar izan duen landare horren inguru-giroaren metafora da «samiñen». Loratzea bapateko errebelazioaren tankerara agertu zaigu eta metafora indartsu berriz «apar galesti». Olatuaren mugimenduaren eta haren apar iruditara ekarriz bizi zikloaren dinamismoa dakarkigu gogo-

⁴ LEKUONA, Juan Mari: «"Elorri" argitaraldi berrian», in *Elorri*, Oñati, «Arantzazu» Franziskotar Argitaletxea, 1989, 7-24. orr.

ra batetik, eta bestetik, adjetibo berriz, «galesti»z, urtearen luzeran, itxaropen luzearen ondoren nekez etorri den bapateko loratze bitxi, indartsua.

Ikuskera subjeto horren ondoren, olerkariaren zentzuak eta barne giroa eragin dituen deskribio objektiboa: «arkaitz artean, gaur, dirdirazko / zurtasunez, elorri» [10,8-9]. Dena den, «dirdirazko» izenlagunak, jadanik «berpizte», «apar»ek eta gero «dar-dar», «leiar»ek adieraziko duten deskribio dinamikoa azpimarratzen du.

Motibo horixe da -loratzearen dizdizera- ahapaldiaren bigarren zatian hedadura zabalagoa aurkituko duena: «Argi ta lore dana, /.../ ageri da, goizeko / intzez eta eguzkiz, / dar-dar / leiar» [10,10-15]. Deskribio objektiboa, musikatasunez hornitua, eman digu Gandiagak, eta amaiera horretan mugikortasunaz eta gardentasunaz ohartarazi gaitu, intentsitatea onomatopeiaz, aliterazioz eta errimaz nabarerazi duelarik. Guzti hori metafora bidez, «ameseta garbiz» [10,11], mundu iradokior batean kokatu digu, beti ere gizakiaren izpiritura leihatila zabalduz.

Horra bada, sinbolizatzailea lehen planora ekarria, ikusmenaren zentzu somamenez bereziki emana, deskribio nabarduaz jantzia, eremu berritara iradokitze bidez zabaldua.

Bigarren ahapaldian lehenengoaren laburpena egiten zaigu lehen bi bertso lerrotan: «Barri dirudit malkorrak / ikuspenaren argira» [10,21-22]. Sintesiaren gainera deskribioaren osagai berria eskaintzen digu «malkorrak» horren bitartez, hau da, harri hutsezko harkaitz maldatsua argi berritan ikusten du Gandiagak. Baina hortxe berean digu olerkariaren mundu subjeto borako urrats nabaria: lehen pertsonan aditza, «dirudit».

Eta, bestalde, orain arte «elorri zaarra» izan dena, orain, eta horren paraleloki, «arima zaarra» izango da, poetaren anima ikusten du berpiztua, loretara etorria eta pozez jauzika: «Ta, arima zaarrak, arnas jaiotze / edo itxaropen pilpira» [10,23-24]. Hemen ere intentsitatea nabarmena da, metaforaz adierazia, bestalde: «arnas jaiotze», «itxaropen pilpira», «pilpira». Berriz ere —eta oraingoan bidezkoa denez—, dinamikoki deskribatua olerkariaren izpituaren bizi berritzea. Aurreko ahapaldiarekin paraleloki, korrespondentzia analogikoa azpimarratuz, eta erkaketa erabiliaz korrespondentzia hori berrindartuz: «elorri zaarra lez» [10,26].

Olerkariaren bizi-berritze hori «poza» [10,27] da, lehen garai bateko poz gardena, anima zaharrak elorri zaharraren pareko duelarik berritapen hori. Oraingoan ere intentsitatez adierazia eta dinamizitatez pozera ernetze hori: «arnas», «itxaropen pilpira», «pilpira», «gardenez», «dar-dar», «leiar» [10,23,24,25,28,29-30]. Aliterazioz hornitua. Eta ahapaldiaren bukaerako «dar-dar / leiar» bete hori olerkariaren izpi-

rituaren berjaiotza adieraztera ekarria, korrespondentzia analogikoa bere gailurrera jasoz.

Hona sinbolizatua nabari-nabarian jarria. Olerkariaren izpiritua gauzatzerakoan sinbolizatzailean azpimarratu dituen izariak argibide izan ditu.

Hirugarren ahapaldian deskribioa berriro eta lehengo jokoa bi mailalara emana: elorriaren deskribioa / olerkariaren izpiritu egoera, kanpoko errealitatea / barne izaria, errealitate zaharkitua / berritua, elorria lorez / anima lorez.

Elorriak baditu bere zaharrear eta inguru-giroaren erasanez jota abar lehorrak, hilak, «lurrean» [10,36]. Baina olerkaria atzera lehen ahapaldiko motibo berberera doa olerkaria pertsonifikazio eta metafora bidez: «miñak ausita» [10,37], minak jadanik polibalentzia dakarkigu oihartzun gisa. Lehenengo eta behin sinbolizatzailea, inguru-giro latza: negu, haize, izotz eta elur, harkaitz eta malkar: «Zugaitz eta adar legorrrak, / miñak ausita, lurrean» [10,36-37]. Baina, era berean, poemaren sakonean, poetaren eta giza bizitzaren lehorte eta biziaren latzaren susmoa datorkigu. Eta ondoren, sinbolizatua espreski eta metaforaz adierazia: «Lora txikarrak ageri dira / nire arima zaarrean» [10,38-39].

Eta jarraian, ahapaldiaren bigarren gorputzean, lehen ahapaldian eta bigarrenean egin duen joko poetiko bera, ahapaldiaren lehen gorputzeko bigarren zatian adierazi duen ideia jaso eta indartuz: «Arima, lore txikiz, / elorri-zotz bat lez» [10,40-41]. Oraingoan sinbolizatuaren eremuan adierazi du loratze horren kualitate espezifikatzailea: «lore txikiz», «Lore txikarrak». Haatik ere, argiro somatzen da —esaten ez bada ere— olerkariaren loratze horren txikitasuna sinbolizatzaileari berari dago kiola, bi planoen sinbiosia gauzatzen duelarik Gandiagak. Alabaina, poetak bere izpiritua loratze xumea azpimarratu nahi izan du, eta sinbolizatuaren eremuan jarri du xumetasun hori adierazten duen *txiki* adjetibo, bitan. Lehen, elorria agertzen bazitzaigun «apal, maitekor» (ikus lehen ahapaldian), orain olerkariaren izpiritua ageri zaigu maitagarri.

Berriro sinbolizatzailea lehen mailara ekarriz: «bideko lagun eder / egur zaararen amorez,» [10,42-43]. Baina dagoeneko irakurleak —lehentasunak ezagutzen baditu ere, lehenengo adieraziak, alegia— bi planoak aldi berean somatzen ditu «dar-dar, leiar» [10,44-45], sinbolizatzailea eta sinbolizatua esan nahi da, elorria eta poetaren izpiritua. Biak dira dirdaiez beteak, biak ispilu garden.

Laugarren ahapaldian, metafora bidez —lehen irakurkeran nondik eta zertara datozen ikusten ez deneko metaforatan—, poetaren esperientziaren gogoia, «aaztu neban» [10,28] hura, gogoratzen digute metafora sugerikor hauek: «Gatzez et'eztiz ondua / —katillu-esne on bat

lez—,» [10,51-52]. Olerkariak, metafora zehatz baina horrexegatik indefinituak diren horien bidez, iradokia uzten du poza, ahaztua zuen gardentasun harez jantzia somatzen duela. Negu luzean galdua izan duen haurtzaroko poz gozoaren gardentasun harez somatua bizi du poetak poz berria. Aurreko ahapaldietan ez bezala sinbolizatua lehen mailara ekarria da laugarren honetan. Eta jadanik aipatu dugun bi planoen sinbiosiari berez-berez gorputz emanez, sinbolizatzailearen eremua dakar lehen mailara ahapaldiaren lehen gorputzeko bigarren zatian: «egur zaar eta lore barrizko / giroa dabil, arkaitzez» [10,53-54].

Azkenik, poema guztiaren sintesia eginez dator laugarren ahapaldiko bigarren gorputza. Batez ere lehen ahapaldiko deskribio osagaiak dakartza: «Oker, apal, maitekor, / elorria, ...» [10,55-56]; baina deskribio osagai berriak eraikiz; hala, «edur» [10,56] metafora indartsuz elorriaren loratze hori deskribatzen duela. Baita «aideko olatu bat lez» [10,57] olatu irudiaren bidez ikusmen eta usnamen somakera bat egirik datozkigu, poemaren hasierako «USAIN» eta «apar» beregan jasoa dituela. Are gehiago, poemaren hasierako nekez etorritako loraldi hura, «apar galesti» [10,7], alegia, arin doakeena bihurtzen zaigula, «apar labur» [10,58]. Alabaina, «dar-dar, / leiar» orain-orain honetan, eta «Usain», «berpizte» errepikak behin eta berriz adierazten digun bezala.

Hona, bada, eredutzat hartu dugun poema honetan -besterik asko har zitekeen exenplutzat- nola gauzatu duen Gandiagak sinboloaren joko poetikoa. Halaz ere, aipatu dugun izariak gainera, bada beste alderdi sinbolozkorik poema honen barruan eta beste askotan; hala, denboraren zikloarena. Gandiagaren *Elorri* pòema liburu honetan etengabe presente egiten dira urtearok, negua eta udaberria batez ere; hauek, berriz, gizakiaren adinen sinbolo bizi dira. Elorriaren sinbolo pean, hortxe sakonean denboraren etorri-joanak garbiri somatzen dira, esaterako, aipatu dugun «samiñen apar galesti» [10,7] / «—samiñen apar labur—» [10,58]. Nekez etorri zaigun loratzea arin doakigu.

Hamaikagarren poeman, «BA-ZOAZ ta ba-zatoz» abiatzen den horretan urtaroen joan-etorrian elorriaren loratze etorri-joanak deskribatzen dizkigu zabal:

«BA-ZOAZ ta ba-zatoz,
urteroko urtez,
elorri zaar ori,
ikuspen bat legez.» [11,1-4].

Joanaren beltza mamutzearen irudipean eta urruntzearenean aurkezten digu, heriotza eta denboraren joanaren drama aurre-aurrean jartzen zaizkigula. Elorriaren ikuspen bizi ta loretsua, berriz, pozgarri

ageri da [11,14-18]. Izadiaren, elorriaren, ziklo hori gauzatzen du Gandiagak poemaren lau ahapalditan: sinbolizatzailea, alegia. Eta bostgarren ahapaldian sinbolizatua sintetikoki emana:

«Ba-zatoz..., ta ba-zoaz,
ikuspen bat legez,
nire min eta pozak
sarriago dagien
aldabera bidez.» [11,19-23].

Poemaren egitura biribilean emana hau ere, azken ahapaldian lehen a jasoz, baina alderantzizko antolamenduan, eta hor, hain zuzen, poema guztian isilean iradokia datzan sinbolizatua espreski adieraziz. Poetaren «min eta pozak» dira sinbolizatua. Izadian berean baino aldakorrago da gainera poetarenean zikloaren abiada: «sarriago dagien / aldabera bidez».

Behin eta berriz —poema liburu honen hasieran batez ere— olerkariak sinbolizatuaren eginkizuna betetzen du eta elorriak sinbolizatzailearena. Eta denboraren zikloaren barruan dator sinboloaren egituran gauzatutako poemagintza. Denbora ziklo hori batzutan negu / udaberri oposizioaren arabera emana da, bestetan udaberri / udazken —udalehen / udagoen deituak sarritan— oposizioaren arabera.

Hamaikagarren poeman ikusi dugunez sinbolizatuaren presentzia isila da, iradokia soilik, olerkiaren azken punta bitartean; baina bestetan sinbolizatua berehala espreski adierazia ikusten dugu. Horrela da, esaterako, hamabigarren poeman:

«NEGUAN besarkatu
zindudanean —ai!—,
elorri ikaratu,
etziñan zu besterik,
neure biotzeko
miñaren luzapen
ta adaburu baizik.» [12,1-7].

Poema hau ere mina / pozaren oposizioaren gainean eraikia dago. Gainera, hemen olerkaria lehen mailan dugu hasieratik, beronen ekintza-ren pean jaso da elorria, poetaren minaren beso luzea eta buru gailurra.

Bi olerki hauetan kontalari poetikoa bigarren pertsonan zuzentzen zaio elorriari, eta horrela, sinbolizatuari dagokion eremua lehen pertsonan adierazteaz gainera, sinbolizatzailea pertsonifikatua da bigarren pertsonan adieraziz. Baliabide xume hauen bidez sinboloaren bi alderdien harremanak biziagotuak dira, hurbiltasuna eta afektibitatearen dohaiak jasotzen dituztela.

Olerkariaren pozari dagokionez Gandiagak irudi bera erabiltzen du, elorria loratan poetaren pozaren luzapen izango da:

«Eta Udabarrian,
arnas zuri bat legez
zeu baino be gorago
loratu zaranean,
neure biotza zara
pozak argitutako
bion arkaitzean.» [12,8-14].

Sinbolizatzailea loratze eta bizitzaren zikloaren berritze gisa ikus-teaz batera, beste ñabardura interesgarriz jantzi du olerkariak, arnas zuri eta gora batez gaintutia erakutsi digu, hain zuzen, poetaren bihotza pozez argitu eta gainezkatze horretan hobeki adierazia izan dadin.

Oraindainokoan sinbolizatua oinarrian olerkaria bera izan denarren, ikuskera zabal eta orokorretik hurbil ibili zaigu, gizakia bera soma dai-teke sinbolismoaren sakonean. Badu, ordea, Gandiagak poema sail bat bere bizipen pertsonaletik hornituagoa datorrena, nahiz eta giza espe-rientzia zabalera itxia ez dagoen.

Horietakoa bat dugu hirurogeita hamazazpigarren poema. Oler-kiaren barne egitura paralelismoan oinarritua dago. Batez ere lehen ahapaldia —eta berorren errepikazioa da azken ahapaldia— lau-ko txikian eraikia da. Lehen bi bertso lerroak sinbolizatzailea gauzatzen dute eta azken bi bertso lerroek sinbolizatua. Kasu honetan, bestal-de, elorria ez da loretan baizik eta bere fruitu umotuak eskaintzen dizkigula:

«Elorriak ba-ditu
pinporta gorriak...
Pozik ikusten ditut
neure esku aziak.» [77,1-4].

Egitura paralelistikoaz baliatu da Gandiaga bai gramatika mailan bai semantikan. Izan ere, elorriaren fruitu gorriek zuhaitzaren zikloa-ren heldutasuna jartzen digute aurrean. Horrela sinbolizatzailea. Eta sinbolizatuak poetaren bizi zikloaren heldutasuna eskaintzen digu: «neure esku aziak». Zalantzarik gabe «esku aziak» metaforak apaiz-goaren barruan eginkizun berezia duten eskuak eta beroien funtzio-tik datozen fruituak gogoratzen dizkigute. Jadanik esana dugunez, ahapaldi bera errepikatzen da amaieran, garrantziarik gabeko pun-tutxo batean ezik. Beste ahapaldi guztietan ere egitura paralelistiko horrez baliatu da Gandiaga, baita sinbolismo berriaz baliatzerakoan ere:

«ur ondoko sagarraren
ederra bidean...
Ederrago amesa
eskuon artean.» [77,9-12].

Sinbolismo berria txertatu du olerkariak poemaren barruan, beti ere oinarrizko sinbolismoa baliabide berriz jantzirik. Ibai ondoko sagarra eder da bidean, baina ederrago apaiz joranan amesa esku sagaratuetan. Dena den, sinbolizatzailea anitza bada ere, sinbolizatu berbera da poemaren ahapaldi guztietan: esku sagaratuak. Alabaina *esku* hitzak metaforaz adierazten digu sinbolizatuaren muina, apaiz eginkizuna. Poetak, bere sagaratzea dela eta, garai horretako bizipena hainbat poematan erakutsi digu.

Motibo bera jasoz honduak ditu Gandiagak poema bat baino gehiago. Larogeigarren olerkia da horien arteko bat. Hau ere, aurrekoa bezala, sinbolismo anitzez hornitua dator. Poemaren hasiera eta amaiera orbelaren sinbologiaz egituratu du poetak. Hain zuzen «PAGOEN orbelak» [80,1], hego haizeak eraman zituenak, lehen sinbolizatzailea dugu; olerkariak apaizgintzarako izan dituen zalantzak, berriz, sinbolizatu: «Ainbat urtetako zalantza-orbelak, / noizbaitez Arnasak eroan eustazan,» [80,18-19]. Baina poemaren barne egitura elorriaren sinboloaren argitan gauzatu da. Elorria hemen ere udazkenaren soiltze bidean ikusia da, orriak jausi eta odol tantoen antzeko pinporta gorriak nabarmentzen zaizkio. Poetak elorria bere abarrei begira jartzen du, fruitu gorri pinportak begi aurrean bailitu: «Elorri eldua, / zokondo batean, adarrei begira egoan.» [80,6-7]. Izadiari pertsonifikazio bidez bizi keinu eta mugimenduak aitortzen dizkio poetak; baina jokaera hori ez dugu arrigarri Gandiagarengan, izadia bere bizitzan somatua baita poetaren zentzu sentiberatasun handiz.

Poema bakoitzak, ordea, olerkariaren ikuskera berezia eskaintzen digu, giza errealitateak leihatil ezberdinetatik begiratuak baitaude. Gandiagak sinbolizatzailean berean ondo azpimarratzen digu zein aspekturi begiratzen dion. Elorriak bere buruari egiten dion begirada zera somatzen du:

«Etzitun loreak, odol-tantoak bai
frututxu bakoitza, kimaen mingarri
orri-gabekoan.» [80,8-10].

Hain zuzen, poema konkretu honen sinbolizazioaren giltzetatik bat eskaintzen digu autoreak sinbolizatzailea honela gauzatu duelarik. Berori da korrespondentzia analogikoz gero sinbolizatuan agertuko zaigun alderdia. Eta poetak bere apaizgintzako barne esperientzia kantatuko digu, bere eskuei egiten dien arridurazko begiradan. Odol tanto

gisako pinporta gorriak eta esku sagaratueta somatzen duen olio-diz-tira, korrespondentzia analogikoaren bi aurpegi masailak dira, sinbolizazioaren bi alderdiak. Beste hainbatetan bezala sinbolizatua metaforaren argi-ilun iradokiorretan emana du hemen ere:

«Samiñen ondakin, eskuei begira,
ba-dago zurturik, Irailgo pozetan,
nire apaiz-biotz oraintsu iritxia...
Bai gauza ederra olio-diztia
esku minduetan.» [80,11-15].

Poema sinbologia bikoitzean egituratua dago: pagoen orbelak eta elorria dira. Bien somatzea garrantzizkoa da poema beraren semantika eraikitzen joateko. Biak daude, bestalde, hezur-mami tankerara bat eginik: orbelaren joana eta zuhaitzaren soildura pinporten gorriarekin bat eginik, odol tanto itxuratan; eta poema guztiaren harian somatzen den poz-mindura harreman estuan datoz.

Autorearen bizipen mundua ispliatze horretan, bada geroari begira dagoen gurarien olerkirik *Elorri*-n. Berez, autoreak hautatu dituen sinboloetatik bat, guk lan honetarako aukeratu duguna, elorria, alde egoki zaio, alderdi batetik begiratuta bere gurarien mundua adierazteko. Ehunda hirurogeigarren olerkitxoan —bi lauко nagusitan emana dena—, olerkariak ames dagi gurarien labeen: mundu berria amesten dabil. «Elorri beti lorez jantzi bat» [160,5]. Olerki txikitxo honetan sinbolizazioa laburra da nahi bada, baina egoki datorkion alderdiaz baliatu da, bidezkoa denez, amesen mundu hori marraztu ahal izateko.

Poetak baditu bere betealdi beteak, pozez gainezka agertzen zai-gunekoak, loratze huts bailitzan agertzen zaigunik badu Gandiagak, hala nola, ehunda hamazazpigarren poema. «Ordu gurenean» olerkariak bere anima galtzen du «neure zorunean, / aireko oztiñean» [117,35.39-40]. Izan ere, poema horretan barne zorionean beterik den aldia izadiaren betealdiaren irudiz eta jaso-jaikitzearenez adierazi digu:

«KANTARI jaso nintzan
egada batean.
Lorak izan nituan,
erruz, barrenean,
egada batean.» [117,1-5].

Hala ta guztiz ere, Gandiagaren zorion munduak badu halako poz-mindura ukitu bat, eta xumetasuna, txikitasuna dastatzen da maiz bere poematan. Xumea eta gardena, poz-mindura ukituarekin. Berak ere ondo aitortu du sarrera-sarrerako «Poematxuak» haretan. Hala, poetak

hemen egindako bidea hor geldituko da, baina «gauzen gomutea» [189,4] ez du sekula ahaztuko. Eta gogoan duen mundu hori, maite duen mundua, hauxe da:

«Maite dot samin zaarra
ta arkaitzeko elorri
bakartadekoa.» [189,7-9].

3. Elorria - giza-bizitza

Askotan bigarren plano nabaria bada ere, eta korrespondentzia analogikoa biziki adierazia, beste hainbatetan badirudi parekotasun analogiko hori isilean geratzen dela, baina iradokia. Poemen testuinguruan irakurlea erne dago elorriaren deskribiorakoan gizakiaren izatearen aztarnak somatzeko.

Zenbaitetan bigarren maila analogikoa errepikazio soil baten hari xumearen oihartzunetik dator. Esaterako, antologiazkoa da honetan hemezortzigarren poema: «ZARPIL...».

Zalantzarik gabe Gandiagak bere zentzu erneen bidez izadiaren bizitza hain biziki somatzen du eta hain koloretsu eskaintzen dio irakurleari elorriaren mugimendu, itxura eta urtarotako aldakuntza, gizakiaren joranak eta sentimenduak marrazten ari dela dirudi; eta ondorioz, gizakiaren adin eta epealdiak indartsu datozkio irakurleari begi-irudimenetara.

Horrezaz gainera, hizkuntzaren hots sinbolismoa Gandiagak berebiziko indarrez maneiatzen baitu, esaterako, bizitzaren drama adierazteko orduan, elorriaren negu gorriko neke-minen, edota eguzki galdatako suaren, edota harkaitz soilduari lotutako sustrai lehorren antsiak eta ezinak, ez irudi bizitzan bakarrik, hitzen beren hots eta karraxitan ere somarazten dizkigu.

Hala da gizakiaren bizitzaren latza eta urria adierazi nahi dituenean, «geure bizitz zarpilla letz» [18,2.7.24] errepika gisa darabilenean. Adjetiboak semantikaz eta hotsez indartsuki adierazten du bizitza horren hondatua. Eta kideatasuna adierazten duen «letz» partikula hori beraiaz afrikatu du, bertso lerroaren barruan gauzatu datorren hots sinbolismoa sendoagotzeko. Dena den, hemezortzigarren poema honetan, sinbolizatua, aipatu dugun bertso lerro hirutan errepikatu horren bidez baizik ez da adierazia espreski. Alabaina poema guztiaren zehar isil-ageriko dator sinbolizatua, aipatu dudan joko hori dela medio.

Neguan, bizitza hilaren garaiari begiratzen dio poetak elorriari eta zarpil somatzen du. Somatuaz gainera adierazi ere biziki adierazten du, adjetibo hori hirutan eman baitu lehen zatian berean, lehen hiru lerrotan:

«ZARPIL...
geure bizitz zarpilla letz,
zarpil elorria,
bere betiko samin zaarraren,
bere karraxia.» [18,1-5].

Olerki osoan oihartzun gisa dator adjetibo bera, errealtate semantikoan ageri den esanahiean, baina unean-unean oihartzunaren kolpearen indarrez aurrean jartzen zaigula. Hori tituluak eta puntuek iradokitzen dutenez gainera. Bestetik, elorria betiko samin zaharream somatua da, bizi ahaleginetan, inoiz aldendu ezineko saminetan. Ingurune horretatik dagi deiadar, «karraxia». Gehiago, elorria bera da, kera horretan, bere samin zaharream karraxia. Hala somatu du olerkariak.

Elorriaren beraren irudia eskaini digu lehen zatian, bigarreanean ingurunean kokatu du elorria. Bi kokagunetan jarri digu gainera: lekuan eta denboran. «Arkaitzean, /.../ bigurri ta nabar», [18,6-8]. Lurrik gabeko eremuan izakera fisikoa azpimarratzen duten bi adjetiboz marraztua, desitxuratua batetik, «bigurri»; eta deskoloretua bestetik, «nabar». Denboran galduaren sententzia nabarmentzen duela. Denbora bera heriotzarako bidean ikusia da, hori-arrean: «arrats-beerako laru aurrean,» [18,9]. Eta elorria soil, baliapiderik gabeko ageri zaigu: «lander eta bakar» [18,10]. Beraz, nahiz leku-denborak aipatzen dizkigun, olerkariak nabarmentzen duena elorriaren egoera larria da, hain zuzen, adjetibo bikoitzez bai lekuari dagokionez bai denbora guneari begira.

Jarraian elorria bera da beti ere lehen mailan jarria, bera deskribatua, beraren sentimendu eta nahiak adieraziak. Beronen hondamena bi izaritan ikusia da, era berean: itxura fisikoan «bere biziko zarraski,» [18,13] eta sentimendu mailan: «milla naigabek ondamentua,» [18,14]. Eta itxura-sentimendu binomio horren jokoan aurrera darrai deskribazioak. Zati honetan, halaz ere, bizidun eta pertsona bailitzan aurkezten digun elorriaren sentimendu eta nahi mundua azpimarratzen du batez ere autoreak:

«ez lora bat et'ez orri,
etsi t'ezin etsi,
lakar t'errukarri,
apal ta urratu, joran ta larri,
arkaitzeko antsi,» [18,15-19].

Dena den, elorriaren nahiz kosmosaren nahiz gizakiaren betiko bizi minaren metafora indartsu ageri zaigun «samin zaarraren betiko erpe» [18,20] horren ondoren, irudi fisikoaren azken deskribio osagaiak dartzkigu batez ere. Aurreko guztien sintesia eman nahi digutenak bate-

tik, eta bestetik, pare bat osagai berriz olerkia burutuz, eta, batez ere, hots sinbolismoaz baliatuz olerkiari gailurra emanaz:

«samin zaarraren betiko erpe
tarteana, bigurri,
neguko elorri,
gorri ta laborri,
geure bizitza zarpilla legez,
zarpil maitagarri.» [18,20-25].

Gandiagak elorrian sinbolizatu duen giza bizitzarekiko eta kosmos berarekiko jarrera azken hitz horretan adierazia utzi du: zarpil bai baina «maitagarri». Hain zuzen, izate urri horretan berean maitagarri. Xumea izanik ere, bizi egarri handitan; eta bizitzara ernetzerakoan jauzi eta lore, baina xumea halaz ere. Dena den, poema honetan elorriaren negu izaera zarpailaren bidez, giza bizitzaren tankera eta izate zarpailaren irudia eskaini digu. Denboraren zikloaren bidez izadiak heriotzaren aurrean duen bizi antsia berri eman du, gizakiak barnean daramatzan bizi joranak eta bere izate urrian dituen gurari handiak sinbolizatu ditu.

Hamazazpigarren olerkian sinbolizatua espreski ematen ez dugun arren, aipatu dugun semantika mundua ageri zaigu, sinbolizatzailearen bidez iradokia delarik sinbolizatua. «USTELTZEN dira / zure arantzak. / Iñoiz ez zure / ustea.» [17,1-4].

Heriotz ideia, berriz, sasitzan katibu den elorriari eskaini dion hamairugarren olerkian oso azpimarratua dator honako metafora honen bidez: «otsoek ildako / bildots bat dirudi.» [13,15-16].

Elorri poema liburu honetan Gandiagak olerki askotan, sinbolizatua lehen maila batean poeta beraren barne mundura ekarriaz gauzatu duen arren, atzean giza bizitzaren ikuskera ontologikoa dago. Azken zati honetan aipatzen ari garen olerkiek —eta beste askok—, berriz, gizakiaren errealitate ontologiko hori dute sinbolizatutzat lehen mailan adierazia. «BIZITZA sasi bat da / larrosa ta arantza.» [118,1-2] ondotxo esaten zaigunez.

Denboraren zikloaren barruan, neguaren sinbolismoari eman diogu lehentasuna hemeretzigaren olerkia hautatu dugunean hirugarren zati honetan. Badu Gandiagak ikuskera horren alderantzizkoa, denboraren zikloa uda-udan kokatzen dueneko, eta elorriak eguzki galdan nozitzen duena, uda sinbolismoan ematen diguna: hirurogeita seigarren poema da hori eskaintzen duenetako bat. Biak antologikoak. Bietan Gandiaga hitzaren arkitekto bete ageri zaigu. Lehenean hitzaren oihartzun printzak eskaini dizkigu, bigarrenean garrak. Sinbolizatua isilago ageri da bigarren poema honetan —nahiz eta halako ukitu bat ageri den—; baina sinbolizatzailearen deskribioan finkatua da olerki honen indarra.

Inguruaren deskizioaz hasten da olerkia. Eguzki galdatan da lurra udaren bihotzean, arratsaldeko ordubietan. Leku denboren aipameneke eguzkiaren erreari intentsitatea ematen diote:

«ARRATSALDEAK ordu bi.
Eguzki galda lurrari.
Bideak isla sargori.» [66,1-3].

Ahapaldi bera jarri du poemaren amaieran, herri poesiaren baliabide ezagun batez intentsitatea adierazten duela, hain zuzen, «T'» kopulatiboaz. Eguzkiaren erreinupea adierazten digun deskizio labur baina erabateko horren ondoren, izadiko bizidunen egoera larria, berriro bi hitzetan emana; hizkuntza —adjetiboak kasuan— trebeki bihurrituz eta hitzen aukera aparta eginez:

«Ta aide igarrean, krazlari,
erroi mikatzak egarri.
T'otatza zatar ta amurri.» [66,4-6].

Bi adjetibo, «igarrean» eta «mikatzak», ez dagozkien izenei lotuak datoz beroien deskizio balioa areagotuz; izan ere, horretara, zentzuen inplikazio zabalagoak hartzen du gorputza, bapatean ustegabeko argiekin irakurleak topo egiteaz gainera. Areago, elorriaren ingurune horren deskriziorako hautatu dituen irudiak, erroia eta otatza, egoera larria adierazteko egokiak zaizkio; baita bion sinonimoen aurrean egin duen aukera ere hots sinbolismorako. Eta, honez gero, elorriaren deskzioa antologiako bertso lerroz hasten eta jarraitzen duela:

«Gorian, gorri, elorri
—sustraiak ezin ba etsi—,
zalantzaz eta mudurri.» [66,7-9].

.....
«—Zer biotzaren izurri,
legortearen suarri!
Zer aldorraren lergarri!-
Elorri t'erdi, elorri
—sustraien griña sukarri—,
arri-inpernuan, bigurri.» [66,13-18].

Jadanik aipatua dugun bezala deskizioak bi hari nagusi ditu, bata fisikoa eta bestea olerkariaren subjektibitateak pertsonifikazioaren bidez somatzen duena, beti ere guztia poetaren begian eta irudimenean gautatua. Guzti honetan, sakonean, sinbolizatua iradokia dago, eta espreki adierazia ere bai, guzti hori poetaren eta gizakiaren inguru «idorraren irudi» baita [66,10-12].

4. Elorria - Arantzazu

Gandiagak *Elorri* poema liburua aurkezterakoan, atari-atariko poematxoan, «ELORRI: Poematxuak.» dela dio eta poema horren amaieran honako aitorten hau egiten du:

«Arantzazu'k nigan sortu dituan
dar-dar eta barru-ikaraen ots.» [0,6-7].

Bizi pauso luzeak emanak ditu Gandiagak Arantzazun; umearo, gaztearo eta helduaroko urte asko batetik, eta bizi esperientzia sakon erabakiorrak eginak ditu hango etxe barne eta kanpoko inguruetan. Gogoeta lekua, poz-nekeak ausnartzeko giroa, aurkitu du bere izpirituak. Zirimiriak lurra apurka umeltzen duen bezala, hala unkitu dute poeta bizitzako gertakizunek.

Beste nonbaiten esana dugu⁵ Gandiagaren poetika autoreak berak bizi duen zentzu ahalmen handiaren fruitu dela; munduaren somakera poetikoan garrantzi handia du autorearen zentzuen sentiberatasunak. Berrogeita hamargarren hamarkadan, Gandiagak *Elorri* poema liburua landu zuen garaian gertatu zen eliza berriaren eraikuntza aldia. Eliza hori eragin zuen proiektua ez zen eraikuntza hutsarena. Elizgintza fisikoaz gainera, proiektu horrek bere barruan zituen izpiritu mailako zenbait izari aberats: euskal artearen gune, espresamolde berrietako leiho, etorkizunari begira jarria zegoen izpiritu elizgintza, eta abar.

Gandiagak etzegintza horri begiratu ugari egingo dizkio, beti ere elorriaren irudi sinbolizatzailearen bitartez eta Arantzazu beraren zenbait alderdi gogotan hartzen dituela. Guk kontuan hartuko dugun lehen alderdia itxura fisikoarena da. Egia esan, elorriaren irudipean emana dago —hogeita hamaikagarren poeman— Arantzazuko elizgintza; baina elorria aipatu baizik ez du egingo eta berehala sinbolizatua-ren mailan sartu eta horren berri emango digu; ez, ordea, sinbolizatzailea hainbat ñabarduratan -metafora eta abar- ispilatu gabe:

«ARKAITZEZ gora, elorri,
astrapalatsu, basati,
arkaitzez, garratz, eleiz arkaitza
azkar dator, barri.» [31,1-4].

Elorri-ko poematan behin baino gehiagotan kokatu du elorria har-kaitz soilean, umeltasun eta lurrik gabeko haitzean. Baina hemen har-kaitzean gora, bai zalaparta bai mugimenduan biziro datorren elorria «eleiz arkaitza» da. Eraikuntzaren erraldoia eta zarata-mugimenduak

⁵ OTAEGI, Joan, *Adjeliboa euskal literaturan*, 1995-IV-04, Deustuko Unibertsitatean defenditutako tesia, 695-704. orr.

hasi lehen ahapaldi honetan eta aurrera ondo nabarmenduak aurkitzen ditugu. Hemen, poemaren hasieran, elorriaren aipamena egiten zaigu: elorria haitzean bezala, hala dator eraikia «eleiz arkaitza».

Bigarren ahapaldian ez du elorriaren aipamen zehatzik egiten; baina lehen hitzetik antzematen zaio hura duela abiapuntu. Arantzazuko eliz dorreek oinarritik gora dakarten kanpo egituran harri puntadunak baitituzte jantzi:

«Arantza ta agin biziki,
lei gogor baten itzuli,
lakar ta lakatz, ba-da akatsezko
neurri ta gauzen ausardi.» [31,5-8].

Dorreen itxura ez da, bada, horma leunez egina. Irudi biz adierazi du lehen lerro horretan: «Arantza», «agin». Lehenak elorriaz baliatu dela esaten digu garbiri. Bigarrenak zerraren trama dakarkigu gogora. Baina elorriaren izaera bera Arantzazuko eliz eraikiaren sinbolizatzaile baldin bada, eta eliz eraikuntzaren itxura haren sinbolizatua bada ere, guzti hau sakonagoko sinbolizatu baten sinbolizatzaile bezala eman zaigu: «lei gogor baten itzuli» [31,6]. Asmo eta proiektu sakonagoen sinbolizatzaile. Beraz, «eleiz arkaitza» sinbolizatzaile, eta beronen bidez adierazia datorkeen «lei gogor» hori, edo gerotxoago emango digun «gogo aro» eraikia sinbolizatua.

Berriz ere aitor dezagun, Gandiagak hautatu dituen irudi, lexiko eta esamoldeak indartsuak dira benetan. Hautatu duen hari bati helduz —ez da bakarra, ez noski—, laztasuna, alegia, berebiziko indarrez adierazia dago. Lehenengo, sinestesia bidetik: «arkaitzez, garratz, eleiz arkaitza» [31,3]. Garratzasun hori ez dagokio elizari, gustamena baitu bere eremua; baina hemen laztasuna adierazten du, eta bere horretan polisemiaz hornitua dator testuinguruagatik. Gero, hor ditugu aipatu ditugun arantzaren eta aginaren deskribio irudiak. Eta bigarren ahapaldi honetan berean: «lakar ta lakatz, ba-da akatsezko» [31,7]. Bertso lerro honetan hiru lexiko eta semantika ñabardura ezberdinez laztasun bera adierazten zaigu intentsiboki. Hirugarren ahapaldian garai bateko troka eta mendiei, «bekoki larri»ei, gainak hartu dizkie eliz harkaitz horrek, eta laztasuna handitasunaren irudiaz izari berritara dakar, hain zuzen, aro berrien irudi delarik. Eta azken ahapaldia antologiako hots sinbolismoz jantzia dakar laztasun eta handitasunaren semiak sintesia bikainean ematen dituela:

«Gorri torre t'orma ta arri,
indar ta altura iratzarri,
arkaitzez, garratz, eleiz arkaitza,
irme ta aidor, barri.» [31,13-16].

Hurrengo poeman, hogeita hamabigarrenean, aurreko olerkiaren azalpen gisa esan duguna espreski aitortua eta bergauzatua dator hasieratik. Arantzazu bera, Arantzazuko etxagintza, eta beronetan elizgintza batez ere, elorri deitua eta elorrian irudikatua da, bai eta beste zenbait sinbolopetan ere, hala nola, itsaso eta untxiaren sinbolotan:

«ELORRI,
zugaitz da ta sasi.
Arantzazu elorri,
arkaitz ta lan gorri.» [31,1-4].

Beti ere, kateatzea honela da: elorria - Arantzazu elorria - ebangelizatze lana (eta horren barruan «Erregeren ontzian / Erregin bidari: / Andre eder Mari, / zuzen-orratz argi, / arrizko ontzi santuko / lema-zain ta begi.» [32,36-41]. Eta amaierako «mundu zabal guztiai / barrion irrintzi.» [32,49-50]). Iruditeria horren barruan, zalantzarik gabe, tradizio literarioak antzinarik markatuak dira hirugarren maila horretan aurkitzen ditugunak: Eliza = untxi eta horri dagozkionak. Baina ausartago agertu da Gandiaga bere poema liburuaren jatorrizko irudi nagusiaren erabileran, elorriaren sinbologiaz baliatzerakoan.

Elorriaren arantz eta lore izate hori, era berean, Arantzazuko elizgintzan gauzatua ikusten du hogeita hamairugarren olerkian. «ELORRIKO Andra Mari» [33,1] du izenburu eta abiadura, elorriaren antzera akasduna, lakatzez betea eta latza egina delarik eliza, elorri latz horretan lore Andre Maria jartzen du Gandiagak, sinbolismoa erlijio goi mailara jasoaz, aurreko beste bi poematan bezala.

Bestalde, elizgintza bera ere, arantz / lore binomio horren arabera ikusi duela esan genezake:

«Elorri-ondo ta izar itxura
emon nai izan deusagu:
Arri baltzixkak elorri-arantz,
zurixkak izar-errañu.» [33,24-27].

5. *Elorri* - Poemak

Hain argi dago, argi! Izan ere Gandiagak ez du poema liburua *Elorri* deitu elorria olerki askotan deskribatua delako, edota poema horien motibo delako, sinbolo delako baizik. Eta sinbolo esanahi anizdun delako, polisemia alde guztietatik darion sinboloa. Poema liburuari izen bat ipiniko eta, horrelaxe, *Elorri*, mugatzailerik gabe, abstrazio bidez polisemia guzti honetara zabalik eta, gainera, izen berezia bailitzan, poema

guzti hauen muina bere izate sakonean jasotzen duela. Guztia hitz antologiazko batera ekarri eta hor adierazia. Soil eta dotore esana du hasierako olerkitxoan:

«ELORRI: Poematxuak.
Elorri eder-tankeraz
eder-naiezko poematxuak.» [0,1-3].

Gandiagak hementxe aitortzen du bere poetikaren ardatz nagusi bat. Elorriaren alde loratua hartu du olerki liburu hau sinboloz adierazteko bide: «Elorri eder-tankeraz / eder-naiezko poematxuak». Elorriaren udaberriko loratze horren sinbologian gauzatu ditu poemak. Aitorpen apala egiten du: «eder-naiezko poematxuak». Gero, poemak arantza eta lore, poz eta nekeen argitan emango ditu; baina aurkeztera doan honetan, benetako loratze gisa ikusi nahi ditu.

Ikuskera konplexuagoa eskaintzen digu berrogeita hamalagarren olerkian. Elorriaren bi aurpegiak —«arantz eta lore»— [54,4] izango dira poemagintzaren adierazle. Gandiagak bere esperientzia oso erraz isladatzen du poemagintzan; sarri barne maila horretarako urratsa kanpoko pausoen korrespondentzia analogikoan emanaz gainera, egitura paralelistikoetan ere ematen digu, jadanik esana daukagunez:

«POEMATXUOK ba-doaz,
zer nai daben jakin gabe,
neure arima au bidez doan lez,
arantz eta lore.» [54,1-4].

Hemen, bada, bere poemagintza esperientzia errealtate pozgarri eta ilun bezala hartua da. Poemaren egituran estrofa guztiek dakarte arantz eta lore izatearena modu batera edo bestera. Gandiagak hiru maila biltzen ditu olerki honetan, beste askotan bezala: elorria - poemak - poetaren sentimendu eta izaera. Hirugarren maila honetan, ordea, bai olerkariaren «arima» [54,3] bai euskaldun «biotz»a [54,6-7] bai bihozkadak [54,10]. Beraz, badirudi, maila honetan zehatzetik orokorrera, edo abstraziora pausoa egin duela poemaren joanean.

Eta olerkiaren erdigunean oinarrizko sinbolismora datorkigu autore: elorria lore eta arantza / gizakia poz eta min. Ondorenean, berriz, hurrengo sinbolismo jokoa: elorri loreak / poematxoak:


«Elorri berak lore ta arantzak...
Pozak, miñen ume.

Elorri loren tankeraz,
txiki ta, eskasik gabe,
batzuek laiñoz, besteak argiz
edegi dirade.» [54,11-12. 13-16].

Eta amaiera emateko autoreak berak gonbidapen hau egiten digu, alegia, loreak ez datozkigula esanahirik gabe, eta beren zergatiaz galde egin behar zaiela. Hona irakurleak gonbidapena beretzat jaso nahi baldin badu, eta bere gutizia bete, zer egin behar duen: behin eta berriz irakurri, ausnartu eta bereganatu.

* * *

Gure lan honen asmoa ez da izan Gandiagak *Elorri*-n darabilen sinbolismoa erabat aztertzea, azterketa horretarako pista batzuk ematea baizik. Horretarako, liburu honetan esanahitsuena den sinbolismoari heldu diogu: elorriaren inguruan gauzatzen denari. Baina Gandiagaren liburu honek beronek, eta besteak, sinbolismoaren giroko baliabiderik asko erakusten digute. Eta merezi luke gure olerkarien poetikak zein bide egin dituen ikertzerakoan Gandiagaren obrak ere gogotan hartzea.



Lauaxeta: hizkuntzari eta literaturari buruzko bere adieren zenbait zertzelada

Josu Penades

Lauaxetak, jakina denez honezkero, olerkiez gain, ipuinak, antzezlanak, entsaiuak eta prentsarako bestelako artikulua ere idatzi zituen. Eurotan politikaz, ekonomiaz, gizarte-arazoaz, literaturaz eta arteez, irakaskuntzaz, euskararen egoeraz eta erlijioaz aritu zen. Hau da, bere neurrien barruan, bizitzako hamaika arlotaz hausnartu zuen. Are gehiago, errealitateko arlootariko askotan zuzen-zuzenean konprometatuta ihardun zuen.

Lauaxetaren lanetan axiologi edo moral-adiera bat azaltzen da, antropologi ikuskera bat, erlijio-bizikizun bat, politika eta gizarte-irritzi batzuk, literatur ikusmolde batzuk, Lauaxetarenak berarenak diren hein berean inguruko zenbaiten iritzien isladapen gertatzen direnak, halaber, behin baino gehiagotan. Aipatu arloetariko bakoitza dela-eta, literatura salbuespen, aise aurki daiteke Lauaxetak baino gehiago eskainiko lukeenik bere inguruan; baina arlootariko guztiak elkarrekin uztartu gurean ihardun izan duenik, ez horrenbeste. Honela, bada, osorotasunezko munduikuskera bat taiutzeko bidean aritu zelako da interesgarria Lauaxeta.

Esandakoa abiapuntutzat eta testuingurutzat harturik, Lauaxetaren idazkietan azaltzen diren bi gai baino ez dira aipatuko hemen: lehenengo, Lauaxetak hizkuntzari buruz zuen pentsaera; eta, bigarrena, bere literatur adierari dagokion konpromezu-neurrialdia.

Hizkuntza¹

Euskarari buruzko guztia hiru erreferentziaren inguruan harilkatzen zuen Lauaxetak, abenda, eusko izatea eta aberriaren inguruan, alegia.

¹ Atalki honetan esaten dena argitaratzeaz dagoen ondoko lan honetako 2.1.2. puntutik jasoa da, zertxobait egokituz: J. Penades: *Lauaxeta: Kulturaren eta sinesmenaren arteko egitasmo zapuztua*.

Euskara, Lauaxetarentzat, alde batetik, abendari zegokionez, «abendlendia»² edo «habla racial» edo «idioma racial»³ edo «lengua racial»⁴ zen. Beste alde batetik, eusko izateari zegokionez, eusko «izatearen agerpen garaiena»⁵ edo «*manifestación del alma vasca*»⁶ edo euskotasuna erakusteko ezaugarririk onena⁷ edo eusko gogoaren berezitasun guztiak gordetzeko bidea⁸ zen. Horregatik esaten zuten

«un pueblo que no se expresa en su idioma es un pueblo que se va muriendo por dentro, y nosotros [“los que queremos vivir en comunión espiritual con la raza, los que anhelamos que resurja la lengua, el idioma patrio, (...) la lengua racial”] no hemos de consentir que la muerte del euzkera se opere dentro de nuestros propios corazones»⁹.

Federico Mistralen berbak tarteko, hizkuntzaz orokorki hitz eginda —eta ez euskaraz zuzenki, nahiz eta hau izan gogoan azken batean—, «aberrijaren ikur ederrena»¹⁰ eta «aberrijaren muina, guna»¹¹ zen elea Lauaxetarentzat. Euskarari buruz beren beregi hitz egin zuenetan ere antzerako zehaztasunak egiten zituen: «Aberrijaren ezaugarri guirena»¹², «aberri baten ezaugarri ederrena»¹³, «geure errijaren ezaupide ederra»¹⁴, *aberiaren gazarik ederrena*¹⁵, «idioma nacional»¹⁶

² Ikus «Matxinada-izparrak-eta». *Euz* 1936.09.11/8. (*Euzkadi* egunkariaren laburduratzat erabiliko da *Euz*, artikulua honetan. Bere osteko zenbakiek data adierazten dute eta taktet makurraren ondokoek data horretako egunkariaren orrialde-zenbakia).

³ Ikus «Biozkadak (Divagaciones)». *Euz*. 1929.11.16/1.

⁴ Ikus X.X.: «Conferencia de Don Esteban de Urkiaga». *Euz* 1931.02.21/4.

⁵ Ikus «Pizkundia». *Euz* 1930.02.16/5.

⁶ Ikus «Homenaje a “Kirikiño”». *Euz* 1933.07.21/3.

⁷ Ikus «Matxinada-izparrak-eta». *Euz* 1936.09.1a/8.

⁸ *Ibidem*.

⁹ X.X.: «(Los actos organizados por Emakume Abertzale-Bataza). Conferencia de don Esteban de Urkiaga». *Euz* 1932.02.21/4.

¹⁰ Ikus «Federico Mistral». *Euzkerea* 17(1930)363-364.

¹¹ *Ibidem*. Eta guzti honen gainera «aberrija maite dabaren ikur ezaugarriena elia ondo jakitia da» zioen.

¹² Ikus «“Garbi-Nai”ri agurra». *Euz* 1931.11.03/5; «Azalpenak. “Ekin”». *Euz* 1932.03.02/5.

¹³ Ikus «Azalpenak. Mingotsa». *Euz* 1932.12.01/8; «“Kirikiño” zanaren oroiz». *Euz* 1933.07.23/8.

¹⁴ Ikus «Azalpenak. Eztabaida». *Euz* 1932.02.09/7.

¹⁵ Ikus «Azalpenak. “Euzko”». *Euz* 1933.07.23/5.

¹⁶ Ikus «Bibliografía vasca». *Euz* 1932.07.06/5; «¡Viva el “Gernika’ko”!». *Jagi-Jagi* 32(1933)11; «Temas vascos. “Vocabulario vasco-castellano”». *Euz* 1933.12.06/12; «Próximo estreno de Libe». *Euz* 1934.02.17/5.

edo «idioma patrio»¹⁷ edo «aberrijaren elia»¹⁸ zen euskara Lauaxetaren ustetan.

Aberriaren eta euskararen arteko lotura aztertzen jarraiturik, hizkuntza zela «laterrien giltza» eta aberriak (Euskadik), iraun nahi izanik, zeukan «esi bakarra», baieztatzen zuen Lauaxetak.

Aberriaren eta euskararen arteko lotura aztertzen jarraiturik, hizkuntza zela «laterrien giltza» eta aberriak (Euskadik), iraun nahi izanik, zeukan «esi bakarra», baieztatzen zuen Lauaxetak¹⁹.

Horrenbestez, bada, euskarak euskaragatik ez zuen zentzurik Lauaxetarentzat. Aberriaren ezaugarri zen neurrian zen izatekoa euskara. «Euzkadi goratuteko idazten dogu. Euzkeria maite badogu ezta euzke-reagaitik aberrijagaitik baño. Izkuntzak eztira ezer abenda ta aberri barik»²⁰ zioen berak²¹.

Euskara, aberriaren ezaugarririk gorena edo aberriaren ikurrik ederrena edo aberriaren hesi bakarra edo «geure izatearen agerpen garaiena» edo zena zelakoa izan arren, Euskadin gazteleradunak ere bazeudela onartu egiten zuen Lauaxetak, eta are gehiago, hauek ere euskotarrak zirela. Hau zela-eta, ez zuen egokitzen jotzen *Euskal Herria* hitza euskoen herria izendatzeko, euskaraz soil-soilean hitz egiten zen lurraldea ez baitzen berau. Horregatik, *Euzkadi* —euzko + di— zuen euskoen lurraldea izendatzeko berbarik zuzenenatzat²², erdaldunak eta euskaldunak elkartekide zirelarik. Beste batean ere, Bilbo aldean EAJko asko erdaldunak zirela eta ez zirela sorturiko eztabaidaren zioz, bakegile bezala aritu nahirik, antzeko zerbait adierazi zuen, Euskadi osoaz barik EAJ alderdira mugatuz. Honelaxe idatzi zuen, larriki:

¹⁷ Ikus «(Las letras vascas). Una obra de "Otxolua"». *Euz* 1933.03.18/8.

¹⁸ Ikus «Azalpenak. "Eusko-Olerkiak"». *Euz* 1932.08.14/5; «Egunekua». *Euz* 1932.09.03/1; «Azalpenak. Ikastarua». *Euz* 1932.10.26/8; «"Kirikiño" zanaren oroiz». *Euz* 1933.07.23/8; «Euzkel-Idazle-Batzarra». *Euz* 1933.10.01/8.

¹⁹ Ikus «Azalpenak». *Euz* 1931.05.01/5; «Azalpenak. Ikaskuntza». *Euz* 1931.10.25/5; X.X.: «De Juventud Vasca de Bilbao. Inauguración de las clases de euzkera». *Euz* 1933.10.17/1; «"Garoa"». *Euz* 1935.02.14/1.

²⁰ «Azalpenak. Ereduba». *Euz* 1931.08.13/5.

²¹ Ikus «Pizkundia». *Euz* 1930.02.16/5; «Eztabaida». *Euz* 1932.02.09/7; «Azalpenak. Ikastarua». *Euz* 1932.10.26/8; «Uarra» [LUZEAREN artikulua bati]. *Euz* 1932.12.03/8; «Azalpenak. ¡Ogei urte!». *Euz* 1933.02.01/8; «(El domingo, en Mañana). Homenaje a "Kirikiño"». *Euz* 1933.07.21/3; «"Kirikiño" zanaren oroiz». *Euz* 1933.07.23/8; «Uarra», in *Bide-Barridak : nuevos rumbos*. Verdes Achirica, Bilbao, 1931, 142. orr.

²² Ikus «Idazliai uarrak». *Euz* 1931.08.18/5.

«Nire ustez gauza baten billa gabiltz: Alderdi bi gura doguz: bata euzko-erdeldunena; bestia, euzko-euzkeldunena. ¡Eta guazen bidez lortuko dogu oiz!

(...)

Anaitasuna dagon tokijan olako eztabaidak eztira sortzen»²³.

Baina Lauaxetaren gai honetazko iritzia argien azaltzen duenenetarik idazlana *Mingotsa* da. Artikulu osoa da interesgarria. Hona bere tesia laburbiltzen duten bi lerrokada, arean ere azalpenik behar ez dutenak:

«Euzkerea parra-parra dakijen askotxu ezagutu daruaguz. ¿Abertzaliak ete-dira? ¡Bai zera! Abertzaletasunaren etsai amorratuagorik ezta. Erderea baño eztakijen asko, ostera, abertzalerik punterengue-nak dira.

Geyagorik esango dogu: euzko-abertzaletasuna erdere (gaztelera nai ba-dozu) baño ezekijen adimenetan sortu zan. Abertzaletasun onen aldatzalerik onenak, lanik geyen egin dabenak, euzkerarik ezekijenak ziran.

(...)

Euzkerea eztogu aberrija, aberrijaren pitxi ederrena bada ere»²⁴.

Hizkuntzaz, beste bi zehaztasun ere egin zituen Lauaxetak. Batetik, hizkuntza Jaungoikoak emana zen. Honela mintzatu zen misioetara joaten ziren lurraldeetako hizkuntzekiko jesuita euskaldunek zuten jokabideaz ziharduelarik: «A cada uno es preciso hablarle en el idioma que Dios le dió»²⁵. Halatan, jakina, euskara ere Jaungoikoak emana zuten euskotarrek. Honen arabera, topikoak topiko eta mitoak mito, ez da harritzekoa Lauaxetak euskarari buruz «Jaun-Goikuaren ixena goratuteko baño ixan eztan» elea zela esatea²⁶. Eta bestetik, *ezilkorra* zen aberri baten hizkuntza; beraz euskara ere bai, alegia²⁷.

²³ «Uarra» [GARATE'TAR JOSEBA MIRENA: «Okerrea zuzentzen» lanari]. *Euz* 1935.08.15/12.

²⁴ «Mingotsa». *Euz* 1932.10.01/8.

²⁵ «Los jesuitas vascos y las lenguas indígenas». *Euz* 1933.08.01/9.

²⁶ «Azalpenak. Ulerkatxa». *Euz* 1933.03.08/8.

²⁷ Ikus «Azalpenak. Ume bat». *Euz* 1932.05.19/1. Aberriaren beste ezaugarriei —hots, *abendari*, *erlijioari*, *legeei* eta *historiari*, *izateari* edo *izaerari*, eta *ohiturei*— ere erantsi zion Lauaxetak hilezkortasuna (*ezilkortasuna*, berak erabiltzen zuen hitza erabilirik) delako berezitasuna. Hau, baina, ez da harritzeko, hilezkortasunaren inguruan hariilkatua baita Lauaxetaren idazlanetatik jalki daitekeen antropologi adiera (adiera honetaz ikus argitaratzeaz dagoen hurrengo lan honetako II. atala: PENADES, J.: *Lauaxeta...*).

Literaturari dagokion konpromezu-neurrialdia²⁸

Eduardo Pondal galiziar poetaren jaiotzaren ehungarren urteurrena (1835-1935) zela-eta idatziriko XIX. mendeko poesia galiziarrari buruzko artikulu batean honela mintzatu zen Lauaxeta:

«El despertar de la pasión por la libertad de un pueblo trae en consecuencia el resurgimiento de las artes y de las ciencias. Al contrario, nos lo advierte Croce, la pérdida de la libertad se consideró siempre signo o motivo de decadencia en la vida moral y material de un pueblo.

La influencia del dolor por la libertad penetra por los poros mas sutiles de las letras que vieron su cuna ante las montañas vascas, la gracia griega del Mediterráneo o a la vera de los caminos jacobeos»²⁹.

Hau da: herri baten askatasun-nahia iziotzean (*Pizkundera*), bertako artista eta zientzi pertsonak ikurrik gelditzen ziren, eta beraien esku zegoen guztia egingo zuten nahimen hori gauza zedin. Euskal Herrian, ahaleginetan ziharduten horietariko pertsonak aberriaren pizkundera noizbaiteko batean iristekotan³⁰.

Eromantizismoaren ildoari jarraituz, herri baten arimaren agerkaria zen artea Lauaxetarentzat; beraz, eusko artea, eusko arimaren agerkaria zelarik³¹. Lauaxetak zuen arteari buruzko adiera hau bere abertzale-pentsaeraren berezko ondorio ulerterraza zen, abertzaletasunaren aldeko aukera baitzen bizitzako arlo ezberdinak aditzeko Lauaxetaren galbahe nagusienetarikoa³².

²⁸ Atalki honetan esaten dena argitaratzeaz dagoen ondoko lan honetako 4.2. atalitik jaso da, zertxobait egokituz: PENADES, J.: *Lauaxeta*...

²⁹ Ikus «Eduardo Pondal, 1835-1917. "E ti, campana d'Anllons"». *Euz* 1935.02.24/4. Era beretsuan, beste hau ere esan zuen: «Escritores, poetas, músicos y hombres de ciencia dedican sus afanes al resurgimiento de nuestra patria vasca» (Lekarotzeko lekaideei buruz ziharduen ahapaldi batetik aterea da pasarte hau, ikus «Temas vascos. "Inguru-txo"». *Euz* 1932.10.04/7).

³⁰ Ezin daiteke ahanzi bere aldian —1926-1936ko hamarkadan, hain zuzen ere— horren ardura gorria zen eusko *Pizkunderaren* aldeko eragilerik sutsuenetariko bat izan zela Lauaxeta. *Pizkunde* hark aberriaren burujabetza gauzatzeko, hizkuntza, literatura, antzerkia, historia, musika, margolaritza, ekonomia, politika eta bizitzako esparru ezberdinen erneberritzea eskatzen zuen. *Pizkunderaz* ikus: LAUAXETA: «Pizkundia». *Euz* 1930.02.16/5 eta ZZ.EE.: «Por nuestro renacimiento. El "Premio Etxepare"». *Euz* 1935.02.27/7 (artikulu hau izenpetzen zuten egileen artean Esteban de Urkiaga zegoen).

³¹ Begira «Kaitarrak» antzerki-lanaren estrenaldia zelarik medio esan zuena: «¡Que el vasco aprenda a buscar su alma para cristalizarla en arte!» («El estreno de "Kaitarrak"»). *Euz* 1932.01.05).

³² Lauaxetaren idazlanetan antzeman daitekeen abertzaletasun-adieraz ikus I. atala argitaratzeaz dagoen hurrengo lan honetan: PENADES, J.: *Lauaxeta*...

Arte-ihardueren artean garrantzi berezia zuen literaturak. Horrela izanik ere, ezinbestekoa da bereizketa bat egitea.

Abenda-kulturaren erneberritzearen aldeko lana zela idazleena pentsatzen zuen Lauaxetak³³. Begirune berezia zuen eurekiko: «Aberrija goralduten dabenen artian, begikoen yakuz idazliak»³⁴. «Aberriaren gudari punterenguak» ziren³⁵. Lauaxetak baina, *idazleak* hitzarekin hiru tankeratako idazlanak egiten zituztenak izendatzen zituen. Batzuk ziren, egunkarietan-eta euskaraz idazten zutenak³⁶, beste batzuk, eusko gaiez idazten zutenak (euskaraz zein erdaraz)³⁷ edota gai unibertsaletz euskaraz (Bibliaren itzultzailea, adibidetarako)³⁸; eta hirugarrenak, literatura, zentzurik zehatzenean aditurik, idazten zutenak.

Lehenengoei buruz, bete-beteen esan zuen Lauaxetak beraietaz goiko lerrokadako aurreneko erreskadetan azaldutakoa.

Bigarrenak ziren, eusko kulturak bizi zuen hazkunde-garapenaren egile eta lekuko apartekoenetariakoak. Kultura, orohar, jakintza zen; eta, bereziki adituz gero, norberaren nortasunari buruzko jakintza. Halatan, euskoak bere nortasuna edo izatea zuenez, eusko kultura bat zegoen. Eusko kultura horren neurrialdi ezberdinak jorratzen zituzten idazleok: historia, botanika, musika, etab.

Literatura zela-eta, 1932ko azaroa eta abendua bitartean, astebete eskasaren barruan, isekaz agertu zen Lauaxeta birritan, bietan ordea, literatura ez zuelarik mintzagai nagusia. Aurrenekoz, abertzale batzuren artean abertzaletasuna ala euskara zein zen lehenago lortu beharrekoa planteatzen zen eztabaida zela medio³⁹. Hurrena, Bermeoko arrantza-

³³ «Los escritores —todos ellos nefelibatas— son gentes que realizan la restauración de nuestra cultura racial» («El euzkera en la radio. La centésima emisión euzkérica». *Euz* 1934.01.27/3).

³⁴ Ikus «Euzko-Elertija. Humboldt'en idaztija». *Ez* 1933.12.28/12.

³⁵ «"Aberri"ren omenari buruz». *Euz* 1933.08.03/8.

³⁶ Ikus «Idazliai». *Euz* 1931.10.07/5; «Idazliai». *Euz* 1931.10.27/6; «Idazliai» *Euz* 1931.10.29/5; «Idazleai». *Euz* 1931.11.29/5; «Idazliai.....». *Euz* 1932.03.10/5; «Idazliai». *Euz* 1932.04.16/5; «Eusko-erri-jakintza» *Euz* 1932.06.14/5; «Euzko-erri-jakintza»; *Euz* 1932.06.15/5...

³⁷ Ikus «Idazti barriak». *Euz* 1931.10.23/6; «Eusko-edestija». *Euz* 1931.11.07/5; «"Nere laguna"». *Euz* 1931.11.13/5; «Idazti barriak». *Euz* 1931.11.20/5; «Azalpenak. Elertija». *Euz* 1932.02.07/6; «"Sabin euskalduna"». *Euz* 1932.03.02/1; «Azalpenak. Lutestija». *Euz* 1932.03.15/5; «Azalpenak. Idazti barriak». *Euz* 1932.04.08/4; «Literatura vasca». *Euz* 1932.04.16/1-2...

³⁸ Ikus «Azalpenak. Itun-berria». *Euz* 1931.12.15/6.

³⁹ Honetarikoak zioezen ordukoan: «Aurritzak eta literatura deritxoguna baztertu biarr geunkez, erriak astotuteko baño eztiralako. Zenbat eta literatura geyago irakurri, erriak astuago biurrtuten dirala, uste dot. Orregaitik literatuai gorroto bixija arrtu dautset. ¡Lelokerijak idazteko baño eztabe balijo! Txerrena nazala entzutia nayago neuke,

leen talde errepublikazalearen eta talde abertzalearen inguruko zehaztasunez eta bien arteko ezberditasunez aritu zenean. Bigarren horretan hurrengo hau esan zuen: «¡La literatura es la cosa más puerca! Únicamente sirve para embrutecer a los pueblos. Por esta razón, nuestro cuento va a ser de cifras. La nueva poesía de los números. (¡Qué erudito!)»⁴⁰.

Bestalde, Imanol Sotak osatu eta antzezteko egokituriko Sabino Aranaren *Libe* antzezlanaz iharduniko batean, «lo bello sería hacer arte puro, literatura exquisita; pero nuestra patria necesita de escritores que ponen su talento al servicio de la libertad» esan zuen⁴¹.

Mailaketa jarraituz, hau bezalakorik ere idatzi zuen Lauaxetak literaturaz: «Gixadijem [Gixadijen] «opio», elertija da, baña «opio» ori barrik ezin bixi. Gaitz-egitten dauskula igarri-arren, ekitten dautsogu. Odo-la-galdubazoten dauskuben elerrtilarijak ordu onean betorrz, ba»⁴².

Lauaxetak kritikatu egingo zuen literatura ulertzeko eraren bat edo beste, inozokeriaren emaitz *txatxua* zela pentsatzen zutenena, batik bat⁴³. Gogoko izango zuen arren *goi-mailakoa*, bizitzea egokitu zitzaion aldiak eskaturik, Euskadiren *pizkundearen* garapen-tresna ere behar zuela izan literaturak pentsatuko zuen. Hala ere, ezin izango zuen galgatu literatura landuak berarengan sortarazten zion erakargarritasun edo xarma.

literato-gaya nazala entzutia baño. ¡Utikan itz zikin ori! Baña zoritxarrez geure artian literato geyegi dira. Egijak argi ta garbi esan biarran, edozelako gauzetan literaturea egittera datorz. Amaikatu labankeri, txitxi-putxu, zizka-mizka ta kopla-barritsu atzalduten dauskubez, euren gogaya agertu baño lenago. ¡Guda gorrija olakuai! Ozpiñari ozpiña ta guzurrari guzurra deitu dagijogua. Guzurra urrezko txol edo kopatxu baten saldu gura dauskubenak, espetxeratu daiguzan. ¿Eztena? ¡Ezta urrik be! Lau izkimiri-arttian eztenkada galantak sartu daruez oraingo idazle batzuk. Sosuak abesti politta daukola esan biar dabe, azkenian porrusaldea gabetan ona dala atzalduko. ¿Zer ikusirik ete-dauke, ba, sosuak eta porrusaldea?» («Azalpenak. Mingotsa I». *Euz* 1932.11.30/8).

⁴⁰ «Cosas veredes». *Jagi-Jagi* 11(1932)4 (1932.12.03koa zen zenbaki hau).

⁴¹ Ikus «Nuestro teatro. En torno a "Libe"». *Euz* 1934.03.08/1. Honelakorik ere idatzi zuen *Jagi-Jagi* aldizkariak: «Ondo-ondo idatzija ezta ixango, baña aberrijaganako maitasunez jantzita bai. Elerrtija egitten ezkabiltz, aberrija egitten baño. Geure artian askotxu elerrtija-egitten dabiltz eta oneik min luzia baño eztauke. Iñoren akatsak non aurrikittu dabiltz. ¡Orr konpon! Ortogarpi [ortograpi] asko dakijenak-eta ilian idazlantxu bat erdittuteko ixerdija jarijo darue. Eta idazlantxu orretan «zereko zeraren» gauzak atzalduten dabez. «"Jagi-Jagi" n idazten dogunok ostera koplak alde batera jaurrti ta aberrijaganako elburuba argittuten diñardugu. Iñoren erago-otsai ta esamesai jaramonik egin-bage, aurrera guaz» («Azalpenak. Asterokuak». *Euz* 1932.11.13/8).

⁴² «Azalpenak. Euzko-antzerrkijak». *Euz* 1932.12.14/7.

⁴³ Ikus: «Azalpenak. Lurlangilliak». *Euz* 1931.07.22/4; «Azalpenak. Astua-Arrantzak». *Euz* 1931.07.23/4; «Azalpenak. Langillia...». *Euz* 1932.01.16/5; «Azalpenak. Amesetan...». *Euz* 1932.01.26/5.

Hau ez da Lauaxetak zer-nola ulertzen zuen literatura —estetika-ikuspegitik aditurik— azaltzeko tokia. Gauza bat baino ez da azpimarratu gura oraingo honetan: Lauaxetaren ustetan literaturak *pizkunde*-ibilbidean bete behar zuen eginkizuna, alegia. Honetarako ez dago bere idazlanetan barreiatuak isuri zituen poesigintzaren inguruko iritzi batzuetan erreparatzea besterik.

Poeta abendaren errailetan barrena sartzen zen. Ez zuen aski edertasuna dastatzeaz baldin eta edertasun horrek berezitasun-ikulturik ez bazuen⁴⁴. Poesia edo neurtitz batean «oldozkun txukuna, aberrijaren deya edo oyuba» entzun zitekeen sarritan. Zorotzat hartzen zituzten askok olerkariak, baina euren betebeharra zuten Euskadiko egoera jakin hartan: «Olerkijak berebixikuak dira geure barruko aberri-miña piztu ta indartuteko»⁴⁵. Artikulu beratan bi lerrokada lehenago, honako hau zioen: «Aldun onek [Jose Antonio Agirrek] agertzen dauskunez, olerkari ta idazle jatorrak, aberrijaren alde askoz be geyago egingo dabe, Araudijak baño»⁴⁶. Olerkariaren indarra ezin neurt zezakeen inork, «aberrijak gaizkatu» zituzten eurek⁴⁷. Ez zegoen inor olerkariak

⁴⁴ Ikus «Literatura vasca. "Eusko Olerkiak"». *Euz* 1932.08.17/1. Lauaxetaren poesigintzaz sakondu nahi izanez gero halabeharrezkoa da J. Kortazar-en *Teoría y práctica poética de Lauaxeta* (Desclee de Brouwer, Bilbao, 1986) azterketa-lanera zuzentzea. Testuan aipaturiko edertasunaren tokiko apartekotasunaren zioz, bide batez, osagarri gertatzen da J. Kortazarek Lauaxetak zuen poesi adieran poesia europarrak eta poesia herrikoiak izan zuten eragina aztertzerakoan iragazitako pasarte hau: «La poesía de Lauaxeta se acerca así a la definición que los poetas modernos quieren para la suya. Una poesía que uniendo los términos esenciales y nacionales llegue a ser universal, a una universalización con rostro nacional: «Los krausistas españoles, herederos del pensamiento de Sanz del Río, habían resuelto, siguiendo a Krause y a los filósofos románticos germanos, la vieja contradicción entre "ser ciudadano del mundo" y patriota». Lo popular suministra a Lauaxeta el suficiente reconocimiento de lo nacional, de manera que su universalización tenga rostro de lo vasco. Por ello, no acepta el surrealismo, en su internacionalismo sin caracteres nacionales. Y permanece aferrado a la teoría krausista sobre la función universalista de lo popular. No cabía otra cosa en el poeta nacionalista Lauaxeta» (113. orr.). Begira, eizabar honetatik jarraiturik, adibidetarako, Goethetaz zer esan zuen Lauaxetak: «Goethe es el genio nacional. Hasta su epifanía Alemania no había dado tan bellos frutos que dieran un valor de universalidad a su espíritu» («Goethe». *Euz* 1932.03.22/1).

⁴⁵ «Azalpenak. Idazti barrijak». *Euz* 1932.04.08/4.

⁴⁶ *Ibidem*.

⁴⁷ Honela jarraitzen zuen: «Ametsez beterik ibiltten dirala-ta orok barre egitten dau-tsoe baña Mistral, Verdaguer eta Mickiewicz bat agerrtuten danean olerkarijen indarr ori ikusi dogu.

Olerkarija eztabe mintzen sasijak,
Aren gogua eztabe lotzen lokijak.
Olerkarijak bakarrik dira azkiak,
Etokizunan bixi dira ba gustijak» («Federiko Mistral». *Euzkerea* 17[1930]365).

bezalakorik «erri bat itxartu-erazoteko»⁴⁸. Lizardi garrantzitsua zen, besteak beste, aberriarekiko betetzen zuen lanagatik⁴⁹. «Olerrki-jai ospetsuak», olerkariengatik ez bazen ere, aberriarengatik ziren beharrezko⁵⁰.

Aurreko atalkian ikusi bezala, aberriaren, abendaren, edo euskoaren ezaugarririk *gorenetarikoa* hizkuntza zen Lauaxetarentzat, euskara hain zuzen ere. Literaturaz ariturik, bada —eta jadanik berriro ere mota orotariko idazkiak barne, direla poemak zein zientziazko lanak—, euskarak literatur emaitzak behar zituela esango zuen Lauaxetak: «Lo que necesita el viejo idioma es una vigorosa floración literaria»⁵¹. Idazki bat argitaratzen zen bakoitzean zimur bat kentzen zitzaion euskarari⁵². Euskaraz ongi idazten zutenek idazten behar zuten jarraitu, beren esku zen erantzunkizunagatik: «Una responsabilidad pesa sobre estos señores que tan brillantemente escriben en euzkera: si no continúan trabajando sin descanso»⁵³.

⁴⁸ «Lizardi zanaren gomutaz». *Euz* 1934.06.10/12.

⁴⁹ «Si tu vida nos importaba era por la patria» («A la muerte de "Lizardi"»). *Jagi-Jagi* 25[1933]2).

⁵⁰ «Catalunya'ko Jocs Florals». *Euz* 1935.05.12/12. Isekaz josirik, honelakorik ere esan zuen Lauaxetak poesigintzaz: «Ameslari geiegi doguz. Olerrkari antzekuak eta olerrkarijai bizten be etxako itxi biarr laterrijetan, errijen kalterako baño eztralako. Egin dodazan olerrkijak atzindu al ba neuz oraintxe bazterrtuko neukez. ¡Kezka andijagorik eztot, olerrkijak egiña baño! ¿Zertarako olerrkijak? Irizlari batzuk txorr-txorr ekin dagijen eta gaste (sic) zoro batzuk aldija galdu dagijentzat» («Azalpenak. Mingotsa II». *Euz* 1932.12.01/8). Ez da ahantzi behar poesiaz esandako hau literatur iharduera orori buruz esango zuela Lauaxetak (ikus, lehengoz gain, «Olerki-jaya». *Euz* 1932.08.07/5 eta «Literatura vasca. "Eusko Olerkiak"»). *Euz* 1932.08.17/1-2). Puntu honetan bidezkoa da antzezlanak ere aipatzea, besteak beste abertzaletasunaren zabalkunderako bidetzat erabiliak ziren heinean (Lauaxetak honi buruz zuen iritzia ezagutzeko ikus KORTAZAR, J. [par.]: *Esteban Urkiaga Lauaxeta : antzerkia*. Euskal Editoreen Elkarte, San Sebastian, 1990, 9-27. orr.).

⁵¹ «"Biozkadak" (Divagaciones)». *Euz* 1929.11.16/1. Ikus baita ere: «Azalpenak. Olerkarija». *Euz* 1931.09.27/6; «Azalpenak. "Eusko-Olerkiak"». *Euz* 1932.08.14/5; «A la muerte de "Lizardi"». *Jagi-Jagi* 25(1933)2. *Biozkadak*-i eskainiriko artikuluetariko bat aipatuz gero, Lauaxetak hauetarikorik ere idatzi zuen: «Y la poesía no es ya la expresión de una raza, sino la efusión íntima del artista» («"Biozkada". [Divagaciones]»). *Euz* 1929.11.16/1). Badirudi pasarte honek ezeztatu egiten duela poesigintzari eta literaturgintzari orohar Lauaxetak egokitzen zien aberriarekiko eginkizuna. Hala dirudien arren, Lauaxetak artikulua horretan bi gauza adierazi nahi zituen, besteak beste, atalki honetako gaiaz: poeta bakoitzaren poesigintza bere nortasunaren araberakoa izango zela —«la poesía es tan varia como lo es la personalidad de los poetas»— eta, halaber edo horrengatik berorregatik, eusko olerkariak bere eusko nortasuna agertuko zuela bere poesigintzan —«pero siento que llega la pedrada poniendo en tela de juicio la mentalidad racial del poeta»—.

⁵² Ikus «Azalpenak. "Nere Laguna"». *Euz* 1931.11.13/5.

⁵³ Ikus «(Las letras vascas). Una obra de "Otxolua"». *Euz* 1933.03.18/8.

Lauaxetak bere bizikizun eta aukeraren aitorkuntza garden askoa egin zuen, bai *Bide-Barrijak* eta bai *Arrats-beran* poema-liburuak zirela-eta:

«Olerkari nazala agertutari enago, izkuntza onetan be gogai batzuk azaldu daikeguzala erakustiari bai'oster»⁵⁴.

«Neurez betirarte ixilduko nintzan, barruko ixurpen oneintzat ez-paitago azal ederrik. ¡Euzkeraz batez-be! Erabillijak ixan diran izkuntzak bost jarrai-bide erakutsi dagiskegubez, baña ele onen iruliak geru gara»⁵⁵.

Pasarteotan aise antzematen da garai hartan euskararen bueltan zen eztabaida. Unamuno *seme galduak* gorpuzturiko iritziek oidalako zitzada egin zuten abertzaleriarengan. Unamunoren irudiko, euskara ez zen ideiez baliatzeko gauza. Euskararen berezko eginkizuna belazean bazkatzen ziren abelgorriak zaintzeko tresna izatea zen. Horrenbestez, euskararen bitartez ezin izango zen egundo tamainako pentsaera saskon batera iritsi⁵⁶. Iritzi hauek eragindako giroan eta beren aurrean osteratuz jaurtiak izan ziren *Bide-Barrijak*-eko *Uarra*-ko arestiko hitzak —«izkuntza onetan be gogai batzuk azaldu daikeguzala erakustiari»—, eta baita, besteak beste, ondotikako hauek ere:

«La bella poesía del entreacto autoriza nuestras palabras. Hace algunos años estas orientaciones hubieran merecido una burla, pero hoy en día son realidad. El idioma acoge en su amor todas las ideas más sutiles y delicadas. Axular supo lo que se decía en su célebre frase.

La ignorancia que se pasea por esas calles subraya aun la incapacidad del euzkera para tratar de temas elevados. El gran paradojista de Unamuno nos regaló hace poco con una salida de tono. El euzkera vale tan sólo para cuidar del ganado que paca en el silencio de las praderías.

A los vascos nos incumbe la obligación de responderle con obras en la mano. Esperamos que la bella edición de "Seaska-Abestia" fre-

⁵⁴ URKIAGA'tar ESTEPAN (LAUAXETA): *Bide-Barrijak*. Emeterio Verdes Achirica, Bilbao, 1931, 142. orr. Ikus baita ere: «Eskerrak». *Euz* 1931.12.11/6.

⁵⁵ URKIAGA'tarr ESTEPAN, LAUAXETA: *Arrats-Beran*. Verdes, Bilbao, 1935, 13. orr. Ikus baita ere: «"Luzear"i». *Euz* 1935.08.14/12.

⁵⁶ Hau zen euskararen aurka Unamunok Madrilgo Gorteetan (1931.09.18an) erabili zuen arrazoiketariko bat (ikus UGALDE, M.: *Unamuno y el vascuence*. Ekin, Buenos Aires, 1966). Pío eta Ricardo Baroja ere Unamunoren iritzi bereko agertu ziren, batak Bartzelonan eta besteak Irunen izandako hitzaldietan. Unamunok Gorteetan izan zuen hitzaldi hartaz artikulu bat idatzi zuen Lauaxetak: «Azalpenak. Ikaskuntza». *Euz* 1931.10.25/5.

nará las palabras del rector de Salamanca. No hace mucho tiempo publicamos en las páginas de EUZKADI la versión euzkérica de una obra de Maeterlinck. Las ideas líricas y escurridizas del celebrado escritor belga florecían con agrado en nuestro idioma.

Mistral, Wilde, Homero y otros autores pasan de mano en mano en lengua de Aitor. Lo que importa es el conocer la capacidad de cada idioma para poder entablar disputa sobre ella»⁵⁷.

Halaz ere, Lauaxetak bazekien euskararen ahulezia edo mugen be-
rri. Hamaika gauza zituen euskarak oraindikarren eginkizun. Honen
adierazgarri ziren *Arrats-beran-eko Aurre-itza-tik* goragoko aipamene-
rako harturiko berbak, eta, era beretsuan, jarraiko hauek ere:

«Oraindik bijurrtu barik dan izkuntza onetan, gura doguzan go-
gayak ezin esan,[.] Bakotxa, gabiko bategaz gabiltz, txinpartak atera
nairik. Onela obeto, bestera baño? Ixanen. Baña naiko lanik egitten
dau, onela barik bestela egin biarr dala erakusten dauanak»⁵⁸.

Euskararen neurri horiez jabetzea, ostera, ez zen guztia bertan
behera lagatzeko aitzaki, ezta hurretik ere, aldez beste, irmokiago lan
egiteko arrazoi baizik⁵⁹. Deigarria da berariaz 1936an Lauaxetak mar-
txan jarri zuen *Euzkel-Idazti-Alde* egitasmoa. Honetan zeutzan bere bi
ardatz nagusiak: euskarazko *liburutegi* (hots, liburu-bilduma) bat osa-
tzeko lanak argitaratzean eta, horretarako, euskal idazleei laguntzean.
Lauaxetak bazekien urria zela euskarazko lanak irakur zezaketenen
merkatua. Harpidetze-aldia zabaldu zuen, bosteunekoa zelarik liburuak
argitaratzen hasteko beharrezko jomuga. Ez zirela abertzalerik asko ize-
na ematen zutenak-eta, izan zen gora-beherarik harpidetze-kanpai-

⁵⁷ «Monitor de cultura vasca». *Euz* 1933.01.29/8. Eta baita «Eskerrak». *Euz* 1931.12.11/6 ere. Testuraturiko pasartearen ildotik doaz, euskararen gaitasunari da-
gokionez, ondoko hitz hauek ere: «Se nos asegura que la complicación de las emo-
ciones neuróticas, los éxtasis dolorosos del amor, están fuera del alcance de las len-
guas primitivas. En el día que corre, no se puede afirmar la incapacidad del euzkera
para manifestar estados psicológicos» («Divagaciones. "Biozkadak"»). *Euz* 1929.11.08/1. Euskara bizitzako edozein zereginetan erabiltzeko adinako hizkuntza
zela edo euskaraz mota guztietako gaiak jorratu zitezkeela erakustea noraino zen
abertzale-inguru hartako ardura erreparatzeko, ikus *Bide-Barrijak* argitaratzean azal-
duriko iritzietariko batzuk honako lan hauetan: ORIXE: «Bide Barrijak». *Euz* 1931.12.08/1; LIZARDI, JABIER de: «Rumbos nuevos». *Euz* 1931.12.17/1; BARRENSORO:
«"Bide barrijak"». *Euz* 1932.01.14/6; X.X.: «Idazti barrijak. Bide barrijak». *Euz* 1932.02.02/5; ORIXE: «Euzko-olerkiak. "Maitale Kutuna"». *Euz* 1932.09.06/7;
JAUTARKOL: «Zubimendi ta Lauaxeta». *Euz* 1935.09.03/12.

⁵⁸ «Azalpenak. "Biotz-begietan"». *Euz* 1932.05.11/1.

⁵⁹ Ikus, adibidetarako, «La agonía del euzkera». *Euz* 1935.08.24/1.

nan zehar⁶⁰. Gerra-kontuengatik edo bestelakoengatik, ezerezetan gelditu zen proiektu hura⁶¹.

Ez zen zuhurregia izan behar aldi hartako euskal idazkien merkatua guztiz txikia zela konturatzeko. Zenbait motatako baldinkizunak gurtzatzen ziren: kulturalak, sozio-linguistikoak eta historikoak, batik bat. Lauaxeta ere jabetu zen horretaz. Ez zen nekatuko euskararekiko *militantismozko* jarrera eskatzen abertzaleei, edo, halaber, jarrera hori zutenak zoriontzen: zabaldua zegoen orduan, abertzaleen artean, euskaraz edo eusko gaiei buruz argitaratzen ziren liburu guztiak erostea, euskaraz jakin ez arren ere⁶². Baina, beste alde batetik, sarritan salatu zuen Lauaxetak euskotar askok olerkari edo idazleenganako zuten axo-lagabekeria, hau da, euskotarrak askok ez zekitela aberriaren eta euskararen mesedetarako idazleen lanak zuen balioa ikusten eta, are gutxiago, eskertzen, *ostikolari*, *pelotari* eta *ukubilkariekin* egiten zutenaz beste⁶³.

Literatur eremuan egiten ziren lan guztiak onesten zituen Lauaxetak. Arrazoiatariko bat, jakina, euskarari zegokiona zen. Grekar klasi-koak⁶⁴ edo literatura unibertsaleko alerik baliotsuenak⁶⁵ euskaratzeaz,

⁶⁰ Ikus ERLETXUBE: «¡Entzun ondo!». *Euz* 1936.07.10/14; BELOSTIKALE'KOA: «Entzun...? ¡Bai zera!». *Euz* 1936.07.11/14; ERLETXUBE: «¡Entzun ondo ta ez aitzu!». *Euz* 1936.07.12/14; GERNIKAR BAT: «Euzko-idazti-aldez». *Euz* 1937.07.15/14; OGOÑOPE: «¡Entzun bai entzun!». *Euz* 1936.07.16/12; BARRENSORO: «(Asmo txalogarri bat). Idazleak, idazleak eta idazleak...». *Euz* 1936.07.18/12; ERLETXUBE: «Euzkel-Idazti-Alde. Benetako amesak». *Euz* 1936.07.18; MENDIETA: «Euzko-idazti-Alde». *Euz* 1936.07.25/10; BASAKIÑA: «Errijetatik. Galdakano». *Euz* 1936.08.01.

⁶¹ Proiektu hartaz argigarri gehiago lan honetan aurki daiteke: «A favor del libro euzkérico». *Euz* 1936.07.16/1.

⁶² Ikus «Eskerrak». *Euz* 1931.12.11/6; «Idazti barrijak». *Euz* 1932.08.05/5; «Egune-kua». *Euz* 1932.08.26/1; «Temas Vascos. "Gazigozoak"». *Euz* 1933.05.10/8; «A favor del libro euzkérico». *Euz* 1936.07.16/1.

⁶³ Ikus «Goethe». *Euz* 1932.03.22/6; «Azalpenak. "Biotz-begietan"». *Euz* 1932.05.11/1; «Azalpenak. Olerkarijak, ikasliak». *Euz* 1932.08.09/5; «Azalpenak. "Eusko-Olerkiak"». *Euz* 1932.08.14/5; «Literatura vasca. "Eusko Olerkiak"». *Euz* 1932.08.17/2; «Azalpenak. "Gazigozoak"». *Euz* 1933.04.20/5; «"Aberri"ri omena». *Euz* 1933.07.29/8; «Uarra [Satarka-ri]». *Euz* 1933.12.12/12; «"Donostia"». *Euz* 1934.02.22/12; «Lizardi zanaren gomutaz». *Euz* 1934.06.10/12; «"Il'garren Euzko-Oler-ti-Eguna". Azkue'tar aita-semiari egindako gorasarria». *Euz* 1936.07.01/14. Lizardik ere esan zuen garaiko gizartean ez zegoela olerkariarenganako estimazio handirik (ikus OTAEGI, L.: *Lizardiren poetika*. Erein, Donostia, 1994, 141-145. orr.). Momentu jakin batzuetan, ordea, alderantzizkorik ere esango zuen Lauaxetak: «Euzkotarrok zentzun apurr bat daukagula erakutsi dogu orainuan. ¡Beti ez tira ixango tripa-txapelketak eta ostikolarijatzazko omenak!» («"Aberri"ren omenari buruz». *Euz* 1933.08.03/8. Ikus baita ere: «Olerkarijak ikasliak». *Euz* 1932.08.09/5).

⁶⁴ Ikus «Los jesuitas vascos y las lenguas indigenas». *Euz* 1933.08.01/9.

⁶⁵ Ikus «Monitor de cultura vasca». *Euz* 1933.01.29/8.

adibidez, euskarak zenbaterainoko edo norainoko ahalbideak eskaintzen zituen, alde batetik, eta bere duintasuna, bestetik, erakusten zen. Euskararen duintasuna zela-eta, bere inguruan hedatua zen ardura edo itxaropenarekin bat zetorren Lauaxeta: literatur —edo hertsikiago, poema— lan *handi bat* idaztea⁶⁶ edo Nobel Saria bezalako sari bat jasotzea⁶⁷ edo literaturgile aparteko batek landua izatea⁶⁸ behar zuen euskarak bere mailaz, bere baliabideez, bere duintasunaz ohar zitezen, bai kanpokoak eta bai etxeakoak eurak ere; eta era horretara, bere bitartez aberria aintzatzeko⁶⁹

Laburbildurik, funtsezkoa zen literaturaren eginkizuna *pizkunde*-bi-lakabidean Lauaxetarentzat. Herri baten *gogoaren* adierazpidea zen literatura eta, halaber, lo-zomorroan zegoen herri baten *gogoaren* iratzartzailerik aproposena ere bai. Horrela gertatzen zen baita eusko literaturaz eta *eusko gogoaz* ere. Hortakoz, *eusko gogoaren* ezaugarririk gorenekoarentzat ere, euskararentzat, hain zuzen, literatura zen garapen-bitartekorik berebizikoena⁷⁰.

⁶⁶ Ikus «Azalpenak. Ikaskuntza». *Euz* 1931.10.25/5.

⁶⁷ Ikus «Azalpenak. Nobel-Sarija. Galsworthy». *Euz* 1932.11.16/7.

⁶⁸ Ikus «El IV Día de la Poesía Vasca». *Euz* 1933.07.18/3.

⁶⁹ Data berezi batzuk eskainiriko abagadunea aprobetxatuz, zenbait alditan gogoratu zuen Lauaxetak euskaraz onduriko lan *enblematiko* baten beharrezana. Hala nola, 1930ean, Federiko Mistralek Nobel Saria eskuratu zuenean (ikus «Federiko Mistral». *Euzkerea* 17[1930]363-365), Uruguayko Zorrilla de San Martín olerkaria hil zenean (ikus «Azalpenak. Zorrilla de San Martín». *Euz* 1931.11.08/5) eta Goethe hil zenaren 100. urteurrenean (ikus «Goethe». *Euz* 1932.03.22/1 eta «Azalpenak. Goethe». *Euz* 1932.03.22/6). Pentsatzen zen, Lauaxetak ere bai, Nikolas Ormaetxea «Orixe» izango zela euskarak burua jasotzeko behar zuen idazlea eta *Euskaldunak*, behar zuen idazlana. Ez ziren nolanhikoak izan *Euskaldunak* bere lanagatik eta Orixerengatik berarengatik Lauaxetak egindako gorlpenak (ikus «"Orixe"ri agurra». *Euz* 1931.11.03/5; «Un poema nacional [1835-1935]. El molino de Sampo». *Euz* 1935.03.19/6; «El gestor y su poema». *Euz* 1935.06.14/3; «Barne-Muinetan. La poesía católica». *Euz* 1934.05.26/3; «"Barne-Muinetan". La poesía cristiana». *Euz* 1934.06.08/3).

⁷⁰ Hemen aurkezturiko Lauaxetaren pentsaera bere inguruko iritziekin alderatzeko, gain-gainetik baino ez bada ere, begira zer dioen L. Otaegik Aitzoli buruz: «Gehienik aztertu eta sakondu zituen pizkunde-prozesuetan garrantzitsuenak Irlanda, Finlandia eta, beste maila batean, Proventza eta Kataluniakoak izan ziren, horietan hartzen bait zuen kemena euskal mugimenduari bihotz emateko. Hainbat artikuluren mamia izan ziren istudio guzti hauen fruitu, herri minoritario horien prozesuetan konstante larri bat nabarmendu zuen Aitzolek: status linguistikoa, politikoa eta kulturala indartu baino lehenago, literaturak eta, bereziki, poesigintzak betebeharrak eta eragin garrantzitsu zenbait izan zituela; alde batetik hizkuntza lantzea eta egokitzea, hiztunek hizkuntza horren erabilera errazagoa eta eskura errazagoa aurki zezaten, eta bestalde, menpean eta txarretsirik zeuden hizkuntza horiek kultur mintzabide egokiak izan zitezkeela frogatzea. Poesigintzak, horiezaz gain, hirugarren helburu nagusi bat zuen: herri horretako maila sozial kulturadunak pizkunde-mugimendu horretara erakartzea. Poesigintzaren azken betebeharrak

Epifonema gisa, esan daiteke Lauaxetak Zorrilla de San Martín poeta uruguayarraz idatziriko hura egokia zela bete-betean Lauaxetataz berataz ere: «Edertasunari soilik, etzan josita-egoten, politika arazoetan be alde-zalago [zalako]. Olerkarijak euren «torre de marfil» baten sartuta bixi biar dabelakuan askotxu dagoz, baña eztago olakorik»⁷¹.

Testuingurua

Asmo jakin batek eskainiriko azterketa-eremuari zedarritua izan da Lauaxetaren idazlanetan barreiatuak hizkuntzari eta literaturari buruz agertzen diren zenbait iritziren bilketa hau. Gogoan izan behar da, ordea, bilketa hau Lauaxetaren pentsaeraren testuinguruan —bere osoan hartuta— kokaturik behar dela ulertu.

Bi ardatz nagusiren inguruan bilbatua da Lauaxetaren pentsaera, bizitzaren zentzuarekiko arduraren eta errealtatearekiko konpromezua- ren inguruan, alegia. Aldiaren iragankortasunarekiko larridurari eta heriotzari buruzko hausnarketa, batetik, eta hilezkortasun- edota betiere- kotasun-nahiari buruzkoa, bestetik, bizitzaren zentzuarekiko kezka-


honen kontextuan kokatu behar genuke 1931n euskal idazleen artean hedatu zen poema nazionalaren premiaren kontzientzia. Ideia honen eragile okasionala, Mistralek pro- ventzaleraz idatzi zuen *Mireio* poema dugu. Nobel saria irabazi zuen egileak, eta horren bitartez, mintzaira erdi-galdua zenak maila estetikorik garaietak irits zitzaizkela erakutsi zuen. Eredu maitagarria bilakatu zitzaizaien hura euskaldunei, amets eder bat. Aitzolek bere aldetik ez zuen honetan beste pizkunde-mugimendu batzuetan frogaturik zuen eskemaren baieztapena baizik ikusi: poesigintzaren garrantzia sentimendu nazionalaren eta kultur mailaren bilakabidean» (OTAEGI, L.: «Aitzolen proiektu kulturalaz». *Jakin* 29[1983]19-20; gaztelerez: OTAEGI, L.: *El proyecto cultural de «Aitzol»*, in ZZ.EE.: «*Aitzol» en su tiempo*. Fundación Sabino Arana, Bilbao, 1990, 30-32. orr.). L. Otaegiren us- tez, literaturaren funtsezko zeregina Euskal Herrian pizkundea gerta zedin nortasun na- zionala eta hizkuntza indartzea pentsatzea, alemaniar idealismoaren eragina izanik ere, Frederi Mistralen eta honen Felibrige mugimenduaren bitartekotzaz Probenzako piz- kunde-mugimenduaren galbahetik iragazia heldu zen Aitzol eta bere belaunaldikoengan- a (OTAEGI, L.: *Lizardiren poetika*. Erein, Donostia, 1994, 101. orr.). L. Otaegiren esane- tan Aitzolentzat poesigintzak zuen hirugarren helburuaren inguruan, hona hemen Lauaxetak *Iturriaga'ren ipuiak* fabula-liburua aurkezterakoan idatzirikoa: «Sirva su ejem- plo entre la clase culta para dedicar sus afanes a esta nuestra lengua, tan bella y tan menospreciada» («Temas vascos. "Iturriaga'ren ipuiak"»). *Euz* 1932.08.13/7). Lizardi ere iritzi berekoa zen: handiki euskaltzaleek euskara erabiltzeaz prestigiatu egingo zen eus- kara (ikus OTAEGI, L.: *Lizardiren poetika...*, 74-77. orr.)

⁷¹ «Azalpenak. Zorrilla de San Martín». *Euz* 1931.11.08/5. Poesiaren konpromezu- neurrialdi hau, bestalde, Idealismoak zuen poesiari buruzko adieraren arabera (ikus KORTAZAR, J.: *Teoría y práctica...*, 98-106. orr.).

buruzko hausnarketaren aldakiak besterik ez ziren gertatzen Lauaxetari zegokionez. Gaiok gunetzat harturik, bizi-arrazoia, hots, osorotasunezko bizi-adiera bat, ehuntzen lehiatu izan zen Lauaxeta, oharturik edo oharkabean.

Bizi-arrazoiarekiko kezka, horraitio, Lauaxetak ez zuen teorikoki soil-soilik edo espiritualkeriaren eraginpean planteatzen, eguneroko bizitzako arazoekin loturik baino, hau da, errealitatearekiko konprometaturik baino. Konpromezu hau abertzaletasun-aukeraren inguruan gauzatu zuen batik bat, beste aukera guztiak gertatzen ziren —eta diren— gisa beretsuan kritikagarri zenean, hain zuzen ere⁷².

⁷² Lauaxetaren abertzaletasun-adiera Errepublikaldiko abertzale gazteen belaunaldi-koarekin bat dator. Jarauntsi zuten marko teorikoa germaniar tankerako abertzaletasunari dagokiona zen. Eurak, baina, biraketa bat hasi zuten, Europan orduan hedaturik zegoen kristau-demokraziarantza abiatu.



Bertsolaritza eta poesia

Unai Elorriaga

Izenburu hau ikusita, literatur mota bien definizioa eta desberdinketa egingo dudala ematen du. Horrelako lanetan nik baino gehiago ikertu duten autore famadunak saiatu izan dira; baina uste dut, horrelakorik egiteko, gutxienez liburu batek ohi duen, edo eduki dezakeen, orri kopurua beharko litzatekeela eta, oraindik ere, labur geratzeko arriskua gure gainean dantzan ibiliko litzateke.

Bestetik, izenburuan agertzen diren hitzen lotura analizatu ezker, biak ere maila berberera jaso nahi ditudala dirudi. Argi dago, ordea, bakoitzak bere esparru jakinak dauzkala eta mundu oso batek banatzen dituela. Sarritan, halare, diferentzi hauek txarto ulertu izan dira eta batentzako goi mailadun balio literarioak gorde dira; besteari, berriz, herri-mailako jarduera arin izateko aukera eman zaio. Artikulu honekin, aldiz, bertsolaritzak goi mailako poesiak dituen hainbat balio literario badarabiltzala demostratu nahi nuke. Honetarako azken urteotako zenbait bertso hautatu ditut (gehienak bertso-paperak, tartean bapatekorik topatu daitekeen arren) eta edozein poesiatan goraiatzaren diren balio literarioak bertan ere aurki daitezkeela azaltzen saiatuko naiz.

Halere, ez dudanez bertso sorta bakar bat aztertuko, ez dut testu komentario batek jarraitzen duen metodoa segituko; beraz, puntu z puntu, urte luzeotan topatu ditudan zenbait balio markatzeko ahalegina egingo dut.

1. Linguistika arloan iraultza baten parte zuzena izan zen Ch. Bally-k poesian aurki daitekeen fenomeno ezagun bati izen esplizitu hau eman zion: «Valores poéticos por evocación», hau da, esaten duenetik harago doan esapidea edo, nahi bada, konnotazioz jokatzaren duen irudia.

Lehenengo puntuan, lan honetan zehar maiz agertuko den maisua aipatu behar da: Xabier Amuriza. Esate baterako, «Mendian gora haritza» deritzan sortan, nabarmen agertzen da elementu jakin hau:

«Euskalerriko tristura
soineko beltzen joskura» edo
«Euskalerriko poeta
kanposantuko tronpeta
hil-kanpaiari tiraka eta
hutsari kolpeka»¹

Giro tristea deskribatu nahi digu bertsolariak. Ez du alargunen aipamenik egin nahi baina «soineko beltzen» bitartez egoera bat azaltzen digu. «Kanposantu» eta «hil-kanpai» hitzek, halaber, ez dute argibiderik behar. Geroago ikusiko dugunez, alaitasunaren kantua sortu nahi du eta heriotzaren (tristuraren) giro honekin alderatzen du.

«Barruaren barrutik» sortan, antzeko gauza ikus daiteke: Lehenago bertsolari zaharren bidea jarraituz (beraz, aintzineko kontua da balio literarioena) gauza handirik ez digu kontatzen baina gau-inguru bat deskribatzen digu geroko esanahiari laguntzeko:

«Trumoia ortzi beltzean hoska
pertzean zortzi arbi egoska
gauaren barren bi erbi erren
lauaren hurrengo bosta.»²

2. Poesian modu oparoan agertzen diren ardatz-hitzak («palabras clave») ere ez dira gaur egungo bertsogintzan falta. Isabel Paraiso-k honako deskribapena egiten du: «ésta es una palabra que se repite en el texto poético, con un contenido significativo cada vez más profundo y polisémico.»³.

Lehenago maisuarekin jarraituz, «Agur sagar beltzeran» bertso sortan, ildo honetatik doan hitz nabarmen bat agertzen da: «SINESTU». Hamaika bertso dira guztira eta azken puntu guztietan aurki daiteke. Gainera, hizki handiekin idazten du Amurizak eta joera hau zenbait analisi poetikotan aztergai dagoen elementu garrantzitsua da.

Arestian aipatutako «Barruaren barrutik» sorta horretan, izkutuago agertzen bada ere, barrenera sartzen zaigun ardatz-hitz bat topa deza-kegu: «Bihotza». Lehenengo eta bigarren bertsoan, bertso-lerro berebean agertzen da. Hirugarren eta laugarren bertsoan aurreratu eta bosgarren bertsoan atzeratu egiten du puntu bat, azken puntuko azken hitza bezala ezarriz, posizio honek daukan garrantziarekin:

¹ DORRONSORO, J.: *Bertsotan II (1936-1980)*, G.I.E., Zarautz, 1984, 270-271. orr.

² DUHALDE, A.: *Anje Duhalde Xabier Amurizaren kantari*, IZ (Diskoa).

³ PARAISO, Isabel: *El comentario de textos poéticos*, Júcar-Aceña, Gijón-Valladolid, 1988, 26. or.

1. «bihotzak ezetz diosta»
2. «bihotz apurrik dudaino»
3. «Ez ditut hoiek maiteko nahiz ta
bihotza zula ehun zirik»
4. «Oi ene bihotz ez hoiek maite
ez apurrik ez sobera»
5. «nola maitatu hura maitatuz
zoltzen duena bihotza»⁴

Bestalde, esparru berberean analizatzen ditu I. Paraisok «campos léxico-semánticos» deitutakoak⁵.

Amurizaren «Barruaren barrutik» sortan, maitasunak eragiten ditu bertsoak eta hemendik dator «bihotza» ardatz-hitz bihurtzearen arrazoia. Kontraste moduan «sugea»ren irudia sortzen du bertsolariak eta honen inguruko hamaika hitz zabaltzen ditu: «suge-emea», «sugearen hortza», «pozoina», «zoldu». Honekin, esanahian eragin zuzena daukan «campo léxico-semántico» joria eraikitzen du.

3. Ironia literatur maisu handien dohai bezala hartu izan da: Quevedo, Cervantes, etab. Honela, bada, literaturan jakintsuen ezaugarri izan dena ez da euskal bertso gintzan falta izan. Orain artean, bertso idatziak eduki ditut ardatz eta antzera jarraituko dut baina bapateko bertsolaritza ezagutzen duenak nonnahi topatuko ditu baliabide honen milaka adibide.

Har dezagun, esate baterako, Andoni Egañaren «Hil jenerala» sorta. Espainako ejerzitoko agintari baten heriotzean, omenezko tonu nabarmenean, honela bukatzen du bertsoa:

«aberriaren zerbitzurako
hil zen zirrosiak jota.»⁶

Autore berberaren «Haurrak atalka» sortan, giza-organu saltzaileak honela deskribatzen dira:

«kendu ta eskeini bizi ohi dira
Robin Hood berrien eran
baina pobreei kentzen diete
eta aberatsei eman.»⁷

⁴ DUHALDE, A.: Aip. diskoa.

⁵ IKUS.PARAISO, I.: *El comentario de textos poéticos*, Júcar-Aceña, Gijón-Valladolid, 1988.

⁶ EGAÑA, A.: *Tximeletak sabelean*, IZ (Diskoa).

⁷ *Ibid.*

Sarasua anaiak publikatutako sorta batean («Capar funcionalis»), kaparra funtzionarioekin konparatzen dute. Bertsoa bere osoan aldatzeak ondo merezi du:

«Animali bat badau munduen
mikroskopiko samarra
aumentuakin ikusi ezker
hankatsue ta zatarra
garrapatie erderaz eta
euskeraz barrez, kaparra
inon odola txupetie da
eitten dakixen bakarra
bizi ezinik dauzen gaixuek
badauke horrein beharra.»⁸

Hamaika adibide topa daitezke arlo honetan. Gaurko bertsolaritzan, bertso idatzitan (Amuriza, Egaña, Sarasua, etab.) zein bapatekoan (Iturriaga, Lizaso, Sorozabal, etab.) dauzkagu; baina garai bateko bertso munduan ere nork ukatuko luke Txirrita, Xenpelar, Pello Errota eta abarren ironia fina?

4. Errima ere ez da garrantzirik gabeko gauza bezala hartu mundu osoko literaturan. Nahiz eta arreta gehiagorekin aztertu beharko litzatekeen, apunte batzuk ematen saiatuko naiz: Errima asonante petorik ez da bertsotan onartzen baina errima kontsonanteak ere bere muga malguak dauzka. Duda sortu liteke terminologia honek bertsotarako balio duen edo ez esaterako orduan. Halere, kontsonantetik gertuago gaudenez, kanpotik datorkigun lore bati ez diogu uko egingo: «El hecho de que un poema presente *rima asonante*, *rima consonante* o bien *ausencia de rima*, es muy significativo: (...) cerebralidad: rima consonante...»⁹. Beraz, bapateko jarduera batean errima asonante bat esperoko litzateke baina errima hautaketa honek bertsolarien ezaugarri bat markatzen du.

Bestetik, bapatekotik apur bat aldentzen den errima mota azpimarratu nahi nuke. Erdal kritikariek historikoki gutxi erabilia izan dela dioten «rima leonina» delakoa («...donde se enlazan el final del hemistiquio con el final del verso.»¹⁰ Euskal bertsogintzan, azken urteotan bederen, agertu izan da:

⁸ SARASUA, J. eta A.: *Fauna txiki bat bertso berritan*, 6. or.

⁹ PARAISO, I.: *aip. lib.*, 40. or.

¹⁰ *Ibid.* 151. or.

«Washintong eta Tokioraino
Madrilen harri Parisen laino
jaun **eguzkiak** izotz **guztiak**
ez ditu urtu oraino.

(«Barruaren barrutik», X.. Amuriza)¹¹.

Gorago aipatu dudan sorta honen beste pasarte batean ere, holarik agertzen da. Zaila da, baina, zer ikusten (edo entzuten) dugun adieraztea: «Rima leonina» izenekoa, hitz jokoa, aliterazioa edo hitz-korapiloa:

«Trumoia **ortzi beltzean** hoska
pertzean zortzi arbi egoska
gauaren **barren** bi **erbi erren**
lauaren hurrengo bosta.»¹²

5. Literaturaren aldi gehienetan agertu izan da gaur egun *intertestualitate*a (kritikari batzuen ustez txarto) deitzen duguna. Bertsotan ere, sarri ikusi ditugu holako baliabideak. Batzutan, nabarmen ikus daitezke; bestetan, era izkutuago baten agertzen dira, baina, beti ere, aditzeko moduan.

Ikus dezagun adibide hau:

«Argira sortu nintzen
beldurti herabe
gorputza daukat orain
bihotzaren labe.
Maite bat maitatzen dut
baina haren jabe
sekula izateko
desiorik gabe.»
(Sarasua, «Meles terrae»)¹³

«Triste bizi naiz eta
hilko banintz hobe
badauzkat bihotzian
hainbat atsekabe
maite bat maitatzen det
bainan haren jabe
sekula izateko
esperantzik gabe»
(Bilintx, «Triste bizi naiz eta»)¹⁴

¹¹ DUHALDE, A.: *aipatu diskoan*.

¹² DUHALDE, A.: *aipatu diskoan*.

¹³ SARASUA, J. eta A.: *aip. lib.* 10. or.

¹⁴ DORRONSORO, J.: *Bertsotan I (1789-1936)*, G.I.E., Zarautz, 1981, 141. or.

Kapaz gara, ostera, hurrengo puntu hau ezagutzeko eta, nola ez, ez digu esango puntu arrunt batek esaten digun apurra:

«Altzak bihotzik ez badu ere
eduki lezake haitzak.»
(Amuriza, «Neskazaharrak eta apaizak»)¹⁵

«Haltzak eztü bihotzik
ez gaztanberak ezürrik»
(Bereterretxeren kanta)¹⁶

6. Figura estilistikoak poesiaren habe sendo bat izan dira gaur arte. Bertsolaritzan ere (idatzian zein bapatean) nahi aina entzun eta irakurri ditugu; sarritan, ohituraren ohituraz, halere, ez diegu merezi duten baliarik eman.

Konparaketak, esate baterako, eguneroko kontua dira bapateko bertsolaritzan baina bertso-paperetan honelako gauza ederrak plazaratu daitezke eguzkiaren irteera deskribatzean:

«Itxaso eta zeruen muga
untzi gori bat bezela
Dirudi bere suzko esfera
igerian datorrela»
(Jon Enbeita, «Egunsenti bat»)¹⁷

Amurizak, bestetik, metafora egokia sortzen du bere bizitza itxurakerian ito duen neska bat azaltzean:

«Agur sagar beltzeran
edo beilegia
agur betiko hire
izar aurpegia.
Izango haiz ederra
baita ederregia
baina ez maitatua
ezin alegia:
Heuk ez SINESTU baina
hori dun egia.»
(«Agur sagar beltzeran»)¹⁸

Plazetan zehar maisu handiak ibili dira bertsotan eta honen adibidetzat ikus dezagun Basarrik Uztapide hil zeneko omenaldi saioan bota zuten sinestesia indartsua:

¹⁵ DUHALDE, A.: *aip. diskoan*.

¹⁶ MICHELENA, L.: *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia, 1988, 44. or.

¹⁷ ENBEITA, J.: «Egunsenti bat», orri soltea.

¹⁸ DUHALDE, A.: *aip. diskoan*.

«Zure begiak daude
betiko ixilik»¹⁹

Neke handirik gabe luza liteke puntu hau baina lana aspergarri bihur ez dadin, bapateko bertsogintzan sarri bereiz dezakegun arlo bat aipatuko dut. I. Paraisok hitz arranditsu batekin presentatzen digu: «Braquiología»²⁰. Esparru honen barnean, bertsolaritzan maiztasun harriarriarekin topa ditzakegun elipsiak daude. Kritiko batek, ostera, bapatekotasunak eragindako fenomeno bat dela eta ez doala esanahiarekin lotuta esan dezake. Hein handi batean egia da baina eritzi hau daukanari gonbitea luzatuko nioke: Arretaz entzun itzazu Sebastian Lizaso bezalako bertsolari baten elipsidun azken puntuak. Askotan, elipsia modu errezean ekidin daiteke baina berak bilatzen duen arintasuna moteldu eta entzulearengana doan bide zuzena trabaz beteko luke. Hauetan, bada, nahita bilatutako elipsia da; espresiboa, ondorioz.

7. Aliterazioaren ikerketa edozein poesiaren komentarioan topatzen den puntua da. Bapateko bertsogintzan zaila izango litzateke kontsonante edo bokale baten metaketa egitea baina, gero ikusiko dugun bezala, kontsonante bat modu adierazkor baten ahoskatu ohi da talde bat biltzen denean. Hala bada, aztertuko dugun (ikus 14. puntua) Egañaren itsuaren saioan, r bikoitza gogorrago ahoskatzeko ahalegina egin zuen eta, halaber, M. Lujanbiok A.M. Peñagarikanorekin egindako ofizio batean, frantses kutsua hartzeko asmotan, bere-berea den ahoskakerarekin, r bikoitzen pilaketa egin zuen. Izan ere, M. Lujanbioren ahoskaketa gogor horrek joku handia eskaini die bertsolariei. Gehienetan umorea lortzeko erabilia izan da eta bere pilaketak barrea (hau da, komunikazio atal bat) sortu du zenbaitetan. Adibide polita erakutsi zigun Iñaki Aurrekoetxeak Lujanbio bertso baten bitartez presentatu zigunean:

MAIALEN

«Agte Edeggak ikasten ditu
edo saiatzen da behintzat
begtso munduan askok jaggi du
begtsolari eggegintzat
Hegnaniaggak akatsak ere
edukiko ditu hainbat
baina hoggela deggepentean
ez zaigu okuggitzen bat.»²¹

¹⁹ ETBko «Hitzetik hortzera» programatik hartua.

²⁰ PARAIÑO, I.: *aip. lib.*, 138. or.

²¹ AURREKOETXEA, I.: «Maialen» orri soltea.

Azken urteotan fama handia hartu duen bertso sorta batean A. Egañaren r bikoitz horrenganako maitasuna frogatuko dugu. Balio adierazkor nabarmena omen dauka berarentzako erdi hitz joku hone-tan demostratzen den bezala:

«margo arrea, urre margoa
izan arren begietan»
(«Bertsotan bai»)²²

8. Nork ukatuko dio, bestetik, onomatopeiari bere balio adierazko-rra? Zenbat autorek, literatura martxan jarri zenetik, hautatu dituzte holako hots-irudiak irakurlearen bihotzera heltzeko!

Zergatik utziko dugu, bada, bertsotan erabiltzen den onomatopeia espresiboa beheragoko maila batean? Askoren ustez, Egañak maisuki erabiltzen ditu honelakoak eta, erakusletzat, irakur ditzagun Lazkao-Txiki haundiari egin zizkion bertso hunkigarriak:

«Lehen zebilen txirri-txarra
moteldu da motor zaharra
Txikiaren bihotzarra»

«Zuk behin Zestuan aipatu zendun
sehaskan kulun-kuluna»²³

Bapatean, beraz, balio handidun elementua erabiltzeko kapaz dira bertsolariak. Ikus dezagun 1993.eko Euskal Herriko txapelketa nagu-sian Andoni Egañak berak andrearen irrifarrari bota zion bertsoa:

«Gaur goizean pasa det
ikararen marra
andrea han zebilen
tirri ta tarra
gosaria prestatu
ez zegoen txarra
azkenean esan dit
"ario senarra"
musu bat suharra
haretzek zun garra!
barreneko harra
zure irrifarra
horixe da inporta
zaidan bakarra.»²⁴

²² EGAÑA, A.: *ajp. diskoan*.

²³ *Ibid.*

²⁴ *Ibid.*

Bukatzeko, Euskal Herriko txapeldun honen bertso idatzi bat aipatuko dut. Euren bizi-organuak saltzeko hiltzen dituzten umeak agertzen diren sorta batean («Haurrak atalka»), honela mintzo zaigu:

«Haur beltz hilaren bihotz izana
taupa-taupa doa hegan»²⁵

9. Kontrastearen erabilera ez da literaturan urria izan. Kontrako gauza bi pare-parean jartzean, bata zein bestearen izakera nabarmenki markatzen bait da.

Bertsotan, jakina, ez dira mota horretako baliabibeak falta. Esate baterako, lehenago aipatu dudan Amurizaren «Mendian gora haritza» sortan, tristuraren adierazgarri ziren konnotazioz betetako hitzak topatu ditugu, izan ere, modu honetan osotuta aurkituko dituzu sorta horren bertso gehienak: Tristuraren deskribapena bertsoaren hasieran eta alaitasunaren aldarrikapena bigarren partean. Sortari bukaera ematen dion bertsoak asko azal dezake:

«Mundua ez da beti jai
inoiz tristea ere bai
baina badira mila motibo
kantatzeko alai
bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi
ni hiltzen naizen gauean behintzat
egizue lo lasai.»²⁶

Sarasua ere ez da gutxitan murgiltzen horrelako jokoetan. Euskal Herriko egoera (bertakoak eta atzerrikoak kontutan hartuta) esplikatzeko du hurrengo bertsoan:

«Kantua gauza ona zen baña
txuritasuna ere bai
lan illunenak eiteko ezik
emen beltzik ez zuten nai.»
(«Aquila alba»)²⁷

Bapateko jardunean ere, nonnahi topa dezakegu joera hau baina bertsook lortzeko errezatasunik ez dagoenez, kontsola gaitzean Jon Enbeitak isiltasunari hitzetik hortzera bota zion honekin. Bertan isiltasuna eta zarata modu egoki batean kontrastatzen dira:

²⁵ *Ibid.*

²⁶ DORRONSORO, J.: *Bertsotan II*, 271. or.

²⁷ SARASUA, J. eta A.: *ajp. lib.*, 3. or.

«Isiltasuna hitza aitzean
triste dela ematen du
progreso honek zarata artean
beti bait gaitu mantendu
ta denok gabiltz ondokoari
nola bere hitza kendu
hobe litzake noizbehinka denok
proba egingo bagendu
ondo egina indartzeko ta
gaizki egina zuzendu.»²⁸

10. Egiturak garrantzia izan ohi du literaturan, hura bait da edozein sortze-lanaren hezurdura. Bertsotan ez da, inola ere, puntu garrantzitsu hau baztertzen. Estruktura landuak sarri ikusten dira bertso sorta nagusien artean: Andoni Egañaren «Bertsotan bai» famatuan argi ikus dezakegu. Bapatean, nola ez, ondo egituratutako burua izango da bertsolariarena; batetik, bakarrean egiten diren saioetan, lehenengotik abiatu eta azken bertsoa doan bidea era, antolatu eta, ahal bada, progresiboan egiteko eta, bestetik, bertso solte batean ere, bukaerako puntu indartsu hori bilatuz esan beharreko guztia ordenatu eta azken aurreko puntuarekin, batez ere, lotura topatzeko.

Normatik kanpoko egiturak ikusi izan dira azken urteotan Egañarena alde batera utzita. Esaterako, X. Zorroza-ren «Arkatza eta papera» sorta berezian, hainbat literatur obra modernotan azaltzen zaigun egitura aurki dezakegu.

«*Diamantea bezala* dago
gure grafito apala
karbono gaiaz konposatua
ez da hau marka makala!
Bizidun oro ere karbonoz
dago osatua hala,
berdin lizarra edo urtxintxa
ta berdin gure azala.
Kontutan hartu zein aberatsa
den gure mundu zabala,
jauregipeko lore umilak
balorerik badaukala:
Baliotsua dugu arkatza
diamantea bezala.»²⁹

²⁸ ZALDUBI, LARRAÑAGA, I., (aukeraketa eta transkribapena): *Bapatean*, 90, E.H.B.E. -Elkar, Donostia, 1991, 70. or.

²⁹ ZORROZA, X.: «Arkatza eta papera» (Bizkaiko Bertsolari Elkarteko III. lehiaketan). Orri soltea.

Baina ez hori bakarrik. 1992. urteko Gipuzkoako txapelketan, Jon Sarasuak bota zuen lehenengo agurreko egitura paralelistikoak zenbait pertsona txundituta utziko zuen bere balio adierazkorragatik:

«Woody Allen-ek zion bezela:
 “ene! hau da buitre pila”
 Platon haundiak zion bezela:
 “famadunak fama bila”
 Lazkanok esan zuen bezela:
 “bertsoa ez dago hila”
 Pitagorasek zion bezela:
 “kuadratu nahi borobila”
 ta beste batek zion bezela:
 “faltsua sarri umila”
 eta Van Gogh-ek zion bezela:
 “nork dio zein den abila”
 eta azken hau neronek diot:
 lehenbailehen buka dadila.»³⁰

11. Hitz jokoak beti egon dira present munduko literaturan. Espainako literaturan, adibidez, herri-poesiaren ezaugarri bezala hartu izan dira baina geroko literaturan utzi duten seinalea oso goraiatua izan da.

Bertso saiotan bertan konturatu gaitezke zelako balio espresiboa daukan baliabide honek. Bertsolariek sarri erabiltzen dute jendearengana heltzen den elementu bat dena badakitelako. Ez zaio honegatik, baina, balio literariorik ukatu behar.

Lehenago adibidean, kaparra eta funtzionarioa berdintzen dituen sorta horren bertso bat ikusiko dugu:

«Gorputza nora, kaparra hara
 bat eindra egun eta gau
 kapar bihurtu ez diren asko
 errejimen edo barau.
 Batzu-batzutan zorrotza eta
 sentibera da bitxo hau:
 azkenaldiko joera honeikin
 kristona sufriruten dau
 moskituekin moskietan da
 banpiruekin indignau.»
 (Sarasua, «Capar funcionalis»)³¹

³⁰ Gipuzkoako txapelketa 1992, ETBko txapelketa programatik hartua.

³¹ SARASUA, J. eta A.: *ajp. lib.*, 6. or.

Autore beraren beste adibide poetikoago bat:

«Arruntasuna gozo
gozamina arrunt
egunero urlotik
lasai dagit xurrut.»
(«Meles terrae»)³²

Bapatean, jakina, honelako adibide asko topa ditzakegu. Euskal Herriko azken txapelketan (1993), Xabier Euskitzek, plazara irtetzera zihoan zezenaren papelean, oso komentatua izan den hitz joko hau bota zuen hirugarren bertsoan:

«Ni toreatu behar nautenak
gutziz lasai ote daude?
Nereak ia egin du baina
ez nereak egin gabe.»³³

12. Goi mailako literaturaren zenbait alditan aipamenak egiteko joerak balio berezia ematen zion poesiari. Ikus dezagun Damaso Alonsok Lope de Vegaren soneto batzuk ikertzean esaten diguna: «Las fuentes (...) de Platón, Plotino, San Agustín, Dionisio Aeropagita, Marsilio Ficino y Pico de la Mirandola presiden (...), en general, estos sonetos:». Irakur dezagun, bada, autore handi honen XXX. sonetoa:

«Tuvo Platón por firme fundamento
que toda inteligible especie estaba
desde el punto que el alma se formaba
asida de nuestro humano entendimiento (...)»³⁴

Bertsotan ere, nolabaiteko joera dago honelako «autoritateak» aipatzeko. Aurrerago ikusi dugun Jon Sarasuaren bertsoan (Gipuzkoako txapelketan. Agurra) nabarmena da baina entzun dezagun Egañaren bertso hau:

«Gogoan daukat agotak maite
ez zitun artzai harena,
Joaquín Sabinan «Soledad» eta
Becquerren enararena,
falta bazaizu... falta bazaizu...
Koldo Izagirrerena,
maitasun kontu txatxu hoiekin

³² *Ibid.*, 10. or.

³³ Euskal Herriko Txapelketa, 1993. ETBko programatik jasoa.

³⁴ ALONSO, Dámaso: *Poesía española*, Madrid, Gredos, 1976, 465. or.

betea daukat barrena
kolpez itsatsi zenidanetik
gaisotasunik zaharrena.»

(«Emakumeen amarrukeriak» edo «Bogart eta Bilintx»³⁵).

Bapatean ere, gertuagoko aipamenak izan arren, multzoka aurki ditzaitekegu. Jon Sarasuak, «zer gertatu da Nikaraguan?» gaiari ondoko hau erantzun zion Berastegin:

«Amerikarrek ordaintzen zuten
kontra edo milizia,
eta apropos sortarazi han
gose eta desgrazia,
pake aitzakiz botoak jaso
hori al da justizia?
Esaera bat akordatu zait
Txirritari ikasia:
"arrain haundiak nahi duen arte
arrain txikien bizia".»³⁶

13. Azken puntu biak eraikitzeke Saussure-k emandako teoria eta Damaso Alonsok egin zion zuzenketa ekarri behar ditut lan honetara. Saussurek zeinu linguistikoa bitan banatzen zuen: adierazlea eta adierazia (teoria osoaren berri, modu zientifiko batean, euki nahi duenak ikus dezala bere *Curso de lingüística general*). D. Alonsok, ostera, ondoko kritika egin zion: Errealitate linguistikoa ez da hain sinplea. Esanahia sortzeko orduan ez dugu adierazle soil bat eskaintzen, hau da, inongo jantzirik gabe; tonu jakin batean egiten dugu, intentsitatea silaba jakin batean ezar dezakegu, astiroago edo arintasunez esaten dugu, ironia kutsuarekin etor daiteke, etab. Guzti hauek eta beste asko adierazle partzial (significantes parciales) deitzen ditu. Beraz, adierazle multzo konplexu horrek adierazi konplexu bat (esanahi osotu zabal bat) sortzen du testuan.

Poesian, jakina, guzti honek mundu oso bat egituratzen du. D. Alonsok esaten duen bezala silaba batek, bokale batek, kontsonante batek, azentu batek, tonu aldaketa batek eta abarrek erabat zuzendu dezake poesia baten norabidea. Teoria sortzailearen hitzetan, guzti honek «modifica leve o grandemente nuestra intuición del significado»³⁷.

³⁵ Sorta hau leku desberdin bitan ikusi dut argitaratuta. Batean, «Emakumeen amarrukeriak» izenarekin (16 bertso). Bestean, «Bogart eta Bilintx» izenarekin (8 bertso).

³⁶ ZALDUBI, LARRAÑAGA, I. (aukeraketa eta transkribapena): *Bapatean 90*, E.H.B.E.-Elkar, Donostia, 1991, 72.or.

³⁷ ALONSO, D. : «*Poesía española*» Gredos, Madrid, 1976, 31. or.

Ikerle handi honek, ordea, honen azterketa zehatza egitea zein zaila den argi uzten du. Ez dago, bere ustez, tresna egokirik hain arlo kopilatsuan sartzeko.

Bertsotan, munduko edozein poesiatan bezala, guzti hau asko lantzen da; are gehiago jende-aurreko jarduera denean eta entzuleengana heltzeko biderik bilatu behar duenean. Esparru konplexu hontan, aldiz, bertsoak poesiak erabiltzen ez dituen elementu bi esku-eskura dauzka: doinua eta kantatzeko era. Poesiak badauka bi baliabide hauek erabiltzeko modua; baina, gaur egun behintzat, nahiko murriztua. Badira poesiak kantatzen dituzten abeslariak, doinu edo musika egokiak hautatzeko moduan aurkitzen direnak. Halaber, badaude poesia errezitalak, poesia kantatzeko era (edo ahoskatzeko era) poeta beraren esku geratzen dena; baina erregela baieztatzen duten salbuespenak izango lirateke.

Bertsotan, berriz, eguneroko kontua da aukera hori, eta gehienetan (beti ez bada ere), bertsolariak berak ematen die entzuleei bere sorkuntza; honela, Damaso Alonsok esan digun bezala, adierazia eraikiz.

Doinuaren hautaketa denok ezagutzen dugun kontua da. Esate baterako, gai triste edo sakona egokitu ezker, argi dago doinu malenkoniatsuaren aukeraketa ez dela urrun egongo. Bertsozale guztiek ezagutzen dute Xalbadorrek «Amodioa gauza tristea» sorta egiterako orduan aukeratu zuen doinu triste bezain ederra. Lehenengo bertsoak kalitate bi hauek nabarmen betetzen ditu:

«Amodioa gauza tristea
bihotzen higatzailea
guziz enea bezala bada
esperantzarik gabea
gizonarentzat hau baino malur
haundiagorik badea?
ikusten eta ezin eskura
maitatzen duen lorea!
hunela bizi baino aunitzez
hobe litaike hiltzea.»³⁸

Gai umoretsua bada, aldiz, doinu alai eta jostaria hautatuko da. A. Egaña «amona»ri, mozkor-mozkor eginda A. M. Peñagarikano «suhia» ohera sartu zitzaionean, adibidez, «Antton eta Maria» doinu arina hautatu zuten:

³⁸ DORRONSORO, J.: *Bertsotan II*, 440. or.

- Egaña: «Batetikan, korrozka
bestetik herrena,
ohia okupatu du
hori da txarrena,
ez da pinta kabala
honek dakarrena,
kantzontzilorik gabe
ohean barrena
pixkat gutxio edan
ezazu hurrena.»
- Peñagarikano: «Gaur parrandan jo ta ke
hor dabil gizona,
lehenen pasilloa jo
ta gero komona,
uste nuen hau zela
nik nere moñoña,
laztantzen hasi naiz ta
ez da horren ona
mozkorra nator eta
barkatu amona.»³⁹

Adierazle partzial bezala erabiltzen denaren frogazuzenena, sorta bereberetan doinu bi erabiltzearen kasua izango litzateke. Adierazi nahi denaren arabera doinu bat edo beste erabili izan da inoiz. Igor Elortzak egindako sorta batean holako zerbait gertatzen da: bertsolari honek, Unai Iturriagarekin batera plazaratu duen «7 eskale» lanean, «Kartoi-pekoko ametsak» deitutako sortan, parke bateko banku batean lotan dagoen eskale bat presentatzen digu. Lehenengo bi bertsoetan bere ametsak kontatzen dizkigu doinu lasai eta goxo batekin (eskaleak errege bezala ikusten du bere burua). Baina, halako batean, eskalea esnatu eta bere inguruan dagoen errealitate gordina deskribatzean, doinua erabat aldatzen da; doinu gogor eta zatar batekin kontatzen digu ikusten duena (bestetik, idazterakoan, hizki handiz egiten du. Hori ere, adierazle partzialtzat har dezakegu). Sortaren bukaeran loak harrapatzen du atzera. Doinua, berriro ere, baretu egiten da ezti-ezti amaitzeko. Ikus dezagun sorta bera:

«Eguzki izpiek argitu dute
dorrea goizalbarako
kanpoan nere lurrak esnatuz
doaz egun berrirako
jan ta edariz mahaiaik gainezka

³⁹ Idazle honek buruz jasoak.

nahi ditut guztientzako
gonbidatuta daude errege
zorionsua delako.» (...)

«ZAKURREN ZAUNKAK ENTZUN DITZAZKET
HOTZ ZITADAK BEHAZETAN
GRAZIOSOAK SINESTEN DIREN
SEI GAZTE GAIZTO ISEKAN
POLIZIAREN SIRENA HOTS
NERONI SO DAUZKAT BERTAN
GAUR ERE EZ AL NAZAKEZUE
LASAI UTZI AMETSETAN.»⁴⁰

14. Aipatutako bigarren puntuari ekingo diot: kantatzeko erari. Damaso Alonsok dioen bezala, partikularik apalenak ere (ez du zertan hitz oso bat izan behar), esateko modua aldatu ezker, bere esanahia moldatzen du. Gaur egungo poesian baliabide hau erabiltzen zaila bada ere, bertsotan ezin hobeto erabiltzen du zenbait bertsolarik. Bapatean, arlo honetan maisu dira A. Egaña, A. M. Peñagarikano, S. Lizaso, Gorrotxategi, Iturriaga, etab. Lazkao Txiki zenak ere, jendearengana heltzeko modu hau erabili behar zenean, ez zen gutxien zekienetako.

1993.eko Euskal Herriko txapelketan, final-erdietan, Andoni Egañari gai hau jarri zioten: «Jaiotzez itsu zara. Asko kostata, baina azkenean aurkitu duzu zure maitea. Momentu honetan bere aurpegia ikutzen ari zara». Honela erantzun zuen txapeldunak:

«Nere eskuak luzatu ditut
maitearen aurpegira
hemen ukitu ta han laztandu
majina bat tira-bira
zu ikustea beste gauzarik,
maite, ez nuen desira
taktuan bidez sentitzen dakit
beraz ez zaitez kupida
esan liteke: «egina zaude
nik behar nuen neurrira.»
Zure begiei begira
bihotza zaunkan ari da
pentsamendu bat datorkit orain
bihotzan erdi-erdira:
holako zerbait izango dela
eguzkiaren dizdira.»⁴¹

⁴⁰ ELORZA, I. eta ITURRIAGA, U.: *Zazpi eskale: Bertso berriak pobreziari jarriak*, Gor (diskoa).

⁴¹ Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusitik jasoa, 1993koa.

Bertso honek, kantatzeko eran, zenbait gauza dauka komentatzeko. Gero ikusiko dugun bezala, Egañak askotan erabiltzen du baliabide bat: zenbait hitz, modu suabeago batean kantatzen ditu eta bertso honetan modu horretan kantatu dituen berbak ikusita, zergatia errez ulertuko dugu. Izan ere, «laztandu» eta «kupida» izan dira modu eztiago batean kantatu dituenak. Grabazioren bat eskutan eduki ezkerro ulerterrazago gertatuko litzateke; bestela, hau idazten duenaren hitza sinistu beharko da.

Bestetik, bertsoan oso erabilia den kantaera indartsua (batez ere bukaera aldera, hau da, azken puntutan) aurki dezakegu: «bihotza zaunkan ari da», «bihotzan erdi-erdira» eta «eguzkiaren dizdira» sano fuerte kantatzen ditu. Honela, egoera xamur honen aurrean bere zorionaren oihua ematen du aditzera.

Azkenik, lehenago ere aipatu dudana bikoitzak Egañarentzako daukan balioa azpimarratu behar dut. Argi eta garbi, zenbait hitzetan, azken puntutan batez ere, dardarkari hori bortizki ahoskatzen du: «datorkit», «erdi-erdira», eta «zerbait» hitzetan. Honela, dudarik ez da, esanahia indartu eta hainbeste aipatzen duen entzulearen «bihotzera» heldu zen, neurriko txalo zaparrada jaso bait zuen.

Bapateko jardueran sarritan topa ditzakegu horrelako baliabideak baina azken urteotan egon den joera batekin (hots, bertso-paperak grabaziotan eman bait dira) bertso idatzietan ere garbi ikus dezakegu:

«Konturatu naiz oroitzapenik
ezin dela musukatu
beste gauzarik ezin dut egin
neure malkoak xukatu
irabazletik galtzailerako
paperak azkar trukatu
Bogart-en gisan hasi nuena
Bilintxen eran bukatu
errukiaren ukendurikan
ez zaidazula ukatu.»⁴²

(A. Egaña, «Emakumeen amarrukeriak»/«Bogart eta Bilintx»)

Bertso honetan, «Bogart-en gisan hasi nuena» bertso-lerroa abots ozen eta sendoz kantatzen du «Tximeletak sabelean» bere lehen diskoan. «Bilintxen eran bukatu» bertso-lerroan, oster, abots zintzo eta apalez kantatzen digu bere egoeraren berri hobeto emateko.

⁴² EGAÑA, A.: *ajp. diskoa*.

Esanahia eraikitzen duten adierazle partzialen teoria peto-peto betetzen da, beraz, bertsolaritzan; zenbait puntutan (azken biotan frogatu dudan bezala) poesian baino modu egokiago batean.

* * *

Honenbestez, bertsoek demostratu dute poesia gorenetan hain go-raipatuak izan diren balio literario asko eurengan ere aurki daitezkeela. Hau gutxi balitz, poesian nekez agertuko diren baliabide espresiboak erabil ditzaketela adierazi digute zalantza izpirik gabe. Ez dut honekin baina, arestian esan dudan bezala, biak maila berera igo edo jeitsi nahi, baizik eta bakoitzari berari dagokiona aitortu.


Eduki eta formazko mezua jaso duzuelakoan, hurrengo saiora arte.

Bibliografia

- ALONSO, Dámaso: *Poesía española*, Gredos, Madrid, 1976.
 AMURIZA, X.: *Hitzaren kirol nazionala*, A.E.K., (ez du urterik).
 DORRONSORO, J.: *Bertsotan I (1789-1936)*, G.I.E., Zarautz, 1981.
 DORRONSORO, J.: *Bertsotan II (1936-1980)*, G.I.E., Zarautz, 1984.
 GARZIA, J., GARZIA, P., KAZABON, A., MENDIZABAL, M.: *Bertso ostatua*, E.H.B.E.-Elkar, Donostia, 1990.
 MICHELENA, L.: *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia, 1988.
 PARAÍSO, I.: *El comentario de textos poéticos*, Júcar-Aceña, Gijón-Valladolid, 1988.
 SARASUA, J. eta A.: *Fauna txiki bat bertso berritan, (1994ko Durangoko azokarako argitaratu liburuxka)*.
 ZALDUBI, LARRAÑAGA, I. (transkribapena): *Euskal Herriko bertsolari txapelketa 89*, E.H.B.E.-Elkar, Donostia, 1990.
 ZALDUBI, LARRAÑAGA, I. (aukeraketa eta transkribapena): *Bapatean 90*, E.H.B.E.-Elkar, Donostia, 1991.

Argitaratu gabeak

- AURREKOETXEA, I.: «Maialen» (Sarriko-ko IV. aste kulturealean).
 ENBEITA, J.: «Eguntsenti bat» (Bizkaiko bertsolari elkarteak antolatutako III. lehiaketan).
 ZORROZA, X.: «Arkatza eta papera» (Bizkaiko bertsolari elkarteko III. lehiaketan).



Leizarragaren «Regueri» gutuna. Azterketa erretorikoa

Paloma Rodríguez Miñambres

Sarrera

«Erretorika» hitza bera zahar eta baliorik gabeko objektua da jende askorentzat; beste batzuei gaur egun horretaz mintzatzea anakronismoa dela iruditzen zaie. Prejuizioak eta ikuspegi negatibo hauek oker daude. Literaturaren ulermenerako baharrezko zaigu —batez ere xvi.tik xix.ra arte eginikoa— kontzeptu erretorikoak lantzea. Sarrera honetan ez da bere historia kontatuko baina, gutxienez, definizio bat emango dugu:

«Descubrir y explicar las reglas del juego comunicativo es la función cognoscitiva y social de la retórica¹».

Duela gutxi arte eskema erretoriko klasikoak zokoratuak egon dira. Bazterte horrek ondorio txarrak baino ez ditu ekarri literaturan arau erretorikoez hainbat obra idatzi direlako eta egun ez baditugu erregela horiek ezagutzen, testuak ilunpean murgilduko dira.

Zer esanik ez, euskal literaturan erlijioak zama haundia izan du eta askotan hizkuntza edo ta euskalkiak jakitea ez da nahikoa izan testua bere osotasunean ulertzeko.

Hau dela eta, Leizarragaren kasua eredutzat hartu dugu eta lantxo honetan testuaren barnean ostendurik dauden elementu literarioak argira atera nahi ditugu.

¹ MORTARA GARAVELLI: *Manual de retórica*, Cátedra, Madrid, 1991, 11 orr.

«Regueri»² gutuna

«lancoari esquer eta laudorio draucagu, launa ceren Euangelioco doctrinari eta gure conscientietan baquez içateari iarreiqui nahiz eguin eta ordinarioqui eguiten çaiçquigun persecutionezco gogorgoaren çure Maiestateari aditzera emaiteco lekuric oraindrano ez vkanic orain eracusten baitraucu ordu haur, ceinetan placer baituçu gure gauçaren merecimendua aditu, aurthen 1559. Martchoan Amboisen emanic, çure Maiestateac publica eraci duen Edictaren araura, Raçoin hunegatic, çure officieréz eta gureganaco vorondate gaichtoz lehen ecen ez çuri cerbitzu eguitemo affectionez, guri eguin içan çaicun bidegabearen eta gogorgoaren causaz, oraindrano boçaturic eduquiric, orain ahoen irequitera venturatzen gara. Eta eguitemo huni dauritzan gauçetan conplituqui informatua çarençát, gure affectione guciáz othoitz eta supplicamendu eguiten drauçugu, launa: nahi duçun, othoi, ikussi eta ençun, guc çure Maiestateari presentatzen draucagun gure fedezco Confessionea: eta sporçu dugu, ecen oraindrano gure causá eçagutu gaberíc, bidegabezqui bethi gure condemnatzet berce eguitemoric vkan eztutenéc, gure contra erran dituzten gauçqui eta diffamacione orotaric gure defendagarri eta emparagarri, Confessione haur bera asco içanen dela. Ecen eguiatzqui eta frangoqui protesta ahal deçaquegu, launa, ecen hemen eztela lancoaren hitzaren, ez çure Maiestateari çor draucagun obedientiaren contrataco gauçaric batre: ceren gure fedeco artukulu hemen asco luçaqui iarriéc punctu haur baitacarquite guciéc, Ecen laincoac bere Prophetez eta Apostoluez, eta are Iesus Christ bere Seme gure launaren ahoz asco claroqui bere vorondate declaratu vkan draucunaz gueroz, guc laincoaren hitzari ekarteco draucagula halaco ohore bat eta reuerentia bat non ezpaitraucagu deus eratchequitemo ez edequitemo: baina-aizitic hartan chedaturic emaiten çaicun reglari ossoqui susmettitzeco eta confermatzeco gaitzaitzala. Eta ceren Eliça Romanoac, Eliça primitiuaco manerá eta costumá vtziric, manamendu berriric, eta laincoaren cerbitzatzeco manera berriric eçarri vkan baitu, raçoinezco estimatu vkan dugu, eta guciz necessario (guiçonac bere ethortez baitirade gueçurti eta vano içatera suiet, eta laincoa baita eguia bera) guiçonén manamendueteric laincoaren manamenduéc abaintail haur lutén, non, hambat diuersitateren eta differentiarren artean, guiçononac vtziric, laincoareney garreitzén. Eta cerere aihercunde ahal bailuquite gure contrastéc gure contra, frangoqui laincoaren eta gendén aitzinean erran ahal deçaquegu, ecen guc ikusten eta su-

² LEIZARRAGA, Joannes, «Iesus Christ gure iaunaren evangelioco doctrina puraren araura vicitzeco desira duten Franceséc consentimendu commun batez berén fedez eguin duten confessionea», *Iesus Christ Gure launaren Testamendu Berria*, III. tomoa, Hordago, Editorial Lur, Donostia, 1979. (Goian aipatu den liburu horren aurrean kokatua dago «Regueri» gutun hori; lau orrialde ditu).

fritzen dugun gaitz gucia, eztela berce causagatic, lekat ceren Iesus Christ gure launa dela, gure Saluadore eta Redemptore bakoitza: eta haren doctriná dela vicitceco eta saluamendutaco doctrina bakoitza, mantenitzen baitugu baicen. Eta causa haur bera içan da, launa, ce-rengatic çure suiet gaichoan odolean hambat aldiz borreroéc escuac butchatuac vkan baitituzté: eta guiçonéc naturalqui laincoaren oho-reaz baino bere aisiáz eta probetchuaz arrangurago dutenaren gai-nean, erran behar da, Confessione hunen beraren mantenitzeagatic eta on eduquiteagatic bere vicien emaitera dudatu eztuten gaichoac, guiçonén ez berce spirituz incitatuac eta guidatuac içan diradela. Bada launa, çuc çure suiet gaichoac baithara vsatzeco promettatzen duçun ontassunaren araura, çure Maiestateari supplicamenduz guiaizquio misericordia eta gratia haur eguin nahi draucuçun, *non* har deçaçun escutan causa hunen eguitecoa, ceinagatic ordu eta oren oroz, gu, batean herioz, bercean accotamenduz, bercean berce moldez iarreiçuiac eta persecutatuac içanez, çuri çor drauçugun obedientiaran eguiteco moien gucia edequiten baitzaico. Biz bada, othoi, çure Maiestatearen plaçera, launa, iragan demboretan suz eta marreçanez nehorc vsatu vkan duenaren orde: orain laincoaren hitz sainduaz debati eta ireter eraci deçaçun gure Confessione haur, hu-netacotzat segurança eta permissione bethea emaiten duçularic. Eta confidança dugu ecen gure innocentiarén eta hoguen-gabearen iuge çu çeuror içanen çarela, eçaguturic nola eztén hemen eçeinere here-siaric ez rebellioneric: baina guc daramaguna dela, conscientia sanotan vici ahal garen, laincoa bere menemenduén araura cerbitzatuç, eta çure Maiestatea obedientia eta suiectione orotan ohoratuz. Eta ceren laincoaren hitzaren predicationeaz, bay laincoaganaco eta bay çureganaco gure eguimbidean retenitu eta eduqui behar baicarade: gure affectione eta ahal guciáz othoitz eta supplicamendu eguiten drauçugu, launa, nahi draucuçun permettitu, cembeit orduz elkargana biltzera cilhegui garen, hambat laincoaren hitzaz haren beldurrera exhortatu içatera, nola Iesus Christ gure launac berac bere Eliçán ordenatu dituén Sacramenduéz confermatu içatera. Eta baldin çure Maiestatearen placera bada, cer gure congregacionean eguiten den, batbederac ikus deçaqueen beçalaco lekuric eman daquigon, ikuste berac defendaturen gaitu, gure congregacioneac diffamatu nahiz aitzinaratu içan diraden enormitatezco eta beilhaqueriazco accusatione falsuetaric: ceren hetan ezpaitu nehorc modestiaric eta honestaric baicen ikusiren, ez-eta ençunen laincoaren laudoriotaco eta haren cerbitzuraco exhortationeric, eta çure Maiestatearen esta çure Resumaren conseruationeraco othoitzaric baicen. Eta baldin çure vorondatea ezpada, launa, hambat gratia eguin daquigon, non leku assignaturic dugun, ezpere permiti bequigu othoi, ia gure artean iarria den ordenançá, empatchuric gabe continua ahal deçagun. Eta hunen gainean gure affectione eta bihotz guciáz othoitz eta supplicamendu eguiten drauçugu launa, nahi duçun othoi estimatu, orain

presentatzen, çaiçun supplicatione haur iracurtzen dançuçunçat, ecen çure suiet contuz eriden ahal leiten baino gehiagoren auhenac eta suspirioac ençuten dituqueçula, othoitzez çure misericordiác iraungui nahi dituen, çure iugetaric anhitzen crudelitatez çure Resumaco su viztuac: halaz çure Maiestatea cerbitzatzen dugula, çu dignitate eta handirassun horretan eçarri çaituen launaren cerbitzatzera haiçu garençat. Eta baldin gure minçoari behatu nahi ezpaçaizquió, beha çaquizquió laincoaren Semearenari, ceinec gure onén, gortuzén eta vicien-ere gainean puissança çuri emanic, galdequiten baitrauçu, gure arima bere odolaz erossien gaineco puissança eta iaurgoá hari reserua eta lekat daquiön. Hambatequin, hari berari othoitz eguiten draucagu launa, çure adinarequin çure handirassuna eta puissança emendatuz, çure etsay ororen gainean victoria emanec, eguimbide eta iustitia orotan bethi çure Maiestatearen thronoa confirmatuz, bere Spirituaz ardura goberna eta guida çaitzala: eta guri-ere harc berac çure aintzinean gratia eriden eraci dieçagula othoi çerbait emendio gure supplicatione hunetaric sendi ahal deçagun, gure penac eta afflictioneac çerbait passutara eta libertatera behin-behin cambiaturic, gure nigar vrriac-ere cambia ahal ditzagun bethi esquer eta laudorio emaite batetara, lehenic laincoari eta guero çure Maiestateari, ceren halaz eguin duqueçun haren vorondate sainduari eta çure ontassunari eta eguimbideari dagocan beçala, bay-eta çure suiet eta cerbitzari gaichoén conseruationera guciz behar eta necessario dena».

Kontestu historikoa

Leizarraga bizi zen garaia gatazka politikoez eta, batez ere, erlijio-soez markatu zuten. xvi. mendearen hasieran erlijioa hankaz gora jarri zuen gertaera garrantzitsu batek ondorio larrekoak ekarri zuen: erreformak. Luteroren eskutik Alemanian sortu eta berehala barreiatu zen Europan zehar.

Erreformaren mugimendua Frantziara iritsi zenean, agintari politikoek ez zuten arriskurik ikusi. Humanismoa eta Errenazimendua indarrean zeudelarik, gizonak testuen benetako iturrira, genesira joan nahi zuten eta testu erlijiosoak ere birplanteatu, hizkuntz arruntetara moldatu nahi zituen lan hermeneutikoak eginez, aro berriak gizakia bere buruari galderak egitera behartzen bait zuten. Bestetik, goi mailako apezgoa aberatsegia zen eta maiz politikoen gisara jokatzen zuten eta horregatik kritikak hasi ziren.

Ordurarte Elizak Jainkoaren hitza transmititzen zuenez, beste irizpideak debekaturik zeuden, hau da, gai erlijiosei eta Bibliari buruz apaiak bakarrik mintzo zitezkeen. Hala ere, latinaren eta grekoaren zaleta-

sunak jakinmina piztu zuen eta nobleen artean bilerak egiten ziren orduko intelektualekin eztabaidatzeko³.

Baina 1520.ean Lutero exkomikatua izan zen eta aldi berean, protestantismoaren barruan diszipulo berriak agertu ziren: Calvino, Zwinglio, Teodoro de Beza, etab. Honek zisma suposatzen zuen; fanatismoa hasiko zelako seinalea gertu zegoen.

Francisco I.ak ez zion gaizki iritzi hasieran baina 1537. urtetik aurrera bere jokaera oso bestelakoa izan zen: Conciagerien eta Châteleten torturak egon ziren eta hereje batzuk erre egin zituzten⁴.

Baina ekintza erreal hauek ez zuten eragin handirik izan; Calvinok arrakasta haundia lortu bait zuen Frantzia⁵: 1559.eko maiatzaren 25.an Parisen protestante frantsesek lehen sinodoa egin zuten eta bertan Calvinoren doktrina onartzea erabaki zuten «confession de foi» eginez. Nahiz eta jazarpenak egon, hugonoteen⁶ kopurua handia zen.

Urte hartan egoera latza zen. Francisco I.aren semeak, Enrique II.ak, askozaz jarrera gogorragoa hartu zuen⁷:

³ «La idea de reforma religiosa había germinado en Francia en los círculos humanísticos, que con la Antigüedad pagana, habían vuelto a descubrir las verdades de los libros santos y a los padres de la Iglesia. Lefebvre d'Étaples, profesor, erudito, editor, agrupó a su alrededor un cenáculo de amigos (entre ellos Briçonnet, obispo de Meaux) que deseaban simplemente una Iglesia purificada. Empujado por su hermana Margarita y atacado también por la fiebre del humanismo, Francisco I no le era hostil». Pierre GOUBERT: *Historia de Francia*, Editorial crítica, Barcelona, 1987, 97. or.

⁴ Zenbait kasutan krudelkeria nagusitu zen, kasurako, Étienne Doletekin 1546.ean inpresore humanista ospetsua erre zuten: «El nombre de Étienne Dolet, gran humanista, amigo del Rey, condenado como ateo por haber publicado una traducción de Platón, es el símbolo más doloroso de este renunciamiento de los espíritus. He aquí, pues, en lo que había venido a parar el renacimiento de las letras». MAUROIS: *Historia de Francia*, Surco, Barcelona, 1956, 162. or.

⁵ «A la autoridad y carácter de Calvino y al valor de la obra debióse que fuera aceptada la *Institución* al instante de publicada y propuesta, como lo fue en forma de reglamentos, de confesiones de fe y de catecismo. A una unidad de plan muy clara y metódica y a una consecuencia indeclinable con sus principios, que Calvino mostró siempre, cosas que favorecieron la entusiasta adopción de su sistema teológico, debe agregarse que su doctrina tenía la pretensión de contener la esencia del Evangelio». *Enciclopedia Universal ilustrada europea americana*, José Espasa e Hijos, Barcelona, 1900-1955, XIV, 943 orr.

⁶ «Hugonote, tomado del fr. *huguenot*, primeramente nombre de los partidarios de la unión de Ginebra con Suiza, después designó a los partidarios del protestantismo ginebrino, propagado desde la Suiza alemana y finalmente a todos los protestantes de lengua francesa; *huguenot* es alteración del alem. *eidgenosse* «confederado» (compuesto de *eid* «juramento, pacto» y *genosse* «compañero»), por influjo del nombre Hugues, jefe del partido suizo en Ginebra a principios del s. XVI. (...)». COROMINAS, J. y PASCUAL, J.A.: *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*, Gredos, Madrid, 1980, 422. or.

⁷ «(...) Enrique II sistematiza la persecución con edictos que se escalonan de Châteaubriant (1551: codifica las medidas que hay que tomar contra los herejes) a Ecouen (1559: la hoguera para todos los herejes declarados)». GOUBERT: *op. cit.*, 98. or.

1. Inkisidore Dominiko bat izendatu zuen.
2. 1551.ean «Chambres ardentes» sortu zuen (Pariseko parlamentua kamara honen funtzionamenduz arduratzen zen).
3. Châteaubriandeko ediktoa atera zuen eta handik zortzi urtetara.
4. Ecoueneko ediktoa (1559.eko ekainaren 2.an) irten zen⁸.

Giro honetan Leizarragak erregeri idaztea erabaki omen zuen. Egia esan, bitxia da inizatiba hau. «Fedearen Confessione» egitean, herio zigorra jasotzera kondenatzen zuen bere burua; bestela esanda, jakin bazekien ediktoak zioenaren arabera bizitza arriskuan ipintzen zuela. Ez bazuen inork behartzen, zergatik, orduan, erronkari heldu? Nekez uste dugu errege konbentzitzea espero zezakeenik.

Bestetik, datuak ez datoz bat: Leizarragak «Amboise» eta «martchoa» dio baina Ecouenen eta ekainean gertatu zen. Idazlearen okerra ala akats tipografikoa? Gauzak gehiago korapilatzeke, 1563.ean Carlos IX. ak Amboiseko Bakea sinatu zuen Amboisen, martxoaren 19.an⁹. Hemen tokia eta lekua ondo daude, urtea, aitzitik, ez.

Dena dela, eskutitzaren tonua oso errespetagarri eta ohoregarria da —apika zenbait pasartetan anbiguitate edo ta ironiara hurbil zitezkeen—. Honek ez du zerikusirik *Testamentu Berria* Nafarroako erreginari idatzi zion gutunarekin; azken honetan zorrotzagoa, zehatzagoa da. Kontestua oso ezberdina zen¹⁰:

1. Joana erregina kalvinismoaren defendatzaile sutsua zen.
2. Leizarraga Nafarroan babesturik zegoen.
3. Egoera esplizitatu du (pertsonek eta lekuen izenak ematen ditu).

⁸ «En la medida de sus fuerzas, Francisco I y «la Margarita de las Margaritas» habían contenido la intolerancia. Enrique II, de humor más sombrío, vió con temor extenderse el movimiento luterano». MAUROIS: *op. cit.*, 162. or.

Eta hauxe komentatzen du Enrique II.aren izakeraz: Algunos príncipes de la sangre: los de Navarra, Borbón, Condé, los Coligny, los Chantillon, los Anelot, habían sido conquistados. En 1559, durante una sesión solemne del parlamento, algunos jueces valerosos declararon no poder negar que en la Iglesia existían abusos. Enrique II, furioso al encontrar magistrados «desviados de la fe», declaró que él mismo «iría a ver con sus propios ojos cómo eran abrasados». Mas, en tanto, penetró en sus ojos la lanza de Montgomery que le privó del amable espectáculo». *op. cit.*, 163. or.

⁹ «Paz de Amboise: se autoriza el culto calvinista en las ciudades de mayoría protestante, pero los hugonotes siguen estando excluidos de los cargos públicos». GOUBERT: *op. cit.*, 310 orr.

¹⁰ Oroi gaitezen esaldi polemiko batez: «(...) eta hunetacotçat çu, Andrea hunez cerbitzaturen cinadela trompeta baten açora, ceinez laincoac deitzen baitzaitzu hala çure Naffarroaco resuman-ere *Satani guerla equitera*, nola eguin eta eguiten-ere baitraucaçu cure dominationeko berce leku gucietan». LEIZARRAGA: *Jesus Christ Gure launaren Testamentu Berria*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990, 253. or.

Bi kasutan erretorikaren «zetabea» maneiatu behar izan dugu izkutatzen den errealtateari so egiteko asmoz.

Frantziako historiara itzuliz, hainbeste edikto eta lege promulgatu ondoren, oraindik istiluak gertatzen ziren. Mendekuak derrigorrezkoak ziren, esaterako, 1567.ean Nimesen katolikoek sarraskia izan zen eta 1572.ean Parisen protestante asko asesinatu zituzten¹¹. Guztira 1561.etik 1589.ra arte zortzi erlijio gudu egon ziren. Burruka hauek Nafarroako Enriquerekin amaitu ziren. Joana erreginaren semea Frantziako esku-bideak zegozkion; Frantziako Enrique III.ak seme-alabarik ez edukitzean, Enrique IV.a errege bihurtu zen (kalvinismoari uko egin eta gero). Honen ez zituen bere amaren irakaspenak ahaztu eta bakerako bidea ezarri zuen Nanteseko ediktoak:

1. Konzientzia askatasuna eman zuen eta...
2. Protestanteek zenbait hiritan gobernatzeko eskubidea zeukatela onartu zen¹².

Azterketa erretorikoa

Erretorikaren axioma garrantzitsuenetako bat hau da:

Bokantzaren objektua entzuleei edo irakurleei dagokie eta, diskurtsoa beren iritzien arabera, arautu behar da. Argumentazioan oradoak edo idazleak zinezkotzat, egokitzen jotzen duena, diskurtso argumentatiboa zuzentzen zaion pertsonaren iritzia bezain funtzeskoa suertatzen da.

Honen arrazoia eta helburua gutunean aurkezten diren tesien, eskaeren atxekimendua ugaltzean edo, nolabait esateko, probokatzeko datza, hots, Leizarragak erregearengan erantzun positiboa sortu gura du, proposamen, sujerentziak akorduan har ditzan eta protestanteengana ekintza mesedegarriak hel daitezen.

Edozein argumentazio prestatzen edo erabakitzen duen emaitzari begira dago. Perelmanek eta Olbrechts - Tyteca dioten bezala:

¹¹ «Los odios llegaron a un grado inaudito. Nimes en 1567 tuvo la *Michelade*, matanza general de católicos consumada el día de San Miguel, y cinco años más tarde Francia entera se estremeció ante la Saint-Barthelemy, que de estar mejor organizada no hubiera dejado un solo protestante vivo». *Enciclopedia universal...*, *op. cit.*, XVII, 953 orr.

¹² P. GOUBERTEK esaten du: 1598. 13 de abril: Edicto de Nantes. El rey concede a los protestantes la libertad de conciencia, la autorización para practicar el culto en determinadas condiciones, el acceso a diferentes cargos, la autorización de reunirse en sínodos, etc. Les concede también diversas «ciudades de seguridad». *op. cit.*, 312 orr.

«La argumentación es una actividad que siempre trata de modificar un estado de cosas preexistente»¹³.

Beraz, diskurtso argumentatiboak limurtu behar du eta aukerarik badago, iritzia aldaeraziko du. Guzti hau nabarmenki ikus daiteke Leizarragaren gutunean. Hala ere, bere ekimena ez da berria; XVI. mendean gorabehera politikoak zirela eta, protestantismoaren defentsarako txosten asko idatzi ziren eta horietako batzu erregeari zuzendurik zeuden, esaterako, Jean Calvinok Francisco I. ari idatzi zion:

«Au Roy de France», *Institution de la religion chretienne* liburuan¹⁴.

Argumentoen bitartez konbentzitzeaz gain, testuak berak badu latinez **utilitas** deitzen zena. Erabilgarritasun hori hiru puntutan finkatzen da: 1) moralizatzailea (arrazoi etiko, konzientziakoa erakustea onbidetsua izateko), 2) azalpenezkoa (salaketak gezurrak direla frogatzea) eta 3) irakaspenezkoa (benetako fedea, erlijioa aldarrikatzea Fedearen Konfesioa egitean). Arlo hau sakonki aztertuz gero, hermeneutikan sartzen gara baina hemen oinarritzko kontzeptu batzuen azalpena baino ez zaigu interesatzen.

Orain arte esandakoak testuaren mamiaz ohartu gaitu eta hau ez da nahikoa; espresioek eta tonuek ere edukia bermatzen dute. Elkar konplementatzen duten bi atal horiek erretorika klasikoan **res** (ideiak, barrukoa) eta **verba** (idaztankera, esamoldeak, kanpoko apaindurez jantzitako hitzak), izenpean ezagunak ziren. Haien arteko orekari eustea ezinbestekoa zen eta honen ondorioz, bai testuaren egitura, bai hizkuntzaren beraren mihizadura ez ziren tupustean gertatzen. Leizarragak ere prezepto erretorikoei darraikie: tonua ertainekoa da, hots,

¹³ CH PERELMAN eta L. OLBRECHTS - TYTECA, Tratado de la argumentación. *La nueva retórica*, Gredos, Madrid, 1989, 105. or.

¹⁴ Argibidea PERELMAN eta OLBRECHTS - TYTECA-k dakarte; op. cit. 153. or.

Bi autore hauek eredutzat hartzen dute Calvinoren gutuna kualitatearen ezaugarriak azaltzeko.

Paralelismoa begi bistakoa da: a) bai Leizarraga, bai Calvinok protestanteak ziren; b) Calvinok Francisco I. ari idatzi eta Leizarragak Enrique II. ari (Franciscoren semea) idatzi zion; c) Xedea berbera zen: protestanteen aurkako ekintzak eta destainak buka zitezela.

Norbaitek pentsa lezake kasualitate hau haundegia ez ote den baina egun ezin dezakegu jakin idazle euskaldunak Calvinoren eskutitzaren existentziari buruz berriki zuen ala ez. Hala ta guztiz ere, ez dezagun ahantzi Nafarroako erreginak Calvinorekin hitz egin zuela.

Datu zehatzagoak erdiesteko, ikusi: OLAIZOLA INIGUIZ: *Historia del protestantismo en el País Vasco: el reino de Navarra en la encrucijada de su historia*, Pamiela, Pamplona, 1993, 95 - 130. orr.

zintia eta zalia aldi berean; moderazioz bai, baina zolitasunez ere; hitzek hartzailearengan erakarpena sortu behar dute, bestela, ezin deza-ke ahaztu Frantziako erregeari idatzi diola. Eta garrantzitsuagoa den faktorea: Enrique II. a Katolikoa da eta, aldez aurretik, protestantismoa- ren aurkako joera suposatu behar zaio.

Horregatik, Leizarragak hartzen duen tonua ez da garaia edo subli- mea¹⁵ eta ezta bajua¹⁶ ere; hitz bat faltan edo soberan erregearentzat laido eta gaitzesgarri gerta zitekeen. Gainera, tonu komunikatiboa era- biltzea gomendagarria izan arren, erregearekiko distantzia gorde behar zuen. Horretarako, apaltasunezko pluralak¹⁷ testu ingurua umotzen la- gun ziezaiokeen. Ikus daitekeenez, testuaren barne logikaz konturatu beharrean gaude.

Horrekin batera, ideiak indarrez eta argitasunez hedatu behar ditu: molde ezberdinen bitartez denbora osoan eduki berberak enfatizatzen ditu, baliabide estilistikoak ideien haizutasuna taxutzeko jarri dituelarik. Baina guzti hau hobeki ulertzeko, eskutartean daukagun gutunean zehatz aztertuko da, batez ere, **dispositio** eta **elocutio** deritzen atalei gorpuzkera emanaz.

Erretorika grekolatinoak edozein diskurtsotarako zati hauek aton- tzen zituen:

1. **exordioa** (irakurlea **benevolum**, **attentum**, **docilem** izateko baliabideak)
2. **inventioa** (autoreak hautatu eta bildu dituen burukizunak, gaiak)
3. **dispositioa** (nola egituraturik dagoen testua, zein ordenatan agertzen diren)

¹⁵ Hermogenes (160-225) eta Ciceron (106-43 k.a.) bat zetozen estilo honetaz; ba- karrak erabil zitekeen kontaktzen edo argumentatzen ziren kausei eta istorioei abegi ona egingo zitzaielako ustea ziurra zenean.

Beraz, argi dago ez dela Leizarragaren egoera. Ez dugu uste Frantziak 1559. urtean bizi zuen giroa oso tolerantea zenik. Idazleak berak dioskunez, protestanteenganako ja- zarpenak eta sufrikarioak nagusi ziren.

¹⁶ Tonu honetan defenditzen edo narratzen zenean, gaiaren **statusak** interes handi- rik ez zeukala esan gura zuen, hau da, oso apala edo herri xehearekin erlazonaturiko gaia zen. Literaturan agertu denean, gehienetan komedietan pertsonaia arruntak karak- terizatzeke balio izan du eta baita parodia edo trufa egiteko ere erabili da.

¹⁷ «**Plural de modestia**. El yo se diluye en un *nosotros* para generalizar una afirmación o para diluir la personalidad frente a un tú o un vosotros a los que se enfatiza así (...) La oposición con el plural mayestático puede neutralizarse en ciertos contextos, cuando el hablante se diluye en el plural para dar más autoridad a sus palabras (...)). Foradellas: *Diccionario de retórica, crítica y terminología literaria*, Ariel, Barcelona, 1986, 320. or.

4. **elocutioa** (zerez honitzen den material literarioa: tropoak, **ornatusa**, estilistikari dagokiona)
5. **pronuntiatioa** (ozenki hitz egiteko arautegia: entonazioa, keinuak, etab.)
6. **memoria** (hitz egiterakoan ideia guztiak gomuntatzeko erregela mnemoteknikoak)
7. **epilogo** edo **peroratioa** (glosatu diren ideiak laburbiltzea).

Arestian esana dudan bezela, ez diogu irizpide hertsagarri bati helduko batetik lantxo honek zenbait nozio orokor eskaini nahi dituelako eta, bestetik, osotasunean hartuz gero, konplexuegi edo ilunegia izan litekeelako.

Testuak berak dakarren estrukturari atxekiko gatzazkio. Dena jarraian doa eta lehen begiradan horrek irakurketa oztopatzen du; baina arretaz begiratzen badiogu, hamabost periodoren¹⁸ banaketaz konturatzeko gara. Horren eretzera, komentagarriak diren elementuak aintzat hartuko dira. Baina, lehenengoz, puntu bat argitu behar da: **status quaestionis** deitzen dena. Hala definitzen dugu zein den diskurtso mota. Hemen defentsa/akusazio argumentuak ditugunez, jenero forense edo zibilaren parekoa litzateke (epaitegi baten aurrean aurkeztu ez arren). Horren inguruan diskurtso dialektikoa drezatuko du Leizarragak.

Gutunaren hasiera ohikoa¹⁹ da, Jainkoaren aipamena eginez:

«laincoari esquer eta laudorio draucagu,»

Agur egiteko formula hau ez dago esanahiez hustuta; Leizarragak bere defentsaren diskurtsoa arrazoi erlijiosoen inguruan eraikitzen du zeren eta oso zaila da erlijioan datzan argumentoa errefusatzea. Erlijioari dagokiona errealitate metafisikoa, ontologikoa da, hots, froga erreala ez den neurrian, ezin daiteke ez gerzurta ez baieztza, sinetsi behar da, fede hutsa delako.

Aurkezpenean harira doa zuzen zuzen: Frantziako erregeari deklarazio bat egiten dio protestante guztien izenean, zer nolako zirkunstan-

¹⁸ Período. «Más imprecisamente, con este término se designa el conjunto de frases, simples o compuestas, que en un texto componen un ciclo de pensamiento unitario. Los tratadistas franceses distinguen entre *période carrée* formado de cuatro oraciones o miembros, y *période ronde*, en el cual los miembros están unidos estrechamente y dan una impresión de armonía». LAZARO CARRETER: *Diccionario de términos filológicos*, Gredos, Madrid, 1987, 320 orr.

¹⁹ Aintzinatean ere latinoek eta grekoek modu berean hasten zituzten hitzaldi edo idazkiak. Usadio zaharra zen eta beren alde zorte ona erakartzen zuela uste zuten. Jen-dearen aurrean mintzatzeko, jokaera hau ohorregarritzat jotzen zen.

tzia izan dituzten komentatuz eta gutuna idaztera bultzatu duen helburua: Azalpen guztiak subordinazioaren bitartez agertzen dira: «aditzera emaiteco», «placer baituçu gure gauzaren merecimendua aditu.» Beste datu interesgarri bat agertzen da «persecutionezco gogorgoaz» mintzo denean, gartzelan egon zeneko garaiaz pentsa bait liteke. Zoritarrez, ez dago Leizarragaren bizitzari buruz dokumentu asko eta ezin dezakegu ezer ondoriozta.

Idazleak badaki mezuaren hartzailleak etsaiki irakurriko duela; kasu hauetan prozedimendu erretorikoak zera gomendatzen zuen: defendatzailearen aurkako arrazoiak oso erroturik bazeuden entzuleengan, ezin zituen aurrez aurre beste iritzi horiek eraso saihezkara baizik, iradokipez baliatuz. Egun, erregela honek semiotikaren konsiderazio pragmatikoak²⁰ martxan jartzen dituela esango genuke.

Gutunaren irakurleengan egon zitekeen etsaigoa bigundu behar du eta, baieztapenen uste sendoei indarra kendu barik, tonuak ez du orekarik galdu behar. Lehenengo esaldiek sortzen duten efektua eta nola errazten duten irakurketaren jarraipena erabakiorra dugu, ez bait da nahikoa egia²¹ erakustea; sentimenduei dei egitea beharrezko gerta daiteke: biktimek beti gogo zabalak eta borondate onak jaso dituzte. Errekurtso hau oso eraginkorra da, usu erabilia izan delarik.

Testuan barrena ez dugu zehaztasunik idoroko: pertsonen izenik ez, denborazko nahiz lekuzko informaziorik ez; implizitoki esatea komeni zaio Leizarragari, bestela, XVI.mendean norbaitek testuari²² iraingarri iritziko ziokeen. Salbuespen bakarra hauxe da: «aurthen 1559. Martchoan Amboisen emanic».

Eta jarraian objetiboa, gutunaren **causa scribendi** argitzen du:

«Çure Maiestateac publica eraci duen Edictaren araura, Raçoin hunegatic,»

²⁰ Semiotikak testu literarioen ezagupena jorratzen du eta arlo pragmatikoa literaturatasunaz, idazle-irakurle harremanaz arduratzen da. Eskutitzaren interpretazio zuzena burutu nahi baldin bada, ikuspegi hau aplikagarri, baliogarri iruditzen zaigu.

²¹ «Egia» kontzeptu abosolutu konsideraturik, ez da erretorikan esistitzen. Beti bi parte ditugu: aldekoak - kontrakoak, bakoitzak narrazio edo argumentazio bat egingo du, bere planteamenduari egoki zaiona eta subjelibitate kutsua agertzen duena. Horregatik, kaltegarriak izan daitezkeen zioak ezkutatu edo ixiltzea beharrezkoa da zenbait kasutan. Erretorikan iruzur egitea posible da nabari ez den bitartean.

Leizarragaren bizitzaz datu gutxi dauzkagu eta gainera, sasoia istilutsua izan zen. Gaur egun, oraindik historiagile anitzek zalantzak dituzte erlijio guduak zirela eta, nortzu ziren onak eta nortzu gaiztoak. Polemika behin eta berriro piztua izan da. Argi dagoena hauxe da: gehiegikeria (asesinatoak, eliza suntsituak, etab.) eta tolerantziarik eza ezaugarri nagusiak ziren.

²² Ikusi «(...) persecutionezco gogorgoaren (...)» lerro batzu gorago agertu den sintagma eta lan honen kontestu historikoaren atalean aipatutakoa.

Locus a causa izenarekin ere ezagutzen da. Espresio honek kausaren lekua, tokia aditzera ematen du. Planteamendu erretoriko klasikoan arrazoizko diskurtsoan beti agertu behar zuenez, topiko edo **locus** bihurtu zen. Eta kultismoak erabiltzeko joera zeukala: **Exordioaren** ezaugarriak gogoratuz, Enrique II. arengandik jokaera arretatsua lortzeko, espresioaren mentasuna ezinbestekoa da. Hau dela eta, motibazio psikologikoez garrantzia dute²³.

Bestetik, **gradatio**az eta kontrajarpenaz baliatzen da. **Gradatio**a da gertaera bat gradu batzuen arabera neurtzen denean; horren azpian dagoena konparantza da, alegia, txarto baino okerrago dagoena. Ezeztapenaren bitartez mezua indartzen du:

«(...) lehen ecen ez çuri cerbitzu eguiteco affectionez (...)».

Eta are arbuia garriago bihurtzen duen faktorea azaltzen du. Hone-la, bere etsaiek ez zutela aitxakiarik frogatzen du: «guri eguin içan çaicun bidegabearen eta gogorgoaren causaz», eta «vorondate gaichtoa» (kontura gaitetzen adjetibazioa dela medio, epai morala ematen duela eta horrek, noski, irakurleengan eragina sor dezake: Leizarragaren tesia onartzeko joera). Ez zen erregeagatik edo berari zor zaion obedientziagatik, injustiziaren izenean baizik. Gainera «gogorgoa» hitza elementu enfatikoa da, kontesturako argitasuna dakar eta geroagoko enunziatu zabalaren haria markatzen laguntzen du.

Sintaxiari dagokionez, koma artean doan konstrukzio sintaktikoa latinezko ablatibo absolutoaren parekoa suertatzen da. Euskaraz halako egiturak egin daitezke, baina komentagarria da Leizarragak latinaren eta grekoaren ezagutza handia eta kultismoak erabiltzeko joera zuela:

«oraindrano boçaturic eduquiric»,

Edukiren eretzera, irudi lazgarria eskaintzen digu autoreak. Baliabi-dea **evidentia** izendatzen da; beronen xedea begien aurrean jartzea da eta gauza asko konnotatzen ditu oso esanguratsua bait da: garai hartan zensura esistitzen zen edo zigortuak zireneko susmoekin erlaziora liteke. Honekin erdiesten duena zera da: **movere**, hots, bere al-

²³ «Se ha dicho que el orador puede servirse también de la emoción para persuadir a su auditorio; Aristóteles clasifica lo verosímil pasional en dos grupos: los atributos que el orador debe exhibir ante el público para causar buena impresión (en griego *ethe*), así el buen sentido, la lealtad, la simpatía; y las pasiones que es preciso suponer en el público (*pathe*), como la cólera y la serenidad, el amor o el odio, la confianza o el temor, etc. El orador no puede prescindir de estas grandes categorías psicológicas, si quiere suscitar una conmoción en los sentimientos». FORADELLAS: *op. cit.*, 221. or.

deko iritzia ametitzera bultzatzea, mugitzea, gutunaren jasotzaileak hunkitzen direlarik.

Latinez **captatio benevolentiae** esaten zen, hau da, entzuleek aldeztu egiten ziren tesiak doietsi zitzaten.

Kontrajarpena erabiltzen du lehen - oraina, bi egoerak definitzeko:

—Lehen: bidegabeta, gogorgoa.

—Orain: «ahoen irequitera venturatzen gara».

Orainaldiaren balorazioa iraganaren, pairatu izan dituzten jazarkundeen arabera egiten du. Jokuan dialektika dago: iraganeko jazoerei ediktoak ekar ditzakeen onurak, itxaropenak kontrajartzen zaizkie.

Beste aldetik, apaltasun faltsuaren topekoa aurkitzen dugu: hemen eta hurrengo lerroetan jarrera xume, arrenkari, lausengaria hartzen du²⁴; diplomazian menekotasun formula da, alegia, erregearen duintasuna maila altuago batean dago eta oradoreak gutuna hasi baino lehen, printzipio hau onartu du. Honegatik, Leizarragaren tonuan begirunea somatzen da, eta, gainera, irakurleen parte hartzea eragiten du apostrofearen bitartez²⁵. Bigarren pertsonaren eta subjuntiboaren erabilerak erregearen inplikazioa bilatzen du. Gaur egungo teoria linguistikoan errekurto honi hizkuntzaren funtzio konatibo edo deigarria deitzen zaio:

«gure affectione guciaz othoitz eta supplicamendu eguiten drauçugu, launa: nahi duçun, othoi, ikussi eta ençun»,

begirunea bokatiboa

apozizioa

«eta sporçu dugu, ecen oraindrano gure causá eçagutu gaberíc»,

Erregearenganako borondate ona erakusten du: ez da beldur eta, are gehiago, konfidantza du. **Exordio**aren ezaugarri bat otzantasuna zela oroitu behar dugu. Eskutitzaren **dispositioa** argi ta garbi agertzen zaigu²⁶. Hiru ardatzetan finkatzen da:

²⁴ Ciceronek diskurtso forenserako tonu hori aholkatzen zuen. Ikusi: ARTAZA, E.: «Cicerón: De Inventione» in *El ars narrandi en el Siglo XVI español*, Univ. de Deusto, Bilbao, 1989, 42-49 orr.

²⁵ Bice Mortara Garavellik holan definitzen du: «Esta concepción del apóstrofe prevé la situación típica del orador que habla ante un juez en un proceso o ante una asamblea: el comienzo de la primera catilinaria ciceroniana es un caso ejemplar de apóstrofe». *op. cit.*, 306. or.

²⁶ «Es claro que, para cada caso, la *dispositio* requiere una forma estilística apropiada, es decir, una *elocutio* que unas veces será sencilla, otras sutil, otras edificada de tal manera que sea capaz de apuntalar eficazmente la estrategia del discurso». FORADELLAS: *Diccionario de Retórica, crítica y terminología literaria*, Ariel, Barcelona, 105. or.

1. Helburua aipatzen du:

«complituqui informatua çarençat».

2. Eta helburua justifikatzen duen arrazoinamendu erlijiosoa:

«gure fedeazco Confessione»²⁷

«gure defendagarri eta emparagarri, Confessione haur bera asco içanen dela»

3. Akusazioei aurre egitea:

«gure condemnatzez berce eguitecoric vkan ezutenéc, gure contra erran dituzten gaizqui eta diffamazione orotaric».

Arerioen esanek badute lekurik zeren eta bere alderako argumen-toak izatera pasatzen bait dira: erran dutena difamazioa da, beraz, indargeturik geratzen da.

Egituraketa hau hipotaktikoa da, hots, irakurleak egin lezakeen interpretazioari mugak ezartzen dizkio dagoeneko argumentuak ordenaturik eman dituelako; haien arteko harremanak ikustera behartzen du eta hasieran irakurleak zeuzkan aurre iritziak gutxitzen ditu. Erretoriko grekorromanoek prozedura hau estimatzen zuten jendea limurtzeko.

Aurreko esaldietan tonua kexuzkoa izan arren, idaztanka erlajatu, moderatu du; baina orain semantikan tentsotu egingo du; «protesta» aditzak konnotazio berriak dakartza:

«ecen eguiazqui eta frangoqui protesta ahal deçaquegu, launa».

apozizioa

Hala ere, Leizarragak ez du demagogiarik erabili eta ez du inor konkretuki salatu; bere defentsa tesi batean oinarritzen da: protestanteek ez dute erregearen aurkako ekintzarik egin. Bi mutur agertzen dira:

²⁷ «Fedeazco Confessione» publikoki simesmen ebangelikoak onartu zituenaren aitordenari esaten zitzaion.

Protestantismoaren barnean korrante kalvinista oso indartsua zen xvi.mendearen. Frantziako kalvinistei «hugonote» deitzen zieten. Jean Calvinoren jarraitzaileek uste zuten bi sakramentuk baino ez zutela balio, (bataioa eta jaunhartzea), salbamendurako sinesmen eta fede hutsa nahikoa zela eta santuak baztertu behar zirela (bakarrik Jesukristo, Jaungoikoan sinesten zuten). Hau zela eta, Calvinismoak Ebangelioaren egia zeloz aldarrikatzen zuen.

Testu inguru honetan ulertu behar dugu zergatik Leizarragak denbora osoan «doctrina pura», «puritatearen araura» eta antzerako sintagmak erabiltzen dituen eta zergatik «Katoliko» hitza ekiditen duen, (honen ordeez, «Eliça Romano» esatea nahiago du).

erregetza, Estadua	Jainkoa, Ebangelioaren Egia
Politika	— Elijioa
gai publikoa	gai partikularra

Nahiz eta erregea katolikoa den, frogatu nahi du auzi erlijiosoek ez dutela zerikusirik arrazoi politikoekin. Lurrean erregea autoritate gorena da eta berari obediencia zor zaio. Idazleak lege hori onartzen du, horregatik, etsaiek esan dituzten salaketen faltsukeria erakutsi nahi du eta hitz sakratua lekukotzat hartzen du; pisuzko argumento hau araudi erretorikoan **auctoritas** deitzen da²⁸:

«Egen laincoac bere Prophetez eta Apostaluez, eta are Iesus Christ bere seme gure launaren ahoz asco claroqui bere vorondatea declaratu ukan draucunaz gueroz».

Eta aurrera jarraitzen du xuripenak bilatuz eta argumentu oparoez hornituz. Modu honetan edukien adierazkortasuna darabiltzan esamolde ezberdinetatik dator. Hildo honen inguruan gutuna arteztu egiten du. Ideien insistentziak azalpen guztiak uztartzen ditu, hau da, puntu bakoitza hurrengoarekin lotu behar da arrazonamendua borobiltzeko²⁹, esaterako, «Eliça Romano»-az mintzo denean, aurreko periodoan esandakoa sendotzen eta anplifikatzen du xehetasunak emanez.

Bere iritzia argi dago: arazoaren genesisia ez datza kalvinismoan, eliza katolikoan baizik eta bere kontra esan den argudioa itzultetara jartzen du, alegia, Erromako eliza da egiaren bidetik urrundu dena eta, horregatik, ezin dakieke protestanteei ezer lepora:

«Eta ceren Eliça Romanoac, Eliça primitivaco *manerá* eta *costumá* vtctic,
izena izena

manamendu berriric, eta laincoaren cerbitzatzeco *manera* berriric eçarri vkan».

izena izena

Zergatiak zenbatzen dituenean, diskurtsoa luzatzen da, holan, efikazia gehiago eskura dezake autoreak irakurtzen dutenen iritzia aldae-

²⁸ Perelmanek eta Olbrechts - Tyteca oso ondo esplikatzen dute: «A menudo, antes de invocar a una autoridad, se la confirma, se la consolida, se la fundamenta con una prueba válida. En efecto, cuanto más importante es la autoridad, más indiscutible parece su propósito. En última instancia, la autoridad divina supera todos los obstáculos que pudiera oponerle la razón». *Op. cit.*, 474 orr.

²⁹ Perelmanek eta Olbrechts - Tyteca «argumento de conexión» deitzen diote. *Op. cit.* 357. or.

razteko³⁰. Argumentoen luzapen horrek beste elementu bi dauzka; gramatikari begira, **homeoptoton** izeneko fenomenoakausitu dugu eta deklinabide kasuen parekotasunean datza, adibidez: izen + ...rik / -tzen³¹

Horren ondorioz, tonua armoniatsu bihurtzen da. Azken ezaugarri hori bat dator prezepto erretorikoekin: oreka, ertaineko hizkuntz taxukera. Beste errekurtsoa parentesia da:

«(guiçonac bere ethortez baitirade gueçurti eta vano içatera suiet, eta laincoa baita eguia bera)»

Baliabide hau dela medio, **digresioa** sortzen da³². Gai nagusiarekin erlazionatuta egon arren, hausnarketa berri bat dakar, hots, gizonen izaera. Leizarragak egiten duen oharrak kontsiderazio teologikoak gordetzen ditu:

gizona	—	Jainkoa
gezurtia		egia

Bakoitzaren kalitateaz mintzatzean, jerarkia bikoitzaren argumetoz baliatu da. Jerarkian oposatzen diren bi ezaugarri erkatzen ditu: negatiboa - positiboa.

Planteamendu honek edukiak argitzen laguntzen du eta, horrez gain, ez du ukorik egiteko abagunerik ematen konzientziaren aginduei ezin bait dakieke errefutapenik oposa. Gizonen aginduak eta Jainkoarenak elkarren aurka jartzean —politika «versus» erlijioa— Jainkoaren manamenduek lehentasuna dutela ohartu nahi du. Konparazio horretan gizonen legeak galtzaileak dira. Azalpenak xedatzeko metodoa manikeismoan erortzeko arriskuan egon arren, abantaila bat dauka: mezua ulergarria da.

³⁰ «La enumeración o lista (gr. *epemerismos*, de *epimerizo* «distribuyo»; lat. *enumeratio*) es la unión de palabras o grupos de palabras dispuestos en sucesión y unidos sindética o asindéticamente, o mediante coordinación en cualquiera de los modos». MORTARA GARAVELLI: *op. cit.*, 248 orr.

³¹ «(...) es un fenómeno propio de las lenguas flexivas con marcas morfológicas para los casos (flexión nominal) y para la configuración de los verbos (flexión verbal). *Ibid.*, 267 orr. Irakurlea konturatuko denez, euskarak baldintza hori betetzen du eta badago adibide gehiago testuan. Haien artean bat hautatu nahi izan dugu.

³² «La digresión es la separación (*aversio*) del objeto del discurso» (Lausberg 1969: 242) :se abandona momentáneamente el tema que se está tratando y se desarrollan temas concomitantes con el fin de insertar explicaciones, narrar episodios destinados a esclarecer detalles del tema principal, etc». *Ibid.*, 304. or.

Lan honetan askotan esan denez, erredundantzia oso nabarmen dugu; diskurtsoaren azaldukerak berak protestanteak biktimak direla gomutatzen du («aihercunde», «gure contrastéc» dio) eta nozitu duten egoera tamalgarriaren berri ematen du. Berriro ere **evidentia** darabil oso eraginkorra bait da: erregearen konzientzia astindu, bere urrikaltasuna agertarazi nahi du. Zentzumenezko aditzen bitartez, xedea begietaritzen du:

«ecen guc ikusten eta suffritzen dugun gaitz gucia»,

Baina irakurlearen konbentzimendua bilatzeko, gorago jo behar du, alegia, ukatzerik ez dagoen proposizio batera, absolutoki onargarria dena:

«Iesus Christ gure launa dela, gure Saluadore eta Redemptore bakoitza»:

Erretorikan esamolde honi lotura sinboliko izendatzen zaio³³ zeren eta —Kristau guztientzat adierazgarri izateaz gain— bereziki konpromezu ebangelikoa hartu dutenentzat beren sineskera sustraitu egiten du. Beraz, diskurtsoaren barne egituran amankomunean dagoen onarpena eta parte hartzea suposatzen du. Lotura esaten da Jesukristoren irudia argudioak josten dituen haria bait da. Leizarragak ikuspen erlijioso garrantzitsuena bilakarazten du, gutunean oso errekkurrentea delarik. Defentsarako sinbolo iraunkor honek agerraldi gehiago dakar gero ikusiko den bezala.

Hurrengo azalpena bide beretik doa. Argumentazioaren gunen nagusia xehetasunez zabaltzen du³⁴. Hemen tonu apologetikoa antzeman daiteke eta, oratoria sakratuari eta sermoi erlijiosoei badagokie ere, egokia da gutun honetarako Ebangelioaren irakaspenak erregearen gogora ekarri nahi dituelako:

³³ «Por tanto, en la argumentación, es importante saber en qué medida una cosa, y todo lo que toca, está provisto de esta naturaleza simbólica. Ahora bien, dado el carácter indeterminado e indefinido objetivamente del enlace simbólico, hay posibilidad de conferir a cualquier cosa, a cualquier acto, a cualquier acontecimiento, un valor simbólico y de modificar, de ese modo, su significación y su importancia. Tanto más fácilmente se admitirá el aspecto simbólico de un acto cuanto menos plausible sea otra interpretación». PERELMAN Y OLBRECHTS - TYTECA, *op. cit.*, 511 orr.

³⁴ «La **commoratio** (gr. epinomé «insistencia»; lat., además de la denominación principal *repetitio crebra sententiae* «repetición frecuente de un pensamiento») es una insistencia repetitiva en las ideas principales. Esta insistencia puede realizarse mediante una **interpretatio** o paráfrasis interpretativa, que consiste en unir enunciados equivalentes con el fin de esclarecer o de enriquecer una idea que ya se ha expresado (es un procedimiento muy común, al igual que el uso de sinónimos (...)), MORTARA GARAVELLI, *op. cit.*, 271 orr.

«(...) eta haren doctriná dela vicitzeco eta saluamendutaco doctrina bakoitza»

Eta irakurlearen arreta erakartzeko eta suspertzeko asmoz, «lekat», «baicen» elementuek salbuespen kutsua eransten dutenez, Leizarragak egiten dituen baieztapenen garrantzia azpimarratzen eta burutapen horien interesa isladatzen du.

Jarraian testu honetan irudi krudelenetako bat aurki dezakegu. Informazio denotatibo hutsetik urruntzen da mezuaren zehaztasun eta subjektivitatea markatzeko. Latinezko **signa** izeneko errekurtsioak, euskaraz seinaleak, zantzuak adierazten ditu:

«Cerengatic çure suiet gaichoen odolean hambat aldiz borreroéc es-
cuac butchatuac vkan baitituzte».

Irudiaren patetismoa hunkimenduaren zerbitzuan datorkigu. Efektu patetikoak oso gomendagarriak dira eskutitzaren hartzaileak idazlearengana senti ditzakeen gibelasmuak desagertarazteko. Lehen **movere** errekurtsioari buruz azaldu denak kasu honetarako balio du. Baina harritzen duena alusioz³⁵, iradokizunez mintzatzea da; ez du zehaztasunik ematen eta 1559.urtean metafora hau oso esanguratsua bazen ere, denboraren poderioz, iluntasun arazoak planteatzen ditu, hau da, esanari buruzkoa eta esate modu horri gehitzen zaion argibideak eman beharri dagokiona; bi atalak bereizi behar dira, bestela, gaurko irakurleak nekez adituko du inplizitoki gordetzen den hori.

Idazleak protestanteen errugabetasuna azpimarratu nahi du, persekuzioez aparte, odol isurketak egon zirela, injustiziaren frogak ematen ditu.

Leizarragak tonu gogorragoz kritikatzten ditu gizonak. Erkaketaen argumentoaz baliatzen da gizakien balorapena egiteko. Ikusten denez, gaia moralizatzailea da; gizonak berekoiak dira eta ez dira Jainkoaz arduratzen³⁶:

«eta guiçonéc naturalqui laincoaren ohoreaz baino bere aisiáz eta probetchuaz arrangurago dutenaren gainean»,

³⁵ «La alusión (gr. *hypónoia*, «suposición, insinuación»; *synémphasis*, «el remitir»; lat. *significatio*, que traduce uno de los valores de *hypónoia*, «significado simbólico»; *suspicio et figura*) suele definirse como «la alusión velada a lo que no se quiere nombrar abiertamente», (CORTELAZZO - ZOLLI 1979)». *Ibid.*, 294 orr.

³⁶ Bere sasoiako krisialdia, ohituren erlajazioa salatu gura du. Calvinistentzat eliza katolikoa ezezik, gizakia ere ustelkerian murgildurik zegoen. Horregatik gizonek berriz Jainkoari begiratu behar zioten salbamendua eta jatorrizko fede «pura» eskuratzeko.

Hala ta guztiz ere, fedeagatik bizitza galtzeko prest egon diren gizonak goraiipatzen ditu aurrekoen berekoikeriari kontrajarriz. Beren fede-a aitortu eta mantentitu dutenak ausartak eta eskuzabalak dira bizia ematea (= hiltzea) axola ez zaielako. Testuan adjetibazioa urria den arren, agertzen denean giltzarria da, adibidez, «gaichoac».

Lehenengoz, efektu patetikoak bilatzen ditu irakurleak zuritzeko asmoz; bigarrenez, «gaichoa» idazten duen bakoitzean, ez du informazio berririk ekartzen, bakarrik alboko hitza indartzen du eta lexikalizaturik azaltzen zaigu, funtzio adierazkorra betetzen duelarik³⁷. Beste adibideak:

«çure suiet gaichoen odola», «çuc çure suiet gaichoac baithara (...)»,

«çure suiet eta cerbitzari gaichoén conservationera».

«Confessione hunen beraren mantentzeagatic eta on eduquiteagatic bere vicien emaitera dudatu ez tuten gaichoac».

Lehenaldiaz arrazoitu ondoren, orainaldira itzultzen da ea bere eskaerak erregearen begikotasuna esnarazten duen. Tonu xumez bere desioen berri eman gura dio eta, exhortazioaz gain, Enrique II.a laudatzen du, kalitatea aipatuz: «ontassuna». Topiko hau oso erabilgarria izan da erretorikan: **maiestas tua**. Horren eraginkortasuna errepikapean datza; diskurtsoa luzea denez, entzulea adi egotea zaila suerta daiteke. Halako espresioek helburua berrindartzen eta entzuleen oroi-menean iraunarazten laguntzen dute:

«(...) promettatzen duçun ontassunaren araura, çure Maiestateari supplicamenduz guiaizquio misericordia eta gratia haur eguin nahi drauçun, non har deçaçun escutan causa hunen eguitecoa»,

Elocutioaz berba egitean, bozkantza ederretsi behar dituen apaindurak komentatu genituen. Hasiera batetik testua kultismoz josia da-goela antzeman dugu; baita zenbait errekurtsio estilistikoren presentziaz ere jabetu gara. Guzti honek diskurtsoak izatez eduki behar duen egokitasunari erantzuten dio³⁸.

³⁷ LAZARO CARRETEREK **epithetum ornans** dio. *Op. dit.*, 165-166 orr.

³⁸ Mortara Garavellik Ciceronek egin zuen sailkapena aintzakotzat harturik, hauxe dio: «El requisito fundamental de un discurso es que sea apto (que sea conveniente, adecuado, congruente, apropiado) a lo que exigen las circunstancias, los fines de la intervención y las características del tipo o género al que pertenece el discurso. Esta cualidad es la que los griegos llaman *prepón* y los romanos *aptum*: la adecuación, la «conveniencia» o congruencia con los factores externos e internos de la producción del discurso, el que este último sea apropiado para la consecución de los fines prefijados, y, en general, acorde con la situación además de con las reglas». *op. cit.*, 129. orr.

Hiru ezaugarritan datza:

1. hizkuntza lexikoki eta gramatikalki zuzen, garbi izatea (latinoek **latinitas** edo **puritas** esaten zuten);
2. argitasuna: ideiak ulergarriak izan daitezela eta
3. **ornatus** edo edertasuna: baliabide joriez apaintzea.

Trebakuntza erretorikoaren bitartez, argumentazioa ñabartu egiten du. Kasu honetan sinonimia eta anafora darabiltza. Sinonimia sortzen da esanahi bereko bi hitz agertzen direnean. Baliapidearen azpian errepikazioa dago:

«ordu eta oren oroz»

Anafora sintaxiari dagokio; enunziatio baten segmentu edo sintagmetan hitz berberaren hasierako errepikapena da: / X ... / X ...

«batean herioz, bercean accotamenduz, bercean berce moldez iarreiquiac
1 2
 eta persecutatuac içanez»,
3

Anaforak ideien paralelismo sintaktikoa agerian jartzen du, hau da, simetriaren eta orden lojikoaren froga da (Ciceronek **concinnitas** deitu zuena³⁹) baina, era berean, sintagmen artean progresio semantikoak ere sortzen ditu:

1. heriotza - 2. herbesteratzea - 3. jazarkundea

Bakoitzak sufrikarioen irudia proiektatzen duelarik. Estructura hiru-koitzak **congeries** terminoa azpimarratzen du; koordinazioz metatzen diren perpaus baten elementuak definitzen ditu eta diskurtsoaren bizitasuna, zorrotasuna mamitzen du. **Congeriesen** adieraziaren eretzera, erregearekiko adeitasuna eta inplikazioa bilatu nahi du autoreak.

Tonuari dagokionez, berriz gora jotzen du (klimax da):

«Biz bada, othoi, çure Maiestatearen placera, launa»,
 inperatiboa / bokatiboa aposizioa

³⁹ «**Concinnitas**. Elegancia formal obtenida mediante un especial esmero en la *dispositio* (V), prestando atención, sobre todo, a los efectos rítmicos y eufónicos de la prosa. Es el canon fundamental de Cicerón y también de Fray Luis de León». FORADELLAS: *op. cit.*, 74. or.

Baina gehiegikerian erori gabe ezin bait dezake **elocutio** (idaztan-ker) bortxa⁴⁰. Gaur egungo irakurleari tonu biguna erabili duela irudituko zaio, erretorikaren ikuspegitik, ordea, are ezin hobeki adierazi du.

Idazkera sutsuago edo oldarkorragoz oreka apur zezakeen. Hau zela eta, sujeritzea supituki esatea baino gogokoago zuten autore klasi-koek.

Entzulea konbentzitu behar zuten **res** eta **verba** sotiltasunaren menpean ipiniz, apostrofearekin batera, mezuaren hartzailak hunkitzeko prozedimendua darabil: **signa**. «Seinale» hauek eskutitzari eduki metaforikoa atxekitzen diote eta gertaera errealak ixiltzen dituzte, alegia, joku estilistikoan nahasten dira, irakurleok ezin bait dezakegu jakin zein den erreferentzia erreal⁴¹:

«iragan demboretan suz eta marreçanez»

Irakurlearekin animoa zirrarratu nahi du eta hurrengo perpausetan esango dena iragartzen da. Argudio honek hurrengora garamatza biak hertsiki erlazonaturik daudelako:

1. ekintza: «orain laincoaren hitzaz debati eta ireter eraçi deçaçun» [epailea: erregea bera da]
2. objektua: «hunetacotzat segurança eta permissione bethea emaiten duçularic».

Iragana eta orainaren antitesia lehen agertu da eta Leizarragak jarrrera itxaropentsua hartzen duela konfirmatzen du, inplizitoki iraganaren deskripzio iluna ediktoak suposa dezakeenarekin konparatuz. Hain ziur dago ezen erregeari epaile («iuge») izan dadin eskatzen bait dio. Konzientzia garbia daukanaren jokaera da egia eta Jainkoa bere aldekoak direlako.

⁴⁰ Horrela mintzo da FORADELLAS **elocutio**ari buruz: «La operación fundamental de la *elocutio*, al decir de Barthes en *La antigua retórica*, es la elección de las palabras (*elocutio*), seguida inmediatamente de su combinación (*compositio*)». *Op.cit.*, 166. or.

⁴¹ «(...) de ahí la utilidad excepcionalísima que tienen para la elocuencia las insinuaciones, alusiones y cuantas formas elípticas de decir despiertan, suscitan o sugieren en el ánimo de las circunstancias ideas que no suenan, y que formalmente quedan omisas en el discurso, aunque en verdad lo integran y de modo positivo contribuyen a su eficacia». LAUSBERG: *Manual de retórica literaria*. Gredos, Madrid, 1966, 256. orr.

Seinale hauek errealitatearen aipamena badira, errealitate hori Mauroisek dioenarekin erlazona liteke: «El rey retiró su protección y las hogueras se encendieron. La crueldad humana es ingeniosa. Los condenados eran abrasados a fuego lento, a fin de hacerles sufrir más tiempo. El propio Rey aceptó tomar parte en una procesión alrededor de las hogueras. Los bienes de los herejes fueron confiscados y recompensados los denunciantes». *op. cit.*, 161 orr.

«(...) ecen gure innocentia ren eta hoguen - gabearen iu ge cu ceuror



ıçanen çarela».

Hemendik aurrera eskutitzaren bigarren partea hasten da argumen-tuen aurkezpenari dagokionez. Jabetzen bagara, beste eduki bat aurki dezakegu eta zera da: 1) iraganeko gertaeren kontaketa bukatzea eta 2) etorkizunari begira, idazleak erregeren borondate onari hots egitea. **Inventio**ren bigarren atala dela esango genuke⁴². Bereizketa perpausa berdinak markatzen du:

— lehenengo lerroetan:

1. «eta sporçu dugu (...)»
2. erregearen ezjakintasuna:
«ecen oraindrano gure causá
eçagutu gaberik»,

— oraingoan:

- = «eta confidança dugu (...)»
erregeak badaki:
«eçaguturik nola eztén hemen
eçeinere heresiaric ez rebellioneric: (...)»

Esaldiaren errepikapenak edukien hartuemana trinkotzen du hasie-ratik funtzio komunikatiboa martxan jarritz⁴³. Estructura sintaktikoaren dikotomia testuan nabarmentzen da eta sintagma bimembreak darabil-tza argumentazioaren bi ardatzak azpimarratzeko: Jainkoa - erregea. Idazleak hitzen disposizioa eta periodoan proposizioen uztardura egoki-ro kokatzen ditu.

Egitura beren beregi xedatu du azpimarragarriak diren ideiak era-kusteko, adibidez, distribuziozko ezeztapena agertzen da, hala, plan-teatuko dizkioten oztopoak aurreratzen ditu eta, honen ondorioz, in-dargabetzen ditu:

«eçaguturic nola eztén hemen eçeinere heresiaric ez rebellioneric»
ezeztapen ezeztapen erlijioa ezezt. politika

⁴² «La *inventio* concierne a la búsqueda de la *res* que deben ser expuestas en *verba* por medio de la *elocutio*: res como dice Barthes siguiendo a Quintiliano, no son «las co-sas», sino los contenidos, los materiales que es necesario descubrir o hallar, porque, como observa con justeza el mismo crítico en *La antigua retórica*, B.1.1., para la mirada de la retórica todo existe ya, sólo hace falta encontrarlo; (...)». FORADELLAS: *op. cit.*, 219. or.

⁴³ «Con ayuda de estas técnicas, el orador puede incluso guiar al auditorio de forma extremadamente eficaz hacia lo que quiere que admita. Asimismo, Auerbach ha subra-yado con razón el carácter estratégico de la construcción que establece relaciones preci-sas entre los elementos del discurso y que se ha calificado de hipotáctica. A esta última, se opone la construcción paratáctica, la cual renuncia a todo enlace preciso entre las partes». PERELMAN y OLBRECHTS - TYTECA, *op. cit.*, 253 orr.

Edo beste hau:

«laincoa bere manamenduén araura cerbitzatzuz, eta çure Maiestatea obj. zuzena 1.º aditza koordinazioa obj.zuzena obedia eta suiectione orotan ohoratuz». koordinazioa 2.º aditza

Bere asmoa ez da bakarrik konbentzimendu hutsa, hizkuntz trebeziak eta doitasunaz arduratzen da. Beste aldetik, arrazoinamenduak zirklikoki errepikatzen dira, etengabeki bi hariak nahasten ditu: kausa erlijiosoak eta erregerari egindako apelazioa. Modu honetan gutuna luzatzen eta aberasten da. Egia da Ciceronek aholkatzen zuen **breuitas**en erregela apurtzen duela, baina gomutatu beharrea gaude gutuna idatzi aurretik egoera politiko eta soziala ez zela protestanteen aldekoa; beraz, laburki azalduz gero, ez zukeen sinesgarritasunik lortuko:

«Eta ceren [laincoaren hitzaren predicationeaz,] bay laincoaganaco eta txertakia bay çureganaco (...) retenitu eta eduqui behar baicarade»:

Erregearen arreta erakartzeko topikoa:

«gure affectione eta ahal guciaz othoitz eta supplicamendu eguiten drauçugu, launa, (...)»

Perifrasia edo «**circunloquio**»aren bitartez irakurleak ezagunak dituen kontzeptuez dihardu. Edukiari begira, askotan ez dira beharrezkoak ez bait dakarte informazio berririk:

«cembait orduz elkargana biltzera cilhegi garen, hambat laincoaren hitzaz

1

haren beldurrera exhortatu içatera, [nola Iesus Christ gure launac berac

2

circunloquio

bere Eliçan ordenatu dituén], Sacramenduéz confermatu içatera «.

3

Txertaki trimembrek edo hirukoitzek **amplificatio** azaltzen digute. Mekanismo honek ideiak, hausnarketak barreiatu, zabaldu egiten ditu

eta, aldi berean, hartzailearekiko desadostasuna samurtuz doaz (gogora dezagun limurtzea bilatzen dela)⁴⁴.

Lehen gertatu den legez, fenomenoak berak bi planutan diskurtsoa trebatzen du, hau da, baldintzazko perpaus baten baieztapena eta jarraian ezeztapena erabiltzen ditu.

Baldintzak Leizarraga hainbeste argumentoaren artean tentuz mugitzen dela adierazten du. Tonu iradokiorra baliogarriagoa da:

1. «Eta baldin çure Maiestatearen placera bada, (...) ikuste berac baldintza baieztapena defendaturen gaitu, (...)»

Kontrakoan eragozpenak kontutan hartzen ditu horien planteamendua gaizkoatzeko. Sistematikoki batzuen eta besteen kalitateak oposatzen ditu protestanteak onbidetsuak direla demostratzeko. Komenei zaiona kontatzen du:

«(...) enormitatezko eta beilhaqueriazko accusatione falsuetaric: ceren hetan ezpaitu nehorc modestiaric eta honestitateric baicen ikusiren, (...)».

2. «Eta baldin çure vorondatea ezpada, launa, (...) ezpere permetti bequigu baldintza ezeztapena othoi, (...)».

Periodo honetan antiklemax dagoela argi ikusten da: laburra, txertaki gutxi; Leizarraga tinko dago bere iritzian, baina badaki esakera leundu behar duela bere erregua sinesgarri suerta dadin.

Amaiera hurbilduz doa eta bi ohar gehiago egiten ditu. Lehenengoan diskurtso epidiktikoari dagozkion elementu batzu kausitu ditugu. Diskurtso epidiktikoa gorapamenean, gorazarrean datza; pertsona baten karakterizazioa deskribapenez egiten da. Idazleak hiru kalitate azpimarratzen ditu erregearen arreta erakartzeko eta, horrez gain, bere aurrean makurtzen da, alegia, suplikatzen dio (mekanismo honen azpian apaltasun faltsuaren topikoa legoke, noski):

⁴⁴ «En las enumeraciones (cfr.2.17:[16]) se pueden conseguir efectos de lentitud progresiva y rítmica y de 'alargamiento' del último miembro: produce un agradable efecto oratorio (familiar en la lengua literaria) porque corresponde a una exigencia precisa del llamado «orden natural» de la *dispositi*: la colocación de los miembros de un discurso en progresión, desde el más breve al más largo (cfr. 2.8.)». MORTARA GARAVELLI: *op. cit.*, 212. or.

«(...) orain presentatzen, çaiçun supplicatione haur iracurtzen dançuçuncaŧ, ecen çure suiet contuz eriden ahal leiten baino guehiagoren auhenac eta suspirioac (...)»

┌───┐
| |
└───┘
sinonimia

Erregearen irudia eredu gisa eratu du Leizarragak:

«othoitzez çure misericordiac iraungui nahi dituen, çure iugetaric

1

anhitzen crudelitatez çure Resumaco su viztuac: halaz çure
Maiestatea cerbitzaten dugula, çu dignitate eta handirassun

2

3

horretan eçarri çaituen launaren cerbitzatzera haiçu garençat.»

Bigarrean, lotura sinbolikoaren agerpenak diskurtsoa bukatzeaz dagoela adierazten du. Argumentazio teologikoa argigarria da: Jainkoa autoritate goren da eta bere aginpean Frantziako erregea dago. Baina erredundantea da ez bait du ezer berririk ekartzen. Enunziazioaren modua sintagma bikoitzek mardulago bihurtzen dute eta esan duena errepikatzen du⁴⁵:

«Eta baldin gure minçoari behatu nahi ezpaçaizquió, beha çaquizquio
lancoaren Semearenari, ceinec gure onén, gorputzén eta vicien - ere

1

2

3

gainean puissança çuri emanic, galdeguiten baitrauçu, gure arima bere
odolaz erossien gaineco puissança eta inurgoá hari reserva eta lekat

1

2

1

2

daquió».

Azkenengoz, **peroratio** datorkigu. Atal honek eskutitzean azaldu diren arrazoiak, argudioak laburtzen ditu. Bilketa hori, berez, bukaeraren topikoa da eginiko formulak bait dakartza oratoria garapean topikoak edozein diskurtsorako balio du; arrunta eta orokorra da bakarrik pertsonaren —edo objektuaren— izena aldatzearekin nahikoa delako, aditzak, adjetiboak eta besteak leku berean mantentzen dira.

Erregearen goraipamena eta zoriona opatuz:

⁴⁵ «La repetición. Los estudios actuales de lingüística textual la consideran una de las relaciones sintácticas en las que reside la cohesión del discurso. (...) Los efectos de la repetición de palabras, ya sean deliberados y con un propósito concreto, ya inconscientes, son objeto de la investigación lingüística y psicológica». MORTARA GARAVELLI, *op. cit.*, 212 orr.

«çure adinarequin çure handirassuna eta puissança emendatuz,
 çure etsay oren gainean victoria emanez,
 iustitia orotan bethi çure Maiestatearen thronoa confirmatuz,
 bere Spirituaz ardura goberna eta guida çaitzala:»

Nahiz eta egitura hirukoitza izan eta **isocolon**aren ohiartzunak eriden⁴⁶, badirudi gainontzeko sintagmetan bikoitzak dituela. Aurkeztu diren argumentoen enunziazioa bikoteka egitean, lehen esandakoa aprobetxatzen du⁴⁷ errepikapen honek arrazoi psikologikoak kudeatzen dituelarik.

Hain zuzen ere, **peroratio**aren bigarren funtzioa hunkimenduen higikera («movimiento de afectos» erdaraz) da. Hauetatik **conquestio**⁴⁸ izenekoa darabil entzule edo irakurleen sentimendu gupidatsuak mugierazi nahi bait ditu proposamenei abegi ona egin diezaieten. Azken periodo honetan esaldiak **polisindeton**aren bitartez lotzen dira (koordinazio populatiboa bakarra da):

«(...) eta guri-ere harc berac çure aitzinean gratia eriden eraci
 dieçagula othoi (...) supplicatione hunetarie sendi ahal deçagun,
 gure penac eta afflictioneac ... passutara eta libertatera ...
 gure nigar vrriac-ere cambia ahal ditzagun ... esquer eta laudorio
 ... lehenic laincoari eta guero çure Maiestateari, ... haren
 vorondate sainduari eta çure ontassunari eta eguimbideari
bay-eta çure suiet eta cerbitzari gaichoén ... behar eta
 necessario dena.»

⁴⁶ «El **isocolon** o **parísisis** (gr. *isókolon* de *ison*, «igual» y *kôlon*, «miembro»; *párisson* «casi igual, correspondiente» [schêma], traducido al latín como *compar / exaequatum membris* [schêma] es la equivalencia, en longitud y en estructura sintáctica, de los periodos, de las frases y sus miembros; (...)). *Ibid.*, 264 orr.

⁴⁷ «Argumento del aprovechamiento: se utiliza para inducir a alguien a proseguir una acción ya emprendida o a persistir en una línea de conducta que, si se abandonara o se interrumpiera, provocaría el desaprovechamiento de las energías y de los medios que ya han sido empleados». PERELMAN y OLBRECHTS - TYTECA, *op. cit.*, 110. or.

⁴⁸ «La *conquestio* (o *commiseratio*, en griego *éleos*), «compasión», con la que se logra mover la piedad de los oyentes y provocar su participación emotiva». MORTALA GARAVELLI: *op. cit.*, 117. or.

Bibliografía

- ÁLVAREZ URCELAY, Milagros: *Historia de Navarra*, Kriseilu, Donostia, 1990.
- ARTAZA, Elena: *El ars narrandi en el siglo XVI español. Teoría y práctica*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1989.
- BAINVILLE, Jacques: *Historia de Francia*, Tall. Graf. A. Nuñez, Barcelona, 1943.
- BERTIER DE SAVIGNY, G.D.: *Historia de Francia*, Rialp, Madrid, 1986.
- BOOTH, Wayne Clayson: *Retórica de la ironía*, Taurus, Madrid, 1989.
- CAMPION, Arturo: *Nabarra en su vida histórica*, Ekin, Buenos Aires, 1971.
- CASAS, Elena: *La retórica en España*, Editora nacional, Madrid, 1986.
- COROMINAS, J. y PASCUAL, J.A.: *Diccionario crítico etimológico castellano e hispano*, Gredos, Madrid, 1980.
- Diccionario Retana de Autoridades del Euskera*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1981.
- Diccionario Universal Ilustrada Europea Americana*, José Espasa e Hijos, Barcelona, 1900-1955.
- ESTÉVEZ, Alonso: *Historia de Navarra desde los orígenes hasta nuestros días*, Txertoa, San Sebastián, 1980.
- FORADELLAS, Joaquín: *Diccionario de Retórica, crítica y terminología literaria*, Ariel, Barcelona, 1986.
- GOUBERT, Pierre: *Historia de Francia*, Editorial crítica, Barcelona, 1987.
- GRUPO M: *Retórica general*, Paidós, Barcelona, 1987.
- HERRERO BLANCO, Angel L.: *Signo / Texto (de gramática a retórica)*, Universidad de Alicante, Alicante, 1986.
- IBÁÑEZ ARTICA, (Dir.): *Historia de Navarra*, Herper, Pamplona, 1989-1991.
- JOSÉ PRADES, Juana de: *La teoría literaria: retóricas, poéticas, preceptivas, etc.*, Instituto de Estudios Madrileños, Madrid, 1954.
- KLINKENBERG, Jean Marie: *El sentido retórico: ensayo de semántica literaria*, Universidad de Murcia, Murcia, 1991.
- LAUSBERG, Heinrich: *Manual de retórica literaria*, Gredos, Madrid, 1966.
- LÁZARO CARRETER, Fernando: *Diccionario de términos filológicos*, Gredos, Madrid, 1987.
- LEIZARRAGA, Joannes: *Jesus Christ Gure launaren Testamendu Berria*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.
- LORENZO, Pedro de: *Elogio de la retórica*, Héroes, Madrid, 1969.
- MAUROIS, André: *Historia de Francia*, Surco, Barcelona, 1956.
- MORTARA GARAVELLI, Bice: *Manual de retórica*, Cátedra, Madrid.
- OLAIZOLA IÑIGUIZ, J.M.: *Historia del protestantismo en el País Vasco: el reino de Navarra en la encrucijada de su historia*, Pamiela, Pamplona, 1993.
- PERELMAN, Ch. y OLBRECHTS-TYTECA, L.: *Tratado de la argumentación. La nueva retórica*, Gredos, Madrid, 1989.
- QUINTILIANO, Marco Fabio: *Institución oratoria. Libro décimo*, C.S.I.C., Barcelona, 1947.
- RICO, Francisco: *El sueño del humanismo*, Alianza Universidad, Madrid, 1993.
- SPILLNER, Bernd: *Lingüística y literatura: investigación del estilo, retórica, lingüística del texto*, Gredos, Madrid, 1979.
- STERFELD, R.: *Historia de Francia*, Tall. Graf. Ibero-americanos, Barcelona, 1935.

Enseiukarrean



Deustuko
Unibertsitatea

• • • • • • • •